


# HIZKUNTZ BORROKA EUSKAL HERRIAN



EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIA

**HIZKUNTZ  
BORROKA  
EUSKAL HERRIAN**

*Informea: SIADECO taldeak  
Laburpena: Martin Ugaldek  
Itzulpena: ELHUYAR taldeak*

AIC      ST 1/20/81

Depósito Legal: BI-407 - 1979  
I.S.B.N.: 84-300-0505-6  
Imprenta Industrial S. A. Bilbao  
Alda. Mazarredo, 57-61

© Euskaltzaindia R.A.L.V.

Liburu hau  
EUSKALTZAINDIAREN eraginez  
SIADECO taldeak egina eta  
LANKIDE AURREZKIAK finantziatua izan den  
"Euskararen Soziolinguistika Azterketa"  
ikerketaren laburpen bat da.

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	13
ESTUDIOAREN HELBURUAK.....	13
OINARRIZKO DEFINIZIOAK.....	15
1. Area linguistikoak.....	15
2. Euskaldun eta erdaldun.....	16
3. Elebitasuna.....	17
TALDE EGILEA.....	19

### 1. ZATIA

#### EUSKARAREN ORDEZKAPEN-PROZESUA GAZTELANIAREN BIDEZ

1. Kapituluua.—AREA GAZTELANIAZTATUAK.....	23
LEHENALDI URRUNENA.....	25
Bizkaian.....	26
Araban.....	26
Nafarroan.....	27
Ipar Euskadin.....	28
Ondorio sozio-linguistikoak.....	29
ATZERAKETAN ZERIKUSIA DUTEN FAKTOREAK.....	29
Hirien sorrera.....	31
Kanpoarekiko komunikazioa.....	32
Euskal nobleziaren Gaztelarekiko lotura.....	32
Agintariak: ofiziale errealak.....	34
INPOSAKETAREN ETAPARIK ADIERAZGARRIENAK.....	35
1. Erdi haroaren bukaeran: XIII. mendea.....	35
2. Austriak (XV. mendearen bukaeran).....	35
3. Borboiak (XVIII. mendea).....	35
4. Foruen abolizioa (1839 eta 1876).....	36
5. Diktadura frankista (1936-1975).....	36

6. Postfrankismoa (1976.etik aurrera).....	37
Ondorioak .....	37
2. Kapituluua.—UKIPEN-AREAK.....	39
METODOLOGIA (AZTERKETAREN PLANTEAMENDUA).....	41
Estudioaren hesparrua (bertako areak).....	41
Prozesuak (nolakoa) .....	42
ORDEZKAPEN-PROZESUAREN MEKANISMOAK.....	42
1. Faktore sozio-politikoak.....	43
2. Faktore sozio-ekonomikoak.....	44
3. Faktore instituzionalak .....	45
4. Faktore psiko-sozialak .....	47
ERAGINA ZONETAN .....	50
Galeraren faktoreak .....	51
Hizkuntz aldaketaren aurkako erresistentzia eta berreskuratzearen faktoreak .....	53
TESTIGANTZA PERTSONALAREN EDO HISTORIAREN MAILAN .....	54
1. Euskara galdu duten pertsonak.....	54
2. Euskara ikasten ari diren pertsonak .....	54
3. Kapituluua.—HIRIGUNEAK (PROBINTZIAKO HIRIBURUAK) ....	57
1. Euskararen presentzia bizitza publikoan .....	57
2. Euskararen presentzia Erakundeetan .....	58
3. Euskararen presentzia famili biritzan.....	59

## 2. ZATIA

### EUSKARAREN KONTSERBAZIO-PROZESUA; EGOERA DIGLOSIKOA

Sarrera.....	63
INKESTAREN ERAKETA ETA AURKEZPENA.....	64
Area euskalduneko populazioa .....	64
Oinarriko informazioaren trataera .....	64
Erakuskari adierazgarriaren prestakuntza .....	65
Galde-sortaren eredia .....	66
Erantzunen balorazioa eta emaitzen zabalkuntza.....	67
EUSKARAREN EGUNGO EGOERA AREA EUSKALDUNEAN .....	67

FAMILIA INKESTATUEN EZAUGARRIAK .....	69
1. Kapituluua.—EUSKARAREN EZAGUERA-MAILA AREA EUSKAL-DUNEAN .....	73
Zona euskalduneko euskal-familiaren egoera .....	74
Euskal areako familia erdaldunen egoera.....	77
2. Kapituluua.—EUSKARAREN TRANSMISIO-PROZESUA .....	83
1. FAMILIA EUSKALDUNAK .....	84
EUSKARAREN IKASKETA.....	84
Euskara berreskuratu dutenak.....	86
EUSKARAREN EZAGUERA GURASO ETA AITON-AMONENGAN.	88
Euskararen ezaguera gurazoengan.....	88
Euskararen ezaguera aiton-amonengan.....	90
Familiako giroa euskararekiko .....	90
INGURUNE SOZIALAREN ERAGINA TRANSMISIO-PROZESUAN	91
IRITZIAK ETA JARRERAK TRANSMISIO-PROZESUARI BURUZ	92
2. FAMILIA ERDALDUNAK .....	94
TRANSMISIO-PROZESUA ETA FAMILI INGURUGIROA .....	96
TRANSMISIO-PROZESUAZ DAUDEN JARRERAK ETA ERITZIAK	97
3. Kapituluua.—EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA .....	99
1. FAMILIA EUSKALDUNAK .....	99
EUSKARAREN ERABILPENA-MAILA HITZEGITERAKOAN .....	99
Euskararen erabilpena harreman pertsonaletan.....	99
Famili giroan.....	100
Telefonozko elkarrizketak.....	100
Famili girotik kanpo.....	101
EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA IRAKURTZERAKOAN .....	101
Euskarazko irakurketarako eragozpenak .....	103
EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA IDAZTERAKOAN .....	103
Idaztean erabiltzen den euskara-moeta.....	105
2. FAMILIA ERDALDUNAK .....	108
Euskararen erabilpenari buruzko egiaztapena .....	108
Euskararen erabilpena erakundeetan .....	109
Euskararen erabilpenari buruzko iritziak .....	109

4. Kapituluua.—ELEBITASUN-HARREMANAK .....	113
1. FAMILIA EUSKALDUNAK .....	113
BI HIZKUNTZETAN MINTZATZEKO ERRAZTASUN HANDIAGOA ALA TXIKIAGOA .....	114
BI MINTZAIKAK ERABILTZEKO OHITURA .....	115
Mintzairaren erabileran eragina duten fakto reak .....	115
EUSKARA ETA LANBIDE-KATEGORIAK .....	116
1. Euskararen ezaguera kategoria sozio-profesionalen arabera ..	116
2. Euskararen erabilpen-maila kategoria sozio-profesionalen ara- bera .....	118
Mintzairaren lehentasuna elebidun textu baten aurrean .....	121
ELEBITASUNARI BURUZKO IRITZIAK .....	122
ELEBITASUNAREN APLIKAZIO-ARLOAK .....	123
1. Irakaskuntzan .....	123
2. Administrazio publikoan .....	124
3. Komunikabide sozialetan .....	126
4. Zerbitzu publikoetan .....	127
2. FAMILIA ERDALDUNAK .....	128
Elebitasuna irakaskuntzan .....	129
Elebitasuna administrazio publikoan .....	131
Komunikabideetan .....	132
Elebitasuna zerbitzu publikoetan .....	133
5. Kapituluua.—KULTURIZATZE-PROZESUA EUSKARAZ .....	135
1. FAMILIA EUSKALDUNAK .....	135
EZAGUEREN ESKURATZEA EUSKARAZ .....	136
KOMUNIKABIDEEN ERAGINA KULTURIZAZIO-PROZESUAN .....	137
EUSKARAREN EGOKITASUNARI BURUZKO IRITZIAK .....	140
2. FAMILIA ERDALDUNAK .....	141
EUSKARAREN FUNTZIO KULTURALA .....	142
Euskararen ahalbide teorikoak .....	143
Hartu beharreko neurriak .....	143
6. Kapituluua.—EUSKARAREN IRUDIA ETA BALORAZIOA .....	145
1. FAMILIA EUSKALDUNAK .....	145
— EUSKARAREN BALIOARI BURUZKO IRITZIAK .....	147
— EUSKARAREN ETORKIZUNARI BURUZKO IRITZIAK .....	149



— BERRESKURATZEARI BURUZKO IRITZIA, ETA HARTU BEHARKO LIRATEKEEN NEURRIAK .....	150
— JARRERA PERTSONALA EUSKARAREN BERRESKURATZEARI BEGIRA .....	151
2. FAMILIA ERDALDUNAK .....	152
EUSKARAREN BALIOARI BURUZKO IRITZIAK .....	152
EUSKARAREN ETORKIZUNARI BURUZKO IRITZIAK .....	154
BERRESKURATZEAZ ETA HARTU BEHARKO DIREN NEURRIEI BURUZKO IRITZIAK .....	155
EUSKARAREN BERRESKURATZEAZ DAUDEN JARRERA PERTSONALAK .....	156

### 3. ZATIA

#### EUSKARAREN BERRESKURATZE-PROZESUA: NORMALIZAZIO LINGUISTIKORANTZ

Sarrera .....	161
1. Kapituluua.—EUSKARAREN BERRESKURATZE-PROZESUA IRAKASKUNTZAN .....	163
IKASTOLAK ETA EUSKARAREN BERRESKURATZE-PROZESUA ..	164
Ikastolak zentru gisa .....	165
Ikaslegoaren eboluzioa .....	165
Ikasleen etorki soziala .....	166
Irakaslegoa .....	167
Alderdi ekonomikoak .....	167
EUSKARA ZENTRU PRIBATU ETA OFIZIALETAN .....	168
Euskara zentru pribatuetan .....	169
Euskara zentru ofizialetan .....	171
EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE-MUGIMENDUA .....	171
2. Kapituluua.—EUSKARA KOMUNIKABIDEETAN (AHOZ ETA IZKRIBUZ) BERRESKURATZEKO PROZESUA .....	175
EUSKARA ETA KULTURA IDATZIA ARGITALETXEETAN .....	175
Euskal editorialak .....	176

Euskal editorialak eta liburuen produkzioa .....	177
Euskal editorialak eta produkzio-aparatua .....	178
Euskal editorialak eta merkatua .....	178
Euskal editorialak eta kultur politika .....	179
Euskara batua ala ez, eta itzulpenak .....	180
ALDIZKARIAK .....	181
Aldizkari zientifikoak .....	181
Aldizkari literarioak .....	181
Erlijiozko aldizkariak .....	182
Kultur aldizkariak .....	182
Kazetaritza .....	182
EUSKARA IRRATIAN ETA DISKOGINTZAN .....	183
EUSKARA IRRATIAN .....	184
1. fasea: Folklore eta baserritar-maila .....	184
2. fasea: Maila diglosikoa gai eta medio mugatuekin .....	185
3. fasea: Elebitasunaren maila, gaietan eta forman euskarari gaztelaniaren maila berbera emanaz .....	185
Euskararen erabilpenaren balorazioa .....	186
Etorkizunari begira .....	187
DISKOGINTZA ETA EUSKARA .....	188
Singleen diskogintzari dagokionez .....	189
L.P. en diskogintza .....	189
ONDORIO GISA .....	191

## SARRERA

Honako hau, Euskaltzaindiak argitaratzea erabaki zuen hiru bildumetarik bigarrena da.

*Lehenengoa Euskararen Liburu Zuria izan zen.*

*Lehenengo liburu hori, hizkuntza bere osoan aztertzeko lehen materialak biltzeko burutua izan zen. Aztertuak izan ziren, orobat, hizkuntza-ren funtzio sozio-politiko eta historia; euskararen bizitza historikoan, eta bere bilakabidean zehar eraginik izan duten gertaera politiko, ekonomiko-sozial, etniko, sozio-kultural, politiko-administratibo eta juridiko-legalak; eta orain artean projektaturiko Estatutu desberdinetan zehar euskarak jasotako babesa; aipatuak izan ziren, baita ere, konparaziorako helburuaz, problematika linguistikoak beste herrialdeetan jasotako tratamenduak; eta, azkenik, elebitasunaren fenomenoari buruzko azterketa batez osatzen zen liburua.*

*Hamasei laguneko espezialista-talde batek idatzia izan zen bere osotasunean, Koldo Mitxelena-ren "Sarrera-lan" garrantzitsua barne zelarik.*

*Bigarren bilduma hau, aldiz, bukatu berria den azterketa sozio-linguistiko baten fruituak jasotzera dator.*

*Hau ere espezialistek egina izan da, metodo zientifikoei atxikituz. Hurbilketak eta subjektibotasunak alde batera utzi behar ziren, bai arioren aldetik eta orobat nahitaez partziala zitekeen gure aldetik.*

*Euskaltzaindiak onartutako projektuak helburu general batzuta dituzte, eta beste zenbait partzial edo sektorial.*

1.—*Helburu generalei dagokienez:*

a) *Ikaszaileei eskuragarri litzaziekeen datu-banku batera zuzendutako informazioaren sorketa eta bilketa: linguista eta ikertzaileei egokituia, eta irakaskuntza eta kazetaritzan diharduten profesionalei oinarrizko informazioa eskuratuko liekeena.*

b) Lanari ezaugarri zientifiko oso garbia ematea (interpretazio subjektibora hain arriskubera den sozio-linguistikaren alorrean batez ere), hasierako eskema teorikotik aurrerantz erabilitako metodologian eta datuen tratamenduan. Arreta bereziz gorde nahi izan da, baita ere, analisian zehar erabilitako kontzeptuak gardenak izatea.

Adibidez, oinarrikoak izanik sarritan era anbiguo eta nahasgarrian erabiltzen direnetan: "Hizkuntzen arteko ukipen-arazo linguistikoa", "Ordezkapen linguistikozko prozesua", "Elebitasuna eta diglosia", "Berreskuratze eta normalizatze linguistikozko prozesua". Euskarari buruzko azterketetan sarri erabili izan den zenbait kontzeptu ere jorratu da, adibidez: "area linguistiko", "euskaldun eta ez-euskaldun", "alfabetismo eta analfabetismo". Zuhurtasun honek batzuren balioa eta besteen eraginkortasuna eztabaidatzera eraman gaitu.

## 2.—Helburu sektorial edo partzialei dagokienez:

a) Euskararen atzeraketa edo galtzeari buruz, eta gaztelaniak ordezkatzeko prozesuari dagokionez, garrantzitsua da ondoko zera ezagutzea: 1) fenomeno nola gauzatzen den; 2) zeintzu izan diren fetxa eta gertakizun adierazgarrienak, eta beraien ondorio sozio-politikoak; 3) zeintzu izan diren eragina izan duten faktorerik esanguratsuenak; 4) eta zeintzu, azkenik, hartatik sortu diren erresistentzi faktoreak.

Hau dena, noski, gaztelaniaztapenerako bideak ireki dituen koadro generalaren barnean.

b) Euskararen kontserbazio-fenomenoari dagokionez: 1) euskararen ezaguera-mailaren araberrako egoera bere zabalean ezagutzea; 2) gurasoengandik semeenganako transmisio-prozesuaren funtzionamendua aztertzea; 3) erabilpen-gradua eta era desberdinak ezagutzea; 4) kulturizazio-prozesua euskaraz; 5) beste hizkuntza batzurekin alderatuz gero, euskarari buruz zer iritzi duten ezagutzea..

Kapitulu honetako material guztiak ere Datu-Bankuan sartu dira.

c) Gaur egun nabari diren berreskuratze-aztarnei dagokienez; 1) ikastolen egoera eta bilakaera; 2) irakaskuntzaren egoera ikastetxe pribatu eta ofizialetan; 3) Alfabetatze eta Euskalduntze-eskoletako (gaueskolak) eskarmentua.

Estudio honek zentzuzko politika bat lantzen lagun dezake arras desberdinak diren bi alorretan: euskararen irakaskuntzarenean eta euskarazkoarenean. Aztertua izango da, orobat, liburu-produkzioaren eta aldizkako argitarapenen gradua, irrati eta telebistazko emankizunena, diskogintzarena..., gaur egun jasaten dituzten problemak eta etorkizuneari izan ditzaketen hazkunde-posibilitateak ezagut ditzagun.

Ezagutza horrek masa-komunikabideek jendartean duten harrera ulertzen lagunduko digu, eta etorkizunerako plangintzan izan dezaketen garrantziaz jabetzen.

## OINARRIZKO DEFINIZIOAK

*Definizioak, egindako estudioaren fruitu gisa ari gara ematen, baina estudioari berari liburu honetan aurrea hartuz, irakurlea zenbait terminotan gidatzeko helburuaz. Termino hauek, izan ere, euskararen kasuan, orain arte era nahasgarrian eta gutxienez ere zalantzagarrian erabili izan dira.*

*Beren konplexutasunagatik, batez ere.*

### 1. Area linguistikoak

*Orain arte honelako izenak (eman izan) dira: 1) area edo zona ez-euskalduna, euskara galdu deneko zona; 2) area edo zona euskalduna, gorde deneko zona; 3) ukipen-zona edo area, bien artean aurkitzen dena.*

*Aski sinpleak diren hitz hauek denek, bilakatuz eta zenbait garaitan atzeratuz joan diren bloke trinko batzu adierazten dituzte nolabait.*

*Erizpide honekin hasi zen ikerketa hau ere. Baina laster konturatu ginen adierazpide hauek ez zutela balio gaur egun gure herriko area geografiko desberdinetan berreskuratze-prozesuak eragindako egoeran. Euskaldunen eta ez-euskaldunen banaketa ez dator bat orain arte onartutako zona linguistikoekin, bai baitira euskaldun berriak, bai Bizkaiko Enkartzioetan, bai Arabako Lautadako lurraldeetan, bai Lizarra eta Nafarroako Erribera inguruan.*

*Apurtu dira, bada, eta gehiago apurtuko aurrerantzean, molde zaharrak.*

*Bestalde, tradizionalki euskaldunak izan diren zonak inmigrazio-maila garaiak eragindako higadura linguistiko bat jasan behar izan dute eta, ondorioz, beraietan euskaldunen proportzioa beheratu egin da.*

*Balantzea negatiboa da: euskaldunen portzentaia jaitsi egin da, inmigrazio bortitz honek eraginda eta baita ere Irakaskuntza, Administrazio eta Komunikabideek bultzatutako higadura-prozesuaren azelerazioak horretaratuta. Denak egon dira ofizialki gaztelaniaren zerbitzu soilean.*

*Guzti honek, azken batez, orain artean egokitutako zonifikatze linguistikozko kontzeptua berraztertzeraz garrantzitsua. Bestela estatikoa eta ankilosatu gertatzen bait zaigu bizi dugun errealitate dinamikoa aztertzeke.*

*Horregatik, area edo zona linguistikoak baino prozesu linguistikoak gehiago erabiliko ditugu. Honek ez du esan nahi, behar dezagunean area edo zona kontzeptua erabiliko ez dugunik. Bereiztu egin nahi izan dugu prozesutik, ordea. Prozesu honek alde bietarako norantza ukan dezake: atzeratzea, mantentzea edo berreskuratzea. Kontrako gertaerok, gainera, aldi berean gerta litezke gizatalde berberaren baitan. Hizkuntzaren izake-*

ra, uste dugunez, ezin pentsa liteke inoiz aldakaitz eta itzulezina denik; aitzitik, etengabeko aldaketa-bideetan barrena dabil, hain zuzen hauzohizkuntzekin ukipenean dagoenaren arabera.

## 2. Euskaldun eta erdaldun

Gure egunotan oso erabiliak diren hitzok, faltsuak ez badira ere, desegokiak eta sinplistikak dira.

Hemen ere badago euskararen ezagueraren araberako mailaketa hedatu eta konplexu bat, eta herriaren euskalduntasun-gradua neurtzerakoan kontutan hartu beharko dugu: hizkuntzaren jakintsuengandik hasiz euskal gramatika ezagutzen dutenak, irakurri eta idatzi zuzen egiten dutenak, zailtasunez ala gabe elkarrizketa bat eramateko gai direnak, ia dena edo nahikoa ulertzen dutenak, zerbait ala oso gutxi ulertzen dutenak, lehen jakin izan zutenak, inguruan euskaraz hitzegiten entzun dutenak ala ez dutenak, jakin ez dakitenak baina ikasteko orduan borondate zerbait edo handia erakusten dutenak, denak daude barneko motibazio horrek ukituta.

Sailketa hau zabalagoa da oraindik eta nabardura batzu oso esan-nahitsuak dira. Elkarrizketetan emandako erantzunak, klasifikatuz joan garen arabera baloratu ditugu beraien esannahian.

Beraz, euskaldun eta ez-euskaldun arteko bereizketa sinplea, azalekoa gertatzen zaigu, ez baitigu laguntzen hizkuntzak duen berreskuratze-ahalmena ulertzen, nabardura horiengan izkutatzen den ahalmen hori aditzen. Horregatik, gure errealtate linguistikoan dauden egoera biziak desberdintasuna ulertuko duen ikuspegi soziolinguistiko batetik enfokatu dugu estudio hau.

Konplexutasun hau, aipatu ditugun zona linguistikoaren egoerarekin loturik dago.

Izan ere, Euskal herria geografikoki zona euskaldun eta erdaldunetan banatzea zuzen ez den era berean ez baita ere zuzen gure herriko biztanleak euskaldun eta erdaldunetan banatzea.

Errealtate konplexu hau bere osotasunean onartu behar dugu.

Zeren eta, inoiz esan izan den bezala ondoko hau berresaten badugu: 1) Euskal herriko zona guztiak ez direla euskaldun; 2) zona euskalduneko biztanle guztiak ez direla euskaldun; 3) euskaldunaren aktibatete linguistiko guztia ez dela euskaraz egiten, zati txiki bat baizik... jakinaren gainean ala ez lortzen dena, euskararen berreskuratzeko ahalmena eta bere erabilpena guztiz murriztea baita. Honela, euskara euskaldun gutxi batzuren bizitzaren hesira kondentzen da, eta hori ere herri osoaren zati minimo bat besterik ez den zona euskaldunean.

Murriztearen murrizteaz, hutsean uzten gaituzte.

Euskara erasotzeko erabil daitezkeen harmak infinituak dira; denak erabili izan dira, eta erabiliko ere, aurrerantzean.

*Eraso eta ingurapen-experientzia luze baten emaitzak dira.*

*Laster gara euskaldunok, Ameriketako indiarren eran, erreserbetera mugatuak. Europako indiarrek bait gara, dagoeneko, eufemismorik gabe.*

### 3. Elebitasuna

*Elebitasunaren problema oso konplexua da.*

*Ikuspegi asko ditu: linguistikoa, psikologikoa eta sozio-kulturala, garrantzitsuenak besterik ez aipatzearren. Eta, noski, ezin ditugu denak ukitu. Hemen elebitasunaren definizio berbera argitzen saiatuko gara, kasu bakoitzean zertaz ari garen garbi gera dadin.*

*Klasikoa bilakatu den definizio baten arabera <sup>1</sup>, elebitasuna zerari esaten zaio: pertsona edo gizatalde batek, ezagutzen dituen bi mintzaitaririk edozeinez erraztasun berdinez baliatzeko duen ahalmenari.*

*Elebitasuna, zentzu hertsian honetan, norbanakoaren mailako fenomeno da. Nahiz eta norbanakoak ugariak izan, pertsona edo talde elebidunak erosotasun berdinez hitzegingez dezaitez bi hizkuntzetaririk edozeinetan.*

*Horra geure buruari galdetzen diogun lehenengo gauza: elebitasuna "ekilinguismo" edo "anbilinguismo" baten parekidea bada, bi hizkuntzen arteko inolako gaitasun preferentzialik gabea... zer neurritan hitzegin ote daiteke Euskal herrian elebitasunaz bai maila indibidualan, bai maila kolektiboan?*

*Lehenik, bistakoa izan arren egiten diren planteamendu sinplisetan ezagutzen ez den gauza da hau, elebidun bakarrak euskaldunak dira.*

*Elebidun izateko, jakina da norenak izan behar duten ahaleginak.*

*Baina aproposalako sinpleztatze hau ere ez da aski.*

*Neurkera sinplista bat besterik ez baita "Euskadiko errealtatea, errealtate elebidun bat dela" esatea. Faltsua da, eta ez du analisirik txikiena ere gainditzen. Gaztelania ala frantsesa hitzegiten duten euskaldun guztiak ez baitira elebidun, zentzu hertsian: beren euskarak definizioak eskatzen duen hainbateko gaitasunik ez duelako, edo euskaldun horrek hitzegiten duen frantsesa nahiz gaztelaniak maila beharrezkorik iristen ez duelako.*

*Honainokoak elebitasun indibidualari dagokionez.*

*Charles A. Ferguson izan zen lehenik DIGLOSIA kontzeptua erabili zuena, ondoko zera adierazteko: hizkuntza bat beraren erabilkera ezberdinak funtzio edo betebeharrak jakin batzuetarako garbi bereizten direnean eta ondorioz, erabilkera bakoitzari status kultural berezi bat ezartzen zaionean.*

<sup>1</sup> *Lexique de la terminologie linguistique.* J. Marouzeau. Geuthner, Paris, 1951.

Elebitasun sozialari dagokionez berriz, hau da, gizarte bat elebidun izateari edo ez izateari dagokionez, nabardura batzuk beharrezko dira. Izan ere norbanako bat bi hizkuntza erabili beharrean gertatzeko, bi komunitate linguistiko izatea ezinbestekoa da, noski; honek ez du, ordea, esan nahi komunitate hori elebiduna denik. Beste kontzeptu bat ere ager-  
tzen bait da hemen errealtatea deskribatzeko egokia dena: diglosia.<sup>2</sup>

Diglosia delako kontzeptu hau, egun, bi hizkuntzen arteko banatze edo gainezarmen linguistiko egoera bat explikatze erabiltzen da: bi hizkuntzetarik bati goikoa esaten zaio, komunikazio formalean erabiltzen dena hura delako; eta besteari behekoa, famili barruko elkarrizketan bakarrik erabiltzen delako.

Garbi dago eskoletan eta Unibertsitatean erakusten eta administra-  
zioan eta komunikabideetan erabiltzen den hizkuntza kultuak duen esan-  
nahi menderatzailea.

Berak du nagusitasunezko posizio garbia eta prestigioa etxe-  
sukaldeko hizkuntzaren gain.

Horrela sentitu dugu euskaldunok aspaldidaniko mendeetatik hona.  
Ondorioak bistan dira.

Gure kasuan ez zen aski izan, Foruek eskaintzen zizkiguten barne-  
aukerabide zabalez baliatzea. Bada hor, alde batetik, gure kultur menpe-  
kotasun korapilotsuaren arazoa: latina lehenik, eta erromantzeak gero,  
izan dira, Europako zati handi baten hizkuntza ofizial zirenez, horren  
eragileak; eta pisu handia izan du horrek guregan, hizkuntza ezerro-  
mantzezko hitzunak ginenaren aldetik. Foruek ematen ziguten auto-  
nomiari esker salbatu ahal izan da Euskara; baina, jakina, ez inguratzen  
eta ziztatzen gintuen kultur mundu arrotzari eusteko neurrian.

Menpekotasun-bide ugariak ari dira hemen lanean, haietariko ba-  
tzuk sozio-politiko eta ekonomikoak, jokamolde kolonial edo, berdintsu  
dena, neokolonialekin lasai asko parekatzeko modukoak.

Hemen azpimarratzea interesatzen zaiguna, eta estudio honetan  
zehar baieztatuz joango zaiguna, zera da: elebitasun sozial iraunkor bat,  
bi hizkuntzetarik baten gainbeheran interesaturik dauden ideologiek  
mantentzen duten ideal kimerikoa dela; biztanle guztiek arreta linguisti-  
ko bera jastzen ez duten artean, behintzat, eta denei bi hizkuntzen  
ezaguera-maila berdina ematen ez zaien artean. Bestela, egoera degrada-  
tuz joango da, azkenik elebakartasun batetara heldu arte.

Bestela esanik: hizkuntza batek bestea desplazatu arte.

Hau da denek jakin behar dutena: gure herriko biztanle guztiak eus-  
karatuko dituen tresneria ezartzen ez bada (euskalduntze hori eskola eta  
unibertsitateetako heziketaz eragin liteke, eta administrazio nahiz komu-  
nikabideez) gaztelaniaren parekoa egiten ez bada beraz, problemak ez  
duela askabiderik izango.

<sup>2</sup> Ikus Charles A. Ferguson-World aldizkarian 1959.urteko 325-340 orrialdeetan.



*Erdaldunek euskararengana emana daukaten mantarrez eta euskaldunek gaztelaniarengana hartua daukaten peniziliniz, diglosia honetara besterik ezin iritsi. Hau da hizkuntza ahul batek jadanik sendo dagoen hizkuntza baten aurrez-aurre, eta medio desberdinez baliatuz, ezinbestean ezagutu beharko duen gaixotasun-egoera.*

*Indar berdinekoak diren bi hizkuntza bizi daitezke, soilik, osasuntsuki herri batetan.*

*Esan ditzagun azkenik, planteamenduari eta inkestaren aurkezpenari dagokion atal hau bukatu baino lehen, beratu burutu duen lan taldeari buruz hitz bi.*

*Erantzunkizun nagusia, lanaren planifikazio, burutzapen eta zuzendaritzan, SIADECO taldeak hartzen du.*

*SIADCO taldea honakoek osatzen dute: Xabier Agirre, Ramon Iruetagoiena eta Iñaki Larrañaga (soziologoak), Juan Jose Gabiña eta Juan Jose Rodriguez (injeneru industrialak), Ramon Gorostidi (ekonomista), Maria Pilar Unzueta (asistente soziala), eta Rosi Aranburu (mekanografoa).*

*Beste jende askoren lankidetasunaz, noski.*

*Batez ere, euskararen estudio osorako komisioko koordinatzailearenaz. Komisioko osatzen dutenak honako hauek dira: J. L. Lizundia Euskaltzaindiaren izenean, eta bere idazkariorde gisa; eta Xabier Albistur eta Mikel Lasa Lankide Aurrezkiaren izenean; azken biok prestakuntz prozesuan zehar estudioaren fase desberdinei buruz kontseilatuz izan dute. Lankide Aurrezkiaren ordinaroan egindako programazioa eta datuen esplorazioa, halaber, Mikel Lasaren gidaritzapean egin izan da.*

*Bestalde, laguntzen kapitulu zabalean: 1. Ahozko eta idatzizko komunikabideei buruzko informea landu eta idatzi dutenak: J. L. Mendizabal (irratia), Jose Ramon Beloki (diskoa) eta Joan Mari Torrealday (Argitaletxe eta Aldizkarietatik). 2. Informeren bat landu dutenak, gero lanaren eskabideei egokituak izan diren apunte historikoak bereziki: Juan Mari Mendizabal (Enkartazioak) eta Bernardo Estornes Lasa (Erronkari); laguntza hau, gainera, bereziki baliotsua izan da, euskara galtzearen lekuko izan den pertsonarik ez baita gelditzen eskualde horietan. 3. "Informatzaile" deitzen ditugunak: guk landutako galdesorta bat oinarritzat hartuz, eskatzen zen informazioa biltzeaz arduratu diren pertsonak: Ukipen-Areen kasuan, euskararen atzerakuntza eta galtze-prozesuari buruz, udal bakoitzean informa zezaketen lekukoak aurkitu dituztenak; 15 eskualdetako udalak arakatu dira, eta 150 pertsonak hartu dute parte lan baliotsu honetan; zenbait kasutan laguntza eskatu zaion jendea zenbatzen badugu, bestalde, 250tik gora dira. Area Urbanoen kasuan: hiriburuko bakoitza zona edo sektoretan banatu zen; datu-biltzea, euskara bizitza publikoan, instituzioetan eta familian aztertzen zuen galdesorta baten bidez gauzatu zen, zenbait taldek parte hartuz; ehun bat pertsona bildu zen denera. 4. Inkestatzaileak berak, 100 inguru izan ziren. 5.*

Inkestatuen laguntza ere garrantzitsua izan da, galdesorta-erantzuteak bi ordu eskatzen zituela kontutan hartzen bada. 6. Beste edozein erataria lagundu dutenen kopurua kontaezina da.

Talde egilearen inguruko kapitulu hau bukatzeko, eta ekintzen koa-droa osatzeko, emaitza hauek eskatu dituzten laneko bi urteetan zehar ibilitako milaka kilometroak, ehundaka telefono-deiak eta ehundaka elkarrizketa eta bilerak hartu beharko lirateke kontutan.

Harreman hauek, euskararen etorkizunerako garrantzi handikoa deritzagun gauza bat egiaztatzeko parada eman digute: euskararen babeserako eta berreskuratzerako enpresa honetan bilduta dagoen giza-kapitalaren garrantzia eta kalitate intelektuala.

Orain, planteamendu hau egin, inkesta aurkeztu eta nola burutu den argitu ondoren, goazen hizkuntzen arteko borroka Euskadin zatika aztertzerara.

1. Zatia

EUSKARAREN ORDEZKAPEN-PROZESUA  
GAZTELANIAREN BIDEZ

## 1. Kapituluia

# AREA GAZTELANIAZTATUAK

Bada gertaera linguistiko bat jende asko txunditzen duena, euskaldunak berak eta euskara beren herriko hizkuntzatzat jotzen dutenak barne: Euskal herri osoa mintzatu izan da euskaraz; baita egungo Euskadik hartzen dituen baino lurralde handiagoak ere. Baina arerioaren propaganda sinplifikatzaile, masibo eta aldebakarrekoak egina du bere bidea gure artean ere: euskaldunok gehiegikeria bat defendatzen omen, suharraren suaz.

Berez posiblea den gauza, noski.

Horra galdera, beraz: izan al da Euskal herri *osoa* euskaraz hitzegin deneko garairik?

Abia gaitzen, hasteko, euskaldunak euskararen historiaz eskolan eta Unibertsitatean jaso duen informazioa hutsa dela onartuz. Tabua izan da. Gezurra dirudien arren hala da. Eta hezibide hauetatik, urrutiko zentzibaitetatik eta Estatu zentralak kontrolatutako prentsatik, orain arteko agintari ofizialen deklarazio, hitzaldi eta diskurtsoetatik esan zaiona hau izan da: inoiz euskaraz aritu izan ez diren area geografikoak badirela Euskadin; eta beste aldetik baieztatua dute, zehaztu gabe ordea, euskaldunak gaztelaniaren sorkuntzan partaide izan direla, euskaldunak izan direla, hain zuzen, gaztelaniaz idatzi duten lehenak frogatuz; eta, gero, agintari ez izan arren agintzen dutenekin bat datozen euskaldun eta espainolek beren komenentziara extrapolatu dituzte honainokoak.

Bitartean, zentsura ofizial gogor batek eta hamaika zentsura satelitek ito izan du gure ahotsa.

Norainokoa izango ote den azpijoko hau, non bai bait da gaur egun

bere lurrean euskaraz inoiz hitzegin ez dela uste duen arabar, nafar eta bizkaitarrik.

Noski, badute beren araberako arrazoirik, ez bait dituzte aitona-amonak ere horrela hitzeginen entzun. Gizakiok mila edo bostehun urtetako bizia bagenu, lurralde latinezatatu eta gaztelaniaztatutako euskal gizonaren memorian gordeko zen hau dena; historia zintzo erakutsi izan baligute, orobat, memoria hori eskolatik zetorkigukeen; baina zintzotasun historikoa ez da eskolara ere iritsi, eta hori larria da.

Unibertsitatera ezin izan du iritsi, ez bait dugu gure lurraldean unibertsitate ofizialik, gaztelaniazkorik ere, izan. Eta kanpoan, Estatu Espainoleko unibertsitatean ez da euskal linguistikarik explikatzen izan. Honela dago, gero, espainolen eritzia: ulertzen ez duen eta uler ez dezakeen "euskal arazoa"-ren aurka.

Eta honela, ez 1.000, ez 500, ez 300, 200 eta batzutan 100 urteko bizia ere ez duten euskaldunak, memoriarik gabe geratu dira. Baina memoria faltsuak, antimemoriak, bere herrikoa ez den hizkuntza hartu duen euskaldunaren hizkuntza berri horrek, horrek badirau. Bere hizkuntza zena, eskolako bizian galdu du.

Eta planteamendu bat sortzen da: hizkuntzaren memoria galdua bada, zertara dator berreskuratu-nahi hori?

Bere herriko hizkuntzaren berreskuratu-nahia edo nahieza, noski, euskaldunaren eskutan dago

Nahi duen ala ez, hor dago koska.

Baina borondate hori edozein aldetara zintzoki gauzatzeko, euskaldunak ongi informatua egon behar du lehenik. Isilune errudunen inertiak eta antiinformazioak euskalduna ez dela existitu dio: ez bere historian ez eta bere mintzairan ere; eta aipatu izan denean ere baserriar talojalearen gisa eta ipuin antza aipatu izan da.

Eta memoria historiko horri noiz agortzen zaio epea?

Euskaldunak erabaki behar du hau, eta bere gisa. Lehendabizi, izkutatatu izan zaion egia ezagutu behar du, eta gero berak jakingo du nola jokatu: Irlandarren erara, inglesaren askatasun batez ados, inperioaren hizkuntzaz bat; finlandiarren erara, Suediaren aurka beren nortasun linguistikoa eskatuz; Algeriaren erara, kolonialismo linguistikoa eta ekonomikotik irtenez; edo israeldarren erara.

Beren hizkuntza aspaldi ala geroxeago galdu duten euskal lurhauentzat, ezin du *denborak* aitzakia izan.

Jakin beharrekoa zera da: zein bide, molde eta segaz moztu izan zaigun mihina gure lur hauean, eta zein garaitan.

Asmatuko du gero euskaldunak bere arbasoen, gurasoen eta familia-koen hizkuntza izanarekin zer egin: ikusiko du berari eskolan ebaki zioten eta berak, mihingabe horrek, bere semeari utzi nahi diezaionarekin zer egin: honela, azkenik, bere herriaren memoria berreskuratzen has daiteke.

Hemen axola duena, bada, justizia da.

Eta justizi nahia, maneatua izan den herri baten kasuan batez ere, ezin asea da.

Ados gaude, beraz, eta zinez nahi dugu herriaren nahia bete izatea. Baina lehen epekako anputazio hori bide politikotik etorri bazen, egun ere bizibide politikoaren, demokratikoaren beharra ezin bestekoa dugu hizkuntzaren area hil edo eriak sendatzeko.

Herriaren borondatea begirunean, ordea, eta ez sinplezian.

Hemen zera aztertuko dugu, euskara zer mekanismoren bidez galduz joan den. Eta, aldi berean, itzulbideak ezagutzen ere lagunduko ditugun bideak markatuko ditugu.

Gure epailaria, hemen, estudio honen irakurlea izango da.

Lan honen lehen zatia hiru kapituluz osatzen da; 1) *jadantik gaztelaniaztatuak* izan diren areen iragana, fidagarritasunezko azterketa historiko eta ikerketa linguistikoen laguntzaz. 2) bigarrenean "*ukipen-area*" direlakoak aipatuko ditugu, azkenaldi honetan euskara eta gaztelaniaren arteko muga definitu dutenak alegia. Disziplina soziologikozko metodoez aurkituko ditugu galtzearen mekanismoak eta gaztelaniaztapen honek eramán dituen etapak. 3) Hirugarrenak, euskarak *area hiritartuenetan* (hiriburuetan) jasandako bazterketa soziala aztertuko du.

Goazen lehenengoarekin.

## LEHENALDI URRUNENA

Euskararen funtsezko galera, bere zazpi eskualdeetan, berrikitan gertatu da: Estatu Frantseseko hiruretan (Nafarroa Beherean, Lapurdin eta Zuberoan), gaur Pyrenées Atlantiques izeneko Departamentuaren barnean daudenak; eta Estatu Espainoleko lauretan: Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaian.

Gauza jakina da gure aldiko lehen mendeetan euskara Akitania eta Pirinioetako haranetaraino iristen zela, Aran-go bailara barne; orobat Ausci delakoen lurretan (Auch, Aire sur l'Adour), hor baitaude hori baieztatzen duten dokumentu epigrafikoak. Ezaguna da era berean, R. d'Abadal eta Joan Corominas-en toponimi azterketei eskerrak oraingoan, hegoaldeko isuraldean ere euskaraz egiten zela, Ribagorza eta Alto Pallars-en antza denez, XII-XIII.mendeetararte; Hueskatik iparraldera galdu ondoren hori dena.

Gaurko Euskadiren mugaz gaindi.

Lehen atzerapena *I. eta VI. mendeen* artean burutu zen: alde batek Akitania guztia galduz, bestetik Huescako Pirinioetako haranak, Ebro ertainaren eskuineko urbazterra ere hondatuz Nafarroako hegoaldean. *VI. eta XVI. mendeen* artean, beraz hurrengo mila urteetan barrena, Burgosko Oca Haranean, Bureban, eta Errioxa eta agian Nafarroako Erribera

hegoaldetik eta Bizkaiko Enkartazioetan mendebaldetik jarraitu zuen atzera. XVI. mendetik XIX.aren erdialderaino, Bonaparte Printzearen ikerketa linguistikoaren<sup>1</sup> garaia berau, atzerapenak ia Araba osoa eta Nafarroaren Hegoaldea irentsi zituen.

Azterketa horrez geroztik, Odon Apraizena dago Arabarako; Aingeru eta Joxe Angel Irigaray-renak eta Sanchez Carrion-ena Nafarroarako, eta Pedro de Yrizar-en beste azterketa garrantzitsu bat, azkenik, Euskal herri osorako.

Guztiak xehetuko ditugu garaiz.

## Bizkaian

Bizkaian, aspaldiko denboretan euskalduna ez den eskualde bakarra Enkartazioetakoa da.

Atzerakada hau era mailakatuan gertatu izan da lekuz eta denboraz. Hizkuntz eremu desberdinak berezi beharra dago: Lanestosa eta Karrantzán aspaldikoa da eragin linguistikoa; Gordoxtola, Zalla eta Balmaseda daude bestetik; eta, azkenik, Sestao eta Barakaldo genituzke: XIX. mendean euskaraz egiten zen hor oraindik.

Kausak: Erdi-haroko garaian Santander aldetik iristen diren asturleondarren inbasioak. Meatze-zonei eta kostaldeko ei buruz, Nafarroako Erreinuaren barnean egonik, euskaldun zirela esan behar. Eta gaztelaniaztapena gertatzerakoan, meatzaritza, nabigazioa eta komertzioak eragindako aktibitate ekonomikoaren bidez gertatzen da, XV. eta XVII. mendeetan.

## Arabari

Arabari dagokionez, datuak Odon Apraiz-en lan garrantzitsu batean daude jasota: "Euskara Arabari eta Gasteizen, 1850 eta 1950 artean".

XIII. mendean, euskara ez zen jadanik Errioxa Garaira iristen (IX-X. mendeetan eskualde aski garrantzitsua izan zen hesparru batera salbu); hego ekialdetik Urizarra (Peñacerrada)-ra arte hedatzen zen.<sup>2</sup> XV. mendearen erdialdera, juduek ere euskaraz ikastera behartuak ikusten zituz-

---

<sup>1</sup> *Carte de Sept Provinces Basques montrant la délimitation actuelle de l'Euscara et sa division en dialectes, sou-dialectes et variétés*, Londresen 1872. urtean argitaratua 1856, 1857, 1866, 1867, 1869. urteetan bertan egindako lan linguistikoen emaitza gisa.

<sup>2</sup> Arabako Sartaldean dagoen Valdegobia eskualdeak, inoiz euskararik ezagutu bazuen, erromatarren garaian galdu zuela dirudi. Ez da, behintzat, geroztik erabili denaren arrastorik.

ten beren buruak beren salerosketako harremanerako. XVI. mendean zehar: *lehen laurdenean*, gaztelaniaz hitzegiten da jadanik Gasteizen, nahiz eta laborariekin euskaraz mintzatzen jarraitu. Mende-bukaeran, Gasteizko Apaizgaitegiko agiri batek (1587) zera diosku, euskara Azedora, Arabako Kanpezu eta Urbizuren aurre-aurrera iristen zela. Badira, gainera, garai hartako beste bi testigantza interesgarri: bata Juan de Vitoria-ren "Comentariologia"-n jasotzen dena, eta bestea A. de Poza-ren "Disertación" delako batetan aurkitzen dena. Euskara zela, esaten dute biek, Arabako hizkuntzarik hedatuena. XVII. menderako datu zehatzik ez den arren, eta zeharkako berri batzuek adierazten dutenez, euskarak gorputz trinkoa zedukan oraindik. XVIII. mendeari, galera nagusikoari buruz, bada Landazuriren<sup>1</sup> datu preziaturik. Bere aburuz Nanclares de la Oca-tik hasita, probintzierdiak baino gehiagok hitzegiten omen zuen euskaraz; mende honen bukaeran, usu jarraitzen zen euskaraz hitzegiten 22 anaiartetan. XIX. mendearen hasieran, euskaraz hitzegitea gauza arrunta zen Albenizen eta Arabako lautadako beste herrietan. 1850-1950 epeari dagokionez, Odon Apraizek marraztua du Bizkaia eta Gipuzkoako mugetarainoko atzerakada pausatua mapa.

Hemen ikusten denez, eta ondorio gisa, euskararen atzerakada nagusia eta galtzea Araban XVIII. mendetik hona gertatu da, eta ez lehenago.

## Nafarroan

Nafarroari buruzko funtsezko informazioa, Aingeru Irigarayk Idaztitzako "Una geografía diacrónica del euskara en Navarra"<sup>2</sup> obratik jaso dugu.

Erromatarren garaiko lehen testigantzek diotenez, Nafarroan hitzegiten zuen hizkuntza euskara zen. Gero ofizialdu zen, lehenik latina, eta beranduago nafar erromantzea. XVI. mendearen bukaeran, ordea, (1587. urtean) eta Euskal herriko apezpikutegi bakoitzeko hiri, ziutate eta lekuak dakartzan Erregistro batetan, Nafarroaz hitzegiterakoan "bascongado"-tzat<sup>3</sup> jotzen dira 451 herri, eta gazteloniazkotzat 58; demografiatzko dentsitatea, halere, erromantzezko herri hauen alde dago. Geroago, XVII.

<sup>1</sup> Joaquin Joseph Landazuri, beste zenbaiten artean, *Historia de Alava* delakoaren egile. 1926.ean Gasteizen inprimatutako bost bilduma dira.

<sup>2</sup> Una geografía diacrónica del euskara en Navarra. A. Apat-Etchebarne. Ediciones y Libros, S. A., Pamplona, 1974.

<sup>3</sup> Honek ez du beste hiru ahizpen nafarreratze edo euskalduntze berantkorra adierazi nahi (Aita Villasante). Hemen "bascongado" bait da Nafarroa, eta izen hau euskaraz hitzegiten zuten eskualdeei egokitzen bait zitzairen. Era berean beste batzuek ere "romance" eta gero "romance" egiten zuten, geuk "vasconice", eta gero "vascuence" bezala. *Euskararen liburu zuria. Bilbo, 1978.*



*mendeko hasieran Zankozan ageri da euskara ohizko hizkuntza gisa (Uxue eta Irunberri); baita Tafallako iparraldean eta Lizarrako lurretan ere. Bonaparte Printzearen mapak (1863) atzeratze haundi bat erakusten digu jadanik; Iruñetik eta Agoitzetik gora erdialdean, Erronkariraino ekialdetik, eta Andia eta Urbasa mendikateetaraino mendebaletik. 1863 eta 1935 artean, Lizarras iparretiko Ibero eta Belaskoain batetik eta Erronkari bestetik lotzen dituen lurraldean, atzeraketa areagotu egiten da. Gulina, Juslapeña, Atez, Odieta eta Erronkari bera, Isaba eta Uzta-rrortze ezik, galtzen dira hartan. 1935 eta 1973 artean, azkenik, galera Erronkari osoari eta Zaraitzuri iristen zaie ekialdetik, eta Iruñeko Ipar eta Mendebaleko bailarei: hasi Altsatsu eta Irurtzundik, eta Orreagarai- no, Gulina, Xulapain, Atez, Odieta, Esteribar eta beste herri batzuetaraino.*

Pedro Irizarren "Dialectos y variedades de la lengua vasca"-n<sup>1</sup> zehazki eguneratzen da nafar euskalkiari buruzko informazioa ondoko hiru fetxetarako: 1860-70, 1935 eta 1972. Aldaera batzuren desagerpena dakar batetik, beste batzuren horretaratzea bestetik (hamarreko batzu besterik ez baitira mintzatzeko gai direnak), eta euskara eskuharki mintzatzeten deneko tokiak azkenik: Sakana, zenbait herritan higaduraren aztarnak nabari arren, Ultzama, higatuagoa oraindik, Basaburuko baila- rak eta Bidasoako Bortziri, udal eta herrixka batzutan egoera berdinarean arrastoak dituztelarik.

Badira oraindik, ipar ekialdera, higadura linguistikoak ukitu gabeko puntu batzu. Ukipen-areei buruzko kapituluak aipatuko ditugu.

Laburpen gisa: Bizkaiko Enkartazioetan antzinako etapak dira nagusi (gure herritik kanpoko faktoreek eragindako adibide dira). Ara- ban, atzeratze nagusia XVIII. mendeari dagokio. Hemen, Nafarroan, XIX. mendekoa da. Eta higaduraren faktorea barrukoa izan daitekeela erakus- teko kasu bat: Erronkarin, esaterako, beren artaldeak Aragoi Beheran larratzen dituzten artzaiak dira han ikasitako gaztelania ekartzen dute- nak.

## **Ipar Euskadin**

Pierre Laffitte euskaltzain eta kanonikoa da Estatu Frantsesean kokaturiko hiru eskualdeez informatzen gaituena.

Hizkuntzaren hedadura Akitania guztiari zegokiola adierazten duten testigantza historikoak ematen ditu. Atzeratzea agertuz gero, Atu- rri hibaiaren ekialdeko muga berriak seinalatzen ditu, azkeneko mende- tan barrena aldakuntzarik gabekoak; garbi salatzen du, hori bai, zenbait

---

<sup>1</sup> Anuario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", VII. zenbakia, 1973.

herrialdetan gertaturiko higadura ageria: kostaldetik Donibane Garazira, Donapaleu, Maule eta Atharratze...

## Ondorio sozio-linguistikoak

Gaztelaniak euskara ordezkatzeko fenomenoaren prozesuaz egin daitekeen laburpenik adierazgarriena ondoko hau dateke:

Indar politiko, ekonomiko eta kulturalen laguntza duen hizkuntza bat sartzerakoan, jatorrizko hizkuntza higadura-prozesu batetan barrena abiatzen da; eta honek, azkenean, bi hizkuntzen arteko ordezkatzeko bat dakar beti (hiru indarrok elkarrekin agertzen dira beti aztertu izan diren esperientzia kolonialetan). Hau da, indar-erlazio desorekatu batetan elkar ukitzen dutenean, *ordezkapena* sortzen da.

Mendeetako esperientzia da.

Joera hau larriagotuz doa noski, ofizialki eutsitako hizkuntzaren zerbitzutan jarritako masa-komunikabideak barneratuz doazen eran.

Esaten ari garen bezala, eta esannahi sozio-ekonomiko eta kulturalen neurri parekideak hartzen ez badira behintzat, higadura-prozesu orok ordezkapenera eroaten du ezinbestean.

## ATZERAKETAN ZERIKUSIA DUTEN FAKTOREAK

Ordezkatze linguistikozko fenomenoak indar-faktoreen emaitza besterik ez direla garbi dagoenez gero, saia gaitezen gure kasuan funtzionatu duten mekanismoak zehaztu eta salatzen.

Goazen, hasteko, historian zehar somagarri direnak seinalatzerara. Gregorio Monreal eta Margarita Rica-ren "Los factores político-administrativos y el euskara"<sup>1</sup> ikerketa-lanaz baliatuko gara.

Ingura gaitezen XIII. mendera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Gaztelako erreinuaren orbitan sartzen direneko garaietara alegia.

Nafarroak beste hiru mendez jarraituko du oraindik erreinu aske izanez.

1.100. urtea eta bere aldia ezin epaitu dira ez hitzez ez gaurko kontzeptuez.

Hiru eskualdeek Gaztelarekiko zuten lotura erregearen pertsonaren inguruan gauzatu zen, eta ez Gaztelarekin berarekin; eta erregea ere, Buruzagi Militar eta Apelazioko Epaikari goren zenaren neurrian izaten zen onartua. Oreka politikoa, ez-eskuharmeneko itunak eta elkarren defentsarako akordioak, izan ziren egoera hartan nagusi, betiere elkartze

---

<sup>1</sup> *Euskararen Liburu Zuria*, Bilbo, 1978.

pertsonalak erregearen pertsonarekin egindako tratuen inguruan kokatzen zirelarik. Erregeak, beraz, gerrako ministro baten betebeharrak zituen, eta erakunde federatu baten gisako herri desberdinei lotzen zitzairen.

Baina kontu honek, gertaera politikoa izanik ere, badu orobat berekin esannahi linguistikozko beste gertaera bat: ordurarte Europako hizkuntza ofiziala latina izan zen bezala, aurrerantzean hizkuntza arruntak sartzen dira eginkizun politiko-administratiboetarako.

XIII. mendeko lehen hamarkadetan, Gaztelako Gorteko mintzaira administratiboa latina zen. Latina bilakatuz zetorren ordurako, eta nor bere sailean erromantze desberdinak sortuz zihoazen: frantsesa, gaztelania, katalana, latin arrunta Italian, eta gailego-portugesak. Halere, latina zen oraindik, Erromako Inperioaren inertzia kultural handiari esker, beste gainetiko hizkuntza ofizial bezala garaile zebilena. Kategoria literarioerik gabe baina herriaren ahozko *hizkuntza arruntok* paperetara sartzean, orduan soilik sortuko da aldaketa; Penintsulan mintzatutako *erromantze-sorta desberdina*, adibidez, erreinuko *administrazio-hizkuntzatzat* onartzen da.

Eta hemen sortzen da *euskaldunentzat desegokitasun bikoitza*.

XIII. menderarte euskaldunek euskaraz egiten zuten, jadanik aipaturiko Nafarroako hegoalde-muturrean ezik. Administrazioaren hizkuntza Euskal herrian latina zen, beste erreinuetakoa bera. Eta erreinu hauek beren hizkuntza arruntak hizkuntza ofizialtzat hartzen duten artean (hiztun katalanek, hortaz, katalana), herri euskaldun elebakarrak *ulertzen ez duen hizkuntza ofizialetik urrun jarraitzen du*, eta bigarren aldiz (bi aldiek mendetako epeak betetzen dituzte).

Hemen datza euskaldunaren bazterketa kulturalaren sekretua.

Alde batetik beste erreinuak erromatar kulturaren errapatetik etengabeki edoskiz asetzen dira.

Bestetik, euskaldun etnia 6.000 urtez bizitako hizkuntza baten jabe da, latinaren aurrekoa eta I. mendetik Penintsulako pre-indoeuropar bakarra; eta, berez, latinarekin alderatuz oso egitura desberdinekoa. Eta, horrexegatik, bera inguratzen duen mundu kulturaletik baztertuta geratzen da.

Honelakoa dugu historiaren fruitua, eta hemendik abiatu behar dugu euskal problema kulturala ulertzeko.

Ez zen orduan inolako zeinu kultural edo politikozko kontzientzia linguistikorik. Geroago azalduko da, XV. mendearen bukaeran, hegemoni zaleen artean, eta XIX. mendean erabat desarroilatuko da elkarbizitzarako oinarri moral eta politiko gisa. Garai hartan, bada, berezkoa izan zen euskaldun elebakarrak, administraritzarako hizkuntza arrotz bat onartzea; 1) 1.200. urtealdian, administraritza hura ez zen zeharka baizik ekiten zuen lotura ofiziala besterik; goimaila hertsiki batetako lotura haiek ez zuten herria ezertan ukitzen; 2) euskaldunek ez zuten beren hiz-

kuntza propioan tresneria administratiboa eratzeko molderik ez egitura organikorik: guzti hori ezin pentsatuzkoa zen garai hartan; errazagoa zen erregearen pertsonarekiko loturabide hori onartzea. Latinez mintzo zen kultura latinoak, mendebaleko osatuenak, eraikia bait zuen jadanik, zibilizazioko mendeetan zehar, hazkunde komertzial, industrial eta kulturalerako tresneria legal eta juridikoa. Eta komunikabide internazionalen mailan eraiki ere.

Erraz froga daiteke hau, zenbait mendez geroagoko nazionalitate desberdineko zientifiko, filosofo eta pentsalariek beraien liburuak latinez idazten zituztela erakutsiz: Descartes frantsesak (1596-1650), Spinoza (1632-1677) judu-holandarrak, Leibniz (1646-1716) eta Kepler (1571-1630) alemaniarrek, Hobbes (1588-1679) eta Newton (1642-1727) ingelesak, Copernico (1473-1543) polakoak, Tycho Brahe (1546-1601) daniarrak, eta Lineo (1707-1778) suediarrek, ikusten denez eta exenplu-ale batzuk besterik ez izanarren, honela idatzi zuten oso berandu arte.

Oso fenomeno garrantzitsua da, beraz, eta euskararen kasu hain berezian eragin handikoa.

Baina geure hariari lotuz: gauza bera gertatzen zen Erresuma beregaineko moduan jarraitzen zuen Nafarroan alde batetik, eta bestetik 1.200. urtean Gaztelarekin tratuan hasiak ziren beste herrialdeetan. Orobat gertatzen zen Frantzian, orain Belgika den hortan; eta Gorte ingelesean ere, orduko inskripzioak latinez zeuden aldi hartan.

## Hirien sorrera

Honekin batera beste fenomeno bat dago: hirien sorrera eta horren ondorio sozio-ekonomikoak.

Administraritzaren kasuan bezala, Europako mendebale guztiari dagokion berrikuntza urbanoak badu eraginik guregan. Gure hizkuntzaren aurkako eragina, izan ere. Aurrerakuntzaren gakoa da, noski. Orduko aurrerakuntzak jadanik hartuak ditu gaur bizirik jarraitzen duten bideak: kontzentrazio urbanoa, eta berari darizkion nota sozial, juridiko eta ekonomikozko elkar-harremanak, bere korapilotasun osoan. Orduan da, hain zuzen, Gaztelaren inguruan biratzen duten lurralde euskaldunei erregeek foru urbanoak edo populazio-kartak ematen dizkieteneko garaia (nahiz eta batzuk maltzurki nahas, foru-kartok ez dira Euskal zuzenbideko Foruekin nahasi behar); emaitzok ez dira beste herri batzuei emandakoak baino gehiago: Portugal eta geroago Ameriketako probintzietan, latinezko edo erromantzezko testuak berreginez sortutakoak adinakoak baizik. Monrealek dion bezala, diferentzia batez ordea: nahiz eta foru hauek erromantzez edo latinez idatziak izan, orduko ohiturei jarraiki, beren edukian euskal zuzenbide ohiturazkoarekin antzekotasun bat gordetzen dute.

Denboraren iraultza estruktural hura, azken batean, idatziz moldatzen ziren bide ofizialetatik egin zen, eta erresuma bakoitzeko herriek hitzegiten zuten hizkuntzarekin bat zetorren: Euskalerrriaren kasuan *ezik*. Betiere salbuespen dramatiko hau! eta salbuespenean ere Nafarroa, hegoaldeko populazio elebidun hori ezik, Nafarroan ere ofiziala nafar erromantzea bait zen, eta gero gaztelania.

Horregatik jotzen ditu *diglosiak* lehenbizi hiri nagusiak, batez ere herrialde bakoitzeko hiriburuak.

Hiri hauen sorketa eta egiturazko hazkundera antzinatiko euskal herrian gain egin bazen ere, erromantzez egin zen formalki, beti ere idazkera honen erabilpen zabalago batetara bultzatuz administraritzan. Hala ere, hirien sorrerako fenomeno ez da osoki negatibo gertatu izan; hiri hauen hazkundera udal autonomiaruntz abiatzean, nahiz eta gai administratibo eta judizialetan gaztelania erabili beharra izan, euskal barneordenamenduak hiri-batzarretako ofizialeak hauzokoak izatea ezartzen zuen.

Honela balaztatu izan da Euskal herriko udal administraritzan ofiziale gaztelania-mintzodunak sartzea.

### **Kanpoarekiko komunikazioa**

Kanpoarekiko harremanok euskaldunen ekitaldi ekonomikoak eragiten ditu. Lehenengoz *nabigazioak*, XII. mendetik aurrera: balen arrantzaleak batez ere. Eta gero, XII. eta XVI. mendeetan barrena, Penintsulako hegoaldean *Birkonkista kristauaren* kanpainetan parte hartzen zutenek, musulmanen Inperiotik iparralderako herri desberdinek bai bait zuten zentzu erlijioso amankomun garbi bat; baita Gaztelako artilea Flandeseratzen zuten garraiatzaileek eta ardoa Gaskoiniatik Flandesera eta Inglaterrara eramaten zutenek ere. Harreman komertzial honek harreman kultural bat dakar noski, eta hortik datoz zenbait eragipen goiztiar.

Hau dena euskararen kaltean joan da gehien batean; mesederik ere ekarri du, halere: horrela, euskaldunek Terranova aldean izandako eragina eta guzti honekin (nabigazioa, arrantza, merkataritza) Mitxelenak esan bezala hain lotura estuan dagoen literatur susperraldia. Kalte egin du, ordea, euskarak herri baten hizkuntza kultural eta genetikoki isolatua izaten jarraitu bait du eta herria bera adierazi politikozko kontzientzia linguistikorik gabe bizi izan delako. Hizkuntzaren bide ofizialak eraikitze-ko ez da inoiz beharrezko tresna kulturalik izan, ez eta indarririk ere (320.000 biztanle Euskal herriak eta Regla-ren ustez 7.000.000 Gaztelak Ameriketen Aurkikunde garaian, 1492an).

### **Euskal nobleziaren Gaztelarekiko lotura**

Handinahi sozial eta ekonomikoak indar-iturriak bilatu izan ditu, orain eta beti, bere abantail, titulu eta ondasunetarako.

Euskalduna, honen aurkakoa ezezik, oso zalea ere izan da.

Eta ez azken urteotan, frankismoaren iturri jorietatik edanaz hazi diren kasuetan bakarrik.

Eta, noski, banatzeko orduan bertan egoteko baldintzapean.

Honela bait zen orduan ere.

Gure herriak jakin ere ez zuen jakingo nor gora zihoan, nor behera, ahaldun bakoitza nondik nora zihoan; ez zuen ezagutuko zein gelditzen zen Gortean eta zein ez. Bazekien, ordea, bere lurrak urrutitik produzi-erazteko eta beren palazio nabarmenak eraikitzeke erosten zizkiotenen berri. Larramendi izango da, XVIII. mendean, gauzok tokiratzen dituenetako bat.

Baina geu ere gizaki gara.

Kalte handiak jasotako izakia da, inondik ere, gizona.

Honela, XII. mendean Gaztelako erregearekiko lotura *hura* ezartzen hastean, bazen Gortera begira zegoen zenbait euskal familia nobiliar. Eta beharbada lotura honen zatikizunak kobratu ere eginak izango ziren, herriatik aldentzen hasi bait ziren eta Gaztelan, nobleziarik altuenaren artean, bizitzen: Haroko leinuak (Bizkaiako jaunak), Mendoza (Laudioko jaunak), Arana eta Gebara (Oinatiko jaunak). Herriarengan zuten eragina espero bezalakoa zen. Beren hizkuntzarekiko hoztasunak eta Gaztelakoa hartzeak bideak errazten zituen, eta asko izan ziren horren bidez administraritzza, justizia, artea eta idazki-arteak gailenduak. Euskal herrian sozialki, ekonomikoki eta kulturalki ahaltsuenak, horretara, erdararen bidetik zebiltzan.

Bistan da honek baduela prezio bat.

Bada, halere, Euskal herriarekiko leialtasunezko salbuespen bat: Ahaide Nagusia; hau da, beren lurrari, hiriari eta kulturari leialki eusten ziotenen leinua.

Oraindik ahozko kulturari lotutako jandearena, zoritxarrez.

Oinarriz leinu-garaiko eta batez ere nekazal giroko egitura sozialeko pertsona hauek baztertuak gelditu ziren, hizkuntzarekin eta ahozko tradizioz ateratzeko zailtasun horrekin batera. Eta ezinbestez utzi behar izan zizkioten idatzizko bideak, Jainkoak berak hitzegiten zuen latinari eta bere zalantzarik gabeko hierarkia literarioari. Bera zen (orain urte gutxi-rarte iraun duen) Elizaren bide ofiziala eta orobat bere ondorengo erromantzearena. Erraz uler daiteke, beraz, inertzia hura haustea zein zaila zitekeen. Lehenengoz oztopo natural hau zegoelako; eta, bigarrenik, kontzientzia linguistikoaren garaia oraindik oso urruti zegoelako.

Europako herri txiki-txiki hizkuntza batzuek XIX. mendean lortu dute beren status ofiziala. Beste batzuek, berriz, gure denboretan lortu dute garaipena. Finlandiak (1919.ean Sueziatik bereiziz, esstatu bihurtu zenean), Suizak (1931.ean ofizialki bere ohizko baimena formaldu zenean); Luxenburg-ko dialekto xumeak 1945.ean ezagutza ofiziala jaso-zean; flamenkerak orain dela urte gutxi Belgikan ofizialtasuna lortuz...

Guretzat ere izan zen, mende honetan bertan, gure berreskuratze linguistikorako nahia abiatu zeneko garaia; 1931.ean izan zen hori, baina beste gerra batez ebaki gintuzten erro-errotik; hirugarrena genuen gerrate hori. Gero beste 40 urtetako errepresio odoltsua. Oztopoak izango ditugu noski, baina besteek ere izan dituzte, Israeldarren parekorik ezagutu ez arren, eta guztiek garaitu dituzte. Fenomeno hau, zenbaitek bere itxura modernoko ideologia ihartutik deskalifikatu nahi lukeen arren, beste hizkuntza gehiagotan ere gertatzen ari da. Politikoki zapalduak izan diren arren, bada nazioarteko kultur zuzenbidearen bidez aurka egiteko nahia. Gudu-garaipenez sortutako Estatu hegemonikoen interes linguistiko kolonialez gaindi, bada hor zehar justizia lortzeko nahia ere. Horra, urrutirago gabe gu geu eta atera berriak garen hilerri-pakezko polizi inposaketaz gainetik gure asmo-nahia.

Honela gerta dadila: bestela, okerragoak ikustekoak gara.

### **Agintariak: ofiziale errealak**

Koroaren eta gure herriko agintarien arteko harreman ofizialak gaztelaniaz ezarri ziren, batez ere erregeak izendatutako ofizialeen bidez: Erretordea Nafarroan, Merino eta korrejidoreak beste eskualdeetan, denak noski gaztelaniazko elebakarrak.

Ongi legoke, hemen, oharren bat egitea. Errazago zitzaiokeen ofizialeari euskara ikastea (komertzioarekiko amodioz gauza posiblea bazen juduentzat, ofizialeentzat ere hala zitekeen interes politiko hutsaz bederen), ezen eta ez herri oso bati gaztelaniaz ikastea.

Jo bezate hau, egun *derrigorrezkotasunaz* izutzen diren horiek, erreferentzi gisa.

Orduan gertatzen zena, eta aspaldikoa dugu mesprezu hau, zera zen: gure herriak ez zituela bide ofizial hauek ezagutzen eta ez zela gaiztakeriaz jabetzera iristen. Bazen beste zenbait, bai, edozein zerbitzu-arrazoi edo interes sinplerengatik horren menpeko zena. Eta arrazoiak, gehienak sozio-ekonomiazkoak, asko bide ziren.

Karguak, lehen ere, bazkagai erakargarriak izaki.

Denak "bortxakeriarik" gabe funtzionatzen zuen, noski.

Eta diglosiak, piskanaka, Euskal herrian euskara erretzera zeraman bidea hartu zuen.

Gaztelaniaren inposaketa geroago etorriko zen; orduan erizpide handiko harma gisa, hori bai; irakaskuntzan bereziki. Eta, azkenik, denborak ematen duen heldutasunaz euskararen bazterketa hiltzaileaz eta gaztelania komunikabide guztietan hizkuntza bakar bezala inposatuz.

Eta, noski, inolako "bortxakeriarik" gabe oraindik ere.

## INPOSAKETAREN ETAPARIK ADIERAZGARRIENAK

Gaztelaniaren euskararekiko inposaketaren sei etapa argigarrienak *laburtu* ditugu hemen.

### 1. Erdi-haroaren bukaeran: XIII. mendea

XIII. mendetik aurrera heldutasun itxurazko eklosio bat sortzen da Europan, latin-hizkuntzako mendebal Europa guztiko erromantzeei zegokiena; elebitasun-aldian etorri zen: latina erakusten zen apezpiku eta monastegi-eskoletan, bera bait zen kultur hizkuntza bakarra: hizkuntza ofiziala, eta Elizaren hizkuntza, mende batzu lehenago erromatarrek ekarria; penintsulako erresumetara ez zen, ordea, mugimendu honen heldutasun-garaia iritsi, eta bakoitzak bere aldaerak erabiliz jokatu zuen: *Gaztelako Erresuman gaztelaniaz; leoieraz Leoikoan; Aragoikoan bitara: katalaneraz Katalunyako Printzerrian, Valentzian, Mallorkan eta Aragoiko zati batetan, eta aragoieraz, gero gaztelaniaz, Aragoiko beste zatian; Nafarroan nafar erromantzeaz, gero gaztelaniaz.*

Beraz, horra euskaldunen kasua: Nafarroako Erresuman nahiz Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko senitartean bizi zirenek, esandako independentziatzako baldintzekin sartu berriak izanik Gaztelako agintepean, eta oraindik ere euskal elebakarrak izanik ia denak, *hitzegiten ez zekiten hizkuntza hartu zuten hizkuntza ofizialtzat.*

Horrela zutirik dirau hizkuntza ahozkoaren eta Administrazioan erabiliaren arteko kontrabideak.

### 2. Austriak (XV.mendearen bukaeran)

Monarkia erregearekin batasun pertsonalez lotutako Estatu-multzo batek osatzen zuen. Baina lur eta populazio-diferentzia horrek (lau eskualdeetako 300.000 euskaldunen aurrez aurre, 7.000.000 biztanle) bide batez bere ingurune historiko, sozio-kultural eta politikoan menpekotasun kultural ulerterraza sortu zuen. Eta honela sortu ziren lehen idatzi elebidunak Portugalen eta Katalunyan; bestela esan, gaztelaniaren lehen garaipena han mamitu zen; Errege Katolikoekin idazten da Europako erromantzezko lehen gramatika (Nebrija, 1492), eta orduan hasten ere Ameriketako koloniakuntza. Bertan hasten da, prezeski, gaztelania tresna gisa erabiltzen.

### 3. Borboiak (XVIII.mendea)

"Nueva-Planta"-ko dekretuak *Aragoiko Koroaren lurraldean egitura politiko beregainaren deuseztapena dakar, eta bide batez Gaztelako gobernu-erregimenaren ezarpena.*



1707 eta 1716 artean Katalunyako eta Valentziako Gorteak deuseztatzen dira. Baita Mallorkako autogobernuko organoak ere. Hizkuntzari dagokionez, *administraritzaren hizkuntza ofizialtzat sartzen da gaztelania Katalunya, Valentzia eta Balearreetan.*

Euskaldunen lau eskualdeetan soilik mantentzen gara gobernu propioz eta mugetako aduanaz. Alde batetik Gaztelarekin, Ebron eta Santanderren; bestetik itsasora, Bidasoa eta Pirinioak; eta ez bakarrik monarkiaren garaian, konstituzio-garaian ere baizik.

Guzti hau "privilegio"-tik ezer gutxi duen zerbaiten adierazpena da.

Beste aldetik, eta berriro, gure berreskuratze politiko eta kulturaleko ahalbide eskasak azpimarratzeko zenbait presio-gorabehera aipatu behar da: 1807.ean Espainia Portugalaz jabetzen saiatu zen Frantziarekin batera, 1640-68.ean ere egin zuenaren erara.

Hauek dira, bada, beste batzurekin batera, Penintsulak eta Europak bizi izan dituzten zori politikoak; horiek dira gure herriak ahal bezala bizirik irauten zueneko denbora politikoak.

#### **4. Foruen Abolizioa (1839 eta 1876)**

Erretorde eta Korrejidoreen lan estalia, probintzietako gobernadoreen etsaigo zabalean bihurtu zen bi karlistaden ondoko hondamenei jarraitu zitzaien larrutze politikoan: 1839.ekoa (7 urtetako burrukaren ondotik) eta 1876.ekoa (ia lau urte iraun zuena). Gudaloste garaileek *administrazio zentrala ezarri zioten lehenengoz Euskal herriari*. Aduanak itsaso eta Pirinioetara eraman zituzten eta *ordezkapen linguistiko azele-ratuari eman zitzaion hasiera*, horretarako gaztelaniazko eskolaz eta euskaraz hitzegiteko debeku eta zigorrez baliatuz; eta, noski, ez da jadanik bere barruko administraritzan beren interesak gordeko dituen euskal instituziorik, nahiz eta ahozko mailan oraindik bere iraupenak izan; euskal administraritza ezereztatu ere egiten dute, gure herriaren Estatu Espainolarekiko bereztasuna *Kontzertu ekonomiko* batzutara mugatuz (concierto"-k, berdinen arteko akordio, paktua esan nahi omen...).

#### **5. Diktadura Frankista (1936-1975)**

Azken hau gupidarik gabeko mendekua izan da, maila guztietako dekretu, tratu eta tratu txarren bidezko euskararen lurperatzea. Jazarpena, bere handian, hildakoen izenak euskaraz idatzita zituzten hilarrietara ere iritsi da.

Herrietako idazkari, epaikari, maisu, agoazil eta apaizak izan dira honetan zeregin nagusi eta suminkorra bete edo betearazi dutenak.

Mota orotako erakunde polizialek babesturik gainera.

Frankismoak, ezinbestean, gorde egin behar izan ditu Nafarroarekiko Lege Pakzionatua (paktua) eta Arabarekiko kontzertua (Paktua), talde irabazlearen aldera egin bait zuten bat; baina altxamenduz inposatu gintuzten gerratean Gipuzkoa eta Bizkaiaren jarrera demokratiko errepublikarraz mendekatu egin izan da, bere eskubideen hondakinak dekretu batez ezabatuz.

Bortxakeriarik gabe, noski.

## 6. Postfrankismoa (1976.etik aurrera)

Nola edo halako lasaitasuna etorri zen 1960.ean, ikastolak, hasieran oztopo larrien artean izan arren, plazaratzen hasi zirenean. Oztopo hauek ematuz joan ziren gero, baina 1975.eko Maiatzean emandako dekretu bat izan da elebitasunerako lehen pausoa, gobernuak bere erara ulertuz izanik ere. Abenduaren 15-ean, kultura eta administraritzaren alor praktikoetara zabaldu izan da euskararen erabilpena. Nahiz eta oraindik oso era mugatuan, legeak batzarretako agiriak gaztelaniaz idaztera behartzen bait du.

Bada, nolanahi ere, dena irekitasun-itxura hutsean gelditzeko arriskua. Jarrera honekin, alderdi espainoletan oraindik bizirik dirauen inperialismo linguistikoa azpimarratzen da; bestela esan, aldian aldiko egoerara egokitzeko bakarrik eman ohi den fedetxarreko moldadura bat besterik ez da hori; Euskadin euskaldun itxurapean kokatu diren taldeetan agertzen da orobat; eta, azken batean, gure kultura defenditzen badute, bizi gareneko ekaitz politikoari alde egiteko asmoz besterik ez dute egiten.

## Ondorioak

Kapitulu honetan, euskararen bazterketa argitzeko giltzak diren datuak ematen saiatu gara.

Bazterketa gure eskubidea ukatzeko egiten da; eta ez, askotan sinplifikatuz esan ohi den bezala, euskararen beraren barne-egitura txiroaren ondorioz, hizkuntzak berekin duen eragipen politiko eta ekonomiko indartsuagatik baizik.

Hona hemen, labur bilduz, honartean argitu nahi izan ditugun datuak:

1. Noiz eta nola gauzatu izan den euskararen atzeraketarik zaharrena eta gaztelaniagatik ordezkapena, Araba eta Nafarroako area zabaletan eta Bizkaiko Enkartzaietan.

2. Horretan zerikusia izan duten faktoreen eragina.

Eta bi ohar hauen ondorioz, *konklusio garrantzitsuok*:

1. Hizkuntzen arteko ukipena ez da elebitasunezko egoera nola-hala orekatu batez konpontzen; aitzitik, *hizkuntza batek bestea ordez-*

*katuz bukatzen du.* Hortaz, beti ere biktima bat sortzen da, heriotz-zeinua berekin daramana.

2. Gertaera hau *arrazoi extralinguistikoen* emaitza da, funtsean *arrazoi sozio-politikoena*.

3. Espainiako indar zentralak etapaz-etapako eta luzera handiko *kolonialismo linguistikoa* ezarri du, gaztelaniaz, beste hizkuntzekiko.

4. Kolonialismo linguistikoa hau Austriekin hasi zen, Borboiekin zorroztu, eta *diktadura frankistaz izan du adierazpiderik basatiena*.

5. Bizi ditugun postfrankismoko garai hauetan, Estatu espainolak hasitako politika linguistikoak ez du euskaldunon errotiko problema kulturalaren larritasuna kontutan hartzen; eta, beraz, ez da errealista. Badi-rudi *emaitza berdinak lortuko dituen taktika berrien bila dabiltzala*: gaztelaniaren hegemonia eta euskararen ezinbesteko heriotz pausatua, komunikabide-hizkuntzen arloan.

Azken batean, zentralismo espainolak euskaraz hitzegiten zen Euskal herriko lurraldeetan jaso duen emaitza bera: gaur egun lurralde horietan hain daude gaztelaniaztaturik non euskaldun zireneko garaiaz ere ez baita oroitzapen-arrastorik gelditzen.

Kasu berezi batzuek salbu toponimiak bakarrik adierazten die beren etorkia.

Hau Ameriketara ere gertatu izan da, Afrikan (ondorioak oraindik bistan ditugula), eta beren hizkuntza, beren herriaren izpiritua gordetze-ko garaipena lortu gabe borrokatu duten Europako beste zenbait herritan.

Orain da unea, kapitulu berri eta demokratiko baten aurrez aurre omen garelarik, nondik gatozen jakiteko unea, eta berreskuratze-bidean euskaldunok nahi dugun alderuntz jotzeko garaia.

Gure eskubidearen kontzientzia badugu behintzat; eta geure esku dago beraz, inon egotekotan, berori bideratzeko eginkizuna.

Kapitulu honetan aipatu ditugun gaztelaniazko lurraldeen kasu hauetaz aparte beste batzu ere badira egoera txarrean daudenak: gaur eguneko gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipen-lurraldeena, eta bizigune hiritartuena. Honek ere badu berezitasunik. Geroago aztertuko ditugu, lehen zati honetan.

## 2. Kapituluua

### UKIPEN-AREAK

Has gaitezen, hemen ere, hitzak argituz.

“Ukipen-area”, area euskaldunen eta jadanik gaztelaniaztatuen arteko zona linguistikoak aipatzeko erabiltzen dugu.

Baina area hauek galdu egin dute, azken denboretako bi fenomeno direla bide, orain artean zuten zentzu estatikoa: 1) inposaketa ofizialak jeneralduekin egin du gaztelania *euskal lurralde guztian*, eta beraz euskara ukipen oso eta iraunkorrean dago berarekin; eta ukipenean baino areago “gatazkan” dago; 2) beste hainbeste gertatzen hasia dela esan daiteke, nahiz eta maila apalagoan, area gaztelaniaztatuetan hamar urtetik hona: euskararen presentzia sendoago eta mamitsuagoa da sortu diren ikastola eta gaueskolak direla bide, eta jaialdi artistiko-musikal eta komunikabide elebidunei esker.

Ukipen edo gatazkako area hau zabaldu egin da, era eta gradu desberdinez bada ere, Euskal herri osoko lurretan zehar.

“Ukipen-area” kontzeptuarekin “area linguistiko”-arekin gertatu zaigunaren antzerakoa gertatzen zaigu: hautsi egin da bere zehaztasuna eta ez du balio expresatu behar duen errealitate dinamikoa adierazteko.

Eta gaurko errealitateak adierazteko funtzio horregatik jaio diren prozesu linguistiko bizi hauen artean, “ordezkapen”-arena dago.

Orain arte erabili izan den “atzeraketa” hitzaren ordekoa dugu.

Gaztelaniaztaturiko zonetan eta euskara galtzeko zorian dauden bestetan gertatu zena, euskara eta gaztelaniaren arteko *ordezkapen* garbi eta ximplea besterik ez bait zen izan. Laguntza ofizial eta era desberdineko egoeretan dauden bi hizkuntzen arteko borrokaren ondorio logikoa da.

Zenbaitek esaten duenez ez da arrazoirik, elebitasunezko egoera orekatu batetan, bi hizkuntza pake onean eta anaikero ez bizi ahal izateko; baina oreka honek, lehenik, gure herrian bete ez diren baldintza batzu eskatzen ditu. Gaztelaniak indar ekonomiko, politiko eta kulturaleko egitura guztietatik hartu du laguntza, eta "garbitu" egin du euskara euskal geografiako zona askotatik, bere azken arnasetara estutuz.

Gero ikusiko dugu nola.

Baina orain, gehixeago edo gutxixeago, izkutuko borroka hori ematen ari deneko *ukipen-zona* honetaz mintzatuko gara.

Bi mailetan aztertuko dugu hori: 1) *kolektiboan*, euskara galdu duten eskualde edo herrien historia aztertuz, eta 2) *pertsonalean*, garai batetan euskara hitzegin eta gero galdu egin dutenei elkarrizketak eginuz.

1. *Maila kolektiboan*, euskaldun izan ziren eskualdeetan ordezkapena nolakoa izan den jakin nahi dugu. Hauetako eskualde batzutan orain oso gutxi dela jazo da eta egun, aurrekoen erara, guztiz edo erdizka gaztelaniaztaturik aurkitzen dira. Zerak aztertuko ditugu: a) *faktore sozio-ekonomikoak*, aktibitate ekonomikoaren aldaketa posibleak eta berak dakartzaten mugimendu migratorioak, eta bizitzeko eran eragiten dituzten aldaketak; b) *faktore sozio-politikoak*, ordezkapen prozesuan eragin handiena izan dutenak; c) *faktore instituzionalak*, barne-ordenakoak: familia, hauzoa, lana eta olgeta; kanpo-ordenakoak: administrazio publikoa, Eliza, Ikastetxeak, eta osasuna eta finantzetarako zerbitzuak, adibidez; d) *mekanismo psiko-sozialak*, euskararen desbalorazio eta gaztelaniaren superbalorazioan parte izan dutenak, eta honekin batera joan diren aurreiritzi eta estereotipoak; gogoan hartuz, noski, klitxe hauek suspertu dituzten multzo kolektiboak.

Ikusten denez, ordezkapen linguistikoaren fenomenoari ahalik eta era objektiboenean heldu nahi diogu; eta, azkenik, *ordezkapen*-prozesuaren nondik norakoa eta hari kontrajarri zaion *erresistentzia* ezagutzuz, bere ondorioak aztertu.

Maila kolektiboari buruzko estudio hau burutzeko, aztertutako zona edo eskualdeetako biztanleetan somatzen diren euskara berreskuratzeko esperantzak ezagutu nahi izan ditugu: itzultze linguistiko honetarako posibilitateak zeintzu diren, herri-maila desberdinek duten jarrera, berreskuratze-prozesua eraginkor izateko bete beharreko baldintzak, oztopo nagusiak aurkitu eta guzti hori posible izan dadin hartu behar diren neurriak.

2. *Maila pertsonalean* jaso nahi dena, aldiz, ondoko hau da: a) garai batetan euskaldun izan ziren eta orain ez diren pertsonen historia, eta b) beren arbasoen hizkuntza berreskuratzen ari direnena. Eta historia kolektiboan antzeko eraz: faktore pertsonal eta instituzionalak, galtzeak sortzen dituen sentimenduak eta berreskuratze posiblearen aurrez aurreko jarrera pertsonala.

Gure ikerketaren helburua, azken batean, horixe bait da: berreskuratze-prozesua gurean nola gertatu den aztertzea, horretarako agian ikuspuntu gutxi jorratuetatik abiatuz.

Honekin, oinarri gabeko planteamendu sinplifikatzaileak behin betirako baztertu nahi genituzke.

## METODOLOGIA (AZTERKETARAREN PLANTEAMENDUA)

Ikerketaren helburuak definituak daudelarik, pasa gaitezen orain metodologia erabiliaren aurkeztera.

*Non eta nola* galdekizunak ditugu, batez ere, erantzun beharrekoak.

### Estudioaren hesparrua (bertako areak)

Helburuei buruz hitzegin dugunean esan bezala, aztertu nahi ditugunak zerak dira, euskara guztiz edo partez galdu duten baina area euskaldunekin mugaide diren area geografikoak. Muga hauek marrazterakoan datoz zailtasunak.

Eta area hauen barruan azterketari nola ekin erabakitzerakoan: oinarrizko unitatetzat *udalak* hartuz, eta *eskualdeka* taldekatzuz.

Ikerketarako oinarrizko unitatetzat *eskualde naturalak* hautatu izan dira, ordezkapen linguistikozko fenomenoak, aleka hartutako udaletan baino areago, beste maila honetan jazo izan delako.

Arrazoi bategatik: herri baten oinarrizko beharrak hor aurkitzen dutelako erantzun osoa: Lana, irakaskuntza, olgeta eta zerbitzu sanitarioak adibidez. Zirkunstantzia hauek izan dira, hain zuzen, bailara, merinalde eta eskualdeek izan duten pertsonalitatearen erra.

Halere, alde batetara utzi nahi izan ditugu eskualdekatzeak askabide absolutu gisa ekar dezakeen arriskua.

Eskualde batzutan, bera osatzen duten udalak jarraitutako prozesua ez da homogenoa. Badira batetik euskara gorde duten herriak; eta beste zenbaitek, berriz, haien ondoan egon arren, galdu egin du.

Hemen, desberdintasun hauek kontutan hartuak izan dira.

Kasu guztietan, halere, nahiz eta udal mailan desberdintasunok izan, oso garbi gelditu da gertaera linguistikoa ez dela maila lokal honetan planteatzen, eskualdekoan baizik.

Hona hemen estudio honetan analisatu diren eskualdeak. Euskal herriaren mendebaletik hasi eta ekialdeko mugaruntz doaz, liburu honetako beste toki batetan ematen dugu mapan azaltzen den bezala, zona euskaldunaren eta gaztelaniaztatuaren arteko zerrenda gisa.

*Bizkaia:* Enkartazioak  
Nerbioi-Hibaizabalen ezkerreko urbazterra.

*Araba:* Aiara-Okondoko harana (Laudio-Amurrio)  
Gorbearen mendiinguruetako eskualdea (Zuia-Zigoitia)  
Legutioko eskualdea  
Arabako lautada (Agurain-Araia)

*Nafarroa:* Sakana (Ziordiatik Irurtzuna)  
Itza, Ultzama, Atez-Odieta  
Erro-Aezkoako ibarrak  
Erronkariko harana

Hemen ez zaigu beharrezkoa iduritzen eskualde hauek elkarren desberdinak zergatik diren aztertzea.

### **Prozesuak (nolakoa)**

Eskualdeak ez dira soilik beren gaurko egoeran bereizten, batzuek eta besteek jarraitu duten prozesu linguistikoaren arabera baizik: alde batetik, eta garaiari dagokionez, kasu batzutan gaztelaniaztapena aspaldiko denboretan gertatu izan da; eta beste batzutan, berriz, azken hamarkadan; eragileei buruz, aldiz, batzuren gaztelaniaztapena etorkinei zor zaie, pertsona arrotzei; beste batzutan, ordea, barreneko faktoreak izan dira: beren seme-alabak izan dira herritik kanpora ikasitako hizkuntza beren herrira ekarri dutenak.

Egoeren aniztasun honek, honela, halabeharrez gure metodologia kasu bakoitzera egokitzera eraman gaitu.

Halere, beti mantendu nahi izan dugu hari eroale baten erreferentzia amankomuna; eta honek, ordezkapen linguistikoaren gertaera jazo den eran, elementu desberdinak konparatzeko aukera eman digu.

Eta hau ez da erraza izan.

Bizkaiko Enkartazioetan, eta oraintsuago Arabako lautadan edo Erronkari haraneko kasuan izan den zirkunstantzia paregabearen pentsatu besterik ez dugu. Batzutan ez da posible izaten, hango ordezkapen linguistikozko prozesua bizi izan dutenen artean lekukotasunik jasotzea.

### **ORDEZKAPEN-PROZESUAREN MEKANISMOAK**

Hizkuntza baten besteagatiko ordezkapenean, gaztelaniaztapenean alegia, prozesuaren dinamika erakusten duen gertaera batetik abiatu behar da: gaztelaniaztatutzat jotzen ditugun areetan osaturik dagoen zikloa, ukipen-zonak deritzagun horietan oraintxe ari da sendotzen.

Hau da, hain zuzen, orain arte euskaraz hitzegin izan den eta orain-txe bertan galtzen ari deneko herri eta eskualdeetan egindako estudiantik jasotzen den lehen emaitza.

Gaztelania eskema ezagun batez ari da gailentzen.

1) *hasierako* gaztelaniaztapena: haurrek euskara hitzegiteari uzten diote; 2) gaztelaniaztapen *aurreratua*: gazteak direnean beren hizkuntza hitzegiteari uzten diote; 3) gaztelaniaztapen *sendotua*: pertsona helduak uzten diote euskaraz hitzegiteari; 4) gaztelaniaztapena *burututa* dago, zaharrenek beraiek ere hitzegin ez dutenean.

Hau da, beraz, hizkuntza bakar ofizialeruntz doan ordezkapenean aurki daitekeen beste egiaztapena: baztertuta gelditu den hizkuntza galdua dago: alde batetik eskolakuntza eta komunikabideen eragina haundituz doan eran; eta, bestetik, hizkuntzaren transmisio-mekanismoa, geroz eta belaunaldi ahulduagoetan zehar, gesalduz doan arabera. Eta kanpoko eragina haundituz doa gainera, familiaren ohizko trinkotasuna txikituz doan eran.

Bizkaiko Enkartazioetatik hasi eta Nafarroako beste muturrean dagoen Eronkarira arte, ezaguna da gertaera hau eta edonon errepikatzen da.

Bada araua hausten duen zenbait salbuespen: Aramaiok Araban eta Sakanak eta Ultzamak Nafarroan, lortu egiten dute euskara udal batzutan gordetzea. Aparteko lekuko hauek arreta berezia jaso dute; egiaztatu ahal izan da, gainera, badirela higadura eta galerako ingurune batetan euskara mantentzen saiatu diren nukleo txikiak.

Mekanismo honek argi eta garbi adierazten digu nahi izateak duen balio aparta: jarraigarrria noski; baina, duen lekukotasun-balioaz gainera, beti ere iragankor eta hutsala.

Mekanismo nagusiak beste nonbait daude.

Hauek, normalean, lehen aipatu ditugun konstanteek ekiten duten tokian daude: indar sozio-ekonomiko-kulturalak, azken batez politikoak, ekiten dutenetan: haien bultzadaz gertatzen baita, adibidez, diglosiak jotako zerrenda honetako herri gehientan. Lehenengoz sasi-ehlebitasunezko aldi labur bat izaten da, gaztelania euskararen kontura aurreratuz doana. Azken batez, noski, inposatu egiten da.

Eragin handieneko faktoreak honako hauek dira, lehentasun-mailaren arabera: 1) sozio-politikoak; 2) sozio-ekonomikoak; 3) instituzionalak; 4) psiko-sozialak.

Azter dezagun, laburzki, faktore bakoitza.

## 1. Faktore sozio-politikoak

Kolonialismo linguistikozko ikuspuntu orokor batetatik, eta mekanismo honen mendean dabilta ezagututako kolonizazio-prozesu guztiak



(Ameriketako XVI eta hurrengo mendeetakoa Espainiaren bidez, eta algeriarra XIX. eta XX. mendeetatik orain arte, Frantziaren esku), Administrazio zentralak inposatzen dituan neurri politiko-administratiboek kanpo (eta gure kasuan Austriekin hasten da —XV. mendearen bukaeran— eta, batez ere Borboiekin —XVIII. mendean—) honakoak azpimarratu behar dira.

1) *Erregearen ordezkarien* jokaera: politika kolonialaren bide zuzena izan dira, alde *bietarako komunikazioak gaztelaniaz bakarrik egin araziz*, kulturguneak sortuz eta Gorteetako kargu eta ohoreak lortzeko bide eroso bilakaturik.

2) Maisu nazionalak ere bete dute beren gaztelaniazko hezitzaileen eginbeharra (betebeharra izan dute, eta badira gainbegiratze eta zigor kasuak amoremaleentzat). Denok ezagutzen ditugun fruituak eman dituen esaera hari jarraituz, letra odolez sartzen ahalegindu izan dira. Berak izan dira, haurren hezitzaile-egoera pribilegiatutik eta herrietan izan duten ohoreaz baliaturik, ereite honen egile, berariaz nahiz axolagabeak. Eta ereintza hau izan da pipiarik eraginkorrena kimu basati eta setatiaren aurka, kultura eta aurrerapena ekar litzakeen landare bakar-raren kontrako kimua berau. Zigor fisikoaz ere inposatutako irakaskuntza honek, herriko zona askoren gaztelaniaztapen sistematikoa ekarri du, eta psikiatreek neur ditzaketen heziketazko zapuzte eta errudun-sentimenduak sortu; asko dira beren eskolako esperientzia tristearen lekukotasuna eman duten ohore profesionaleko eta moraleko euskaldunak; eta politika honen beste fruituak, berriz, bistan dira.

3) Funtzionario publikoak, Udaletako Idazkariak batez ere, eta hauen artean nekazal udaletakoak, udalik euskaldunenetakoak beraz, izan dira herriak jasan duen kolonizazio linguistikozko politikaren egile berezienak. Gehienek "beren eginbeharrak betetzea" agertu izan dute aitzakiaz. Nürnberg-ko hauzietan bezalatsu, hortaz; baina badira beren kabuz ere aurrerago jo dutenak.

Hiru faktoreek aipatu ondoren, garaia izango da beharbada puntu bat argitzeko, justizia egiteko egokia bait da edozein ordu. Gaztelania eta frantsesa hizkuntza bezala ez dira berez inongo kolonizazio edo antisia inperialen errudun, baina bai izpiritu jakobiar eta zentralistaz bultzatutako agintari kolonizatzaileak, beren hizkuntzak tresna menperatzaile gisa erabili dituzten inperialistak.

Faktore hauek guztiak nabarmenki azaldu dira Hego Euskadin, oraindik ere ezin uxatuz gabiltzan frankismoazko azken berrogei urteotan.

## 2. Faktore sozio-ekonomikoak

Hauek ere izan dute eraginik, maila apalagoan izan arren, salatzen ari garen ordezkapen-prozesuan;

1) Industrializazioak eta ihardun ekonomikozko aldaketak, deskribitzen ari garen kolonizazio kulturalako ingurunean, eragin handia izan dute euskararen erabilgabetze-bidean. Azken berrogei urteotako industrializazio itogarri honetararte Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa eta Arabako zati batzutatako nekazal gizarteak mundu bat osatzen zuten, errotik eta erabat euskalduna; ezin pentsatuzkoa zen, esate baterako, landetan gaztelania entzutea. Edozein aldaketa-prozesu, eredu euskaldunean mamituta mundu kulturalaren barruan, ezin zen inoiz gertatu, etorkinen faktorea kontutan hartuz ere, hainbateko deserrotasun-bide, katastrofe eta min. Eta guzti hau, jakina, eukal hizkuntzaren eta zibilizazioaren enborean arrotz denak eragindako desbabes instituzionalaren eta aiherkundearen ondorio izan da.

Ezintasun eta min hau, egun bizi dugun borroka harmatuaren iturrietan ere ikus daiteke.

Bi karlistadetan eta hirugarren gerrate errepublikarrean bezalaxe, nahiz eta denbora, erritmo eta metodo desberdinez.

2) Industrializazioak erakarri duen *immigrazioa*, zenbait zonetan masiboa, eremu kultural eta linguistiko desberdinatetik dator. Beste hizkuntzetako herriek duten bezalako instituzio euskaldunik gabe ezin kanaleztatu da gure premia; eta oharkabean, instantzia politiko-administratibo eta heziketazkoek erraztutako ordezkapen linguistikozko prozesu zentralista garbian, erdalkuntzaren sendotze-tresna gertatzen dira.

3) *Familiako senitarteko bizitzak* sakonki sofritu du bere egituretan arrazoi sozio-ekonomiko hauen ondorioz. Aldaketa hauek, koadro instituzional euskaldun baten barruan, beste herrietan bezalatsu izan zitezkeen gaindituak; baina gure kultura errotik deusestatzera zuzendutako lan-tresna politikoaz mugatuta gaudelarik, ezinbestekoa izan da gainbehera hori bai euskara eta bai familiarentzat.

Gure kulturen biek elkarrekin funtzionatu izan bait dute zenbait eragigailu psikologikoren bidez. Hauen bidez, familia mundu bat izan da; eta orain gainbehera etorri da, hura defendituko duen inolako baliabide instituzionalik gabe. Honela, eskolan hasitako higadura linguistiko hura poliki-poliki senditarteko komunikazioaren egituretan sartuz doa. Eta euskararen ordezkapenezko prozesu honek familibarneko hizkuntza ere harrapatzen duenean, jakina, ordezkapen-prozesua guztiz burutu dela esan daiteke.

### 3. Faktore instituzionalak

Bi *Instituzio-maila* bereziko ditugu: *kanpoko*a, erregearen Gorteak dakarrena; eta *barruko*a, 1839.arte Euskal herrian funtzionatzen duen oso garrantzitsua, eta gero 1876.erarte mugatuago.

1) Hizkuntzarengan eraginik duten *kanpoko* instituzioen artean, lehenengoa *Eliza* da.

Bere hierarkia eta ministrariak oso eragin garrantzitsua izan dute ordezkapeneko prozesuetan, baina baita euskararen kontserbazioan ere. Hierarkiak, oso salbuespen mugatuekin eta hauek beti lokalak izanik, axolagabetasunezko jarrera hartu izan du. Jarrera hau hizkuntz ordezkapeneko prozesuaren lagungarri da azken batez, eta Apaiztegietan hasten da: apaizgaiak ez dira hezitzen gero beren eginbeharretarako beharrezkoa izango duten hizkuntzan.

Ez-axola usteko portaera honek antieuskaltasun gogorrakoak azaldu ditu erlijiosoen eskola-mota orotako ikastetxeetan: bai berentzako zentru berezietan (apaizgaitegi, nobiziatu eta formazio-etxeak), bai lehen eta erdi-mailako irakaskuntz eskoletan, eta bai herriko aberaskumeei zuzendutako unibertsitate-zentruetan ere.

Bertako kultura eta hizkuntzarenganako maitasuna (gauza mundutarrak) erlijiosoek horiekiko behar luketen "ez-axola santu"-arekin bateraezina deklaratzaren zuten planteamendu batzuren azpi-jokoak badakigu nora murgildu dituen gure herriko hainbat seme eta, batez ere, alaba: beren erlijio-gogoen izenean gure herriaren baliorik sakratuenak gorrotatzera. "Ez-axola santu" horrek ez die, ordea, hizkuntza kolonizatzailea bereganatu eta besteengana zabaltzeko orduan inolako trabarik sortu.

Gezurra dirudien arren, hala da.

Apaiz hauek, herriz, herriko seme izanik, esandako ahalmen mugatuekin ere, borrokatu egin dute hein handi batetan bere babesean; baina obedentziarako joerak laburtu egin du lan hori eta, etsipenezko urte luzeetan zehar, lekukotasun hutseko jarreretara mugatu. Hau askotan garrantzitsu izan da, jarrera kolektiboetan eta borroka harmaturuntz eraman duten erabaki pertsonaletan. Bide honetatik deseuskaldundu dira nekazal komunitate batzu, Elizaren eragipenari ezin aurre eginik: apaizek kristau-ikashidea euskaraz erakustetik uzten duten unetik beretik, eta sermoigintza euskaraz zertzen ez den unetik (biak, efikaziaren izenean, ohitura handikoak izanak dira frankismora arte), ordezkapen linguistikozko prozesuak sekulako abiadura hartzen du.

2) Historiaren haritik, Junta Generaletan, Diputazioetan eta Udaltxeetan zeuden erakunde euskaldunek asko egin zuten euskalduna beti ere beharrazkoa zen gaztelaniara kolpe handirik gabe irits zedin. Herri eta hauzoetan funtzionatzen zuten eskola munizipaletarako maisuak izendatuz adibidez, nahiz eta maisu hauek 1857.ean Estaduko inspektzioak inposatutako "Ley Moyano de Educación" delakoaren menpean egon.

3) Euskal herrian, barruko erakunde garrantzitsu bat *familia* da. Jasan duen eragin sozio-ekonomikoaz esandakoaz beste, lasai esan genezake erakunde hau dela garairik larrienen hizkuntzak aurkitu izan duen babeslekua. Erraz egiazta daiteke, halaz guztiz ere, zenbait kasutan

familiak berak jasandako mespretxu publikoa eta arrisku politiko eta poliziala bere seme-alabengan ez berrikusteagatik euskara erroz moztu izan duten familiak badirela. Eta, zenbaitetan, gorrotoan hazitakoak ere bai.

Kasu bietan seme-alaben aldetik oso erreakzio serioak sortu dira, azken hauek beren gurasoen jarreraren aurka beren nortasun linguistikoa onartzean; eta maila honetan bildu dira, hain zuzen, erreakziorik ikusgarrienak berreskuratze linguistikorako bidean.

#### 4. Faktore psiko-sozialak

Mekanismo hauek aurreiritzi eta estereotipo bezala funtzionatu izan dute. Eta beti gaztelaniaren alde, itzal handienekoaren alde beraz, irabazle izango dela jakina denaren alde. Poztasunik handienak eta eragozpenik urrienak ematen dituen hizkuntzaren aldeko aurreiritzia heredatuz hasten da, eta gero bizitzako eskarmentuak berak sendotu ohi du. *Estereotipoa*, honelakoetan, ia beti automatikoki funtzionatzen duen klabe bat da; "ia" hau informazio, kontzientzia eta borrokarako borondateak elikatzen du. Baina salbuespen pertsonal batzu besterik ez dira, eta izan dezaketen eragin zuzena eskasa da. Enkarterrietatik Erronkarira doan zerrendan azaldutako kasuak dira hauek.

Heziketaren maila guztietarako bide errealetatik, Administrazio, Komunikabide eta Eliza ofizialetik (Jainkoak lehenbizi latinez hitzegiten bait du, eta gero gaztelaniaz. Salbuespen batez, halere: gure herriko apai-zen bidez hitzegiten duenean; justiziazkoa bait da askotan hori gertatu dela esatea) erraza izan da, oso erraza, gaztelania kultura, aurrerapen eta zibilizazio modernoaren hizkuntzatat aurkeztea. Ez dugu ahaztu behar, nolnahi ere, gaztelania, milioika jende mundu guztian zehar hitzegiten duen hizkuntza izatera iristeko izan dituen bide eroso eta zabalez aparte, literaturarik aberatsenetako hizkuntza batean loratu dela; eta, horretaz gainera, erakunde internazionaletan hizkuntza ofizialtzat ere aukeratua izan dela.

Dena dago, beraz, gaztelaniaren alde eta berez murriztua izan den eta bere biztanleetarik hiru laurdenez gabetua izan den herri-hizkuntzaren aurka.

Balio-mailaketa honetan, erabili izan den gogortasunak emendatu baizik ez du egin jipoia.

Hain urrutira iritsi gara, non euskarari dialekto eta mordoiloiei daxezkien gaitz eta anemia sortzetikoak egotzi bait zaizkio; latina kultura eta ospeko hizkuntzatat defenditzen zutenek gaztelaniari egozten zizkieten akats berberak, alegia.

Eta Europako hizkuntzarik zaharrenaz dagoen kontzeptu eskas hau, ez du ez eskolak ez Unibertsitateak zuzendu, nahiz eta erakundeok egia

BIZKAIA	INGURUNEA	BILTZEN DITUEN UDALAK	HIZKUNTZ EGOERA
	ENKARTAZIOAK Biztanleak 1975ean: 335.506	1. Lanestosa, Karrantza, Tur- tzioz, Artzentales	Inoiz euskaldunak izan badira ere ezazaguna da euskara gal- du zuten garaia. Toponimia ez da euskalduna.
		2. Sopuerta, Zalla, Balmaseda	XVIII. mende-hasieraraino eus- kaldunak izan ziren.
		3. Galdames, Guenes, Gor- doxola	XVIII. meandearen bukaera al- dean galdu zuten euskara.
		4. Muskiz, Abanto-Zierbana, Santurtzi	Inoiz euskaldun izan baziren ere ez dakigu noiz erkaldundu ziren.
		5. Portugalete, Trapaga, Ses- tao, Barakaldo	XVIII. mendearen bukaerarar- te euskaldunak izan ziren. XIX. mende-bukaeran oraindik euskaraz egiten zen Barakaldon.
ARABA	AIARAKO HARANA Biztanleak 1975ean: 36.407	1. Artzeniega, Okondo 2. Aiara, Laudio	XIX. mende-hasierararte eus- kaldun 1850 eta 1920 artean galdu zuten euskara.
		3. Amurrio, Urduña 4. Lezama, Arrastaria	XIX. mende-bukaerararte gor- de zen euskara. Mende hone- tan galduz joan da. Azken hondar batzuk gelditzen dira Baranbion.
	GORBEIALDEA Biztanleak 1975ean: 6.568	1. Urkubustaiz, Zuia, Zigoitia	Euskaldunak XIX. mende-erdi- rarte. Galera 1850 eta 1920 artean gertatu da. Euskaldun gutxi batzuk gelditzen dira.
		2. Legutio, Arratzu-Ubarrundia	Euskaldunak XX. mende-hasie- rararte. Galera azken gerrateaz gero zertzen da. Zahar batzuek euskara ezagutzen dute.
		3. Aramaio	Euskara bizirik dago hemen.
	ARABAKO LAUTADA Bizt. 1975ean: 9230	Barrundia, Donemiliaga, Aspa- rren, Zaldundo	Galera XIX. mende-hasieran abiitzen da eta XX. ean buru- tzen.
		Burgelu, Dulantzi, Iruraitz-Gau- na, Agurain.	XVII. mende-bukaeran hasten da galera. XVIII. mende-erdialdean gor- puzten da. XVIII. mende-bukaeran eta XIX. aren hasieran burutzen da.
NAFARROA		Ziordi, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri- Aranatz, Arbizu, Ergoien, La- kuntza, Arruazu, Uharte-Ara- kil, Irañeta, Arakil.	- Altsasun, Iturmendin eta Arakilen XIX. mende-erdial- dean hasten da. - Ziordi, Olazti, Bakaiku, La- kuntza, Uharte-Arakil eta Irañetan euskararen galera gerrarekin hasten da, eta gerraondoan gorpuzten.

NAFARROA	INGURUNEA	BILTZEN DJTUEN UDALAK	HIZKUNTZ EGOERA
			<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urdiain, Ergoien eta Arbizun bizirik dago euskara.</li> <li>- Etxarri-Aranatz-en ere bai, neurri apalagoan bada ere.</li> </ul>
		<p>Itza.</p> <p>Ultzama, Atez, Odieta.</p> <p>Lantz, Anue.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Itzako haranean XIX. mende-erdialdetik hasi zen galera, eta XX. aren erdialderako burutua zen.</li> <li>- Ultzama, Atez eta Odietako lehenengo galera arrastoak azken gerratean nabaritzen hasten dira.</li> <li>- Badira oraindik leku batzuk euskara gailen ageri dena.</li> <li>- Lantzen eta Anueko Haranean galera zertxobait lehenago hasi zen eta euskararen presentzia ahulagoa da.</li> </ul>
ERRO-AEZKAO Bizt. 1975ean: 3932		Erroibar, Auritz, Orreaga, Luzaide.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen galera 1920 inguruan hasten da.</li> <li>- 1940az geroztik sendotzen da.</li> <li>- 1965 inguruan burutzen da.</li> <li>- Luzaide salbu, han bizirik bait dago oraindik.</li> </ul>
		Orbaizta, Garralda, Oroz-Betelu, Aria, Orbara, Aribe, Garaioa, Aezkoa-Iriberrri, Abaurregaina eta Abaurrepea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara mantentzen duten udalak Aria, Abaurregaina eta Aezkoa-Iriberrri dira.</li> <li>- Gainerako udaletan euskararen galera berria da, gerraz geroztikoa, baina ia erabatekoa. Banaka batzuk dira euskaraz dakitenak.</li> </ul>
ZARAITZU ETA ERRONKARI Bizt. 1975ean: 4168		Otsagi, Itzaltzu, Eaurta, Ezkaroze, Orontze, Espartza, Sarze, Gorza, Galoze, Burgi.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mende-hasieran haran osoko hizkuntza nagusia zen euskara.</li> <li>- Euskararen galera ia erabatekoa da bailaran. Agure bakar batzuk badakite oraindik euskaraz, baina ez dute normalean erabiltzen.</li> </ul>
		Erronkari, Urzainki, Izaba, Uztarroze, Bidankoze, Garde.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XIX. mende-erdialdean bera zen hizkuntza nagusia erabileran mailan.</li> <li>- Emakumezkoak elebakarrak dira XX. menderarte.</li> <li>- 1932-36 aldean euskaraz entzun zitekeen oraindik Izaba eta Uztarrozen.</li> <li>- Erabateko galera 1975 urte inguruan gertatu da azken amona hiltzean.</li> </ul>

zientifikoa barreiatzera beharturik egon. Aitzitik, gezur hau Estatu Espainol guztira lasaikiro hedatzen utzi da, egia bailitzan. Eta honela, orain, demokrazia estrenatu nahian hasten garenean, adigaitzasun eta gorrotoz inguratuak aurkitzen ditugu gure kultura eta hizkuntza, Euskal herriak nahi duen berreskuratze politikorako funtsezko eskubideen barruan eskatzen ditugunean.

Justizia hutsaren bila.

Inolako pribilegiarik gabe.

Eta adigaitzasun gorrotozko horrek gure irudiaz karikatura eginez jarraitzen duen artean, Euskal herriak, eta batez ere euskaldunak, ezin euskaraz mintzo eskolan, soldadutzan, ez eta Madrilen etxeko zerbitzuetan (denetarako balio izan baitugu); maila guztietako irain politiko eta kulturalak jasanez, ez ulertua, iraindua sentitzen da berriz ere. Oraingo honetan, gainera, demokraziarako bidea deritzatenean.

Berak ari dira gazteen erreakzioa pizten.

Zoritzarrez, badirudi hori dela errespetu apurra inposatzen duen argudio bakarra, gure herria sufrituz datorren mila aldetako gogorkeria-  
ren aurka balio duen bakarra.

## ERAGINA ZONETAN

Hasteko, ukipen-area honetan izan diren galerak denbora desberdinetan zehar gertatu izan dira.

Aitzina, Bizkaiko *Enkartazioetan* eta Nafarroako *Iza* eta *Erronkari* bailaretan. Azken honetan, hain zuzen, ezin izan dugu leku horietan testigantza zuzenik aurkitu. Galera hau berriagoa duen zonetan, ordea, bai; baina hauen barruan ere badira zenbait leku ikertzeko zailagoak, Aiara-Okondo eta Agurain-Araiaiko inguruekin gertatzen den bezala, adibidez.

Historilari-lana bakarrik posible izan den leku hauei buruz zenbait xehetasun eman ondoren, ikus ditzagun zein baldintzatan gertatu diren galerak zona berriagoetan:

*Aiara-Okondo* inguruan, zenbait zona bereizi behar da: *Laudio* eta *Aiara-Okondo* alde batetik, bertan XIX. mende-hasieran ekin bait zitzaion ordezkatzeko-prozesuari 1920. urtean amaituz; eta *Amurrio-Baranbio* bestalde, jera hori kasu honetan XIX. mendean eta XX. aren hasieran indartuz. *Gorbeia*ren *inguru*etan ere badira zenbait berezitasun leku batetik bestera. Generalean, eta prozesua aintzinago gertatu zen lekutan, galera XIX. mendeko bigarren erdialdean hasi zen. Halare, gehientsuenetan XX. menderarte ez da gertatu izan; oraindik ere, nahiko larritasunaz bada ere, bizirik gorde dute. *Arabako Lautadan*: XIX. mendeko hasieran galdu zen Agurainen; ez ordea Araian, XX. mendeko hasierararte gorde izan bait da han. *Sakanan*, galeraren epea 1936. go gerratean finkatu izan da; Harez geroztik, euskara hainbat ahuldu duen bortxaketa jasan beharra

izan da; halaz ere hizkuntza bizirik dago oraindik, Arakilgo Hiriberrin salbu; bertan, izan ere, XX.mendean utzi zioten euskaraz egiteari.

*Itza-Ultzama-Atez-Odieta* ingurunean:

*Sarasa* XIX.mendeko bigarren erditik dago gaztelaniaztaturik; *Gulianan*, 1920an finka daiteke galeraren hasiera eta 60 etako hamarkadan bere amaiera. Beste bailaretan, *Ultzama - Atez - Odietan*, azken gerratearekin etorria da gaztelaniaztatzearen momentu gorena, gaur egun prozesua oraindik erabat burutu gabe dagoelarik. *Erro-Aezkoan*, galera lehen-txoago hasi bazen ere, badira oraindik zenbait aiton-amona euskaldun.

Labur bilduz: euskararen galera, antzina batean gertaturiko zonak kanpoan utziaz, lekukorik eta gelditzen ez denekoak alegia, gaztelaniaztatearen momentu gorena azken gerratearen inguruan finkatzen da, momentu zailenak horren ondorengoak izanik, Francoren agintepeko denboraldi luzean zehar.

## GALERAREN FAKTOREAK

*Sozio-ekonomikoek* dute garrantzi handia.

Halere, galera era desberdinetan gertatu izan da zona batetik bestera: Enkartzazioetan; Audio eta Aiaran, Agurainen, Sarasan, Ultzaman, Atezen, Odietan, Erro-Aezkoan eta Erronkariko bailaretan, egiturazko eta aktibitate ekonomikozko aldaketak gertatu baino lehen, euskara galtzeko zorian zegoen jadanik. Industrializazio hutsa ez da, berez, galeraren zuzeneko eragilea izan; baina, halere azkartu egin du horrek euskara galtzearen prozesua, Nerbioi-Hibaizabaleko inguruan bezala batez ere. Bertan, aldaketa ekonomiko eta sozial sakonekin batera, beste aldaketa funtsezko bat gertatu zen: inmigrazioak sortutako arazo demografikoak alegia.

Inguru horietan, euskara murgildurik geratu da, euskal kultur azpiegitura baten faltan.

Eta azpiegitura honen eza da, hain zuzen, Gipuzkoan, nahiz eta beste gainontzean faktore berdintsuen eraginak jaso, ondorio desberdinak lortu izanaren arrazoia. Gertaera hau ikusirik zera ondoriozta genezake: faktore sozio-ekonomikoak ez dira kausa nahikoa, beraiek soilik etortzen direnean.

*Faktore sozio-politikoak* ere garrantzi handikoak dira, bereziki *kanpoko faktore instituzionalekin* batera badoaz: generalean ados bait datoz, eta 1936.urtetik aurrera areago.

Primo de Rivera-ren diktadura-denboran hizkuntzak asko sufritu zuen, eta berdintsu, nahiz eta hainbat aipu ematen ez zaion, Errepublikan-



garaian. Aldi hartan, jarrera zentralista ofizial mesedegarriena axolagabetasuna izan ohi zen; bestela etsai-aurpegia eta azken batean egiaz debekatzea ere iritsi ziren zenbaitzutan. Testigantza guztiek aho batez aitortzen dute hau. *Aiara-Okondo* arabatar zonan eta Gorbeia inguruan. Egoera hau gogorki larritu zen 1936. urteaz geroztik.

Bortxakeria honen testigantza gisa, Iruñean jasotako hau eskain dezakegu: Nafarroako mendialdeko euskal senar-emazte batzuk, herrietan euskara nolabait maite zutenak gaizki ikusiak zirela eta, horren beldurrez, hiriburura joan ziren, erabaki gogor bat harturik: beraien euskal nortasunaren aztarna guztiak izkutatzea. Beldurra baino areago izupena zen haiek sentitzen zutena, euskaldun eta abertzaleztat salatutako jendearekin zer egiten zen jakindakoan: detenituak izan ondoren gogorki bortxatzen zituztela alegia; eta azkenean, Urbasako Mendikaterra kamioietan garraiatu ondoren, hain ezaguna den Urbasako balkoi hartatik behera botatzen. Hainbatekoa zuten izupena, non bien artean ere hizkuntza erabiltzeari betidaniko utzi baitzioten. Eta zer esanik ez seme-alabekin, arrisku haieetatik salbu egon zitezten. Urteak joan ziren, ia berrogei, eta horra nondik orain inkestazailleek iristen zaizkien. Hasieran ukatu egiten dute euskaraz dakitenik: Azkenean, elkarrizketan barrena lasaituz joan ondoan, hor berrogei urtetan zehar euskara izkutatatu izanaren pekatua.

Beraien seme-alabak dira harrituena gelditu direnak. Zer esan, ordea, egoera hori jasan duenari.

Asko idatzi da nazismo-garaiko Alemanian zeuden juduen ghettoez. Hemen ere, nahiz eta proportzio eta era desberdinetan izan, bere gordinean jasan izan da, diskriminazio kultural hau, leku askotan hizkuntzaren hiltzeraino eraman duena. Ukiguneko eskualde bakar bat ere ez da geratu euskararen galeraren arrazoietatik bat hori dela esan gabe.

Askotan beste kanpoko faktore instituzionalekin uztartuta datozen faktore sozio-politiko hauekin batera aitzakoa da zenbait karguren jabe izandakoen eragin konkretua: maisuak, idazkariak, apaizak, medikuak eta albaiariak: beraiek izan ziren izan ere euskara alboratzen lehenak; kultismoaren eredu ziren gizonen bidez, horretara, herriarengan bere hizkuntza desakreditatua gelditu ohi zen.

*Kanpoko faktore instituzionalek* izugarrizko mina egin zuten euskara-gaztelaniaren arteko mugaldeen: Administrazio Publikoak kasu guztietan; eta, aparatu administratibo eta juridiko erroz antieuskaldunekin batera, eskola nazionalak eta beraietako maisuak, eta Udaltxeetako idazkariak. Zona guztietako lekukoak bat datoz, kasu honetan, zer bide erabili ohi ziren adierazten: behatzarekin seinalatuz batzutan, burlatzeko asmoz; eraztuna eta lakioaren zigorra bestetan, euskaraz hitzik esaten zuenari. Hor dago, gainera, ume bati belarria tiraka zartatu zion maisuaren kasua, euskaraz hitzegiten entzun zuelako; beste batek burua ireki zion metalezko erregela batekin; are gehiago Nafarroako

herri batetan eta euskalduna izanik bera, konpas baten puntarekin min-gainaren frenotxoa ebaki zion ume bati euskaraz hitzegin zuelako. Hauek dira egun frogatu daitezkeen testigantzetarik bakar batzuk.

Kasu larrienak dira, egia, baina ez bakarrak.

Holakoa zen giroa.

Ikertutako eskualde guztietan aitatzen da, orobat, Administrazio Publikoak Elizarengan izan zuen laguntzailea Euskal herriaren deseuskaritze orduan; ez da honen kontrako salbuespenik jaso ahal izan (norbanako-mailan bai, eta ohorezko laguntzaz, baina inoiz ere ez hierarki mailan). Elizak ez du euskara zuzenki jazarritu, genozidio-prozesu honetan kide bihurtzen duen axolakabetasunaren bitartez baizik.<sup>1</sup>

Partaidetza hau nabarmenagoa izan da erlijiosoen ikastetxeetan; horietan, lehen aipatu bezala, gogor saiatu izan da gure herriaren kontrako hizkuntz eta kultur genozidioan.

*Barruko faktore instituzionalen aldetik:*

Familiak, hazategiak, lanak eta dibertsioak eragin eskasa izan dute euskara galtzearen prozesuan; aldiz, elkarteak euskararengan zuen jarreraren ispilu bezala izan dira. Familia bera egitura ahulegia gertatu da eraso instituzionalaren aurka joateko. Bestalde, ukigune honetako lanlekuari dagokiola, soroa izanik gehienbat, baserritarrak uzkur ziren ordezkatzeko-prozesu honi buruz; baina ez konzienteki eta arrazoituz, senaz eta bihozkadaz baizik.

*Industriari eta merkatariei dagokienez hizkuntz aldaketaren alde egon dira, beren negozioen onerako zelako kontuan.*

## **HIZKUNTZ ALDAKETAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA ETA BERRESKURATZEAREN FAKTOREAK**

Gauzak kanpotik ikusita ukigune hauetan euskararen egoera tamalgarrria dela iruditu arren, bertako biztanleek garbi ikusten dute berreskuratze ahalmena. Eta hori *zona guztietan, bakar bat ere kendu gabe.*

Adierazle bezala, ondorengo hauek aipatzen dituzte:

1. Gazteriarengan Euskal nortasunari buruz sortu den kezka bizia.

2. Hizkuntzaren balorazioa: Amurrio, Baranbio eta Erro-Aezkoa inguruetak euskaldun zaharrak berriro harro daude euskaldun izateaz.

Badira, halere, zenbait leku (Zigoitia, Legutio, Sarasa) adierazgarriok oso ahulak direnak.

Hortatik, ondorengo berreskuratze-faktore egokiok ezarri edo indartzeko beharra seinalatzen da:

1. Euskal herria eta bere kulturaren berri hartzeko aukerabideak eskaini, hitzaldi, ikastaldi edo agerpenen bidez, irratia eta telebista alboratu gabe.

---

<sup>1</sup> Euskararen liburu zuria 319.orr.).

Era honetan bakarrik atera daitezke orain artean egon diren ghe-ttoetatik.

2. Euskaraz eta euskararen dohaneko irakaskuntza orokorra eratu, gaurdaino gastelaniaz izan duten modu berean. Haurtxoen mailan, osoa euskaraz; EGBrako eskakizunak, aldiz, ez datoz denak bat; generalean irakaskuntza elebidun baten alde daude; baina gerorago euskara hutsean ematea ere ez dute ukatzen.

3. Ikastolak berregituratzearekin batera, berriak sortu falta diren udaletan.

4. Alfabetatze-eskolentzat laguntza ofiziala lortu, irakaslego eta lokal mailan ikus-entzuneke metodo berrienak lortzera joaz.

Baina, jakina, langitza guzti hau Administrazio Publikoak, Autonomi Estatutu baten bidez, eman dezakeen egiazko babespean soilik lor daiteke; Euskal Gobernu batek praktikara eramateko kontua litzateke, beraz.

## **TESTIGANTZA PERTSONALAREN EDO HISTORIAREN MAILAN**

### **1. Euskara galdu duten pertsonak**

Eragin handieneko faktoreak:

a) Ingurunearen, bere itxurapen ekonomikoaren eta bertan euskarak duen indarraren menpeko dira; b) Eraginkorrena *eskola* da; c) Orde-na generaleko bi faktore hauetatik aparte, baina lekuan lekuko nabardurekin: industri lana, hauzateria berriak eta, adina iristean, gazteen soldadutza. *Eliza* ere aipatzen da bertan, inkestatuetarik asko bait dira, zaharrak eta nekazal girokoak batez ere, faktore hau azpimarratzen dutenak.

Euskara galdu duten pertsona hauen berreskuratze-faktoreak direla eta, harrigarria da inkestatuek azaltzen dutena; ahaleginak egiteko prest liratekeela diote berriro ikasteko aukerarik izango balute. Lau dira bakarrik, eta zaharrak berauek (70, 73, 74 eta 90 urte), kapaz sentitzen ez direnak. Besteek, hauek ere hain gazteak ez izan arren (57,5 urte batez beste), baietza eman dute.

Pozgarria da zinez emaitza hau.

### **2. Euskara ikasten duten pertsonak**

Euskal herriaren etorkizunerako zenbait kasu guztiz garrantzitsu gertatzen dira; honela, hor dago Tuterako pertsona baten hizkuntz berreskuratzea.

Hor, era berean, Madril, Malaga edo Salamancakoena; Badajozko neskataria batek ere ikasia du euskara.

Inkestatuek (30 urte batez beste) aipatzen dituzten *faktore bultzatzaileak*, duten garrantziaren arabera, ondoko hauek dira: 1) Euskal herriaren parte izateaz jabeturik egotea; 2) Euskal kulturaren izatea eta, oinarritzko elementu bateragile bezala, hizkuntzak duen garrantzia.

### **Berreskuratze-faktoreei eta ahalbideei buruz**

Gehienek diotenez, oinarritzko elementu bat dago indartu beharra; hots, euskal izate nazionalaren kontzientziaztea, eta hizkuntza eta kulturari emandako garrantzia.

Eta arrazoi bikoitz batengatik kontsideratzen dute lehen urrats hau beharrezkoa: a) hori gabe euskararen ikasketa behar adina motibatuz ezin bultzatu delako, eta b) ikasten ari direnentzat funtsezkoa delako giro egoki batetan egotea: giro euskaldunean ahal den neurrian, teoria hura praktikara eraman ahal izateko.

Horretarako, lehen aipatutako baldintza guztiok eskatzen dituzte.

Horregatik, geroari begira, handia da erakunde politikoek beren militanteak formatzeko orduan duten erantzukizuna: batez ere etorkinak Euskadiko historia eta bizimoldeetan integratu nahian dabilentzat. Euskadik euskal gizatalde bakarra izan behar du, eta euskaldun hirueletako hauek nork bere talde eta klase sozialaren arabera konponbidea agertu beharko du bizigiro sozial eta ekonomiak dituen arazoak garbitzeko.

### 3. Kapituluia

## **HIRIGUNEAK (PROBINTZIAKO HIRIBURUAK)**

Ikerketa honen helburua probintziako hiriburueta zuzendua izan da gehienbat.

Honekin zera ezagutu nahi izan da, gizarte konplexuagoak diren bizigune handietan euskarak daraman jokamoldea: 1) publikoan; 2) erakundeetan, eta 3) famili giroan.

Ezin izan dugu alor garrantzitsu honek merezi duen azterketa behar bezain sakona egin. Garrantzitsua da, hori bai; eta, geroz eta gehiago, euskararen zoria onera ala txarrera erabakiko duen alorra. Halere, ahal izan dugun medioekin jasotako materialak zenbait ondoriotara zuzen gaitzake.

Beti ere, ordea, datuok nahikoak ez direla kontutan har; lehenbait lehen arazoaren azterketa sakon bat egin beharra dago sail honetan.

#### **1. Euskararen presentzia bizitza publikoan**

Hasiera batean, euskarak kanpoari begira nahiko ahuldua dirudi.

Gutxi erabiltzen da *publizitate-lanetan*, bere errentagarritasuna ere eskasa omen delako; *sektore komertzialetan*, gainera, bertako langile gutxi ezagutzen du euskara.

Baina kultur munduan azaltzen da garbi populazioak hizkuntza berreskuratzeko daukan borondatea, ahoz nahiz idatzizko eran. Azken urteotakoa da eboluzioa; eta bere mamiak garbi adierazten du, gainera, euskal nortasunaz berjabetzeko jendeak daukan gogoia. Gogor ugaritzen

ari dira hitzaldiak, kultur asteak eta jaialdiak; han eskaintzen dituzten abestalde herritarrek beren kantaldiak, han bertsolari saioak, euskal abestiaren munduan diharduten kantari ospetsuen kantaldiak eta txistu eta dantza-taldeen ekitaldiak; arrakasta handia jasotzen ari dira guztiok. Fenomeno hau berria da, hiriburu eta bertako haurzuneetan.

Jakina, hiri batetik besterako neurriak ez dira hemen ere berdinak.

1975.urteko bukaeratik eta (batez ere) 1976.urtean gertatutako gorakada oso nabaria izan da publizitate-alorrean ere, ordurarte irispideaz kanpotik zeuden Iruñea eta Gasteiz hirietara ere helduz.

Aldakuntza politikoak izan duen eraginaren adierazlea da; gerora indartzen joango da dudarik gabe, botere autonomikoaren babesean.

## 2. Euskararen presentzia Erakundeetan

1) Erakunde *politiko-administratiboei* dagokienez, *Estatuaren kasuan* (Gobernu Zibila, Ministeritzako ordezkartzetan) ez da inolako aldakuntzarik gertatu: norbanakoen mailako salbuespen bitxi eta ohoretsu bat edo beste kenduta, batidaniko jarrera hertsian jarraitzen dute. Ez dira hobeak *Erakunde probintzialak* (Diputazio probintzialak edo foralak). Proporzioan oso gutxi dira euskara dakitenak; baina bakar hauek ere ez dute erabiltzen publikoarekiko harremanetan. Diputazio hauek, diren bezalaxe agertzen dira; hots, espaniar Estatu Zentralistaren Administrazio-tresnak gisan. Erakunde lokaletan ere (Udaletxeak) ez da honelako euskararen erabilpen nabaririk ikusten, beraiek izan arren gure organizazio politiko-administratibo aurrerakor zahar eta sustraituaren naturazko jatorri. Adibide gisa: Bilboko Udaletxean, ehuneko bakarra da euskara dakiena. Eta, Donostiaz kanpo, era beretsuan daude beste euskal hiriburuak, okerrago ez bada. Eta erabilera ofizialaren aldetik, ezer ez.

2) *Erakunde erlijiosoei* dagokienez, elizbarrutiko organismoetan (Apezpikutegi, Kuria, Elizbarrutiko Ordezkaritzak, Mintegia) nabaria da euskara dakien jendearen kopurua; eskualdeen arabera, hemen ere bertako organismoek euskarak Elizbarruti bakoitzean bizi duen egoera agertzen dute: ugaria Donostian; urriagoa Bilbon, baina esanahitsua halere; urria Iruñean eta askozaz urriagoa Gasteizen.

Generalean, jarrera aldekoa da: nahiz eta urrun mantendu, beste instantziak noiz aldatuko zain baileuden. Parrokia eta kultu-zentrueri dagokienez, egoera desberdina da hiri batetik bestera; bestelakoa, orobat, haurzune batetik bestera; Donostian elizbarruti bakar batzuk izango dira euskara erabiltzen ez dutenak; Bilbon, aldiz, askok erabat alboratzen du euskara, beste batzuk % 10 etik % 25 era erabiltzen badute ere. Iruñea eta Gasteizi gagozkiela, azkenik, euskararen eragina ordena honetan delarik, kasu bitxiak dira hizkuntzarenganako ardura ageri dutenak.

3) *Hezkuntz erakundeei* dagokienez: ikastolez kanpo, geroago arduratuko bait gara beraiez, estatuaren hizkuntz zentruetan nahiz eskola pribatuetan, bereizkuntza garrantzizkoa egin beharra dago: *euskararen* irakaskuntza ala irakaskuntza *euskarazkoa* ematen duten, behe nahiz erdi eta goi-mailetan. Honela, zentru estataletan noizbeinka irakasten da *euskara*: orain gutxi hasiak dira hain zuzen baina ez da tutik ere *euskaraz* irakasten. Zentru ez-estatal edo pribatuei dagokienez, euskararekiko jarrera aldatzen ari dela dirudi: *euskaraz* irakasten ez bada ere, zabalitzen ari da *euskararen* irakastea; denbora, irakasle eta metodologi alde tik larri egonik ere, nabaria da aurrerapena.

4) *Beste Erakundeei* dagokienez, ekonomiko-finantzatzaileak direla, juridiko-legalak direla, sanitarioak direla, profesional —taldeak eta publikoarekin etengabeko harremanak dituzten beste zenbaitzuk ardurak eskasa azaldu dute hizkuntzarengana. Azken urteotan fenomeno onuragarria gertatzen ari da; baina inolaz ere ez, halere, beren zerbitzuaz baliatzen den euskal populazioak galda dezaken neurrian; honela, berritoki ere, euskara diskriminatuta gelditzen da.

*Euskal herrian diharduten erakundeetan* euskarak duen eraginaz *laburpen* bat eginaz zera esango dugu: beraiek izan direla, Administrazio Zentralaren aginduak beteaz eta, askotan, beren kabuz, euskara itozteko politika aurrera eraman izan dutenak egungo egunean aurkitzen den ahuleziaraino bultzatuz.

### 3. Euskararen presentzia famili biritan

*Famili giroan euskarak duen eraginari* dagokionez: egindako galderak helburu bikoitza zuten; 1) famili bidezko transmisioa zenbaterainokoa zen ezagutu, eta 2) famili barruan erabilpena zenbaterainokoa zen ikusi.

1) Zenbait familietan euskararen transmisioa % 80 ra iristen da, beste batzutan % 60 eta % 50 delarik. Dirudienek, proportzio goren hauek haurrak eskolara joateko ordurarte gertatzen dira. Geroztik, ikastolara ez badoaz behinik behin (eta orduan gurasoak hasten dira gehiago erabiltzen), hizkuntza beheruntz joaten da; jakina, betiko gutxiengo kezkatia salbu.

Oso tasunari begira, kezka hau nahiko ahula agertzen da; horren arrazoia, zenbait kasutan bortxa-giroan, bestetan beraien hizkuntzarengana izan duten balorazio eskasean datza; irudi-arazoa bait da, gehiengotan, ispilu batek bezala inguru-giroko errealitatea isladatuta agertzen duena. Honela, bere erabilpena eta famili bidezko transmisioa beheeraka joan dira, emaitzak adierazten duten lekuraino.

2) *Erabilpen-graduari* dagokionez, bestalde, jasotako informazioak zera adierazten digu: jatorriz euskaldunak ez diren gurasoak elkarrekin euskaraz ari izaten direla, nahiz eta askotan gaztelaniazko ingurugiroari amore eman; nahikoa bait da pertsona bakar bat, laguna edo hauzologuna delarik, elebiduna ez izatea, beraz euskaraz ez jakitea, guztiak erdarara itzultzeko. Beste pertsonarenganeko errespetuak eta onerizteak aldaketa hori egitera behartu ohi du, beren hizkuntza propioa uztera, lehendik ere erdal hiztun errespetagarri horietaz guztiz jazarria egon arren. Gutxiena dakienak agintzen du kasu honetan ere. *Guraso eta seme-alaben artean*, proportzioa lehengo kasukoa baino txikiagoa da; gurasoek elkarren artean dutena baino apalagoa alegia, baina joera hau gaindituz doala dirudi. *Seme-alaben arteko* elkarriketari dagokionez, nabarmena da proportzioaren beherapena: alaben artean bereziki. Portzentaia konkretu bati loturik, bada hiri bat anai-arreben arteko elkarriketak % 30 ean bakarrik euskaraz egiten direna. Halere, nahiz eta egungo giroa aldekoago izan, badira zenbait portzentaia are apalagoak. Zaila da batezbesteko balio esannahitsuak ateratzea, hain desberdinak diren eskualde eta famili giroetan; gauza bat, halere, nahiko zehazki esan daiteke: generalen euskal familian euskararen erabilpen-gradua beheratuz joan izan dela, gehientsuenak euskara uzteraino iritsiz: seme zaharrenetatik hasita, familia handituz doan neurrian, indartuz ere joaten da gaztelania, euskara gainditzera iritsi arte. Higaduraren arrazoi generalena bortxagiroa izan da, zenbait alditan benetazko errepresio latza ere izatera helduz, ukipen-areen kapituluan adierazten deneko kasuan bezala.

Baldintzak honela egonik, ezin asko harritu euskararen zoria izan den bezalakoa izateaz.



**2. Zatia**

**EUSKAREN KONTSERBAZIO - PROZESUA  
EGOERA DIGLOSIKOA**

## SARRERA

2. Atal hau hasi baino lehen ohar labur bat egin nahi dugu.

Atal honetako datu esannahitsuenak adierazteko behar izan den material idatziak 530 orrialde luze bete ditu, nahiz eta laburtua izan.

Gutziz beharrezkoa gertatu da, halere, haien laburpena berriro laburtzea.

Material guzti hau pertsona gutxik irakurriko zutelakoan, komenigarria iruditu izan zaigu berlaburpen hau egitea, motzago eta errazagoa gerta zedin. Euskaldunoi asko interesatzen zaigu gure hizkuntz arazo larriaren oinarri errealak hadatzea, hainbat denboratako propaganda ofizialaren bortxaketa eta partzialtasunaren menpetik askatzeko. Hizkuntzari bere bideak moztea nahikoa ez balitz bezala, bere egoeraren azterketa egitea ere debekatu egin izan zaigu.

Oso kritikoa izan nahi du, bestalde, herriak beregana ditzakeen lanabes zientifikoez bere hizkuntza zaharra, zazpi mila urtez gorakoa, zein egoeratan dagoen zuzen asmatzeko.

Egoera txarrean badago ez da noski bere adinagatik, azken mendeotan Euskal herriak jasan duen kolonialismo linguistikoaren ondorioz baik; ezin harritu, beraz, orain hiltzorian egotea.

Dagoen egoeran dagoela ere, material hori premiazkoa genuen hizkuntzak egungo Euskal herri korapilotsu honetan ageri duen erradiografiaz jabetzeko.

Eta lehen zatian area gaztelaniaztatuak estudiatu ondoren, euskarak area euskaldunean bizi duen giroaz jardungo dugu hurrenik.

## INKESTAREN ERAKETA ETA AURKEZPENA

Estudio soziolinguistiko honen emaitzak azaldu baino lehen, egoki izango da beratu nola burutu dugun, zehatz eta labur, adieraztea.

Bere fidagarritasuna, izan ere, eramandako metodologia eta doitasun zientifikoaren menpekoea bait da.

### Area euskalduneko populazioa <sup>1</sup>

Estudio honetako area euskaldunak <sup>2</sup> ondoko eskualdeok biltzen ditu <sup>3</sup>: Bizkaian Nerbioiren eskuin-urbazterra (Uribe-Kosta), Uribe-Butroe, Busturia Lea-Artibai, Durangoaldea, Arratia-Nerbioi, Nerbioi-Hibaizabal, 385.817 biztanlerekin. Araban: Aramaio eta Legutio, 2.923 biztanlerekin. Gipuzkoan Deba-hegoa, Deba-Lenitz, Urolaldea, Goierri, Tolosaldea, Donostialdea, Oiartzualdea, 512.895 biztanlerekin. Nafarroan: Baztan-Bidasoa, Sei haranak, Sakana, Ultzamaldea, 35.531 biztanlerekin.

Guztira 937.166 biztanle, beraz.

Bestalde, hori ditugu Ipar Euskal herriko eskualdeak, beren 125.336 biztanleekin; hori beste era batean aztertuko da.

### Oinarriko informazioaren trataera

Estudio hau sostengatzen duten aldagai nagusiak ondoko hauek dira: 1. udal bakoitzean euskaldunek duten proportzioa; 2. populazioaren neurri edo dimentsioa.

Aldagai biok elkarrekin lotzen dira lehen hurbilketa eraginkor batera iritsiz; honela, duten biztanleriaren arabera, populazioa 5 taldetan sailkatzen da: 1.000 biztanletik behera, 1.000-1.999, 2.000-4.999, 5.000-9.999 eta 10.000tik gora; era berean sailkatu dira udalak 10 taldetan, 10 % euskalduneko estratuak bereziz.

Honela, area euskalduneko udalak 50 taldetan sailkatu dira (5 talde 10 estratueteriko bakoitzetik), udalaren neurriaren eta euskaldunen por-

---

<sup>1</sup> Inkesta Hego Euskadira mugaturik dago. Ez da, beraz, arrazoi tekniko hutsagatik, Ipar Euskadiko populazioa kontutan hartu. Hegoan zorizko moaraketa bat egin izan da *familiaka*, gero azalduko diren arrazoiengatik. Estatu frantseserako ezin bildu izan da informazio hori bera, datuak irispidean ez daudelako. Beste metodologia batera jo behar izan da horregatik.

<sup>2</sup> Gainontzeko Euskadiko lurraldeak (area gaztelaniaztatuak eta ukipen-zonak) inkestatz kanpotiko elementuez ikertu dira hemen.

<sup>3</sup> Lur eta gizon, Euskal Herria, J. L. Lizundia. "Jakin", Aranzazu, 1974.

tzentaiaren arabera. Hemen, herriz herri, biztanle eta familien zentsua erabili da.

Udal-zerrenda honetatik ondoko emaitzak jaso dira: Hego Euskadik dituen 214 udaletatik 90ek 90 % euskal hiztunetik gora dute; 26k, herriz 80 % eta 90 % artean; 22k, bestalde, 70 % eta 80 % artean; 12k 60 % eta 70 % artean; 11k 40 % eta 50 % artean; 13k 30 % eta 40 % artean; 16k 20 % eta 30 % artean; 7k 10 % eta 20 % artean, eta 6 udalek 0 % eta 10 % arteko euskal hiztun.

### **Erakuskari adierazgarriaren prestakuntza**

Datu hauen laguntzaz hurrengo pausoa eman dezakegu, zona bakoitzeko biztanleen erakuskari adierazgarri bat eratu eta bertako jendeak euskara erabiltzen duen neurria ezagutu.

Beharrezko estudioa E.U.T.G.-ko profesore diren Rafael Vidaner eta Frantzisko Olarte jaunei eskatu izan zaie. Hasieratik beretik zera bilatu nahi izan da: Populazioa banatzen den estratu eta azpiestratuak gehiegi ugaritu gabe, estratu bakoitzean emaitzen fidagarritasuna segurtutako zuen estratifikazio-sistema. Honela, estratuak 10 ordez 5 izatea erabaki zen; aski gertatu da, horretarako, populazioak 20nakako euskaldunportzentaiaz sailkatzea: 80-100, 60-80, 40-60, 20-40 eta 0-20.

Beste aldetik, azpiestratuak mugatzeko erabilitako populazio-neurrien irizpidea zegoen hartan bertan utzi zen. Eta erabaki horien arabera, Vidaner jaunak ondoko estudio estatistiko hau prestatu zuen:

1. Euskadiko euskal hiztunen gainean zenbait zehetasun jakin nahi delarik, erakuskari aleatorio baten bidez jokatu da.

2. Fidagarritasun jakineko bat eskuratzeko behar den erakuskariaren neurria 1.550 biztanletakoa da gutxi gora-behera: horrekin 0,95ko probabilitatea dugu eskuratuko dugun "p" balioak (erakuskarian dagoen euskal hiztunen proportzioa) gehi ken 0.025k 935.756 biztanletako populazioko euskal hiztunen ("P") proportzio zuzena adierazteko. Populazioaren aurretiko ezaguera honek "mostraketa aleatorio simple" batetik "mostraketa estratifikatu" batera pasatzeko bidea ematen digu.

3. Erakuskariaren estratifikazioari dagokionez, estratifikazio optimoko irizpide bat jarraitzen da, estratuei beraiek duten neurri eta barreiapenaren arabera indarra emanaz.

"Beraz —dio azkenik Vinader Jn-aren txostenak ondorio horretara eramanez duten kalkuluak azaldu ondoren— gure 1.550 pertsonatako erakuskari honekin, eta esandako irizpideen arabera estratifikatuz, 0,95ko probabilitateaz ondoko hau esan daiteke:

$$P \pm (1,96) (0,000119) = \pm 0,00023$$

tarteak populazioko euskal hiztunen "P" proportzio egiazkoa ematen duela.

## **Inkesten banaketa**

Unibertsoa ezagaturik, eta udaletako neurrien eta euskaldunen portzentaien arabera bere osaketa jakinik, eta populazio honen mostraketa adierazgarria lortzeko irizpideak azaltzen dizkigun estudio estatistikoa egin ondoan, ez daukagu inkestatuak izan behar duten pertsonen artean zorizko zozketa egitea baizik.

Horren aurretik, ordea, aldaketa bat egitea erabaki da: zozketa famili artean egitea, eta ez, hasiera batean pentsatu bezala, pertsona artean.

Bide hau egokiagoztat jo da ikerkuntzak duen xederako: familiak zeregin handia du hizkuntzaren transmisioan eta kontserbazioan; eta familiburuen artean zozkatzeko modu honek, gainera, unibertsoa 520 familatara laburtzeko aukera ematen du; duen kontraktotasuna zera da, barreiapenaren aldetiko galera; baina, pertsonak familiatan bildurik daudelarik hori eta gehiago irabazten da belaunaldien arteko diferentziak zehaztasun handiagoz iker daitezkeelako; orobat hizkuntzaren transmisio-mekanismoak eta beren erabilpena famili giroan.

Galderak, nolana ere, norbanakoari zuzenduaz egin izan dira, familia osatzen duten atal desberdinen erantzunak jaso nahi zirenez: aitona, amona, guraso eta seme-alabenak.

Azken hauen artean adin-muga bat ipini da: 14 urte, inkestatuen aldetiko irizpide bat ere eskatzen bait zen.

Ondoren zozketari ekin izan zaio, aldi desberdinetan.

Euskal hiztuneko portzentai estratu bakoitzean, eta estratu bakoitzaren barnean udal-tipo bakoitzean, lehenik udala zozkatzen da, eta udalaren barnean familiak.

Guzti hori 1975eko biztanleen Padroiaz.

## **Galde-sortaren ereduak**

Familien artean badira euskaraz dakitenak eta ez dakitenak; beraz, galderen arazoa agertu zen berehala: hizkuntzaz ezezik mamiaz ere desberdinak izan behar zuten batzuentzat eta besteentzat, euskaraz duten ezaguera-mailaz.

Aldi berean, ordea, amankonunean ere behar zuten zerbait, elkarrekin dituzten berdintasunak eta aldeak nabaritzeko. Honek, batez ere, tratamendu desberdina izango zuten bateratasun tematikoa eskatzen zuen eta, beraz, galdera berezi egokiak.

Tema hauen barnean, eta banan bana, ondoko emaitzak jaso nahi ziren: batetik egiazko egoera azalduko zuten datu objektiboak; bestetik, aldiz, inkestatuen iritzi eta jarrerak agertuko zituzten datu subjektiboak.

Guztira, familia euskaldunei 263 datueko galderak egin zitzaizkien, eta erdaldunei 118 datuekoak.

## Jasotako erantzunak

Jasotako inkesten proportzioa 74,4 % da famili mailan, eta 81,2 % pertsona mailan; oso baliozko emaitza, beraz, inkesta-tipo hau izateko.

## Erantzunen balorazioa eta emaitzen zabalkuntza

Inkesta bateko erantzunak jasotakoan, lehenengo arazoa zera da noski: lortutako emaitza horiek duten fidagarritasun-maila ezagutzea.

Fidagarritasun hori egiaztatu ondoren, Hego Euskadiko area euskaldunean dauden 14 urtez gorako euskal hiztunak 347.791 eta 348.118 artean daude, segun nolako fidagarritasun-maila atxiki. Batez besteko zifra 347.961 da, lau hiriburuak aparte utziaz.

Zifra honi 14 urtez beherakoena erasten badiogu, kopurua 443.765-ra igoten da.

Guzti honek zera dinosku:

1. Euskaldunen portzentaia area euskalduneko biztanle guztien 47,5 %ra iristen dela.

2. Populazio euskalduna ia 1/2ra iristen da gertaturiko inmigrazio sakona izan arren; eta jakineko eskualde geografiko batzutan bildurik ageri da, bertan euskaraz dakitenak gehiengo zabala direlarik.

3. Area hauek ez dira nekazal girokoak, batez ere hiritarrak baizik, euskaldun gehienak 10.000 biztanlez gorako udaletan bizi bait dira.

4. Inkestak emandako 443.765 euskalduneko zifrak ez ditu kontutan hartzen Hego Euskadiko lau hiriburuetan bizi direnak. Aparteko estudio bat egin da horiekin liburu honetan bertan, eta guztira 93.365 euskaldun dira. Ukipen-zonetakoak ere ez dira kontutan hartu goiko zerrendan, eta badira 16.718 bizilagun. 553.848 euskal hiztuneko emaitza hau nahiko batera dator, hain metodologia desberdinez jokatu izan arren, Pedro Yrizarrek 1970ean lortutakoekin.

5. Euskadiko euskal hiztun guztien kopurua lortzeko, 553.848 hauei Ipar Euskadiko 78.453ak erantsi behar zaizkie. Horrela Euskal herrian bizi diren euskaldunak 632.301 izango lirateke. Herbestean bizi direnak, berriz, 90.000 inguru. Guztira, hortaz, kopurua 720.000ra iristen da.

## EUSKARAREN EGUNGO EGOERA AREA EUSKALDUNEAN

Euskararekin ez da atzerapena eta galera bakarrik gertatu, horren ondorioa gaztelaniaren menpera eroritako areak direlarik; aitzitik, gordezearen aldeko defentsa gogorra ere egin izan da.

Honela izan ez balitz, gaur egun ez ginatekeen normalizazioaz hitz-  
giten ariko.

Hegoaldeko lau probintzietan barrena egindako ikerketak ondorio  
hau eman du: 1975 urtean 550.000 pertsona mintzatzen zirela euskaraz.  
Honi, Pedro Irizar-ek Ipar Euskadira agertzen duen 78.435 zenbakia  
gehitzen badiogu, 632.000 dira orotara. Honetaz gainera, Euskal herritik  
kanpo bizi direnak kontutan harturik, guztira 720.000 euskaldun azal-  
tzen dira.

### HIZKUNTZAREN EGOERA 1975.urtea

Probintzia	Biztanleak	Euskaldunak	%
Araba.....	238.262	18.863	7,9
Bizkaia.....	1.152.394	174.366	15,1
Gipuzkoa.....	682.517	307.279	45,0
Nafarroa.....	483.867	53.340	11,0
Hegoaldea.....	2.557.040	553.848	21,7
Iparraldea.....	227.280	78.453	34,5
GUZTIRA.....	2.784.320	632.301	22,7

Asko dira, nolana ere, gure hizkuntzak jasan dituen larritasunak  
kontutan harturik.

Gatozen orain, soil-soilik, Euskal herrian bizi diren 632.300 euskal-  
dun horietara.

Ez horietara bakarrik, halere.

Bi aldeetan ia 2.784.000 biztanle bizi dira. Batzuk, normalean hemen  
jαιοak, beren hizkuntza gorde dute; beste batzuk, nahiz hemen jαιοak  
izan, galdu egin dute; badira, bestalde, Estatu Espainoleko beste eskual-  
deetatik etorritakoak; haietariko zenbaitzuk euskaraz jabetzea lortu dute.  
Hementxe gabiltza denok Euskal herria, Euskadi eraiki nahirik, euskal-  
dunok hainbat maite izan dugun elkarrenganako errespetu zibilizatuan  
bizi gaitzen. Ikerketaren ondorioen laburpenaren mamari heldu baino  
lehen, aipa dezagun bertan eramandako prozesua.

## FAMILIA INKESTATUEN EZAUGARRIAK

*Euskaraz mintzatzen diren eskualdeetan bi famili mota aurkitzen dira: euskaraz mintzatzen direnak eta euskaraz mintzatzen ez direnak.* Biek bait dute euskararengan beren eragina. Bi famili mota hauei dagozkien bi aldagai-talde hartu izan dira kontutan: identifikazio pertsonala (famiarekiko harremanak, sexua eta adina) eta identifikazio soziala (jatorria, Euskal herrian daramatzaten urteak, hizkuntz maila eta maila sozio-profesionala).

Guztiak beharrezkoak dira emaitzak zehazki interpretatzeko.

Familien aukeratzea erabat zoriaren bidez egin da. Beraien osagaiak hiru belaunalditan banatzen dira:

1. *Aiton-amonen belaunaldia*: % 3,5 dira inkestatutako familietan.
2. *Gurasoen belaunaldia*: % 64.
3. *Seme-alaben belaunaldia*: % 28.
4. Besteak: senidekoak izan edo ez izan, inkestatutako familiekin batera bizi direnak: % 4,5.

Ikerketaren funts bezala familia aukeratu izan dugu, arazo linguistiko berarekin erabat lotuta ikusten dugulako. Hizkuntza bat, normalean, famili giroan ikasten da; ez han bakarrik, jakina, baina neurri handian bai.

Familiari dagokio, hortaz, hizkuntzaren gordetze eta transmititze-prozesua; are gehiago euskararen kasuan, hizkuntza eta komunikabideak bezalako beste baliabide osagarririk ez baitugu irispidean. Guztiz grabea gertatzen ari zaigu, benetan, berorien gabezia.

Euskararentzako, aukera hau ezinbestekoa gertatu da.

Familia honetan, jakina, aiton-amonak, gurasoak, 14 urteetatik gorako seme-alabek eta beroriekin bizi diren pertsonak, senidekoak izan edo ez, kontsideratu izan dira.

Ikusten denez, hizkuntzak familiaren altzoan eduki ohi duen joan-etorri osoa aztertu nahi izan da ahalik eta hurbilketa objektiboenaz, familia bera bere koropilotasun osoan hartuz: kanpotik barnerako harremanak eta barnetik kanporakoak beren izakera dialektikoan hauteman nahi izan dira.

Hizkuntzaz den bezainbatean, aldagaririk garrantzizkoena adina da identifikazio pertsonalari dagokionez.



Hona hemen populazio inkestatuaren osaketa, adinaz taldekatua:

Adina	Euskaraz mintzatzen diren familiak	Euskaraz mintzatzen ez diren familiak	Populazio inkestatua
15 urte baino gutxiago.....	3,3 %	2,8 %	3,1 %
15etik 19 urtera arte .....	13,4 %	12,1 %	12,9 %
20tik 24 urtera arte .....	11,4 %	10,3 %	11,0 %
25etik 34 urtera arte .....	16,8 %	23,5 %	19,2 %
35etik 49 urtera arte .....	26,3 %	31,3 %	28,1 %
50tik 64 urtera arte .....	20,6 %	16,8 %	19,2 %
65 urte edo gehiago .....	8,2 %	3,2 %	6,5 %

Labur bilduz: 14tik 25 urtera artean % 27; 25 eta 64 urtera artean % 66,5; 65 urte baino gehiagokoan % 6,5. Portzentaia hauek, umeen populazioa alboratuz eraturako populazio tipiko bati dagozkio.

Halere, aipa dezagun bertako zenbait ezaugarri:

1. *Euskaraz hitzegiten ez duten familietan* gutxiago dira adineko pertsona zaharrak (35-64 urte), etorkinak nagusi bait dira talde honetan; eta berauek, edo ez dituzte gurasoak ekarri edo haiengandik aparte bizi dira.

2. *Belaunaldi gaztea* nabarmenki ordezkatua dago (% 27,0), hizkuntzaren dinamikaren barruan duen garrantziaren arabera.

*Identifikazio sozialaren aldagaiei* dagokienez, ondorengo hauek dira garrantzitsuenak: *jatorria*, *hizkuntz maila* eta *maila sozio-profesionala*; haiek bait dira, izan ere, pertsonak gizarte-sarean daukan posizioaren arabera, talde sozial desberdinek hizkuntz arazoaz hartuko duten jokabidea erabaki ohi dutenak.

Inkesta sozio-linguistikoko batetan esannahi oso berezia dauka *jatorriak*.

Jatorria	Euskaraz mintzatzen diren familiak	Euskaraz mintzatzen ez diren familiak	Inkestatutako populazioa
1. Bizi diren udalean jaiotakoak .....	66,1	23,9	51,0
2. Bizi diren eskualdean jaiotakoak .....	14,8	9,3	12,8
3. Bizi diren probintzian jaiotakoak .....	11,8	12,5	12,1
4. Euskal herriko beste probintzia batetan jaiotakoak .....	5,1	8,8	6,5
5. Euskal herritik kanpora jaiotakoak .....	1,8	45,3	17,3
6. Zehaztugabeak .....	0,4	0,2	0,3

Ikusten denez, inkestatutako populazioaren 3/4ak baino gehiago, % 82,4, Euskal herrian jaiotakoa da. Emaidza logikoa da, inkesta euskaraz mintzatzen den eskualdean egin dela kontutan hartzen bada. Alde honetan, Euskal herritik kanpo jaiotako % 17,6 bizi dira. Portzentaia hau aldatu egiten da zonen arabera: euskaraz mintzatzen direnen taldean, adibidez, Euskal herritik kanpo jaio direnak % 2 dira; euskaraz mintzatzen ez direnen taldean, aldiz, % 50: beste erdia bertan jaiotakoa da, baina euskaraz mintzatzen ez dena. Bigarren talde honek bi gauza adierazten ditu: lehenengoa, Euskal herriko zenbait zonatan inmigrazio ugaria izan dela eta, bigarrenik, euskaraz mintzatzen den eskualdean jasan izan den higadura linguistikoa ohargarria dela.

Inkestatutako populazioaren irakaskuntz mailaz, espektroak % 5,8 analfabetu agertzen ditu; % 50 irakaskuntza primarioa gainditu gabe-koak dira, goimailarako bidean ezarri zaizkien oztopen ondorioz; maila goren hori, izan ere, gutxiengo pribilegiatuentzaz bait da; maila honetatik pasa diren gehientsuenak irakaskuntza medioan trabatu dira, Batxileratu oinarrikoan gehienbat; eta, azkenik, irakaskuntza gorenera iristen direnak ez dira populazio guztiko % 5 besterik.

Azken portzentaia hau, zori txarrez, analfabetsimoaren pean daudena bezainbatekoa da.

Bestalde, euskaraz mintzatzen direnen eta mintzatzen ez direnen familien arteko bereiztasunak ez dira hain nabariak.

PROFESIO-MAILAK	Euskaldun familietan %	Erdaldun familietan %	Guztira %
1. Ugazaba, Industrijabe, Profesio liberal eta Goi-mailako Koadro .	5,7	10,7	7,4
2. Artesauak, Dendariak .....	12,1	7,5	10,6
3. Erdi-mailako koadroak .....	9,3	14,3	11,0
4. Enplegatuak .....	11,1	11,5	11,2
5. Langile kualifikatuak .....	23,6	28,6	25,3
6. Langile kualifikatugabeak .....	13,5	15,9	14,3
7. Nekazari edo arrantzaleak .....	17,8	2,4	12,6
8. Beste kategoriak .....	4,7	7,9	5,8
9. Zehaztugabeak .....	2,2	1,2	1,8
0. Lanik ez .....	40,9	45,7	42,6

Agertzen diren diferentzia txikiek, euskaraz mintzaten ez direnen alde jotzen dute. Hezkuntz alborakuntzak eragin handiagoa du euskaraz mintzatzen diren familiengan; nekazal giroan eramandako eskolakuntza

okerraren, inoiz katastrofikoaren, ondorio zuzena da hori; izan ere, eskolara joan daitezkeen ikasleentzat ikaskizunak hizkuntza arrotzean entzutea gutxi bailitzan, hor dago beste mila arazo pedagogiko sorrerazten duen egoera larria ere: alegia, Extremadura, Gaztela eta Andaluziako hainbat irakasleren kasua: beraien bizikeraren aurkako ingurune sozio-linguistiko eta psikologiko batetan jardunaz, pedagogia normal baten baldintza minimoak ere ezin dituzte bete.

Inkestako populazioak agertzen duen koadro sozio-profesionalari dagokionez (% 57,4 populazio aktiboa), erdia baino gehiago (% 52) industriako langileak, nekazariak edo arrantzaleak dira; % 22,2 erdimailako koadroak eta enplegatuak; eta, azkenik, % 18 dira ugazabak, industrialak, profesio liberaletakoak, koadro gorenetaoak, industrial txikiak, artesauak eta merkatariak.

Hain zuzen ere, hauxe da koadro profesionalean dagoen gauzarik adierazgarriena: funtsean euskaraz mintzatzen den zonako populazio-multzoaren egiturarekin ados datorrela.

Aipatzekoa ere da fenomeno natural bat.

Euskaraz mintzatzen ez diren familien egitura euskaraz mintzatzen direnena baino zartxobait erosoagoa da. Kasu honetan, lehenago hezkuntz mailari buruz aipatu dugun fenomeno berbera gertatzen da: eskala sozialean, euskaraz mintzatzen diren familiak mintzatzen ez diren familiak baino maila beheragoan daude; honek ere garbi adierazten du euskaraz mintzatzen den familiaren heziketa nahiz bazterkuntza profesionala.

Mekanismoek beren ondorioak eman dituzte.

Aitortu beharrean gara, beraz, alde honetatik behintzat, generalean horrela ez bada ere (ikus 5. kap.), euskaldun elebakarrek arrazoia dutela, euskarari buruz kexu direnean: gaur egungo gizartean mailaz igotzeko oztopoa dela diote, "euskarak ez duela inorako biderik zabaltzen", eta euskara bakarrik menderatzen duena ikasketa-maila eskasean gelditzen dela, eta gutxienik kualifikatutako lanpostuetan.

## 1. Kapitulum

# EUSKARAREN EZAGUERA-MAILA AREA EUSKALDUNEAN

Herriak hizkuntzaz duen ezaguera-maila (gure kasuan Euskal herriaren euskaldun sailak duena) ez da mintzatzen direnen kopurua matematikoki jakitera mugatzen, maiz egi den bezala.

Ikuspegi sozio-linguistikotik, jarrera hau, okerra ez bada "sinplista" da bederen. Benetan, izan ere, sorta zabal eta konplexu bat agertzen zaigu. Honetan edozein egoera eman daiteke, landutako ezaguera batetik ezaguera-maila ezeraino, erdibideko egoera guztiak posible direla.

Hona hemen taula.

### EUSKARAREN EZAGUERA-MAILA

	Populazioa	
1. Edozein gaiz hitzegiteko gai dira .....	523	% 33,3
2. Elkarrizketa arrunt bat jarraitzeko gai dira .....	213	% 13,6
3. Euskaraz dakite (beste daturik gabe) .....	21	% 1,3
4. Nekez hitzegiten dute .....	39	% 2,5
.....		
5. Elkarrizketa arrunt bat ulertzeko gai dira .....	20	% 1,3
6. Oso gutxi edo kasik ez .....	20	% 1,3
.....		
7. { Haurtzaroan jakin zuten baina ahaztu egin dute	33	% 2,1
{ Eskolara joan arte jakin zuten .....	23	% 1,5
8. Deus ez dakite (beste daturik gabe) .....	13	% 0,9
9. Ez dakite baina ikasteko asmoa dute .....	40	% 2,5
10. Ez dute inoiz jakin .....	316	% 20,1
11. Mugatu gabeak .....	40	% 2,5
.....		
12. Ez dute erantzunik eman .....	269	% 17,1
Orotara .....	1.570	% 100,0

Erantzunik eman ez dutenak aparte utzirik, euskararen 10 ezaguera-maila desberdin nabari dira. Gure helburua betetzeko hiru zatitan banatuko ditugu:

1. Elkarrizketa arrunt bat jarrai dezaketenak, jendetzaren % 50,7 dira zona euskaldunean.

2. Beste puntan, inoiz jakin ez dutenak, % 23,4. Euskarak jasaten duen higaduraren ezaugarri den gutxiengo garrantzitsua.

3. Bi muturron artean, bestalde, honako hauek daude:

a) Ezaguera makala dutenak.

b) Haurtzaroan jakin zutenak baina eskolara hastean galduz joan direnak.

c) Ikasten ari direnak.

Badago, gainera, euskararen egoera errearen ezaugarri den beste puntu bat; euskaldunaren alfabetatze-maila.

Puntu honetara iristean, beharrezkoa dugu euskal eta erdal familiak desberdintzea. Bestela, izan ere, sagarrak eta laranjak elkarrekin batu- zeko arrisku latza dugu.

### Zona euskalduneko euskal familiaren egoera

Euskararen ezagupidea: hitzegiteko	Euskaldun familiak %
1. Oso ongi ezagutzen du .....	62,4
2. Zailtasunik gabe .....	25,4
3. Zailtasun piska batekin.....	4,7
4. Zerbait ulertzen du .....	2,4
5. Oso gutti edo ezer ez du ulertzen .....	2,4
6. Euzkararik ez daki .....	1,6
9. Zehaztugabea .....	1,1

Euskal familietako % 87,8 pertsonak egiten dute euskaraz perfektu- ki; eta % 5-ek hitz batzuk bakarrik egiten dituzte. Harrigarria da hizkun- tza honelako portzentaiatan gordetzea euskarri bakarra familia izanik. Batez ere jasan duen erasoaren ondoren.

Euskaldunen artean erdiak erraz irakurtzen du. Baina idatzi 1/5ek bakarrik egiten dute oztoporik gabe, eta 1/3ek oztopoekin. Ez da hau zen- baitzuk dioten katastrofea; baina, hala ere, egoera grabea da.

Azti hauek ezkatuzten dituzten kausak oso garbiak dira: *erdaraz bakarrik* izan dira eskolatuak. Datu honek eskolakuntz egoera bat beste-

## IRAKURRI ETA IDAZTEKO GAITASUNA

	Irakurtzeko	Idazteko
1. Oztoporik gabe .....	43,0	20,7
2. Zenbait oztoporekin .....	31,8	3,2
3. Zailtasun osoz .....	16,0	12,2
4. Ez daki euskaraz .....	5,3	3,2
5. Ez daki irakurtzen edo idazten .....	0,1	0,1
6. Ez du inoiz irakurtzen edo idazten .....	—	43,4
7. Zehaztu gabeak .....	3,8	17,3

rik ez du salatzen. Hartatik dator kio Euskal herriari jasaten duen egoera diglosikoa: irakaskuntza, administrazio eta komunikabideetatik at, euskara famili girora zokoratua izan da, non mintzatzen irakasten bait da, baina ez irakurtzen eta idazten; batez ere, jakina, gurasoek euskal irakaskuntzarik hartu ez badute.

Honetan ere argi nabari da, euskaldunek euskara gordetzeko eta zabaltzeko duten joera: % 90,8.

Aipatu beharra da, orobat, jendetzaren erdiak euskara ikasteko eta hobetzeko pertsonalki egiten duen esfortzua: bai bere kabuz, bai ikastarotan parte harturik.

### Seme-alabek euskaraz ikas dezateneko interesa

Beti arduratu dira .....	% 60,8
Lehen bai, orain ez .....	% 4,7
Lehen ez, orain bai .....	% 1,1
Inoiz .....	% 3,0
Erantzunik gabe .....	% 30,4

Harrigarria da erantzunik eman ez dutenen portzentaia. Semerik ez dutenak, ezkongaiak batez ere, izan dira honela erantzun dutenak, galdera hau beraiei ez zegokiela uste izan bait dute.

Badago beste sail adierazgarri bat, berreuskalduntzeari dagokionez: *ikastolak*.

### Zure seme-alabak ikastolara bidaltzen al dituzu?; edo eta, izango bazenitu bidalduko al zenituzke?

Baiezkoa .....	% 55,1
Ezezkoa .....	% 13,0
Ez dakit .....	% 1,7
Erantzunik ez .....	% 30,2

Erantzunik eman ez dutenak lehengoko egoera berdinean daude. Laburtuz: semeei euskara irakasteko ardura majoritarioa da, baina ez masiboa. Honetan datza euskarak hedatzeko daukan balazta bat, beti ere kontutan hartu beharko duguna.

Dena dela, aurkitzen garen ingurusail sozio-politiko, ekonomiko eta kulturala kontutan izanik, eta herriak jasan duen baztertze, diskriminazte eta jazarpena, oso adierazgarria da euskaldunen erdiak baino gehiagok honela jokatu izana. Honela bakarrik esplikatu daiteke, hain zuzen, ikastolaren fenomenoak euskaldungoarengan duen sustraia.

Bukatzeko, euskararen etorkizunari buruzko egoera islatzeko, hona hemen taulak.

### **Euskararen zabalkuntzarako helburuak**

1. Nahi dutenek bakarrik (ikasi behar dute euskara) .....	% 10,0
2. Galdu dutenek bakarrik.....	% 10,3
3. Inoiz jakin ez dutenek ere ikasi behar dute.....	% 10,0
4. Euskal herriko biztanle guztiek .....	% 38,4
5. Zenbait erantzun .....	% 1,2
6. Erantzunik ez .....	% 30,1

Taula honen arabera, ia euskaldunen erdiak (% 48,4), euskara Euskal herriko biztanle guztiei hedatu behar zaiela uste dute. Beste multzo handi batek (% 20,3), galdu dutenei eta nahi dutenei zabaldu behar zaiela uste du.

Erantzunik ematen ez dutenak ere hor daude (% 30); oraindik ez dute, itxura denez, iritzi garbirik.

Honek zera adieraz diezaguke: berreuskaldutzea eta hau eramateko erak eztabaida franko sor dezakeela.

Euskal familiek agertzen diguten egoera eztabaidagarri honen sakoan, hizkuntz izaeraren bi ulerkera desberdin ari dira borrokan; eta, zentzu zabalgo batean, zuzenbidearen bi ulerkera desberdin.

Hor bait dago koska, hain zuzen.

Nabaria da, jasaten duen egoera diglosikoan euskarak ezin duela inguratzen duen hesia puskatu arik eta hesparru minimo bat lortzen ez duen artean. Hesparru hau zientifikoki ikertutako berreskuratze-esperientziek mugatuko digute. Berreskuratze honek oreka biologikozko hesparru bat behar du, urak eta eguratsak poluzioaren kontrako neurri aproposak behar dituzten bezalaxe.

*Neurriei buruz, hona hemen proposatu direnak.*

## Euskara gordetzeko eta zabaltzeko hartu behar diren neurriak

### *Epe motzera (Oraindanik)*

1. Haurtzaindegiak eta ikastolak ugaltu.....	25,9
2. Helduentzat klaseak ugaltu.....	8,2
3. Komunikabideetan euskararen presentzia handitu .....	12,9
4. Irakaskuntzaren lehenengo mailetan elebitasuna sartu .....	15,2
5. Irakaskuntza elibidunerako irakasle-eskola sartu.....	6,8
6. Zenbait erantzun .....	1,6
7. Erantzunik ez .....	29,4

### *Erdi-epera (5-10 urte)*

1. Komunikabideetan euskara eta erdara parekatu .....	16,1
2. Irakaskuntzako maila guztietan elebitasuna ezarri.....	9,8
3. Administrazioan elebitasuna ezarri .....	6,3
4. Euskararen koofizialtasuna lortu .....	25,7
5. Zenbait erantzun .....	0,8
6. Erantzunik ez .....	31,3

### *Epe luzera (hemendik 10 urtetara)*

1. Komunikabideetan euskararen nagusigoa lortu .....	9,3
2. Euskal Unibertsitatea lortu.....	22,9
3. Euskararentzat lurralde-estatutua lortu .....	33,0
4. Zenbait erantzun .....	2,0
5. Erantzunik gabe.....	32,8

Taulan proposatu diren neurriak esperantzagarriak dira, zentzu praktiko bat isladatzen bait dute. Oinarri zabal batetik maila gorenetarainoko bilakaera progresibo baten joera isladatzen dute.

## **Euskal areako familia erdaldunen egoera**

Orain arte, kapitulu honetan familia euskaldunen azterketari lotu gataizkio. Orain familia erdaldunen azterketa egingo dugu; hau da, euskara galdu duten familien edo Espainiko Estaduko beste herrialde batetatik etorri diren familien azterketa.


Hau fenomeno berria dugu, azken gerratetik honuntzakoa. Garbi nabaritu beharra dugu familia hauek duten erdaltasuna, euskararen eza-



guera ez bait da bloke homogeno batetan ematen. Euskararen ezezaguer-mailan graduazio eta ñabardura asko agertzen da, euskararen ezezaguer-mailan bezalaxe.

Irudi honek haxe agertzen digu.

### Euskararen ezezaguer-maila familia erdaldunetan



Ikusten denez, euskararik inoiz jakin ez duten 8,1 %-en aurrean, badago minoria adierazgarri bat, % 12, haurtzaroan jakin duena; eta beste multzo txikiago batek (% 4,5) ezagutzen du, baina, euskaldun izan arren, erdaldunekin ezkondu dira. Badago beste % 8,6 bat ikasten ari dena edo ikasteko asmoa duena.

Datu hauek kontrako bi prozesu linguistiko desberdin agertzen digute; higadura eta galera alde batetik, eta berreskuratzea bestetik. Higadura (% 12,1) berreskuratzea (% 8,6) baino piska bat handiagoa da. Joera galera alderakoa da.

Baina bi gauza garbi utzi behar ditugu.


1. Berreskuratze-fenomenoak bultzada garrantzitsu bat izan du, azkenaldi honetan, eta galerak neutraltzeko gertu dago.

2. Familia erdaldunetako kideen artean euskararekiko jarrera on bat dago: gehiengoari (% 75,6) euskara jakitea gustatuko litzaioke; lehenengo aldiz euskaraz entzutean pozez (% 39,9) edo harridura faboragarri (% 27,6) hartu zuten; eta, azkenik, ikasteko interesa agertzen dute.

Bestalde, jarrera on horri *nahia* baino urrutiago ez doan *interesa* kontrajarri behar zaio, gutxiengo bat bait da euskara ikasteko esfortzua egiteko prest dagoena.

Hona hemen gogoeta bat. Inork ez du hizkuntza bat ikasteko esfortzurik egiten beharrezkoa ez badu. Honexegatik, euskara utila bihurtu beharra daukagu: gazteentzat batez ere, orduan ikasketa errazago delako. Gurasoek nahi garbia dute seme-alabek ikas dezaten.

**Zure seme-alabek euskaraz ikastea maiteko al zenuke?**



Beste pauso bat emanaz galdera hau egin zaie:

**Seme-alabak ikastolara eramango al dituzu?; edo, semerik izango baze-nu, eramango al zenituzke?**

Baiezkoa .....	% 59,1
Ezezkoa .....	% 21,5
Erantzunik ez.....	% 19,4

Guraso erdaldunen erdiak baino gehiagok ikastolaren aukera hartzea esperantzagarri da euskararen berreskuntzeari buruz. Datuak bat datoz aurreko erantzunekin: alegia, semeen euskalduntzeari buruzkoekin, konpromiso tinko batetan konkretaturik.

Maila pertsonaleko konpromiso hau handiagoa da beheko taula ikustean:

**Nolabait kontribuitzeko prest izango al zinateke**

Baiezkoa .....	% 74,1
Berdin zaio.....	% 14,0
Ezezkoa .....	% 5,0
Erantzunik ez.....	% 6,9

eta beste hau:

## Euskararen gordetze eta zabaltzeari buruzko interesa


Baiezkoa .....	% 86,5
Berdin zaio .....	% 9,9
Ezezkoa .....	% 0,6
Erantzunik ez .....	% 3,0

Oso hedatuta dago euskararen gordetze eta zabaltzeari buruzko interesa familia erdaldunen artean. Liburuaren kapitulu honetan agertzen den portzentaiarik altuena da.

Lehen kapitulua bukatzeko, eta bereziki euskal herrialdeko familia erdaldunen saio hau amaitzeko, galdera bat egingo dugu: Nola ikusten dute familiok euskara zabaltzeko aukerabidea?

Baliagarri izango zaigu, galdera berdinarean aurrean familia euskaldunen jarrerarekin alderatzeko.

### Euskararen zabalkuntzarako helburuak



Aipagarria da inkestaturen ia erdiak euskararen ezaguera Euskal herriko biztanle guztiei zabaltzeko behar zaiela uste duela. Nahiko garrantzizkoa den beste talde batek (% 38,8) nahi dutenei bakarrik mugatu behar zaiela dio ezaguera hau.

Oso iritzi inportanteak dira berreuskalduntzea planifikatzeko momentuan.

Euskaldun familien erantzuna taulaz emateko garaian sortu den alderdi eztabaidagarria, xurrituta gertatzen da hemengo ondorioekin.

Oso esperantzagarria da hau guztia.

*Hartu beharko liratekeen neurriei buruz, hauxe dugu:*

**A) Epe laburrerako neurriak (oraindanik)**

	%
1. Haurtzaindegiak eta ikastolak ugaltzea.....	23,1
2. Adinekoentzako klaseak ugaltzea.....	10,8
3. Euskararen presentzia handitzea komunikabideetan.....	19,4
4. Irakaskuntzaren behe-mailetan elebitasuna sartzeara.....	34,7
5. Irakaskuntza elebidunerako irakasle-eskolak sortzea.....	10,1
6. Beste erantzunak.....	2,1
7. Erantzunik gabe.....	7,8

**B) Erdi-eperako neurriak (5-10 urte)**

1. Euskara erdararekin parekatzea komunikabideetan .....	10,6
2. Elebitasuna Irakaskuntzako maila guztietan ezartzea .....	37,1
3. Elebitasuna Administrazio publikoan ezartzea .....	3,4
4. Euskararen ofizialkidetasuna lortzea .....	26,9
5. Beste erantzunak.....	2,4
6. Erantzunik gabe.....	13,6

**C) Epe luzerako neurriak (10 urte barru)**

1. Euskararen lehentasuna komunikabideetan .....	9,3
2. Euskal Unibertsitatea lortzea .....	22,9
3. Euskararentzako lurralde-estatutua lortzea .....	33,0
4. Beste erantzunak.....	2,0
5. Erantzunik gabe.....	32,8

Laburtuz, familia erdaldunek proposatutako neurriak hauexek dira:  
Epe laburrera, eta maiztasun ordenaz:

1. Elebitasuna Irakaskuntzako lehen mailetan sartzeara.
2. Haurtzaindegi eta ikastolen ugaltzea.
3. Euskararen presentzia handitzea komunikabideetan.
4. Adinekoentzako klaseen ugaltzea, eta Irakaskuntza elebidunerako eskola normala sortzea.

Epe mediora:

1. Elebitasunaren ezarpena Irakaskuntzako maila guztietan.
2. Euskararen ofizialkidetasuna lortzea.
3. Euskararen erdararekiko parekatzea komunikabideetan.

Epe luzerako:

1. Euskal Unibertsitatearen sorkuntza.
2. Euskararentzako lurralde-estatutu baten lorpena.
3. Euskarari lehentasuna ematea komunikabideetan.

Honetan, familia euskaldunen kasuan bezala, proposatutako neurriak haintzakotzat hartzekoak dira, beren errealismo eta koherentziagatik. Lehen bezala, maila oinarrizkoenetatik garrantzizkoenetarako mailakatzea nabari da.

## 2. Kapituluia

### **EUSKARAREN TRANSMISIO-PROZESUA**

Familiak hizkuntza baten bizitzan duen oinarrizko garrantzia aipatua dugu dagoeneko.

Bere jatorrizko zelula da.

Halaber, hizkuntza berorren babesle, desorroilatzaille eta transmititzen hasten den lehenbiziko elementu soziologikoa; fenomeno linguistikoa, izan ere, aukera pertsonal batetan baino areago, beste honetan finkatzen baita: komunikazio naturaleko prozesu baten dinamikan, ordezkazina eta guraso eta seme-alaben artekoa den dinamikan.

Baina familia soila ez da barruti nahikoa hizkuntzaren desarroilora; eta gaur bizi garen gizartearen bilakaera-mailan, hain zuzen, inoiz baino gutxiago.

Gaur egun, hizkuntza bat famili girora muga-erazten badugu, familia hortako seme-alabak beren desarroiloan partaide diren beste elementuen menpean daude: Hezkuntza, Administrazio eta Komunikabideen esku, hain zuzen, garrantzizkoenak baizik ez aipatzeko. Honexetan datza, bada, euskararen funtsezko problematika: Euskal herriko zona euskaldunetan denborarekin gertatu den haustura: eskola ia ezagutu ere ez zuten gurasoen eta beren seme-alaben arteko haustura, espainiar Estatuaren eskolakuntzarako prozesu ofiziala mende honetakoa baita; erdarazko eskola nazionalak xurgaturik gertatu dira seme-alabok; eskolak beste zenbait laguntza ere izan du: Irratia, telebista eta geroz eta xurgagarri eta bortxagarriago den Administrazio publikoa.

Guzti hau, azken batez, progresuaren ezinbesteko prezioa dugu.

Baina desarroiloak ezartzen dituen prezio hauen aplikazio arbitrariora da hauzitan jartzen duguna.

Ez gaude progresuaren aurka, agintariak hainbat maite dituzten eragigailu sozial batzuren bidez ezarritako kultur monopolio kolonialen kontra baizik: menperatze-tresna politiko eta ekonomiko direlako, hain zuzen, Amerikan, Afrikan nahiz hemen bertan. Aitzitik, gure gaur eguneko zibilizazioa sortzen ari den hazkundebideak askeago eta giza kultura guztien zerbitzutan egotearen alde gaude, eta ez menperatzaile hutsak direnen eskuetan.

Estudio honen helburua hauxe da: Euskal herriko ordezkatzeko linguistikoa gauzatu duten mekanismoen ezaguera lortzea. Ikerketa sozio-linguistikoa honetarako, eta lehen aipatu denez, ikuspegi linguistikoa arabera bereziturik bi famili mota hartu ditugu kontutan.

1. Euskaldunak.

2. Erdaldunak.

Ekin diezaiogun, bada, lehenbizikoari.

## 1. FAMILIA EUSKALDUNAK

### EUSKARAREN IKASKETA

*Nola eta noiz burutzen da ikasketa hau?*

Estudio honetatik jakin daitekeenez, euskaldunen gehiengoak (90,9 %) lehen hizkuntza bezala ikasi du euskara; hots, bere lehendabiziko sentimenduen biltzerakoan eta ezagueren eskuratzean, prozesu guzti honek berarekin daramtzan zama psikologikoekin batera.

Oso gutxi da (1,3 %) urte batzueko geroago ikasi dutenen kopurua; familia euskaldunetako gainerantzekoek, bestalde, ez dakite euskaraz.

Lekuari dagokionez, 93,3 %-k familiaren altzoan ikasi du, eta bakar batzuk (2,2 %-k) etxez kanpoan.

Guzti hau garrantzi bizikoa izango da Euskal herriko elebitasunaren arazoa garbitzeko; izan ere, bi hizkuntzak ondo ezagutzen dituztenen kasuan bertan ere, euskarak euskaldun gehienengan duen sustraitze-maila sendoagoa da beste euskaldun gutxiengoarengan baino.

Honetatik, azkenik, beste datu bat ere atera dezakegu: Ikastolak 60etan sortu ziren artein, familiaz kanpoko beste inolako erakundek ez zuela euskaraz irakasten; zonarik euskaldunenetan azken gerrateraino irauin zuen erlijio-heziketa ez da puntu honetan sartzen, bistan denez.

Beraz, familia izan da euskararen transmisiorako gizarte-gunea, bere lehendabiziko hazkunderen babesle; eta, aldi berean, baita bere gorde eta bizilekua ere.

—Euskaldunaren geroagoko eboluzioa familia euskaldunean.

Orain datorkigun lehenengo galdera zera da: Zenbatek gorde du familiarengandiko hizkuntza hau?


Gehien-gehienek, eraso guztiak gertatu ondoren ere, gorde egin dute (90 %); beste batzuk, ez anitzek (6 %), galdu egin du; eta berreskuratze meritagarria gertatu da 4 % batengan.

Eta bigarren galdera: Kontserbatu egin duten hauek, zer-nolako egoeratan darabilte gaur egun euskara?

Euskara lehen hizkuntzat gorde duten euskaldunen 90 %-tik, erdia baino piska bat gutxiago (49 %) "kontserbatze" soilean gelditu da, besterik gabe. Badago, halaz ere, zati koskor bat (41,0 %), bere aldetik hobeagozten saiatu dena. Eta, azkenekoz, arrazoi desberdinengatik galdu egin dutenen artean, 10 %-k berreskuratzea lortu du.

### Euskara galdu dutenak: noiz eta zein arrazoiengatik?

Galeraren noizaldia





## Galeraren zergatiak

	%
1. Kanpotiko presioa.....	72,0
2. Utzikeria pertsonala (edo interesik eza) .....	8,0
3. Beste batzu .....	2,0
4. Erantzunik gabe.....	18,0

Zifrok komentarioa merezi dute:

1. Eskola da Euskararen bizkarrezurraren ebakitzaille, dekretuz, zigor gorporalak ere erabiliz; hauetatiko batzu, oso berriak, gaurko lekuko eta guzti aipatzen dira Euskararen Liburu Zurian. Eta, egia esan, harrigarria da galerak handiago ez izana.

Badago hemen desegin beharreko nahastea, zenbaitek maltzurki iraunerazi duena: Euskara horrelako proba-banku eta itolarrian jarri dutenak "instrukzioa", "kultura unibertsala", "zibilizazioa" izan omen dira; eta proba horretan, agi denean, huts egin omen du euskarak: ez omen da gai, antza, "garai eta denboraldi berrien" eskakuzunei erantzuteko. Egia besterik da, ordea: gaztelania edo frantses soilaz ezarritako "instrukzioa" eta "heziketa" izan direla desegokitasun eta aldrebeskeria guztion sortzaile bakarrak.

2. Ondoren, langiroak eduki ahal izan duen eragina honexegatikoa izan da: Eskolak prestatu dion plataformaz eta Administrazioak une oroz eskaini dion laguntzaz baliatu delako; baita ere, ordea, erdaldunen presentzia sozialarengatik; etorkin nahiz bertakoari, erdalduna izateagatik, eta "edukazioz", utzi egin diogu gure hizkuntzan egiteari, honela gutxienik dakienak gidaturiko diglosi prozesu latz batetan barrena abiatuz; ez baitzen gauza berdina gertatzen euskara ikasi zuten eta frankismoa baino lehen hain ugariak ziren etorkin erdaldunekin: orduan, oraindik, hizkuntzek bi aldeetara eragiten zuten.

3. Euskara inguratu duen giro estaltzaile eta itogarriak etsaitasun sozial agiria izan du lagun. Gertaera hau, batik bat, ingurune urbano eta industrialduetan nabarmendu da.


Labur bilduz: Eskolak, lanak, eta komunikabideen aldetiko inolako laguntzarik eza, eta hauek familiarekiko ukan duten indar-harremana, gehiegizkoa gertatu izan zaio azken honi eraso bortitz guzti hori berak bakarrik jasan ahal izateko.

## Euskara berreskuratu dutenak


Berreskuratze-fenomeno hau familiatik ateratzean galdu zutenengan (4 %) nola eman den ezagutzea interesatzen zaigu.

**Euskararen berreskuratzea**  
(familia euskaldunak)


Berreskuratzearen garaia




1. 20 urteak baino lehen.  
64,8 %



2. 20 eta 30 urteak artean.  
20,7 %



3. 30 eta 40 urteak artean.  
2,9 %



9. 40 urteez geroztik.  
11,6 %

**Berreskuratzearen eragilea:**

1. Erabaki pertsonala .....	34,8 %
2. Familia.....	30,4 %
3. Lagunak .....	17,4 %
4. Beste batzu .....	17,4 %

Hemen, hauxe ageri da nabari: 1) Gehiengo nabarmenak, 20 urteak baino lehenago berreskuratzen du (64,8 %). 2) 30 urteez aurretik berreskuratzen dutenok guztiaren 85,5 % dira. 3) Berreskuratzeko fenomenoak gehienbat gazteriarengan finkatzen bada ere, 40 urteez geroztikoak ere ez dira gutxiestekoak (11,6 %). 4) Azpimarratzekoa da, halaber, berreskuratzearen fenomenoak funtsean erabaki pertsonalaren fruitu dela; eta gero, familiaren eraginarena.

Hona aurreko oharrek sortzen duten ondorio generala: kontserbazio-fenomenoarekin batera, bere nagusitasuna garbia eta erabatekoa delarik, beste prozesu batzuk ere gertatzen dira, berau bezain garrantzitsuak ez badira ere: bata, euskararen galera; eta bestea, berreskuratzeko modua.

## EUSKARAREN EZAGUERA GURASO ETA AITON-AMONENGAN

Honeraino euskararen ikasketa eta bere eboluzioa aztertu dugu; familia euskaldunetan egin dugu hori eta, argi eta garbi ikusi denez, seme-alaben ezaguerak gurasoengan izan du bere oinarria.

Eta, handik berehala, honako galdera hau plazaratzen dugu: Zein eratan gertatzen da gizaldiz gizaldiko transmisio hau?

Oraingo honetan, hiru belaunalditan zehar aztertuko dugu berau: seme-alaba, guraso eta aiton-amonengan hain zuzen. Familiaren osagaiak diren guzti horietatik abiatuz, beraien euskararekiko ezaguera hautematen saiatuko gara.

### Euskararen ezaguera gurasoengan

Gure abiaburua familia eskaldunetan bizi diren eta mintzatzeko eragozpenik ez duten euskaldunak dira, berauek guztizkoaren 87,8 % direlarik.

Zein mailatan ezagutzen dute, edo zuten, euskara beren gurasoek?

### Euskararen ezaguera gurasoengan

1. Biok dakite, edo zekiten .....	88,5 %
2. Aitak bai, amak ez .....	1,9 %
3. Amak bai, aitak ez .....	1,0 %
4. Biek ulertu bakarrik egiten dute .....	0,5 %
5. Bietariko batek ulertu egiten du .....	—
6. Ez batak ez bestea, ez dakite euskaraz .....	3,0 %
7. Erantzunik gabe .....	5,1 %

Emaitza honek hauxe esan nahi du:

90,4 % (88,5 + 1,9) kasuetan aitak badaki euskaraz.


89,5 % (88,5 + 1,0) kasuetan amak badaki euskaraz.

# EUSKARAREN TRANSMISIO-PROZESUA

## EUSKALDUN FAMILIETAN

**AITA ALDEKO  
AITON-AMONAK**

**AMA ALDEKO  
AITON-AMONAK**



## Euskararen ezaguera aiton-amonengan

ONDORIO  
ANALITIKOA

	aitaren aldetik	amaren aldetik
1. Biok ezagutzen dute, edo zuten .....	86,6 %	87,1 %
2. Aitonak bai, amonak ez .....	1,2 %	1,2 %
3. Amonak bai, aitonak ez .....	0,7 %	0,5 %
4. Biek ulertu bakarrik egiten dute, edo zuten.....	0,1 %	0,1 %
5. Bietariko batek ulertu egiten du.....	—	—
6. Ez batek ez besteak ez dakite euskaraz .....	4,1 %	3,7 %
7. Erantzunik gabe .....	7,3 %	7,4 %

Datu hauekin, bestalde, honako hauxe ondoriozta dezakegu:

1. Gurasoen eta aiton-amonen belaunaldien artean, transmisio-prozesuak osoki funtzionatu izan du. Ez bakarrik galerarik izan ez delako; baizik eta, gainera, berreskuratze txiki bat gertatu izan delako bi belaunaldien artean; izan ere, gerrate aurreko garaietan garbi zegoen euskararen nagusitasuna.

2. Guraso eta seme-alaben arteko transmisioan, ordea, galera bat suertatu da: nahiz oraindik oso garrantzitsua ez izan, familia euskaldunen hizkuntz higadurazko prozesuaren ezaugarria da; batez ere gerraosteko garaikoa, bere zigor eta jazarketekin; eta, geroztik, inmigrazio-uholdearekin, 1950 etik aurrera batik bat.

Guzti honetatik atera dezakegun ondorioa zera da, galera nabarmen honen eragileak azken urteotako zirkustantzia kontrakoak izan direla. Ondorio generala da, orobat, kanpo-ingurunearen eragina oso nabaria dela. Transmisio-prozesuak, bere kanpo-baldintzapenen menpean dagoela dirudi. Euskal herriari dagokionez, eta euskararen nagusitasuna oraindik garbia den inguruan, famili bidezko transmisio-prozesuak bere mugak gaindi ditzake eta, bide honetatik, euskaldun ez direnak ere ikas eraztera behar. Kontrako kasuan, ingurugiroa izaeraz aldatzen denean, transmisio-moeta honek ozta-ozta lortzen du hizkuntza belaunalditik belaunaldira pasa araztea.

Izan ere, ingurugiroaren itxura-aldaketa honetan hasten dira higidura linguistikoaren ezaugarriak nabarmenagotzen.

## Familiako giroa euskararekiko

Familia euskaldunen jarrera eta jokabidea euskararen aldekoa izan da erabat: 90,3 %-ra heltzen da.

Familiako giroa euskararekiko:

1. Guztiz aldeko .....	55,4 %
2. Aldeko .....	34,9 %
3. Axolagabe .....	6,5 %
4. Desfaboragarri.....	0,1 %
5. Etsai.....	—
6. Erantzunik gabe.....	3,1 %

Inguruko pertsonak euskararekiko:

	Alde	Kontra
1. Aita .....	23,3 %	1,4 %
2. Ama .....	16,6 %	1,3 %
3. Aita eta ama .....	8,4 %	0,2 %
4. Aiton-amonak .....	8,8 %	0,7 %
5. Aurreko guztiak.....	2,2 %	—
6. Beste zenbait ahaide .....	2,7 %	0,5 %
7. Ez ahaideak.....	3,0 %	16,9 %
8. Inor ez kontra .....	—	9,7 %
9. Erantzunik gabe .....	35,0 %	69,3 %

Ikusi ahal izan denez, familian euskararen alde garrantzitsuenik jokatzen dutenak aita edo ama dira, edo biak batera; urrunago aiton-amonak, eta gainerantzeko ahaideak. Familiatik kanpoko pertsonen eragina murriztagoa da hemen. Baina, aitzitik, euskararen kontrako arazoan pertsonon eragina askoz ere nabariagoa da (16,9 %): maisu-maistrak, apaizak eta beste ez ahantz.

INGURUNE SOZIALAREN ERAGINA TRANSMISIO-PROZESUAN

Hona hemen, ondoren, inguru sozialak euskararen transmisio-prozesuari eginiko eragina ikusi ahal izateko taula.

## Euskararekiko giroa ingurune sozialean

	Hauzategi edo herria	Laguntaldea	Ikastetxea	Parrokia	Lantokia	Dibertsio-gunea	Beste lekuak
1. Oso alde .....	27,1	35,0	8,3	19,0	17,7	16,6	12,3
2. Alde.....	46,1	46,6	16,0	48,2	33,0	31,7	29,1
3. Axolagabe.....	17,7	15,3	20,8	18,6	19,6	24,5	17,0
4. Desfaboragarri.....	6,0	0,8	30,1	6,3	3,5	3,8	1,1
5. Etsai.....	0,4	—	8,4	1,1	0,7	0,5	0,7
6. Denetatik zerbait.....	—	0,1	0,8	0,1	—	—	0,5
7. Erantzunik gabe.....	2,7	2,2	15,6	6,7	21,5	22,9	39,3

Koadroan ikusten dugunez:

1. Euskaldunak, lagunen artean (% 81,6), hauzaterian (% 73,2), Parrokian (% 67,2) eta lantegietan (% 50,7), ordena honetan, euskararekiko inguru, *faboragarriena* aurkitu du, % 50-etik gorako portzentaieiz. Ikastetxeak izan dira etsaienak.

2. Axolagabetasun-portzentaia *handienak* dibertsio-guneei, ikastetxei, lantegiei eta Parrokiari dagozkie.

Parrokiarena gogora dezagun: faboragarri eta desfaboragarri diren bi kapituluetan azaltzen da aldi berean.

3. Bestalde, bere ingurugiro *desfaboragarri edo etsaiengatik*, ikastetxeak (% 38,5) eta Parrokia (% 7,4), hauzateria (% 6,4), dibertsio-zentruak (% 4,3) eta lantegiak (% 4,2) nabarmentzen dira maila apalago batetan.

Kontutan izateko puntu bat: familien ingurugiroa izan da faboragarriena: lagunak eta hauzateria.

Parrokiari dagokionez, esanahi moral argia duten balio kulturalen aurrean agertzen duen axolagabetasunak, argi eta garbi, konplizitatea adierazten du; eta etsai dira beraz; eta bere ekintzaren frutuak, inoiz negatiboa bezala katalogatua, euskararen galtzen eragin nabaria izan du, batez ere bere inguruan daukan prestigio eta neutraltasun-sonogatik.

Familiguneari dagokionez, hau da, zalantzarik gabe, hizkuntzarekiko maitasuna garbienik agertzen duena.

## ERITZIAK ETA JARRERAK TRANSMISIO-PROZESUARI BURUZ

Zati honetan, lehen aztertu ditugun datu objektiboen eta beren eritziek adierazten dituzten datu subjektiboen arteko konparazioa egin nahi da. Honen bidez, portaera eta ideen artean egon daitezkeen beste iritziak

ikusi ahal izango ditugu; orobat, mintzairaren transmisio-prozesuan familiak duen garrantziaz euskaldunak duten kontzientzi maila neurtu ahal izango dugu.

### Euskararen transmisioan familiak duen garrantzia

1. Ezinbestekoa .....	% 61,8
2. Oso garrantzitsua .....	% 31,3
3. Garrantzi txikia .....	% 1,1
4. Garrantzirik gabea .....	% 0,1
5. Erantzunik gabe .....	% 5,7

Ikusten denez, iritzi ia orokorra da (% 93,1), mintzairaren transmisio-prozesuan familiak duen funtsezko zerikusia; Euskara famili barnean ikasi dutenekin (% 93,3) bat datoz datuok.

*Familiaren jokabide* egokienari buruz.

### Jokabide egokiena euskararen transmisioari buruz

1. Beren seme-alabek euskara ikastea nahi duten gurasoek bakarrik saiatu beharko lukete .....	% 6,4
2. Guraso euskaldunek beren seme-alabek ikas dezaten saiatu beharko lukete .....	% 26,7
3. Guraso guztiek, ez dakitenak tartean direla, beren seme-alabek euskara ikas dezaten saiatu beharko lukete .....	% 60,8
4. Beste erantzunik .....	—
5. Erantzunik gabe .....	% 6,1

Gehiengo bat jarrera zorrotzenaren alde dago (% 60,8) Bi faktore batuz, % 87,5-ra iristen dira.

Zifra oso garrantzitsua, batez ere, *beren semeek euskara ikas dezaten nahi duten gurasoek bakarrik* honekin alderatuz (% 6,4).

Hemendik oso ondorio garrantzitsua ateratzen dugu: Inkestatuak izan diren euskaldunak ez daudela gaurko egoerarekin ados; euskararen erakusketa beren seme-alabei mugaturik egon da gahienbat, eta erakuste hori ez-euskaldunei ere hedatzea nahi dute.

Bestalde, familia euskaldunetan ez baitiete beren etxeetako guztiei euskaraz irakatsi, ideen eta errealitateen artean desegokitze bat dago.

Ikusten denez, esandako eskakizunak praktikatik haruntz daude.

Eta azken galdera bat, familiek beharko luketen laguntzari buruz.



## Transmisio efikaz batetarako beharrezko laguntzak

1. Euskararen ikasketarako ahalbideak ugaltu (ikastolak, gaueskolak, etabar) .....	% 46,7
2. Euskararen irakaskuntza, irakaskuntz maila guztietan sartu	% 39,3
3. Euskal herriko bazter guztietan ikastolak ezarri jende hel- duentzat .....	% 4,8
4. Bata eta bestea (2 + 3) .....	% 1,5
5. Beste erantzunen bat .....	% 0,1
6. Erantzunik gabe .....	% 7,6

Aukera hauen artean, bi izan dira garrantzitsuenak bezala hautatuak: erdiren batek zera esan du, haurrentzat ikastolak eta gaueskolak behar direla; beste gainontzetiko zati batek, aldiz, euskara irakaskuntzako maila guztietan eskatu du.

### 2. Kapitulu honetako atal hau labur bilduz:

1. Transmisio linguistikozko prozesuan familiak duen ordeztazintasunaz dagoen iritzia orokorra da eta, orobat, euskaldun familien praktikarekin bat dator.

2. Familia guztiek, ez-euskaldunek barne, beren semealabek euskaraz ikas dezaten saiatu behar dute.

3. Transmisio-prezesuaren aurrerapena lortzeko, ikastolen eta gaueskolen ugaltzea behar da; baita ere, irakaskuntz maila guztietan euskara sartzea.

## 2. FAMILIA ERDALDUNAK


Hasiera batetan, familia ez-euskaldunetan euskararen transmisio-prozesua aztertzeak alferrikakoa dirudi. Familia erdaldunetako gehien-go batek inoiz euskara jakin ez duelako hori egia bada ere, ordea, ez da ahaztekoa % 4,5 batek badakiela. Eta, *bestalde*, ez dakitenek ere badute esatekorik: inoiz euskaraz jakin ez dutenek ere baliteke beren arbasoen artean euskaldunik izatea; eta, kasu honetan, belaunaldi batetik bestera euskararen galera nola eman den jakin ahal izateko bidea gerta liteke hori.

# EUSKARAREN TRANSMISIO-PROZESUA

## ERDALDUN FAMILIETAN

**AITA ALDEKO  
AITON-AMONAK**

**AMA ALDEKO  
AITON-AMONAK**



## Gurasoek duten euskararen ezaguera (Familia erdaldunak)

1. Biek ezagutzen dute ala zuten .....	% 20,9
2. Aitak bai, amak ez .....	% 4,5
3. Amak bai, aitak ez .....	% 7,7
4. Biek ulertzen dute ala zuten .....	% 2,4
5. Bietako batek ulertzen du .....	% 2,8
6. Inork ez daki .....	% 56,1
7. Erantzunik gabe .....	% 7,6

Hemendik atera dezakegunez, guraso eta seme-alaben arteko belaunaldien artean galera handi bat izan da: gaurko 1/4 baino gahiago ez-euskaldunek (% 25,4) guraso euskaldunak dituzte.

Hau oso gauza adierazgarria da.

Hemen ematen ez ditugun koadro batzuren laburpenak osatuz:

1. Hizkuntz higadura eta honek dakarren galera: *aitonen eta gurasoen arteko belaunaldian* ez da oso nabaria izan transmisio-prozesua; nahiz eta galera batzu gertatu, nahiko ondo joan izan da.

2. *Gurasoen eta semeen arteko belaunaldian*, aldiz, galera nabaria izan da.

Bi belaunaldi horien arteko desberdintasunak honetan dautza:

1. Azkeneko 25 urte hauetan izan dugun inmigrazioa, guraso eta seme-alaben arteko belaunaldian eragin handia izan duena. Inmigrazio masibo honek, bere kulturaren babespiderik gabe, Bizkaia eta Gipuzkoan eragin du bizienik. Inmigralekuok, gainera, gizagune handiak bihurtu dira. Basauri, Ermua, Errenteria, Pasaia..., gertaera horren adibide argiak dira.

2. Eskola guztietan euskara haurren artetik errauzten saiatu izan da.

3. Komunikabide berrien agerpena, irratia eta telebista batez ere: monopolio kolonizatzaile bezala eraginkortasun handiz iristen dira azken bazterreraino (familiarte eta baserri bakartienetaraino).

Hauek dira, beste faktore batzuren artean, guraso eta seme-alaben belaunaldien artean hainbateko hizkuntz etendura eman arazi dutenak; beste belaunaldietan eman ez diren neurriko etendurak, nolnahi ere.

## TRANSMISIO-PROZESUA ETA FAMILI INGURUGIROA

Hemen, euskaldun familien kasuan bezala, transmisio-prozesuan famili ingurugiroak izan duen eragina aztertuko dugu.

## Euskararekiko famili ingurugiroa (Familia erdaldunetan)

1. Oso aldekoa .....	% 11,2
2. Aldekoa .....	% 30,2
3. Axolagabea .....	% 38,1
4. Desfaboragarria .....	% 4,1
5. Kontrakoa .....	% 1,3
6. Erantzunik ez .....	% 15,1

Ikusten denez, aldeko jarrera ez da familien erdira iristen (% 41,4) Bestalde, kasik kopuru berdinak (% 38,1) axolagabetasuna azaltzen digu. Ez dira falta, orobat, ingurugiro desfaboragarri eta kontrakoak.

Komeni da gogoratzea, beti ere, familia ez-euskaldunen kopuru honetan % 4,5 bat Euskal herritik kanpora jaiotako pertsonak direla. Halaz guztiz ere, hemen jaiotako pertsonen osatutako familia ez-euskaldunetan saldoa ez da faboragarria.

Hona hemen galdera garrantzitsu bat:

## Zure familiako inor saiatu al da euskara ikasten

Eta erantzunak:

1. Baietzkoa .....	% 48,5
2. Ezezkoa .....	% 43,1
3. Erantzunik ez .....	% 8,4

Interesaren neurria ematen du horrek. Beste gauza bat da, noski, *esfortzu egiazkoaren zenbaterainokoa, emaitzak* urriak izan bait dira.

Baina hemen giroak (% 33) eta erantzun gabeko erdiak du eraginik handiena. Arazoaren kontzientzia ez baita erreala, ez da motibatua izan; beharrezko baliabide minimoak ere ez dira jarri eta, azkenik, izan ditugun eta ditugun metodoak ere desegokiak dira.

Emaitzarik lortu nahi badugu, baliabide efikazak eta egokiak bilatu beharko ditugu euskararen irakaskuntzarako.

## TRANSMISIO-PROZESUAZ DAUDEN JARRERAK ETA ERITZIAK

Interes berezia du familia erdaldunen eritziak, transmisio-prozesuan familiak duen funtzioari buruz. Honek, izan ere, berreskuratzeko orduan bere eragina izango du.

Beste puntu bat zera da: beren seme-alabek euskaraz ikasi behar duten uste ote duten, Euskal herrian bizitzeko beharrezkoa delako.

Hona hemen galderak eta erantzunak:

**Zein izango litzateke familiaren jokabide zuzena seme-alabei euskara erakusteko kontuan?**

1. Nahi duten gurasoek bakarrik (ikas-erazi behar diete euskara seme-alabei) ..... % 24,2
2. Euskaraz dakiten gurasoek ..... % 16,6
3. Guraso guztiek, nahiz eta beraiek ez jakin ..... % 49,1
4. Zenbait erantzun ..... % 3,2
5. Erantzunik gabe ..... % 6,9

Ikusten denez, ia familia erdaldunetarik erdiak erantzun faboragarriaren aldekoak dira. Hauek eta familia euskaldunen baturak zera adierazten du, Euskal herriko guraso gehienek beren seme-alabek euskara ikastea nahi dutela.

Hirugarren kapitulua

## EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA

Honekin bete-betea sartzan gara azterketa soziolinguistiko honen funtsean: euskararen erabilpena.

Honetan ikustekoa hau da: *zeinek, zeinekin, zertaz, eta zein zirkustantziatan* erabiltzen duen euskara komunikazio-hizkuntza bakar bezala.

Euskaraz zenbatak dakien jakitea ez da aski; guztiz kontutan hartze-koak dira, horretaz gainera, zenbatean eta zein zirkustantziatan hitzegi-ten duten, honela bakarrik ezagutuko bait dugu euskararen benetako egoera.

### 1. FAMILIA EUSKALDUNAK

#### EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA HITZEGITERAKOAN

Ikus ditzagun, lehendabizi, legislazioak eta normatibak ukitu ezin izan dituzten eremuak.

Adibidez, harreman pertsonalak.

#### Euskararen erabilpena harreman pertsonaletan

Familia euskaldunetako kideetarik % 72,3 k erabiltzen dute euskara bai hutsik (% 93,5) bai lehentasunez (% 28,8). Honetarik % 14 batek gazte-laniaz egiten du lehentasunez eta portzentaia urriago batek (% 7) euska-

raz gutxi edo ezer ez du egiten. Bestalde, euskaldunek gaztelaniaz egiten duten erabilpenak ez du joera lehenkorrik. Honek zenbait jenderen iritzia zeharo kontraesaten du: euskaldunak, alegia, elkarrizketan % 20 egiten omen dutela hutsik euskaraz. Arazo erreala ez da euskaldun pertsonarena ordea; solaskideak izan dezan euskararen ezaguera-mailak eragingo du, aitzitik, hizkuntza bat ala bestea erabili.

Hemen gertatzen dena zera da, euskaraz ez dakien batek talde euskaldun osoaren ahalmena urritzen duela.

## Famili giroan

Hiru maila aztertuko dugu: gurasoen artean, guraso eta seme-alaben artean eta seme-alaben artean.

## Euskararen erabilpena familian

	Gurasoen artean	Aita eta seme-alaben artean	Ama eta seme-alaben artean	Mutilen artean	Mutila eta nesken artean	Nesken artean
1. Euskaraz baka- rrik .....	% 68,5	% 72,0	% 70,3	% 63,0	% 56,3	% 54,8
2. Euskaraz nagusiki .....	11,4	11,0	13,1	12,2	15,7	17,0
3. Bietan, baina erdaraz gehiago.	7,3	5,2	6,0	9,4	12,0	7,3
4. Gutxi edo ezer gutxi .....	4,0	5,2	3,3	4,3	4,8	9,1
5. Ezer ez .....	8,8	6,6	7,3	11,1	11,2	11,8

Garbi agertzen da, hemen, gurasoen artean elkarrizketa-kasu gehienetan (% 79,9) euskaraz egiten dela. Guraso eta seme-alaben artean berdina da (% 87). Seme-alaben artean portzentaiak piska bat gutxitu egiten dira (% 75,2) baina ez asko. Alaben elkarrizketa bera, ahulena izanik ere, nagusiki (% 72) euskaraz egiten da.

## Telefonozko elkarrizketak

Telefonozko elkarrizketetan % 65,1ek erabiltzen da euskara, ez era hutsean edo nagusiki, baina jeneralean halaz ere.

Honek zera adierazten digu, zenbait jendek zuen euskara komunikabideetan erabilgarria ez izateko aurreiritzi zentzugabea desagertzen ari dela eta bide batez euskara bera prestigioa hartzen.

## Famili girotik kanpo

1. Euskaldun populazioaren erdia baino gehiagok erabiltzen du euskara bai hutsik bai nagusiki giro desberdinetan:

Portzentaiarik handiena *lagun-giroari* dagokio euskaraz bakarrik % 46,5; euskaraz nagusiki % 23,7; gaztelaniaz bakarrik % 14,3; gero *dibertsio-tokietan* % 38,3, % 19,1, eta % 10,3, banan bana eta azkenik *irakaskuntzan eta lanean* 35,8, 21,7 eta % 14,0.

2. Gaiei dagokienez:

Portzentaiarik altuena *elkarrizketa familiar* eta *arruntei* dagokie. Maila apalagoan *kirol* eta *lan* gaiak datoz. Eta minimoak, azkenik, *eskola* eta *sozio-politikako* gaiei dagokie.

Arazo funtsezkoenetako bat zera da, euskaraz ez dakiten pertsonen presentziak sortzen duena.

Beheko taula honetan hizkuntzari egiten dion kaltea isladatzen da.

## Pertsona erdaldunen eragina eta euskara

Erabilpen-maila	Denek dakitenean	Gehiengoak dakienean	Gutxiengoak dakienean	Norbaitek dakienean
1. Euskaraz bakarrik .....	% 75,5	% 29,7	% 8,4	% 6,3
2. Euskaraz nagusiki .....	% 11,2	% 31,9	% 7,4	% 5,3
3. Erdaraz nagusiki .....	% 2,4	% 15,7	% 30,2	% 19,8
4. Ezer ez edo ezer gutxi .....	% 2,0	% 7,4 <sup>7</sup>	% 22,8	% 24,0
5. Ezer ez .....	% 4,4	% 9,7	% 25,0	% 37,9
6. Erantzunik ez .....	% 4,5	% 5,6	% 6,2	% 6,7

Euskararen erabilpena, *denek dakitenean*, kasik bakarra da. Halaz ere, *gehiengo batek dakienean*, euskararen erabilpena asko urritzen da eta *euskaldunak gutxiengo direnean* oso gutxi dira beste euskaldunei euskaraz egiten dietenak.

Frogatuta gelditzen da, honela, pertsona erdaldunen presentzia hutsak erdararen erabilpen bakar edo nagusia bultzatzen duela.

Demagun, ondorio gisa:

1. Maila primarioan (hau da, ahozko komunikazioan) euskarak toki nagusi bat hartzen du: ez bakarrik famili giroan, baizik eta orobat kanpoko giro eta elkarrizketa-gai desberdinetan ere.

## EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA IRAKURTZERAKOAN

Euskararen ahozko erabilpenari buruz azterketa serio bat beharrezkoa bazen, are gehiago genuen irakurketari buruzkoaren premia, ezertxo ere ez bait zegoen eginik.

Hau da, beraz, antentzio sakonago bat behar duen gai bati egiten zaion lehenengo hurbilketa.



## Irakurtze-maiztasuna

	Euskaraz	Erdaraz
1. Normalean .....	% 18,7	%63,1
2. Noizbehinka .....	% 31,2	%19,0
3. Gutxitan .....	% 29,5	%10,7
4. Inoiz ez .....	%13,4	% 4,3
5. Ez daki.....	% 4,2	% 0,2
6. Erantzunik ez.....	% 3,0	% 2,

Barruti egokia lortu dugu, honela, alderdi adierazgarrienak aztertzeko.

Horra beraz: *euskaraz normaltasunez irakurtzen dutenak* ez dira euskaldun populazioaren 1/5 era iristen (% 18,7); ia 2/3edo zatiak *noizbehinka* edo *gutxitan* irakurtzen du (60,5); eta dezentek (13,4) inoiz ez.

Egoera triste honen barruan, aipagarria da % 80-k, nahiz eta noizbehinka, euskaraz zerbait irakurtzen duela jakitea.

Gaztelaniaz, berriz, ia 2/3 dira normalki irakurtzen dutenak. Hau, noski, erdal alfabetatze eta ondorengo eskolakuntzak eta gaztelaniaz erabilitako komunikabideek euskaldunarengan izan duten eraginaren fruitu delarik, kontutan hartzekoa da; gainera, euskarari bide guztiak itxi izan zaizkionez, bistan da euskaldunak ingurune hauetara (erdarazkoetara alegia) izan duen sarbide erraz eta nahi eta nahiezkoa, baita beharrezkoa ere.

Eta, noski, guzti hau barruti honen kontenituan agertzen da gero:

1. Aldizkariak irakurtzeko ohitura: euskaraz, 13,9 %k bakarrik normalki; gaztelaniaz, berriz, 55,2 %. 2. Liburuei buruz: euskaldunen 8,3 %k bakarrik irakurtzen dute normalki, erdaraz 36,7 %k irakurtzen duten bitartean. Noizik behin edo salbuespen gisa irakurtzen dutenak (39,7 %), gaztelaniaz kondizio beretan irakurtzen dutenak (37,0 %) baino gehiago dira, eta liburuak euskaraz inoiz irakurtzen ez dituztenak (40,7 %) gaztelaniaz irakurtzen ez dutenen bikoitza dira (19,7 %).

Euskaldungoarengan, bada, irakurtzeko ohitura nahiko murriztua aurkitzen da; ez bakarrik euskaraz irakurtzeko, hau eskolan erabat ebaki baitzuten, baizik eta gaztelaniaz egiteko ere; erlaziozko bi gabezia, non-bait.

Liburu eta aldizkariaren eskuratzeari buruz, biztanlego euskaldunaren 1/4k ez du bat ere aldizkaririk erosten, eta 1/3ak, batere libururik ez: ez erdarazko ez euskarazkorik.

Hau guztia, euskaldunaren eskolakuntzaren textuinguruan interpretatu behar dugu.

## Euskarazko irakurketarako eragozpenak

Oso inportantea dateke gaurko irakurle euskaldunak euskara idatziaren egoera honetan topatzen dituen eragozpenez zertxobait jakitea.

Irakurgaiei dagokiela:

Ia inkestaturen erdiak (44,7 %) ohitura eza jotzen dute oztopo nagusizat, eta euskararen ezaguera nahikorik eza, gero (15,1 %). Biak dira oso bidezkoak.

Irakurleei dagokiela:

Erdia baino piska bat gutxiagok (45,9 %) hizkuntzarekiko berarekiko oztopoak ditu.

Euskara idatziak, literario batuaz idatzitakoak batez ere, zailtasun bat suposatzen du (16,6 %).

Hona hemen zailtasun honen gradua biltzen duten taulak.

## Irakurgaien aldetik

1. Ohitura-falta .....	44,7 %
2. Hizkuntza behar adina ez ezagutzea.....	15,1 %
3. Denborarik eza.....	5,0 %
4. Beste erantzunak .....	13,9 %
5. Erantzunik gabe .....	21,3 %

## Irakurleen aldetik

1. Hizkuntzagatiko eragozpena.....	45,9 %
2. Hizkuntza behar adina ez ezagutzea.....	16,6 %
3. Denborarik eza.....	13,5 %
4. Beste erantzunak .....	6,7 %
5. Erantzunik gabe .....	15,3 %

Berriro ere, beronetaz mintzatuko gara idazketak euskarari planteatzen dizkion arazoak aipatzean.

## EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA IDAZTERAKOAN

Erabilpen-maila honetaz ez da garrantzizko azterketarik egin. Guk egingo duguna, lehen mailako hurbiltzapena besterik ez da izango: 1. Gonbaraziozko erabilpen-maila, idazterako momentuan, euskara eta erdararen artean. 2. Noiz erabiltzen den eta zein arlotan. 3. Erabilitako euskara-mota. 4. Euskara batuari buruzko eritzia.

## Idazketaren erabilpen-maila

	Euskaraz	Erdaraz
1. Normalki .....	11,6 %	49,8 %
2. Noizean behin .....	11,6 %	19,7 %
3. Oso gutxitan .....	28,2 %	15,9 %
4. Behin ere ez .....	23,0 %	4,7 %
5. Ez du idazten .....	15,8 %	4,3 %
6. Ez daki euskaraz.....	4,7 %	0,2 %
7. Erantzunik gabe .....	5,1 %	5,4 %

Euskara idatzia behin edo behin erabiltzen dutenak euskarazko hiztunen populazioaren 51,4 % dira; gainerakoak, erdia ia-ia, ez du sekula ere idazten. Eta idazten dutenetarik, 28,2 %k oso gutxitan egiten du, 11,0 %k behin edo behin, eta beste 11,6 %k, normalki.

Gaztelaniaren erabilketaz, euskarazko mintzatzailegoaren erdiak darabil, nolabaiteko maiztasunez, 1/3 baino piska bat gehiagok (35,56 %) oso noizean behin eta salbuespen gisa; eta gutxi dira inoiz ere gaztelaniaz idazten ez dutenak (4,7 %).

Hau guztia, eskolakuntzaren arau ezarriekin bat dator.

Bai. Baina, dena dela ere, idatzi egiten den euskara honek, zein erabilkizun du?

## Euskararen erabilpen-maila

	Eskutitzak	Ohargaiak	Apunteak	Artikuluak	Beste
1. Normalki .....	14,9 %	12,4 %	9,1 %	4,3 %	6,9 %
2. Noizean behin .....	13,2 %	11,0 %	6,8 %	2,9 %	8,4 %
3. Oso gutxitan .....	16,9 %	13,0 %	12,7 %	5,1 %	12,3 %
4. Inoiz ere ez .....	27,8 %	30,5 %	34,5 %	33,1 %	26,2 %
5. Ez du idazten					
euskaraz.....	14,2 %	17,3 %	17,9 %	31,3 %	15,8 %
6. Ez daki euskaraz.....	4,7 %	4,7 %	4,7 %	4,7 %	4,7 %
7. Erantzunik gabe .....	8,3 %	11,1 %	14,3 %	18,6 %	26,5 %

Eskutizetatik abiatuz proportzioa behera doala ikusten da argiro; bertan, eskutizetan maiztasun altua dago; eta artikuluetan, normala denez, baxuagoa.

Ikus dezagun, laburki bederen, zein ingurugiroan erabiltzen den euskara idatzia. Inkestari darrionetik, erabilpena minoritarioa da giro

erotan, eta familiatik lantokietaraino doa beheratuz, lagun-talde, ikas-keta-talde, eta ikastetxeetatik iraganez.

Euskaraz idazteko ohitura euskaldungoaren 1/5a baino txikiagoko gutiengo batengana soilik heltzen da; euskaraz bere senide edo lagunekin idazpidez harremanak ukaiteko jotzen duenarengana.

Ez dugu ahortzi behar, halarik ere, euskarazko hiztunen 1/2a baino gehiago osatzen dutela noizean behin edo oso gutxitan euskaraz idazten dutenek. Ezin baitzen bestela gerta. Ez baita ezagutzen hizkuntzarik, baztertua izanik eta bere mintzatzailleak beste hizkuntza desberdin batez eskolatuak izanik, eta bere argitaralpenak debekatuak, hemengoak baino emaitza hobekak lortu dituenik.

### **Idaztean erabiltzen den euskara-moeta**

Baztertze edo debekuzko zirkunstantzian, beste hizkuntzek beren ofizialtasun eta araudiaren bidez askatu dituzten arazoak bideratzeko egoera zail batetan ditugu guk.

Gaur eguneko Euskaltzaindia, zailtasun askoz eta bere lankideen lanerako gogoaz beste biderik gabe, 1918ko sorkuntzaz geroztiko arauari beste batzuek erantzen saiatu da, hizkuntzalaritza zientzia bezala bilaka dadin batetik, eta komunikabideen desarroilorako bestetik.

Gaur bizi dugun giroaldiko hizkuntz egokitze honi, hain urte zailetan fruitu onuragarriak eman dituen honi, inertzia batek eragindako euskalkizko irakurgaien ohitura kontrajartzen zaio.

### **Erabilitako euskara-moeta**

1. Nork bere euskalkia .....	42,0 %
2. Euskara batua .....	9,8 %
3. Ez du inoiz idazten .....	26,9 %
4. Ez daki euskaraz .....	4,1 %
5. Erantzunik gabe .....	17,2 %

Taula honen arabera, euskaldungoaren erdiak baino piskatxo bat gehiagok idazten du euskaraz (51,8 %) nork bere euskalkiaz edo euskara batuaz; gehiengo handiak, euskalkiez egiten du (42,0 %), gutxiengo batek (9,83) baitarabil euskara batua.

Honek, euskara batuaren erabilpena oraindik generalizaziotik urrun dagoela adierazten digu.

Ez ditugu sartu, aurreko laukian, ikastolan dabiltzan 50.000 haurretatik 14 urte baino gutxiagokoak direnak; haur hauek ikastoletan nahiko normalizaturik dute euskara batua.

Eskolakuntza honi esker heziz, eta gaueskolek hartzen ari diren hedapenari esker, euskara batua bere bidea egiten ari da.

Beraz, arazo hau laster konpontzekoa da, gure ustez: euskara eskola ofizialetara sartzearekin batera.

### **Idazketan euskalkiak ala euskara batua erabiltzeko arrazoiak**

Nork beraren euskalkiz idazten du:

1. Ados ez dagoelako euskara batuarekin .....	4,2 %
2. Euskara batua ezagutzen ez duelako .....	17,8 %
3. Bere euskalkia soilik ezagutzen duelako .....	25,7 %
4. Ez du idazten.....	25,4 %
5. Ez daki euskaraz .....	4,2 %
6. Erantzunik gabe .....	22,7 %

Nork bere euskalkira jotzen du 43,5 %tan euskara batuaren arauak ezagutzen ez dituelako (17,8 %) edo, berdin samar dena, bere euskalkia bakarrik ezagutzen duelako (25,7 %). Euskara batuarekin konforme ez daudelako beren euskalkia erabiltzen dutenen kopurua urria da benetan (4,2 %). Gainerako populazioaren erdia baino piska bat gehiagok ezin du erantzunik eman, edo inoiz idazten ez duelako, edota arazoarekiko kontzientziazio ezagatik.

Euskara batua darabiltenen artean:

Euskara batuaz idazten du:

1. Beharrezko deritzalako .....	6,5 %
2. Ikasten ari delako.....	4,5 %
3. Euskararen salbabidea delako .....	6,3 %
4. Ez du idazten.....	26,3 %
5. Ez daki euskaraz .....	4,2 %
9. Erantzunik gabe .....	51,2 %

Idazterakoan euskara batua darabilten gutxiak, euskara sendotu eta finkatzeko beharrezko edota bera salbatzeko era bakarra dela uste dute-lako egiten dute.

Beraz, aukera jakinaren gainekoa da, hizkuntzaren iraupenerako arrazoieta funtsatua.

Garrantzi handikoa da berau normalizazioa ezartzeko.

Euskara batuari buruz, zer eritzi dute euskaldunek?

## Euskara batuari buruzko eritzia

1. Beharrezkoa deritza .....	55,7 %
2. Komenigarri deritza .....	19,8 %
3. Axolagabe deritza .....	5,9 %
4. Desegoki deritza .....	1,8 %
5. Kaltegarri deritza .....	1,0 %
6. Ez daki euskara .....	4,8 %
9. Erantzunik gabe .....	11,0 %

Honela bada, gehiengoak (55,7 %) beharrezko deritza.

Hauei komenigarri dela uste dutenak (19,8 %) erantsiz gero, euskaldungoaren 3/4ak euskara batuaren aldeko eritzia duela ageri zaigu.

Oso txikia da arazo hau axolagabekoa dela uste dutenen proportzioa.

Eta are txikiagoa, kaltegarri deritzatenena.

Eritzi hau sostengatzen duten argudioak neurkera subjektiboaren bidetik doaz gehiago, errealitatearen konstatazioarenetik baino. Hona hemen aipatu diren arrazoi aldeko eta aurkakoak.

## Euskara batuari buruzko eritzi aldekoen eta aurkakoen arrazoiak

### Aldeko eritziak:

1. Beharrezkoa delako euskara salbatzeko .....	24,3 %
2. Euskararen indartze bidea delako .....	23,3 %
3. Euskaldun guztiek hizkuntza berdin bat ukan dezagun.....	30,7 %
4. Beste erantzun bat .....	1,4 %
9. Erantzunik gabe.....	20,3 %

### Kontrako eritziak:

1. Beste eragozpen berri bat besterik ez delako .....	2,4 %
2. Zenbait ideologia zabaltzeko aitzakia besterik ez delako ....	0,2 %
3. Euskararen zabalkunderako berantgarri delako .....	0,2 %
4. Beste erantzun bat .....	1,3 %
9. Erantzunik gabe.....	95,9 %

Alde daudenak, gehiengoaren erdiak, hizkuntzaren iraunpenarekin erlazonaturik dauden arrazoiak erabiltzen dituzte; kontra dagoen gutiengo txikiarentzat edozein hizkuntzaren bernormalizazioak berezko

dituen zailtasunak dira eta beste batzu "extra-linguistikoak"; esate baterako, batasuna ideologia batzuren zabalkundearen menpean omen dagoelakoa.

Laburtuz: giro jenerala aldekoa dela esan daiteke, eta euskaldungoaren gehiengoa mentalizatu eta prestatutik dagoela prozesu honek ekartzen dituen zailtasunetarako, hala nola ikasprozesua, arau ortografiko, fonetiko eta sintaktikoak, ahalegin hau hizkuntzaren berreskuratzearekin sobera konpentsaturik dagoela kontsideratzen baita.

## 2. FAMILIA ERDALDUNAK

Hauxe da jakingai: 1. Nola somatzen dute euskararen presentzia ingurugiroan. 2. Zein neurritz sentitzen dituzte beren buruak murgildu edo inguraturik euskaldun giroan.

### Euskararen erabilpenari buruzko egiaztapena

Taula honek, nolabait ere, euskararen presentzia adierazten du ez-euskaldunak mugitzen diren inguruan.

### Euskararen presentzia familiatik kanpo

	Dibertsio- tokiak	Lantokiak	Komertzio- tokiak
1. Euskaraz bakarrik .....	0,6 %	1,1 %	0,4 %
2. Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino .....	9,3 %	10,1 %	9,1 %
3. Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino .....	40,6 %	40,4 %	45,0 %
4. Gaztelaniaz bakarrik .....	42,2 %	39,0 %	39,6 %

Taula honen esanera, gaztelania nagusi da toki guztietan 40 % edo gehiagoko portzentaietan; euskararen presentzia handiena lantokietan da (10,1 %).

Konklusio honetara heldu gara: erdaldunak inguru guztiz gaztelar batetan mugitzen direla.

Euskararen presentzia, gertatzen denean, marginala da; hau da, bigarren mailakoa.

## Euskararen erabilpena erakundeetan

Nola somatzen dute erdaldunek euskararen presentzia erakundeetan.

Erabilpen-maila	Eliza	Elkarteak	Zerbitzu pub.
1. Euskaraz bakarrik .....	1,1 %	0,2 %	0,6 %
2. Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino ..	11,4 %	9,5 %	5,8 %
3. Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino ..	44,8 %	32,3 %	43,3 %
4. Gaztelaniaz bakarrik .....	26,1 %	34,7 %	44,0 %
5. Erantzunik gabe .....	16,6 %	23,3 %	6,3 %

Oraingo honetan aztertu ditugun datuetatik, area euskaldunak deritzen zona batzuren egoera ulertzeko garrantzi handiko konklusio bat atera genezake: erdaldun gehienentzat *euskararen ezaquero ez da beharrezkoa*.

Beraz, gure hizkuntzaren egoera marginala da.

Hau dugu hainbatetan salatu den egoera disglosikoa: hizkuntza nagusia, hizkuntza baliagarria, gaztelania da; euskara ez da beharrezkoa hemen bizitzeko.

Eta beharrezkoa ez den bitartean, ez dago ikasteko motibaziorik.

Soziolinguistikoki hauxe da euskararen arazo garrantzitsuena: euskara beharrezko hizkuntza nola bihur Euskal herrian bizi diren guztientzat.

Zein da euskaldunen eritzia puntu honi buruz?

## Euskararen erabilpenari buruzko iritzia

	Elkarrizketak	Zentruak	Erakundeak
1. Ez nahikoa .....	69,8 %	69,8 %	70,3 %
2. Nahikoa .....	18,5 %	15,1 %	14,6 %
3. Gehiegizkoa .....	1,9 %	2,4 %	1,7 %
4. Beste erantzun bat .....	2,2 %	3,2 %	1,8 %
9. Erantzunik gabe .....	7,6 %	9,5 %	10,6 %

Erdaldunen kopurutik 2/3ek baino gehiagok (69,8 %) euskararen erabilpena gaur egun egiten den bezala ez dela nahikoa adierazten dute. Erdaldunen kopurutik nahikoa dela adierazten dutenak 1/5nak besterik ez dira.

Erantzun hauek, ez nahikoa, nahiko ala gehiegizkoa, emateko zein arrazoi duten galdetu zaienean hauxe erantzun dute erdaldunek.



Euskararen erabilpena nahikoa ez dela uste dutenak:

1. Euskarak Euskal herriko hizkuntza ofiziala izan behar lukeelako .....	22,8 %
2. Euskal herriko zentru eta erakunde guztietan euskaraz mintzatu behar litzatekeelako .....	31,8 %
3. Leku askotan euskara onartzen ez delako .....	8,6 %
4. Beste arrazoi batzu .....	8,6 %
5. Ez dute uste gaur eguneko erabilpena nahikoa ez denik ..	18,6 %
6. Erantzunik gabe .....	9,6 %

Ikusten denez, erantzunek bitara jotzen dute: 1. Euskal herriko erakunde guztietan hitzegin behar litzatekeela. 2. Hemen, euskarak izan behar luke hizkuntza ofiziala.

Bidea, beraz, irekita dago euskara urratsez urrats arlo desberdinetan ezartzeko.

Euskararen erabilpena nahikoa dela uste dutenak:

1. Euskaraz badakitenak mintza daitezkeelako .....	8,6 %
2. Inori ez zaiolako debekatzen euskaraz mintzatzea .....	2,4 %
3. Inork euskara ezagutzen ez badu erdaraz mintzatzeko delako .....	8,8 %
4. Beste erantzun bat .....	2,6 %
5. Gaur eguneko erabilpena nahikoa ez dela pentsatzen dute .....	72,1 %
9. Erantzunik gabe .....	5,5 %

Gaur egunerako nahikoa dela pentsatzen duen gutxiengoa arrazoi hauetan oinarritzen da: badakitenak erabil dezatela, inori ez zaiola hori eragozten; eta, taldean inork ulertzen ez badu, gaztelaniaz hitzegin da-kiola.

Arrazoiak eman baino gehiago, bizi duten errealitatea adierazten dute.

Eta beren komenentzia adieraziz.

Euskararen erabilpena gehiegizkoa dela uste dutenak.

1. Ez dakitenak ulertzen ez dutelako .....	3,4 %
2. Denek gaztelania ezagutzen dutelako eta hartan mintzatu behar luketelako .....	1,9 %
3. Euskara ezagutzen ez dutenentzat kaltegarria delako .....	1,5 %
4. Euskara galtzea nahi dutelako .....	0,4 %
5. Beste erantzun bat .....	1,8 %
6. Gaur eguneko erabilpena ez dela gehiegizkoa uste dute ...	88,7 %
9. Erantzunik gabe .....	2,3 %

Oinarritzen direneko arrazoiak: 1. Euskara ezagutzen ez duten pertsonentzat nolako katea sortzen den baloratzen dute. 2. Soluzio erra-

zena denek dakiten hizkuntza hitzegitea dela uste dute; hau da, gaztelaniaz mintzatzea.

Labur bilduz; datu guzti hauetatik zera atera daiteke garbian: erdaldunen jarrera euskararen erabilpenaren aldekoa dela. Horrela zera adieraz daiteke: euskararen urratsez urratseko ezarketak erdaldunengan behaztopa izango lukeela pentsatzen dutenek errealtatean oinarririk ez dutela. Hau baita, izatez, errealtatea: erdaldunen kopuruaren 3/4ak euskararen erabiltze hedatuago baten aldeko direla.

Gaur eguneko erabilpena gehiegizkoa dela pentsatzen dutenek ez dute kontutan hartzen Euskal herriak gizajende-multzo bezala bere lurralde propioan dituen legezko eskubideak.

### **Euskara erabiltzeko eskubideari buruzko iritziak**

Ondoko hauek dira erdaldunei egin zaizkien azken bi galderak.

Honako baieztapen hauetatik, zeinek adierazten du hobekien, zure ustez, zure aurrean beste pertsona batzu beraien artean euskaraz ari direnean sortzen zaizkizun sentipenak?

1. Hori egiteko eskubide osoa dute .....	52,0 %
2. Errespetatu egin behar ditugu .....	25,9 %
3. Begirunerik gabe jokatzten dute .....	12,5 %
4. Gaizki heziak dira .....	4,1 %
5. Beste iritzi bat .....	1,9 %
9. Erantzunik gabe .....	3,4 %

Emaitza honetan, euskaldunek euskara erabiltzearen aldeko eritzia 78 %ra heltzen da.

Aurkako erantzunak 16,6 % besterik ez dira.

Honekin garbi adierazten da, berriro, harrera hedatuena zein den: Euskal herriak bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea onartu egiten da, euskara ezagutzen ez dutenen artean ere.


Honelaxe egin zen, hortaz, euskarak jende-giro desberdinetan behar lukeen erabilpen-mailari buruzko galdera.

1. Denek dakitenean bakarrik .....	22,6 %
2. Gehienek dakitenean ere bai .....	37,7 %
3. Dakitenak gutxienak badira ere bai .....	5,0 %
4. Nahikoa da ezagutzen dutenak bi izatea ere mintzatu nahi izatea .....	29,8 %
5. Inoiz ere ez .....	0,4 %
9. Erantzunik gabe .....	4,5 %


Bi pertsona bakarrik izan arren hitzegin nahi dutenak horrela egiteko eskubide osoa dutela pentsatzen dutenak ia 30 % dira; eta, erantzun horri beste bi egoeretan hitzegiteko eskubidea aitortzen dutenak baturik, kopurua 72,5 %ra heltzen da.

Euskaldunenganako justizia linguistikozko sentipenak duen gehien-go honek bere bideak ireki beharko ditu, noski, praktikan ere horrela gerta dadin.


**Honako baieztapen hauetatik, zeinek adierazten du hobekien, zure ustez, zure aurrean beste pertsona batzu beraien artean euskaraz ari direnean sortzen zaizkizun sentipenak?**




1. Hori egiteko eskubide osoa dute.  
52,0 %




2. Errespetatu egin behar ditugu.  
25,9 %




3. Begirunerik gabe jotzen dute.  
12,5 %



4. Gaizki heziak dira.  
4,1 %



5. Beste iritzi bat.  
1,9 %



9 Erantzunik gabe.  
3,4 %

#### 4. Kapituluia

### ELEBITASUN-HARREMANAK

Elebitasunak sortzen duen problema oso konplexua da.

Baditu hemen azter ez ditzakegun alderdi linguistiko, psikologiko eta soziokulturalak. Gure asmoa honako hauek bakarrik aztertzea da:

1. Zenbateraino ezagutzen dituzten inkestatuak bi mintzairak.
2. Elebitasunaz eta geure gizartean hau aplikatzeaz duten eritzia.

Baina, lan honen arloan sartu aurretik, finka dezagun zenbait puntu:

Hasteko, gogora dezagun hitzaurrean aipatu dugun J. Marouzeau-ren definizioa, azterketa honen helburuari ondo egokitzen zaiola uste baitugu:

“Elebiduna gai da bi hizkuntzetarik batean nahiz bestean eragozpenik gabe mintzatzeko, okasioa sortzen zaion bakoitzean...”

Lehen esana dugu “diglosia, berriz, gatazka linguistiko bat dela”; hizkuntza batek beste bat asimilatzerakoan doaneko trantsizio-aroan edo ta mintzaira menperatuen berreskuratze eta normaltzerakoan izaten da. Hauxe da Euskadin bizitzen ari garen borroka bikoitza. Gogoan izan dezagun, bestetik, kapitulu bakoitzean “familia euskaldunen” azterketa eta “familia erdaldunena” berezi giten ditugula.

### 1. FAMILIA EUSKALDUNAK

Lehendabizi, elebidun bezala zenbat euskaldun har ditzakegun jakin behar dugu.

## Bi mintzairen ezaguera-maila

1. Bi mintzairak ondo ezagutzen ditu .....	49,8 %
2. Euskara ondo ezagutzen du, gaztelania gaizki .....	24,9 %
3. Gaztelania ondo ezagutzen du, euskara gaizki .....	18,6 %
4. Ez daki euskaraz .....	0,1 %
9. Erantzunik ez .....	6,6 %

Lehen hurbilketa batetan, euskal populazioaren erdiak bere burua elebiduntzat daukela esan dezakegu; ondoren datozen bi taldeak elebidun eskasak edo sasielebidunak dira, zeren eta ez baitira definizioak eskatzen duen mailara iristen: nahiz euskara gaizki ezagutzen dutelako, nahiz erdara menperatzen ez dutelako.

## BI HIZKUNTZETAN MINTZATZEKO ERRAZTASUN HANDIAGOA ALA TXIKIAGOA

Bigarren urratsa, hizkuntza batean edo bestean mintzatzeko duten erraztasuna neurtzea dugu:

1. Oro har, gaiak gogoan izan gabe.
2. Gai jakin batzuetan.

## Elebitasun-erraztasuna oro har

1. Euskaraz erraztasun handiagoa .....	45,5 %
2. Bietan erraztasun berbera .....	18,2 %
3. Erdaraz erraztasun handiagoa .....	30,1 %
4. Ez daki euskaraz .....	0,1 %
9. Erantzunik ez .....	6,1 %

Benetako elebidunen proportzioa oso txikia da: euskaldunena 18,2 %. Ugariena erdaraz baino euskaraz erraztasun handiagoa dutenena da, euskaldunen ia erdiak (45,5 %) baitira.

Gaztelaniaz (edo eta frantsesez iparraldean) erraztasun handiagoa dutenak, ostera, ez dira heren batera iristen: 30,1 %. Honek esan nahi izango luke euskaldunen artean mintzairarik errotuena euskara dela eta sarriago azaltzen dela sasielebitasuna beste mintzaira ongi ezagutzen ez delako. Doitasun handiago bat lortzeko asmoz, erraztasun hau gaiz gai neurtu zen.

Gai desberdinez bi hizkuntzetan mintzatzeko erraztasun berdina dutenak horrela banatzen dira:

18,9 % solasaldi arrunteko gaiez eta ondoren kirol-gaiez, familia-

koez, soziopolitikoez eta lanekoez, eskola-gaiez mintzatzeko erraztasun berdina dutenak 12,8 %ra iristen direlarik.

## BI MINTZAIKAK ERABILTZEKO OHITURA

Aurreko kapituluan zera aztertu dugu, euskaldunek hizketan, irakurtzean eta idaztean duten erraztasun-maila.

Orain beraien portaera-ohiturak neurtuko ditugu.

Erabiltzen duten mintzaira	Hizketan	Irakurtzeko	Idazteko
1. Euskara bakarrik .....	34,3 %	6,1 %	6,0 %
2. Batez ere euskara .....	25,5 %	7,9 %	8,8 %
3. Biak berdín .....	12,7 %	12,1 %	7,8 %
4. Batez ere erdarara .....	17,3 %	48,4 %	35,7 %
5. Erdara bakarrik .....	3,9 %	14,6 %	27,4 %
6. Ez daki euskaraz .....	0,2 %	0,2 %	0,2 %
9. Erantzunik ez .....	6,1 %	10,7 %	14,1 %

Ikusten dugun legez, euskaldunen artean 12,7 %k erabiltzen dituzte bi mintzairak berdín hizketan. Askoz ere gehiago dira, 59,8 %, batez ere euskara edo euskara bakarrik erabiltzen dutenak. Bestalde, batez ere erdaraz edo erdarara hutsean mintzatzen direnak 21,2 % dira.

Gauzak oso desberdinak dira irakurtzean edo idaztean. Irakurtzean bi mintzairak berdín erabiltzen dituztenak hizketan dohain hori duten bertsuak dira (12,1 %). Batez ere erdaraz edo erdarara hutsean irakurtzen dutenen portzentaia, ordea, aldatu egiten da (63,1 %).

Euskarak duen egoera diglosikoaren frogantza berri bat dugu hau.

## Mintzaira baten ala bestearen erabilera eragiten duten faktoreak

Garbi dago bakoitzak mintzairaz duen "ezagueraren" eragina.

## Mintzairaren erabileran eragina duten faktoreak

### Hizketarako:

1. Bi mintzairaren ezaguera .....	28,6 %
2. Solaskideek duten ezaguera .....	18,8 %
3. Ohitura .....	29,2 %
4. Beste erantzunen bat .....	3,6 %
5. Ez daki euskaraz .....	0,2 %
9. Erantzunik ez .....	19,6 %

### *Irakurtzeko:*

1. Bi mintzairen ezaguera .....	26,9 %
2. Irakurtzeko ohitura .....	31,4 %
3. Gaiaren interesa .....	11,0 %
4. Beste erantzunen bat .....	4,8 %
5. Ez daki euskaraz .....	0,2 %
9. Erantzunik ez .....	25,7 %

### *Idazteko:*

1. Bi mintzairen ezaguera .....	29,0 %
2. Idazteko ohitura .....	25,5 %
3. Ortografi eragozpenak .....	10,4 %
4. Beste erantzunen bat .....	5,6 %
5. Ez daki euskaraz .....	0,2 %
9. Erantzunik gabe .....	29,3 %

## **EUSKARA ETA LANBIDE-KATEGORIAK**

Euskararen gainean ikerketan ari direnak aspaldidanik desio izan duten informazioa izan da kategoria sozio-profesional desberdinek euskara ezagutu eta erabiltzeaz zer-nolako jokabide ageri duten jakitea.

Area euskalduneko familia euskaldun eta erdaldunetan egindako inkestak hurbilketa-bide bat eskaintzen digu.

Ondoko hauek aztertuko ditugu banan bana.

1. Ezaguera-maila.
2. Erabilera-maila orokorra.
  - . hizketan
  - . irakurketan
  - . idazketan

### **1. EUSKARAREN EZAGUERA KATEGORIA SOZIO-PROFESIONALEN ARABERA**

#### **Euskaldunen proportzioa kategorien arabera**

Euskararen ezaguera-maila kategoria sozio-profesionalen arabera zein den jakiteko lehenengo informazioa zera da, kategoria bakoitzaren altzoan euskaldun eta erdaldunen portzentaiak ezagutzea.

Kategoria sozio-profesionalak	Euskaldunak %	Erdaldunak %
1. Industri patrioiak, profesio liberalak, Goi-koadroak .....	50,9	49,1
2. Industriari txikiak, Artesauak, Merkatariak .....	75,9	24,1
3. Erdimailako koadroak, teknikoak eta administrariak .....	54,9	45,1
4. Industri enplegatuak, Banka, etab....	64,3	35,7
5. Langile kualifikatuak .....	60,8	39,2
6. Langile ez-kualifikatuak .....	62,6	37,4
7. Nekazari eta arrantzaleak .....	92,2	7,4
8. Beste kategoriak .....	51,2	48,8
9. Zehaztu gabeak.....	78,6	21,4
10. Ez aktiboak.....	60,5	39,5

Beti ere area euskaldunaz ari garela kontutan hartuz, haietarik gainera hiriburuak kendu direlarik, ondoko emaitza ageri zaigu:

- Euskaldunetan ugarietak diren kategoriak, espero zitekeenez, nekazari eta arrantzaleenak direla batez ere, eta gero artesau eta merkatarienak ( 75 %).
- Proportzioak dezentez apalagoak direla enplegatuen eta langile kualifikatu nahiz ez-kualifikatuen artean ( 60 %).
- Azken lekuan daudela gizarte-eskalako kategoria altuenak (Patrioiak, Industriariak, Profesio Liberalak eta Goi-koadroak); orobat erdimailako koadroak, direla Administrazio, direla Banka edo gainontzeko zerbitzuetakoak.

Ondorioz, kategoria euskadunetz ugarietak herriko tradizionalenak dira (nekazari eta arrantzaleak batetik, eta artesau-merkatariak bestetik), maila altuagoko kategoriek portzentaia apalagoak ageri dituztelarik. Enplegatu eta langileak beste bi zatien tartean ageri dira. Euskara, beraz, klase herritarrenen altzoan dago.

### **Euskararen ezaguera-maila kategoria sozio-profesionalen arabera**

Euskaldunen taldera mugatuz, ondoko koadro hau prestatu ahal izan da kategoria bakoitzean euskaldunen portzentaia zein den agertzeko; horiek dira, beraz, edozein gai ezagunez euskaraz hitzegiteko moduan daudenak.



Kategoria sozio-profesionalak	Ongi ezagutzen dute
1. Industri patroiak, Profesio liberalak, Goi-koadroak	50,0
2. Industriari txikiak, Artesauak eta Merkatariak...	71,7
3. Erdimailako koadroak .....	56,5
4. Enplegatuak .....	52,7
5. Langile kualifikatuak .....	63,2
6. Langile ez-kualifikatuak .....	68,7
7. Nekazari eta arrantzaileak .....	71,6
8. Beste kategoriak .....	69,6
9. Zehaztu gabeak.....	45,4
10. Ez-aktiboak .....	60,5
Batezbestekoa .....	62,5

Hortik ikus daiteke, beraz, euskara ongienik ezagutzen duten kategoriak artesauak eta merkatariak direla nekazari eta arrantzaleekin batera, eta ondoren langile kualifikatu eta ez-kualifikatuak.

Portzentaiarik apalenak industri patroik, profesio liberal eta goi-koadroetan ageri dira batetik, eta enplegatu eta erdimailako koadroetan bestetik.

Horrekin bistan dago, hortaz, kategoria herritarretan euskaldun gehiago egoteaz gainera beraiek direla kategoria euskaldunenak ere; beste kategorietan, aldiz, proportzioak biziki behera doaz.

## 2. EUSKARAREN ERABILPEN-MAILA KATEGORIA SOZIO-PROFESIONALEN ARABERA

Hizkuntzaren bizitasun-maila neurtzeko irizpide nagusia, zalantzarik gabe, bere erabilpen-maila ohi da. Erabiltzen ez den hizkuntza, osorik ezagutzen bada ere, galdu egiten da azkenear. Ikus dezagun, orain, zer neurritakoa den euskararen erabilpen-maila, kategoria sozio-profesional bakoitzean, beste euskaldunekin aritzerakoan.

Kategoria sozio-profesionalak	Euskararen erabilpen nagusia	Erdararen erab. nag.
1. Industri patrioiak, profesio liberalak, Goi-koadroak .....	60,8	32,1
2. Industriari txikiak, Artesauak, Merkatariak.....	93,3	5,0
3. Erdimailako koadroak, teknikoak eta administrariak .....	60,9	28,3
4. Industri enpleguak, Banka, etab. ....	58,2	38,2
5. Langile kualifikatuak .....	72,6	12,8
6. Langile ez-kualifikatuak .....	85,0	10,5
7. Nekazari eta arrantzaleak .....	88,7	1,1
8. Beste kategoriak .....	60,9	17,3
9. Zehaztu gabeak.....	63,6	18,2
10. Ez aktiboak.....	67,5	21,9

Euskararen erabilera, beste euskaldunekiko ohizko harremanetan, gehiengotasunean ageri da kategoria guztietan.

Portzentaia altuenak artesau-merkatarietan ageri dira batetik, eta nekazari, arrantzale eta langile ez-kualifikatuetan bestetik.

Portzentaia apalenak enplegatu, erdimailako koadro eta patrioi, profesio liberal eta goi-koadroetan ageri dira.

Bestetik, azken hauek dira euskaraz dakitenekin erdara ugarienik erabiltzen dutenak.

### **Euskararen erabilpen-maila hizketa, irakurketa eta idazketarako**

Euskararen erabilera beste ikusgune batetik behatzen da honako atal honetan. Hemen zera ezagutu nahi da, kategoria desberdinetako giza-emakumeek hitzegin, irakurri eta idazten dutenetik zenbat euskaraz egiten duten.

Kategoria sozio-profesionalak	Euskararen erabilera nagusia		
	Hitzegite.	Irakurt.	Idazte.
1. Industri patroiak, profesio liberalak Goi-koadroak .....	50,0	7,2	7,2
2. Industriari txikiak, Artesauak, Mer- katariak .....	63,3	11,7	10,0
3. Erdimailako koadroak, teknikoak eta Administrariak .....	52,2	8,7	4,4
4. Industri enplegatuak, Banka etab. ....	36,3	10,9	9,1
5. Langile kualifikatuak .....	67,5	17,1	13,7
6. Langile ez-kualifikatuak .....	73,2	13,5	15,0
7. Nekazari eta arrantzaleak .....	83,0	19,3	17,0
8. Beste kategoriak .....	52,1	17,4	17,4
9. Zehaztu gabeak .....	63,7	18,2	18,2
10. Ez aktiboak .....	53,8	15,5	16,1
Batezbestekoa .....	59,8	14,8	14,0

Koadro honetatik intereseko informazio hauek jaso ditzakegu:

1. Kategoria desberdinetako euskaldunen erdiak baino gehiagok euskara erabiltzen duela nagusiki bere ihardun ohizkoetan.  
Proporzio hau gaintitzen duten kategoriak nekazari-arrantzaleenak dira batetik, eta langile kualifikatu nahiz ez-kualifikatuenak bestetik.  
Beste kategoriak ez dira erdira iristen, baxueñak enplegatu, erdimailako koadro eta kategoria garaienak izanik.
2. Irakurri eta idazterakoan, batez ere, euskara erabiltzen dutenen proportzioa dezentez jaisten dela, populazio euskaldunetik 1/7 bat bakarrik bait dira horiek.

Euskaldungoak jasan duen eskolakuntz politikaren ondorio ageria da hau, berriro ere. Ez zaio eskolarik eman bere hizkuntza propioan, beste arrotz batean baizik eta, ondorioz, bere hizkuntzan irakurri eta idazteko ohiturarik gabe aurkitzen da.

Kategoria sozio-profesional desberdinen portakerari dagokionez, berriro ere ohizko diferentziak egiazta daitezke.

Kategoria herritarrak (nekazariak, langile kualifikatu eta ez-kualifikatuak) lasai gaintitzen du batezbesteko generala; enplegatu, erdimailako koadro eta kategoria garaiak horren azpitik daude, ordea, berriro ere.

Behin eta berriz, ondorioz, begien bistan dago euskararen erabilpen-mailari dagokion bezain batean erabilpen oparagoa ageri dela katego-

ria herritarretan goi-mailakoetan baino. Irakurri eta idazterakoan ere bere alde daude emaitzak, atal horretan tartea hain nabaria ez bada ere.

### **Mintzairaren lehenetsuna elebidun testu baten aurrean**

Adibide batez, mintzaira batean eta bestean den irakurtzeko ohitura garbi uzteko galdera hauxe egin zen:

Elebidun testu baten aurrean aurkitzen zarenean

zein hizkuntzatan irakurtzen duzu lehenik?

Beste hizkuntzan ere irakurtzen al duzu?

Zertarako?

### **Elebidun testua: lehenetsuna irakurtzean**

1. Beti euskaraz lehenik .....	14,7 %
2. Beti erdaraz lehenik .....	35,6 %
3. Batez ere euskaraz .....	8,6 %
4. Batez ere erdaraz .....	26,9 %
5. Ez du lehenetsunik .....	4,5 %
6. Ez daki euskaraz .....	0,2 %
9. Erantzunik ez .....	9,5 %

Lehenik euskarazko testua irakurtzen dutenen proportzioa, lehenik erdaraz irakurtzen dutenena baino askoz ere txikiagoa da.

Orobat berdin gertatzen da beste joera hau neurtzeko garaian: 23,3 %k batez ere edo beti euskarazko testua irakurtzen dute; eta erdarazkora jotzen dutenak, aldiz, 62,5 % dira.

4,5 %ek bakarrik ez du inolako lehenetsunik.

Gutxi dira.

Bertsio bati lehenetsuna ematen dioten artean zenbatek irakurtzen duen bigarrena ere eta zein maiztasunez jakitea ere interesgarria zaigu:

### **Zein neurritan irakurtzen da bigarren mintzairan**

1. Beti .....	12,1 %
2. Noizean behin .....	21,1 %
3. Oso gutxitan .....	10,5 %
4. Inoiz ez .....	26,9 %
9. Erantzunik ez .....	29,4 %

Gutxi dira bigarren mintzairan idatzitako textua irakurtzen dutenak.

Eta gutxi hauek, zergatik egiten dute?

Printzipioz, bi textuen mamia gonbaratzeko, 13,2 %k. Beste guztiek, textua konprenitzeko euskaraz irakurtzea aski ez delako egiten dute:

1. Irakurleek ez dute mintzaira behar bezala ezagutzen.

2. Euskaraz argitaratzen diren textuak, gehienetan itzulpenak, ulergaitzak gertatzen dira euskaldun gehientzat.

Honen ondorioa hauxe da: eskertzekoa bada ere bi mintzairetan argitaratzeko egiten den esfortzua, ondorioa ez da mesedegarri.

Euskara promozionatzeko era honek euskarak duen egoera diglosi-koa finkatu besterik ez du egiten.

Zati honen laburpen bezala hauxe esan dezakegu:

1. Euskaldun gehienek bi mintzairak ondo ezagutzen badituzte ere, erraztasun-maila eta ohitura euskararen alde daude.

2. Bi mintzairen erabilera alternatua handiagoa da hizketan, irakurtzean eta idaztean baino, gehienek eskolan irakatsi dioten mintzairara jotzen baitute, noski. Euskarak duen egoera diglosikoaren adierazpen bat gehiago.

3. Textu elebidun bat irakurtzen hasten direneko portaerak gauza berbera adierazten digu.

## ELEBITASUNARI BURUZKO IRITZIAK

Gure herrian elebitasunak duen egoera objektiboaren koadroa ikusi ondoren, goazen orain euskaldunek egoera horretaz duten eritzia ezagutzera.

### Elebitasunaren esangura, eta Euskal herrira egokitzea

	Zer da elebitasuna	Euskal herrirako elebitasun egokia
1. Guztiek ezagut ditzatela bi mintzairak.....	39,8 %	41,7 %
2. Batzuek jakin dezatela euskaraz eta besteek erdaraz .....	2,2 %	1,5 %
3. Bi mintzairak izan dezatela berdintasun osoa .....	28,2 %	26,3 %
4. Bi hizkuntzak erabil daitezela berdin.....	17,3 %	17,0 %
5. Beste erantzun bat .....	1,2 %	4,3 %
9. Erantzunik ez.....	11,3 %	9,2 %

Bi erizpide desberdin somatzen dira elebitasunari buruz:

1. Gehiengo batentzat (39,8 %) elebitasuna pertsona guztiek bi mintzairak ezagutzea da; *elebitasun indibidualaren* kontzepzioa da. Gutxiengo batek (2,2 %) kontzepzio hauxe beste era batetara adierazten du: batzuek mintzaira bat ezagutzea eta besteek bestea.

Bigarren lekua *elebitasun sozialarentzat* da:

Bi mintzairak izan dezatela berdintasun osoa (28,2 %) eta erabil daitezela berdín (17,3 %). Biek (42,0 % eta 45,5 %) garrantzia dute, beraz.

2. Beroien iritziz bi mintzairak komunitatean izan behar duten postuaz galdetu zaienean, elebitasun indibidualaren alde 43,2 % azaldu dira eta sozialaren alde 43,3 %.

Hemen ondorio bat atera dezakegu: bi kasuetan egoera diglosikoa gaindituko lukeen zerbait bezala ikusten dela elebitasuna.

Errealitatean bi mintzairak euskaldunek bakarrik ezagutzen dituztela ikusirik, Euskal herriko biztanle guztiek jakin behar lituzketela planteatzen da hemen, soluzio bezala. Bada, beraz, euskaldunen artean, euskarak duen egoera *tratamendu sozial berdín batez* aldatu beharraren kontzientzia generalizatu bat.

## ELEBITASUNAREN APLIKAZIO-ARLOAK

Zer mekanismoren bidez lor daiteke aldakuntza hau?  
Batipat oinarritzko lau arlo hauetan egin behar da lan:

1. Irakaskuntzan.
2. Administrazio publikoan.
3. Komunikabideetan.
4. Zerbitzu publikoetan.

### 1. Irakaskuntzan

Euskaldunak euskara irakaskuntzan sar dadin zenbaterainoko premia sentitzen duen neurtu nahi da.

#### Elebitasuna irakaskuntzan sartzeko premia

1. Beharrezkoa.	73,0 %
2. Komenigarria.	17,4 %
3. Interesik gabea.	0,1 %
4. Ez da komenigarria.	0,4 %
5. Kaltegarria.	1,1 %
9. Erantzunik ez.	8,0 %

Koadro honek ez du lehenengo bi zifrak batzea beste iruzkinik behar: 90,4 %.

Baina, *nola sartu behar da* euskara Irakaskuntza ofizialean?  
Hona hemen koadroa.

### Elebitasuna sartzeko era egokia

1. Euskara asignatura bezala sartzea .....	14,2 %
2. Bi mintzairak berdin erabiltzea .....	49,8 %
3. Edozein asignatura euskaraz irakastea .....	25,6 %
4. Beste erantzunen bat .....	1,9 %
9. Erantzunik ez .....	8,5 %

Hemen, gehiengo handi batek (75,4 %) euskara asignatura bezala sartzea ez dela aski eta irakaskuntza *euskaraz* eman behar dela adierazten du.

Baina, *zein mailatan* jarri elebitasuna irakaskuntzan?

### Zein mailatan jarri behar litzatekeen

1. Ez litzateke jarri behar .....	0,8 %
2. Eskolaurrean bakarrik .....	8,9 %
3. O. H. O.-ean ere bai .....	5,5 %
4. Irakaskuntza profesionalean ere bai .....	0,2 %
5. B. U. P. eta C. O. U.n ere bai .....	0,8 %
6. Unibertsitatean ere bai .....	4,2 %
7. Maila guztietan .....	68,0 %
9. Erantzunik ez .....	11,6 %

Hirutatik bik baino gehiagok elebitasuna maila guztietan ezarri nahi luke, baita Unibertsitatean ere, 72,4 %. Ia guztiak, 90,4 %, daude elebitasuna irakaskuntzan ezartzearen alde, eta gehiengo handi batek (75,4 %) elebitasun hau *euskaraz* irakastea dela uste du.

Behar-beharrezko baldintza bat da gure hizkuntzaren aurrerapenerako.

Orain arte hau ukatu ezezik, herriki, gai soil bezala sartzea ere *eskol orduetatik kanpora* bakarrik ametitzen zaigu eta nahi dutenentzat bakarrik.

Derrigorrezko edozein atzerriko mintzairari baino garrantzi txikiagoa ematen zaio.

## 2. Administrazio publikoan

Hauxe da euskarari ukatzen zaion beste arlo bat.

### Elebitasuna Administrazio publikoan ezartzeko premia

1. Beharrezkoa.	75,0 %
2. Komenigarria.	16,1 %
3. Ez du interesik.	0,7 %
4. Ez da komenigarria.	0,4 %
5. Kaltegarria da.	0,6 %
9. Erantzunik ez.	7,2 %

Ia guztiak alde daude: 91,1 %.

Baina, zein izango litzateke erarik egokiena?

### Elebitasuna Administrazioaren ezartzeko erarik egokiena

1. Enplegatu guztiak jakin dezatela euskaraz .....	53,9 %
2. Enplegatu batzuek gutxienez jakin dezatela euskaraz .....	6,8 %
3. Izkribu guztiak idatz daitezela bi mintzairetan .....	9,8 %
4. Euskara ez dadila sar .....	0,1 %
9. Erantzunik ez .....	8,4 %

Formularik onartuena enplegatu guztiak euskara jakitearena da: 53,9 %. Eta gutxi batzuek baizik ez dira konforme zenbait enplegatuak bakarrik jakitearekin.

Garbi dago, bada, gehienen eritzia: Administrazioak ez litzuzkeela euskaldunak, orain arte bezala, baztertu behar.

Zein mailatan ezarri beharko litzateke?

### Elebitasuna zein Erakunde Publikotan ezarri beharko litzatekeen

1. Udaletan gutxienez .....	4,0 %
2. Hauzitegietan ere bai .....	2,1 %
3. Euskal herriko Erakunde ofizial guztietan .....	83,5 %
4. Inolako Erakundetan ez .....	0,2 %
9. Erantzunik ez .....	10,2 %



Gehiengo handi batek (83,5 %) Erakunde ofizial guzti-guztietan ezarria izan dadin nahi luke, Euskadin dagoen edozein Erakunde Publikotarra, nahiz lokal, nahiz probintzial, nahiz estataletara zuzendu ahal izan dadin bai mintzaira batean bai bestean, horregatik inolako bereizkeriarik jasan beharrik gabe.

Administrazio Publikoak sortu ditu gaitzondo asko eta asko, mintzaira ofiziala ezagutzen ez zuten euskaldunei jasan arazi zaizkien mespretxuak eta are isekak direla ta.

### 3. Komunikabide sozialetan

Aipatua dugu lehendik mintzairaren zabalkunderako komunikabideek duten garrantzia.

Batipat prentsak, irratiak eta telebistak.

#### Elebitasuna prentsan, irratian eta telebistan ezartzeari buruzko eritzia

	Prentsan	Irratian	Telebistan
1. Beharrezkoa .....	70,6 %	71,8 %	70,9 %
2. Komenigarria .....	19,1 %	18,4 %	19,5 %
3. Interesik gabea .....	0,6 %	0,6 %	0,6 %
4. Ez da komenigarria .....			
5. Kaltegarria.....	0,8 %	0,8 %	0,8 %
0. Erantzunik ez.....	8,9 %	8,4 %	8,2 %

Ia aho batez hiru komunikabideetan elebitasuna ezartzearen alde azaldu dira inkestak: 89,7 % prentsan; 90,2 % irratian eta 90,4 % telebistan.

Baina, nola joka?

## **Komunikabideetan elebitasuna ezartzeko era egokia**

1. Leku berdina bi mintzairantzat .....	77,3 %
2. Euskaraz zerbait sartu medio guztietan .....	6,3 %
3. Batzu erabat euskaraz eta besteak erdaraz izan daitezela .	6,5 %
4. Euskararik ez sartu .....	0,8 %
9. Erantzunik ez .....	9,1 %

Gutxi dira mintzaierek organo bereziak izan ditzaten nahi dutenak. Gehienek, ostera komunikabideetan elebitasuna sartzeko erarik egokiena bi mintzaireri leku berbera ematean datzala uste dute.

Badirudi horixe izango litzatekeela bidea, euskarak oinarritzko hiru medioetan bizi duen bazterketatik irteteko.

## **4. Zerbitzu publikoetan**

Gai honetaz mintzatzean ahaztu egin ohi gara batzutan publikoari zor zaizkion zerbitzu hauetaz ere, eta behar-beharrezkoak dira.

Mintzaira batek, berekin batera bizi diren beste batzuekin berdintasuna izatea nahi baldin bada, mintzaira menperatzaileak betetzen dituen hizkuntz espazio guztiak betetzera iritsi behar du; eta horien artean, noski, zerbitzu publikoena.

Hauen artean erakunde publiko eta pribatu guztiak daude, eta zerbitzu publikoen bidez zertzen dira komunitate baten barneko ekintza eta harreman gehienak.

Ikus dezagun, lehenik, bere aplikazioaz dagoen eritzia.

## **Zerbitzu publikoetan elebitasuna ezartzeari buruzko eritzia**

Hemen ere ados daude euskaldunak. Aldeko eritziak azaltzen dira hasi Sanitaritza-zerbitzueterako gehiengo handienarekin (92,2 %) eta Garraio eta Komunikabideetarako gehiengo txikienarekin (85,6 %) amaitu arte.

Izan ere, askotan gaixo euskaldun baserritar elebakarrak eta sendagileak ezinean ibiltzen dira elkar ulertzeko, egoera benetan mingarriak sortuz.

Soluziobiderik egokiena zerbitzu publikoetako enplegatu guztiek bi mintzairak ezagutzea izango litzateke. Portzentaiarik altuena erlijio-zerbitzuei dagokie (69,2 %). Ondoren sanitaritza-zerbitzuak (67,9 %), hostalaritza eta jolasaldi-zerbitzuak (67,3 %), Banka eta Aseguruak

## Zerbitzu publikoetan elebitasuna sartzeko era egokia

	Merka- taritza- zerbitzuak	Banka eta Aurre- zkoa	Garraioak eta komunika- bideak	Sanita- ritza- zerbitzuak	Erli- jiozko zerbitzuak	Ostala- ritza Jola- saldia	Zerbitzu pertsonalak eta profesio- nalak
1. Enplegatu guztiek jakin ditzatela bi mintzairak ...	64,8	65,1	62,6	67,9	69,2	67,3	64,5
2. Gutxienez euskaldun batzu izan daitezela.....	10,3	11,5	9,1	9,9	7,0	10,5	9,4
3. Izkribu guztiak argitara daitezela bi mintzairetan.....	9,7	9,2	8,5	9,1	10,2	9,0	10,4
4. Erabiltzaileak erabili ahal izan dezala euskaraz nahiz hizketan nahiz izkribuz ..	4,1	3,2	3,3	3,2	2,6	2,6	3,0
5. Ez dadila euskararik sar .....	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
9. Erantzunik ez	11,0	10,9	16,4	9,8	10,9	10,5	10,6

(65,1 %), Merkataritza-Zerbitzuak (64,8 %), Zerbitzu Pertsonalak eta Profesionalak (6,5 %).

Gutxi batzu konformatzen dira (11,5 % eta 7,0 % artean) enplegatu batzu bakarrik euskaraz jakitearekin.

## 2. FAMILIA ERDALDUNAK

Behin baino gehiagotan azaldu dugun bezala, elebitasunaren problemak pertsona guztiak ukitzen ditu; erdaldunak ere bai, nolabait.

Elebitasuna arlo desberdinetan ezartzeak ondorio hori ere badu. Erdaldunak ere asko ukitzen ditu eta beroien onarpenik eta laguntzarik gabe ez genezake gure herrian hizkuntz jokabide zuzen batek eskatzen duen elebitasun-prozesua aurrera eramán.

Zer esangura ematen diote erdaldunek hitz honi?

Jaso diren erantzunek adierazten dutenez, gehienek ustez elebitasuna bi mintzairen status soziala berdintzea izango litzateke.

Honetarako, elebitasun-motarik egokienaz hauxe diote: gehienen ustez denek bi mintzairak ezagutu behar dituzte (34,5 %) eta gutxi dira batzuek mintzaira bat eta besteek bestea jakin behar dutela uste dutenak (3,9 %). Elebitasuna bi mintzairen berdintasunean datzala uste dutenen artean, gehienak bi mintzairen koofizialtasunaren alde daude (35,1 %) eta gutxiago dira berdintasuna erabileran bakarrik ipintzen dutenak (19,0 %).

Erantzun hauek zera erakusten digute: erdaldunek bi hizkuntzak berdinduko dituen elebitasun bat nahi dutela.

Ados daude, bada, euskaldunak eta erdaldunak.

Bi taldeen arteko desberdintasuna, agian, zenbait puntu azpimarkatzeko ipintzen duten enfasian dago: euskaldunen artean gehiago dira elebitasun-egoera batetan guztiek bi mintzairak jakin behar dituztela uste dutenak eta, beraz, soluzio hori proposatzen dutenak. Erdaldunek gehiago azpimarkatzen dute bi mintzairen koofizialtasunaren premia.


Iritziok bi abiapuntuei dagozkien egoeren desberdintasuna adierazten dute.

Baina, nola batzuek ala besteek, garbi ikusten dute oraingo bereizkeria aldatu beharrekoa dela.

## Elebitasuna irakaskuntzan

Euskaldunei eginiko galdera berberak egin zaizkie.  
Hona hemen erantzunak.

### Elebitasunaren sarrera irakaskuntzan



Ikusten den legez, ia guztiak elebitasuna irakaskuntzan sartzearen aldekoak dira: 90,5 %.

Iritzi hau bi taldetan dagoela esan daiteke, baina diferentzia batekin: euskaldunek premiaren kontzientzia handiagoa dutela eta erdaldunen eritzia komenentziaren eta beharren artean banatzen dela.

Ezartzeko erari dagokionez ados daude bi taldeak funtsean. Xehetasunetan azaltzen zaizkigu diferentziak hemen ere.


Ia inkestatu erdaldunen erdiak euskara asignatura bezala sartzearen alde daude eta ulertzekoa da *euskararen* irakaskuntzaren alderdi hau gogoan izatea, beroiek ez baitakite euskaraz. Euskaldunen artean, berriz, *euskaraz* irakastearen aldeko eritzia hedatuago dago (75,4 %).

Aplikazio-mailei dagokienez, berriro ere erdaldunek mintzairaren hastapenak bilatzen dituztela ikus daiteke.

Beheko mailetatik sartzearen aldekoak dira.

Koadro honetan ikus daiteke ondo:

### Zein mailatan ezarri behar litzateke



Erdaldun gehienek beheko mailetan ezartzea nahi lukete, eta laurden batetara inguru (25,4 %) iristen dira maila guztietan eta are unibertsitatean ezartzearen alde daudenak. Erdaldunek *euskara* irakaskuntzan *mintzaira bezala* sartzearen premia duten kontzientzia nabarmendu behar da hemen.

### Elebitasuna Administrazio Publikoan

Hona hemen familia erdaldunek beharrezko ikusten duten elebitasun-maila azaltzen duen koadroa.

### Elebitasuna administrazio publikoan sartzeari buruzko eritzia

1. Beharrezkoa .....	39,4 %
2. Komenigarria .....	47,4 %
3. Interesik ez .....	5,6 %
4. Ez da komenigarria .....	0,2 %
5. Kaltegarria .....	2,2 %
9. Erantzunik ez .....	5,2 %

Ikusten denez, elebitasunaren aldeko eritzia da nagusi: 86,8 %. Interesik ez duela uste dutenak oso gutxi dira.

Euskaldunen eta erdaldunen "premia" sentitzeko era desberdina ulertzekoa da, zeren eta mintzaira ez baitute berdin ezagutzen eta gainera erdaldunek ez baitute Administrazioarekiko harremanetan beren mintzaira baztertu beharrik izan, ez bereizkeriazko traturik jasan behar izan.

### Sartzeko erari buruz

Erdaldunentzat formularik egokiena zera izango litzateke: nahiz hizketan, nahiz izkribuz, edonork izan dezala Administrazio Publikora, bai mintzaira batean eta bai bestean, zuzentzeko eskubidea.

Hau ezarri behar litzatekeen erakunde publikoei buruz: gutxiengo batek Udal eta Hauzitegietara mugatzen du (5,6 %), baina gehiengo handienak (77,9 %) Euskal herrian dauden erakunde ofizial guztietan ezarri behar litzatekeela dio. Ohar bat hemen. Elebitasuna ezartzeak lekartza-keen eskakizunei buruzko eritzietan alde handia dago euskaldunen eta erdaldunen artean, batzuei eta beste eskatzen dien esfortzua diferentea baita; halaz ere, ezarri behar litzatekeeneko arloari edo hedaturari buruz ez dago horrelako alderik, horrek ez baitu *eskubide* bat ezagutzea beste-rik eskatzen.

## Komunikabideetan

Komunikabide sozialek eragin handia izan dezakete euskara erdaldunengana hurbiltzean eta euskararen berreskuratze-prozesuan.

Euskaraz ez dakienak egunkarietan izenburuak, perpausa laburrak edo artikulua euskaraz ikusten baditu, irratian euskal kantuak, iragarriak edo berriak entzuten baldin baditu, zalantzarik gabe euskararekin ohitzen ari da piskanaka.

Hona hemen erdaldunen eritzi hori erakusten digun koadroa:

### Elebitasuna ezartzeari buruzko eritzia

	Prentsan	Irratian	Telebistan
1. Beharrezkoa .....	42,3 %	38,4 %	36,6 %
2. Komenigarria .....	45,5 %	50,4 %	47,8 %
3. Interesik ez .....	5,4 %	4,5 %	6,7 %
4. Ez da komeni .....	0,4 %	—	0,9 %
5. Kaltegarria.....	0,4 %	—	0,9 %
6. Beste erantzunen bat .....	0,6 %	0,9 %	1,3 %
9. Erantzunik ez.....	5,4 %	5,4 %	6,3 %

Erdaldun gehienak elebitasuna hiru komunikabide sozialetan sartzearen alde daude.

Ondoren ikusiko dugu jokabide praktikoari buruz duten eritzia.

### Ezartzeko era egokia

1. Bi mintzairak leku berdina izan dezatela .....	43,5 %
2. Euskara apur bat sar dadila komunikabide denetan .....	23,9 %
3. Batzuek izan ditezela euskaraz eta besteak erdaraz .....	23,7 %
4. Beste zenbait erantzun .....	0,4 %
9. Erantzunik ez .....	8,5 %

Harrigarria da bi mintzaireri tratu berbera emateko zaletasun hori.

Halere ez du populazioaren erdiak ere pentsatzen horrela. Erdiak baino zerbait gutxiagok aski luke euskara piska bat komunikabide guztietan sartzearekin edo ta komunikabide batzuk euskaraz eta besteak erdaraz izatearekin. Azken soluzio honek euskara behin betirako bere ghettoan baztertuko luke eta egoera diglosikoak suntziaraziko luke betiko.

Hementxe dago hain zuzen arazoaren gakoa.

## Elebitasuna zerbitzu publikoetan

Ezartzearen aldeko eritzia ia erabat nagusitzen da.

Erdaldunen ustez, soluziorik egokiena bi mintzairak sail hauetan berdintzea litzateke: Merkataritza-Zerbitzuetan: 89,3 %, Aurrezkian eta Bankan, 89,1 %, Garraioetan eta komunikabideetan, 88,0 %, Sanitaritza-Zerbitzuetan: 88,4 %; Erlijiozko zerbitzuetan 85,7 %; ostalaritza eta jolasaldietan 87,7 % eta Zerbitzu Pertsonal eta Profesioaletan 86,4 %.

Euskaldunekiko diferentziak nabarmenak dira hemen. Hauentzat premia larri bat da; erdaldunentzat, ostera, ez da hain larria. Ados daude euskara sartu behar horretan, baina premia larri bat izatetik baino gehiago eskubide bat *ezagutzearen* aldetik ikusten dute.



## 5. Kapituluia

### **KULTURIZATZE-PROZESUA EUSKARAZ**

Honela zera jakin nahi dugu, euskara euskaldunentzat zein neurritan izan den kulturizatze-bide bat.

Bere zentzurik zabalenean.

Ez dugu, beraz, eskola edo akademi mailako irakaskuntzaz jardungo, hutsaren hurrengoa izan baita hori, hitzaldi, konferentzia, jaialdi artistiko eta euskarazko komunikabide klasikoen bidez euskaldunari heldu zaion kulturaz baizik.

Bide hauetariko bat, beste hobeetan faltan, ezkutuko, sasi-ekzutuko edota ia onartu gabeko argitarapenak ditugu. Bide guzti hauek eskuratzaileraren aldetik arrisku pertsonal bat, multarriskua batzutan, presohartze edo are gartzelatze-arriskua erakarri dute.

Honela politizatu du botere zentralak euskara eta euskal kultura.

Egoera honetan, ez da harritzekoa dexenteko difusioa behar zuen material guztia gaztelaniaz edo frantsesez egin izana.

Eta, noski, euskal kulturaren kaltetan.

Hauek dira inkesta-zati honetan egindako galderak baieztatu dituzten arrazoiak.

#### **1. FAMILIA EUSKALDUNAK**

Aurreko kapituluetan bezala, hemen ere euskaraz hitzegiten duten eta ez duten familien artean planteamendu desberdinak egin ditugu, galderak giro bakoitzari egokituz.

## EZAGUEREN ESKURATZEA EUSKARAZ

Has gaitezen inguramendu generalena bilatzen:

### Ezagueren eskuratzea euskaraz

1. Baiezkoa .....	28,7 %
2. Erdizkakoa .....	8,1 %
3. Ezezkoa .....	52,6 %
4. Ez daki euskaraz .....	2,9 %
5. Erantzunik gabe .....	7,7 %

Inguramendu pobre xamarra, ikus daitekeenez. Hau da errealitatea. 36,82 %k bakarrik baieztan du, era batera edo bestera, ezaguerak euskaraz lortu izana.

Honek zera adierazi nahi du: bere hizkuntzan ezaguerarik jaso ahal ez izateaz aparte, euskaldunen gehienengoak beste hizkuntza arrotz batean jaso dituela. Halaz ere gutxiengo hau oso inportantea dugu, oso motibatua bait dago.

Baina kontuz, ezaguera hauek zein mailatan eskuratu dituzte?

### Ezaguera-mailak

1. Oinarrizko maila.....	25,0 %
2. Erdiko maila.....	9,9 %
3. Goimaila .....	1,8 %
4. Ez daki euskaraz .....	3,5 %
5. Erantzunik gabe .....	59,8 %

Erantzuten ez dutenak zerak dira, aurreko galderan beren hizkuntzan inolako ezaguerarik jaso ez dutela esan digutenak. Hauek erdia baino gehiago ditugu (59,8 %).

Jaso dutenen artean, berriz, gehiengoa oinarrizko mailaraino bakarrik heldu da (25,0 %); zenbaitzuk erdiko mailaraino heldu dira (10 %) eta oso gutxi izan dira unibertsitate-mailan jaso dutenak (1,8 %).

Harrigarria litzateke hain hazi gutxiarekin fruitu gehiago lortzea.

Bana ditzagun orain ezaguera hauek *gaitz* eta hauek duten inportantziaren arabera:

## Gaiak edo ezaguera-alorrak

1. Erlijioa .....	47,9 %
2. Euskal hizkuntza eta kultura .....	39,4 %
3. Politika .....	26,2 %
4. Geografia eta Historia .....	24,5 %
5. Ekonomia .....	19,0 %
6. Besteak .....	29,1 %

Banaketa honek garbi adierazten digu, euskarari nolabaiteko onarpena egin dion erakunde bakarra Eliza izan dela; bera da, herrian, entzulego zabal bat izan duena.

Euskara, beste erakunde guztietan, kanpoan gelditu da.

Beste gaietara buruz esan beharra dugu azken urteotan Historia eta kultura (39,4 %) sailean zentsura gutxiagotu egin zela, eta, oro har, bai honek eta baita beste gaietara ere, izkutuko argitarapenak gehienbatean, jarraitu duten bidea argitzen digutela: Politika (26,6 %) Geografia eta, bereziki, Herriko Historia (24,5 %) eta Ekonomia (19,0 %), bertan aspektu ideologikoak agertuz.

Gaiak ikusi ondoren, *bideak*. Zeintzu izan dira erabilienak?

1. Irratia .....	46,9 %
2. Jaialdiak .....	44,2 %
3. Irakurketa .....	35,1 %
4. Hitzaldiak .....	34,9 %
5. Besteak .....	28,6 %
6. Ikastaldiak .....	19,8 %

Kulturizazio-prozesua euskararen bidez euskaldunen erdira bakarrik hedatu dela ezin dezakegu uka. Emaitzak, noski, pobreak dira. Baina halaz ere ezin lurperatu izan dute, asko saiatu izan arren. Euskarazko ekintza kulturalak katakunbetatik irtetzen hasiak dira, jadanik beste hizkuntza batzuren kalitate-maila lortuz, bai forma eta baita edukiera alde-tik ere.

## KOMUNIKABIDEEN ERAGINA KULTURIZAZIO-PROZESUAN

Kulturizazio-prozesu batetan komunikabideen inportantzia jabetzeko aukera izan dugu oraintxe.

Neur dezagun, orain, horietako zenbaitzuren eragina.

**Zein neurritan baliatu zara komunikabideez ezagueren jabetzea euskaraz lortu ahal izateko?**

	Prentsaz eta aldizkariez	Liburuez	Irratiaz
1. Normalki .....	17,4 %	11,5 %	28,2 %
2. Noizbehinka .....	20,8 %	15,4 %	23,3 %
3. Oso gutxitan .....	17,5 %	16,1 %	14,6 %
4. Inoiz ez .....	18,5 %	30,8 %	10,6 %
5. Ez daki euskaraz.....	3,6 %	3,6 %	3,6 %
6. Ez du erantzun .....	22,2 %	22,6 %	19,7 %

Honek zera agertzen digu: 1) euskarazko komunikabideek, kultur bide bezala, euskaldungoaren zati txiki xamar bat bakarrik hartzen dutela, gehiengora oso gutxitan iritsiz. 2) Bide hauen artean Irratia nabari da. 3) Ezaguera kulturalak gehienbat ahoz heldzen direla adierazi nahi du honek; bide hau, hain zuzen, alfabetatzerik eskatzen ez duena da.

**Euskarazko emisioen entzute-maiztasuna**


1. Normalki.....	44,5 %
2. Noizbehinka .....	22,3 %
3. Oso gutxitan .....	12,1 %
4. Inoiz ez .....	7,0 %
5. Ez daki euskaraz .....	3,2 %
6. Ez du erantzun .....	10,9 %

Ia jendetzaren erdiak entzuten ditu *normalki* euskarazko emisioak, bostetik batek *noizbehinka* eginez.

Entzute hau ontzat eman daiteke.

Hedatua egoteak asko adierazi nahi du euskararen etorkizunerako, alde batetik hizkuntzaz jabetuta egotearen laguntza nabarmentzen bait da, eta euskara egungo bizimodurako hizkuntza egokitzen josten bait da bestetik.

## Gehienik entzuten diren irratiak



Euskaldun populazioaren gehiengoak (69,7 %) Herri Irratia entzuten du. Oso gutxi besteak, programak euskaraz entzun nahi dituzenean. Azken urte hauetan Herri Irratiak euskararen alde eginiko lanak izan du oihartzunik giro euskaldunetan.

## Entzundako programekiko:

1. Euskaraz emititzen diren programa guztiak .....	21,0 %
2. Informaziozkoak .....	12,7 %
3. Kulturalak .....	5,4 %
4. Erlijiosoak .....	1,1 %
5. Entzuten ari denean tokatzen zaizkionak.....	36,2 %
6. Ez du entzuten .....	5,6 %
7. Ez daki euskaraz .....	2,3 %
8. Beste erantzun bat .....	0,5 %
9. Ez du erantzun .....	15,2 %

Euskaldun populazioaren zati inportante batek (21,0 %) programa guztiak entzuten ditu; hizkuntza eta euskarak berekin daraman gutzia sintonizatzen ari direla adierazten du honek.

Beste batzuk programak selekzionatzen dituzte, bereziki informaziozkoak (12,7 %), kulturazkoak (5,4 %) eta erlijiozkoak (1,1 %). Azkenik, badira irratia jartzen duten momentuan euskaraz ari bada bakarrik entzuten dutenak ere; gehiengoa dira hauek (36,2 %), hain zuzen.

Entzute handieneko orduak bazkal eta afalorduak dira, espero zen bezala.

## EUSKARAREN EGOKITASUNARI BURUZKO IRITZIAK

Orain arte euskarak kulturizazio-prozesuan bete duen funtzioa eta horretarako ibili dituen bideak aztertu ditugu. Baina airean gelditzen zaigu, oraindik, sarritan agertzen den galdera: hots, Euskara hizkuntza egoki bat al da egungo gizartearen beharrak bete eta zientziaren edozein eremutan espresabide zehatz bat izateko? Ez ote dago euskararengan gaitasun-problema bat, bilakaera handiago baterako oztopoak jarriko dituen? Erantzun gisa, UNESCO-k (mundu-mailan lehen erakunde kulturala) esandakoa aipatzen dugu. Zera zion berak 3. puntuan, "Herri-hizkuntzen erabilpena irakaskuntzan" puntuari buruz 1954.urtean: Ez dago ezer hizkuntza baten ezastrukturan, egungo gizarteko komunikabide bilakatzea galerazten dionik.

Baina ezer gutxirako balio du horrek, euskaldunek ez badute berdin pentsatzen.

Horregatik, *euskararen egokitasun teorikoari* buruzko galdera egin dugu:

1. Erabat, beste edozein hizkuntza batek bezala.....	75,4 %
2. Erdizka, hizkuntza modernizatu bat ez izateagatik	6,2 %
3. Beste hizkuntzak baino gutxiago.....	6,9 %
4. Inolaz ere ez.....	0,4 %
5. Ez dute erantzun.....	11,1 %

Ikus daitekeenez, euskaldunen artean iritzi hedatuena zera da, euskararen egokitasuna erabatekoa dela: beste hizkuntzen parekoa alegia, gizarte moderno baten komunikabide izateko (75,4 %).

Ez dugu ahaztu behar, halaz ere, gauza bat dela egokitasun hori onartzea, eta bestea benetan funtzio hori betetzen duen ala ez konprobaztea.

Eta *egungo egoeraren balorazioa* egitean, gutxi dira gaur euskara, beste edozein hizkuntza bezala, funtzio hori betetzen ari dela pentsatzen dutenak (15,8 %); zenbaitzuk, erdizka egiten ari dela diote (25,0 %); eta ia jendetza euskaldunaren erdiak (41,7 %) beste hizkuntzak baino maila apalago batetan ari dela erantzun du.

Garbi dago, guztira, euskalduna euskarak gainditu behar dituen oztopoez jabetuta dagoela.

*Arrazoiei* buruz: gehiengoak agintari politiko-administratiboen jarrera negatiboarengatik dela diote (60,3 %), edo goiko kapa sozialetakoengatik (25,6 %); eta gutxienez (7,3 %), azkenik, euskal intelektualengatik.

*Zer neurri hartu behar diren galdetu denean:*

1. Irakaskuntzan: euskara maila guztietan "sartu" eta "erabiltze"-aren alde daude (51,4 %); Euskal Unibertsitatea "lortzea" (29,7 %) eta irakaskuntz maila guztietan euskal testuak "erabiltze"-aren alde (6,6 %).

2. *Ekintza kulturaleri* buruz: euskara denetan "sartu" eta "erabiltze"-aren alde (57,4 %); euskara gaztelaniaren parean jarri (23,9 %) eta adierazpide kulturalerako forma berriak euskaraz sortzearen alde (5,6 %).

3. *Komunikabideetan*: aldizkari (28,7 %) eta liburu (32,7 %) gehiago euskaraz argitaratzearen alde, beren kalitatea hobetzearen alde (26,4 % eta 16,8 %), gaztelaniaz edo frantsesez argitaratzen direnak bezain onak izateko gogoz (26,9 % eta 28,1 %). Irratian (46,0 %) eta telebistan (48,7 %) euskara gehiago entzutearen aldekoak dira; programa hobeak egitearen alde (9,6 % eta 7,8 %); hemen, telebistan, erreferentzia bakarra astero orduerdiz emititzen zen programa dugu; eta, bestalde, horrek ere denbora gutxi iraun izan du; eta euskara beste hizkuntzen maila berean jarritzearen alde (33,5 % eta 34,0 %).

Euskararen presentzia komunikabideetan hil ala bizikoa da, dudarik gabe.

## 2. FAMILIA ERDALDUNAK

Hemen beste era batera planteatu da problema. Erdaldunen posizioa hartu da honetarako kontutan.

Jakin nahi izan duguna zera da: 1) ea euskaraz ez jakiteak ezagueraren batez jabetzeko kalte egin dien, eta 2) ea zer eritzi duten euskararen egokitasunaz, hartaz jabetzeko.

Abiaburu honetan oinarritzen dira zenbait jarrera.

### Euskara ez ezagutzeagatik kalte posibleak

1. Baiezkoa .....	30,6 %
2. Erdizkakoa .....	7,7 %
3. Ezezkoa .....	55,2 %
4. Beste erantzun bat .....	0,9 %
5. Ez du erantzun .....	5,6 %

Jendetza erdaldunaren heren batek baino gehiagok dio euskara ez jakiteak kalte egin diola. Ezetz dio, halaz ere, gehiengoak (55,2 %). Beren iritziz, bada, ez dute ezer galdu.

Inkesta honen ezaugarria ez da azken balio hau, espero bai zen horrelakorik, baizik eta erdaldunen artean heren batek baino gehiagok euskara ez jakiteak kalte egin diola pentsatzeak; beraz, euskaraz jakitea lagungarri gerta zekiokeen ezaguera berriez jabetzeko orduan.

Zenbait eremutan beste batzutan baino gehiago nabarmendu da kalte hau. Ikus dezagun zeintzuk izan diren eremuok, inportantziaren arabera ordenatuz.

Euskal kultura (31,0 % gehi 2,6 % "erdizka"-ko), Politika (11,4 % eta 2,8 %), Geografia eta Historia (8,8 % eta 2,2 %). Erljioa (7,3 % eta 3,2 %) eta Ekonomia (4,5 % eta 2,8 %).

Adierazgarriak dira, bereziki euskal kulturari dagokiona.

Esan dezagun, laburpen gisa, hasieran heren batek esan badu euskara ez jakiteak kalte egin diola, eremuak zehazteko orduan portzentaiak jaitsi egin direla. Ez da harritzekoa, zeren eta ez da batere erraza jakitea gauza batek kalte egin dion ala ez, ez badaki aldez aurretik euskara jakinik zenbat ikas zezakeen.

## EUSKARAREN FUNTZIO KULTURALA

Euskara ez ezagutzeak dakartzkien kalteak ikusteko, hizkuntza honen bidez transmititutako mugimendu kultural baten esistentzia onartu beharrezkoa da.

Ikus dezagun nola nabaritzen duten guzti hau:

### Euskararen funtzio kulturala gaur egun

1. Erabat .....	53,9 %
2. Erdizka .....	21,6 %
3. Ezer ez edo ia ezer ez .....	8,8 %
4. Beste erantzun bat .....	0,9 %
5. Ez du erantzun .....	14,8 %

Erdaldunen erdiak baino gehiagok (53,9 %) pentsatzen du euskarak erabat balio duela gaur egun funtzio kultural bat zertzeko, eta bostetik batek baino zertxobait gehiagok (21,6 %) zera dio, "erdizka" betetzen duela bere zeregina.

Iritzirik hedatuena, beraz, ondoko hau dugu: euskara hizkuntza egoiki bat dugu gaur egungo funtzio kulturalak betetzeko.



*Funtzio hau zertzen duten eremuak zehazterakoan:*

Lehenik Folklorearen dugu (41,4 %), gero Literatura (15,3 %), ondoren Artea (6,0 %) eta Zientziak (5,0 %); badira gainera zenbaitzu, euskarak funtzio kulturala eremu guztietan betetzen duela aitortzen dutenak.

Euskarak aurkitzen dituen *oztopoei* buruz:

Erdaldunen iritziz, 1) laguntza ofizialik eza (54,6 %); 2) euskal erakundearen babesik eza (8,8 %); euskal intelektualen aldetiko arreta-falta (7,6 %) eta hizkuntzaren beraren hutsuneak (6,9 %).

Honek argi eta garbi adierazten digu, euskararen egoera larriaren erantzukizun maximoa erakunde ofizialetan datzala; erdaldunak jabetu dira jadanik honetaz.

### **Euskararen ahalbide teorikoak**

Euskarak egungo gizartean komunikabide bezala erabiltzeko duen balioaz galdetu diegunean, zera erantzun dute: 1) Erabat, beste edozein hizkuntzak bezala (64,4 %); 2) erdizka, hizkuntza moderno bat ez izateagatik (19,8 %). 3) Ezetza, inolaz ere ez, hizkuntza arkaiko bat izateagatik (2,4 %).

Falta direnek beste erantzun bat eman dute, edota ez dute erantzun.

### **Hartu beharreko neurriak**

Neurriei buruz: gehiengoa (47,1 %) euskara irakaskuntza maila guztietan sartzearen alde agertzen da; gutxiengo inportante bat (28,4 %) Euskal Unibertsitatearen alde azaldu da, bertan ikasketak euskaraz egingo direlarik; bi hauen batuketak batura inportante bat ondorioztatzen digu: 75,5 %. Besteak, liburu gehiago euskaraz argitaratzearen alde (3,2 %), aldizkari eta euskarazko argitarapenen kopurua handitzearen alde (3,2 %), euskal intelektual guztiek beren lanak euskaraz argitaratzearen alde (2,2 %).

Banaketa hau ikusirik, ondorio nagusia zera da: euskara gizarte moderno bateko komunikabide izatera heltzeko itxaropenak irakaskuntzan datza; eta, zehazkiago, Unibertsitatean. Euskarazko Unibertsitate bat esistitzen den egunetik beretik ez dugu kezka gehiagorik izango euskara zientzia eta kulturako edozein alorretarako komunikabide egokitzat jotzeko.

Baina bide hori oraindik egiteko dago.

Eta bide hori, bestalde, euskal eta erdal familiek batera egin behar dute.

## 6. Kapituluia

### **EUSKARAREN IRUDIA ETA BALORAZIOA**

Hain ezaguna dugun euskararen galera eta higatze-prozesua itzulezina bezala azaldu izan dute azteiek.

Normalean, honela, beren desioa adieraziz.

Halaz ere, azken erabakia herriarengan datza, Neolitikotik gaur arte bizirik mantendu duen herriarengan.

Horregatik, hizkuntza gordetzen duen herri honetatik nahi izan dugu jakin zein irudi duen hizkuntza honetaz; eta baita ere, nola ez, bere berreskuratze posibleaz duen eritzia; orobat, ondorio hartara iristeko hartu behar liratekeen neurriez.

Eta, azkenik, herri honen partaideen jarrera pertsonala berreskuratze hau lortzeko.

Euskal herria euskaldunez eta erdaldunez osatuta dagoenez gero, biei galdetu diegu, bakoitzaren egoera kontutan hartuz.


#### **1. FAMILIA EUSKALDUNAK**

Euskaldunaren balorazioa, bere hizkuntzarekiko maitasunaren arabera agertzen da.

Horregatik, oinarritzotzat jo dugu neurri hau.

Ondoko erara jokatu dugu: 1) euskara jakiteak euskaldunengan sortzen duen sentipena jasotzen saiatu gara; eta 2) euskara jakiteak bere biziaren alor desberdinetan zer ondorio dituen jakin nahi izan dugu.

## Euskara jakiteak sortzen duen sentipena



Hemen, ia euskaldun guztietan (87,3 %) euskara jakiteak poza sorrazten du, eta oso gutxi dira tristura edota axolagabetasuna sentitzen dutenak.

Jarrera hau garrantzi handikoa izango da euskararen normalizazioak eskatuko dituen lan latzak planteatzerakoan.

Bihotza ez da nahikoa, halaz ere, lana nola burutu ez badakigu. Lan honek erakunde batzuk behar ditu bideratzeko.

Beharrezkoak ditugu, bada, bideak eta tresnak, hainbesteko ahaliturri horrek bere ondorioak sor ditzan.

Hizkuntzaren mailan bertan hor dugu Euskaltzaindiak egindako lan neketsu eta zaila; eta aplikazio-mailan, berriz, hain beharrezkoak diren eta isil-isilik lanean diharduten Euskalduntze eta Alfabetatze mugimenduak eta, nola ez, Ikastolak. Guzti honi erantsi beharra dago, orain, eta era ofizialean, irakaskuntzaren instrumentalizazioa, administrazioa, komunikabideak eta zerbitzu publikoak.

Orain arte egindakoa ez da nahikoa izango —eta ez da gutxi egin— baldin eta hemendik aurrera bide hauen bizi instituzionaldua erregulatzeko ez bada.

## Ondorioak eremu desberdinetan

Bada hemen, halaz ere, beste arazo garrantzitsu bat: euskara jakitearen ondorio errealak, praktikoak alegia, alde edo kontrakoak izan daitezke, izan ere.

## Euskara jakitearen ondorioak

	Harreman sozialak	Instrukzio-mailako jabetzea	maila profesionaleko jabetzea	Gestioen zertzea
1. Alde.....	68,3 %	28,3 %	55,9 %	46,0 %
2. Berdin zaio .....	17,0 %	35,0 %	20,8 %	28,7 %
3. Kontra .....	1,1 %	12,2 %	0,8 %	3,9 %
4. Ez du erantzun ..	13,6 %	24,5 %	22,5 %	21,4 %

Hemen ikus dezakegunez, euskara jakiteak ondorio onuragarriak ekarri dizkio euskaldun gehiengoari ia alor guztietan; salbuespen bakarra irakaskuntzarena da, bertan gutxiengo batek bakarrik (28,3 %) eman baititu ondorioak ontzat.

Laburtuz, datu hauek hainbat eta hainbat girotan oraindik dirauten aurreiritzi haiek ukatzen dituzte, euskarak ez bait dio gure gizarteari ondorio txarrik ekartzen.

## EUSKARAREN BALIOARI BURUZKO IRITZIAK

Honekin egin nahi dena zera da: euskaldunen balorazio pertsonaletik hizkuntza beraren balorazio orokor batetara pasa.

Ez dugu hemen norberaren esperientzia pertsonala euskararekin neurtuko, baizik eta hizkuntza beste maila batetan ikusita: bai beragan kontsideratuta, bai bere erabilgarritasuna beste hizkuntzen ezaguerak dakarren mesedez.

Lehenik euskal hizkuntzari buruzko iritzia emango dugu.

## Euskararen balioari buruzko iritzi generala

1. Euskara atzerapen bat da gaurko gizarte modernoan.....	1,8 %
2. Euskarak ez du ezertarako balio. Desagertu behar duen hizkuntza bat dugu.....	0,8 %
3. Euskarak familiarateko girorako bakarrik balio du .....	2,0 %
4. Euskarak irakaskuntzako oinarritzko mailetarako bakarrik balio du.....	0,6 %
5. Euskarak maila guztietarako balio du, Unibertsitatea barne	8,0 %
6. Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, jakintzaren edozein alor har dezake .....	72,1 %
7. Beste iritziak .....	0,8 %
8. Ez du erantzun .....	13,9 %

Lehen ondorioa batbatekoa da: euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, jakintzaren edozein alor besarka dezake.

Eman dezagun orain beste urrats bat euskararen balorazioan.

## Zertan datza euskararen balioa

1. Nortasun indibidualaren elementu osatzailea da .....	11,3 %
2. Euskal herriaren nortasunaren elementu osatzailea da.....	30,5 %
3. Euskal kulturaren espresio jatorra da .....	9,8 %
4. Euskal gizarteko kideen lokarria da.....	12,3 %
5. Mundu honetako gizartearen ondasun bat da .....	9,6 %
6. Era batera edo bestera gorde beharko litzatekeen aberastausun bat da .....	17,9 %
7. Gizarte modernorako balio ez duen hizkuntza bat da.....	0,4 %
8. Interes gabeko antzinako erlikia bat da.....	0,2 %
9. Ez du erantzun .....	8,0 %

Hemen, guztira, euskarak duen balioarekiko hiru ulerkerak desberdin bereiz ditzakegu:

1. Proporzio handienak (52,5 %) hizkuntzaren balioa Euskal herriaren errealitatearekin (nortasuna, espresioa) parekatzen du. Neurritz hurrengoek (27,5 %) euskara ondasun kulturalizat edo gizarte guztia-ri dagokion aberastasuntzat jotzen dute. 3.talde txikiago batek (11,3 %) nortasun indibidualaren elementu osagarria dela dio, hori galtzerakoan berari datzekion zerbaiten faltan geldituko omen bailitzateke.

Konpara dezagun erantzun-sorta hau beste hizkuntzen kasuan jaso ohi direnekin.

Galdera desberdin horietariko batzuk euskaldunek beste hizkuntzak ezagutzeari ematen dioten garrantziari buruzkoak ziren, euskara errefe-

rentziatzen hartuz. Erantzunetan, nor bere buruarekiko eta bere seme-alabekiko jarrerak agertu zituen, arrazoiak ere emanaz.

Euskararen garrantziari dagokionez, euskaldunek erdal hizkuntzak bezain garrantzitsu (71,6 %) edo garrantzitsuago (13,5 %) jotzen dute berentzat (61,9 %) eta beren seme-alabentzat (12,7 %).

### **Euskara beste hizkuntzak baino garrantzitsuago edo ez hain garrantzitsu kontsideratzeko arrazoiak**

1. Erabat euskalduna izateko bide bakarra delako .....	36,8 %
2. Euskara gure lehen hizkuntza delako .....	28,1 %
3. Beste hizkuntzak jakitea sekundarioa delako .....	7,3 %
4. Beste erantzun bat .....	1,3 %
5. Ez du erantzun .....	26,5 %

### **Ez hain garrantzitsua**

1. Besteak erabilgarriagoak direlako .....	2,7 %
2. Ikasteko erraztasun handiagoak eskaintzen dituztelako ....	0,1 %
3. Kanpora irtetzeko beharrezkoak zaizkigulako .....	2,9 %
4. Beste erantzun bat .....	0,4 %
5. Ez du erantzun .....	93,9 %

Arrazoiak, beraz, garbi daude: gehiengoak euskara euskaldun izatearen ikurtzat jotzen du.

Matizazio-diferentziak badaude, baina denak nolabait arrazoi honen inguruan koka ditzakegu. Batzuk, erabat euskaldun izateko bide bakarra delako (36,8 %), baita beren lehen hizkuntza delako (28,1 %) edota beste hizkuntzak menperatzea bigarren mailakoa dela (7,3 %) diotelako. Hain inportantetzat jotzen ez dutenentzat, arrazoiak gehienbat erabilgarritasunaren izenaren pean biltzen dira: erabilgarriago (2,7 %), kanpora irtetzeko beharrezkoa (2,9 %), ikasteko erraztasun handiago (0,1 %). Interesantea, ia denen erantzun eza (93,9 %) dugu, euskara jakitea beste edozein hizkuntza jakitea baino inportanteago dela esan baitute lehen.

Euskararen balioaren onartze general honek asko adierazi nahi du etorkizunerako.

### **EUSKARAREN ETORKIZUNARI BURUZKO IRITZIA**

Baina nolakoa somatzen dute euskaldunek etorkizun hori?  
Lehenik, begira diezaigun egiantz handienekoari.

## Euskararen etorkizun probablea

1. Poliki-poliki desagertuz joango da .....	2,2 %
2. Egungo mugetan mantenduko da .....	7,6 %
3. Oraindik duela gutxi hitzegiten zen lekuetara hedatuko da	12,7 %
4. Euskal herri osora hedatuko da .....	68,9 %
5. Beste erantzun bat .....	1,1 %
6. Ez du erantzun .....	7,5 %

Iritzi nagusia zera da, segur aski Euskal herri osora hedatuko denekoa (68,9 %); iritzi hau berea egiten ez duen gutxiengoak egungo mugetan mantenduko dela dio (7,6 %). Oso gutxi ditugu euskara poliki poliki galduz joango dela pentsatzen dutenak (2,2 %).

Beraz, gehiengoaren ustetan euskararen etorkizun probablea ez da batere iluna.

## Euskararentzat desio luketen etorkizunari:

1. Desagertuz joan dadila .....	1,2 %
2. Egungo mugetan manten dadila .....	1,2 %
3. Oraindik duela gutxi hitzegiten zen lekuetara heda dadila .	9,3 %
4. Euskal herri osora zabal dadila .....	81,2 %
5. Beste erantzun bat .....	
6. Ez du erantzun .....	7,1 %

Etorkizunean euskara Euskadi osora zabaltzea, bada, ia denen desioa dugu (81,2 %).

## BERRESKURATZEARI BURUZKO IRITZIA, ETA HARTU BEHAR LIRATEKEEN NEURRIAK

Euskara Euskal herri osora hedatzeko, lehenik egungo egoera honek nabariki aldatu behar du.

Euskarak eremu guztietan errekeratu behar du.

Eta milaka urtetan sustraituta egon den lurretan berriro bere lekua bete dezan, euskarak, lehenik, betidanik ukatu zaizkion eremu linguistikoak errekeratzen hasi behar du: Irakaskuntza, administrazio publikoa, komunikabideak eta zerbitzu publikoak.

Euskal herrian lekuz hedatzean eta eremu guztietan erabiltzean bakarrik hitzegin ahal izango dugu euskararen berreskuratzeaz; hots, euskara Euskal herri osoan berrezartzeaz.

Guzti hau 82,3 % ak *beharrezkotzat* jotzen du, eta 8,8 % ak komenigarritzat.

Hau gerta dadin hartu beharko diren neurriei buruz, aplikatu behar direnak daude batetik; eta hemen, laburtzarren, portzentaia inportanteak bakarrik aipatuko dira.

### Agintarien aldetik

1. Euskara hizkuntza ofizialtzat onartu eta aitortzea .....	62,6 %
2. Euskara gaztelaniaren mailan jartzea .....	20,6 %
3. Euskara irakaskuntzan, administrazio publikoan eta komunikabideetan erabiltzea onartzea .....	9,6 %

### Erakundeen aldetik

1. Euskara hizkuntza ofizialtzat onartzea .....	53,7 %
2. Euskara gaztelaniaren mailan jartzea .....	16,7 %
3. Erakundeetan euskarari leku gehiago eskaintzea .....	7,3 %
4. Euskararen hedatzea erraztu eta laguntzea .....	6,3 %
5. Bertako enplegatu guztiek euskara jakitea esijitzea .....	8,0 %

### Herriaren aldetik

1. Euskaraz dakitenek, erabil dezatela .....	35,7 %
2. Euskararen aldeko eskakizunak lagundu .....	17,1 %
3. Ikasi nahi duten guztiei laguntza eskaini .....	40,3 %

Euskaldunek eskatzen dituzten neurri hauek ez dute esplikaziorik merezi, zenbakiak aski adierazgarriak dira eta.

Neurri hauek aurrera ateratzeko, bada, euskararen saiheskuntza dakarten lege edo elementu juridikoak aldatu beharrekoak dira, hizkuntza egun aurkitzen den bazterketa-egoeratik atera dadin.

### JARRERA PERTSONALA EUSKARAREN BERRESKURATZEARI BEGIRA

*Euskararen irudi eta ikuspegia* izeneko azken kapituluak euskaldunek euskararen berreskuratzeaz duten jarrera pertsonalaz dihardu.

Hona hemen 3 faseetan jaso diren portzentaia nabarietak.



## Pertsonalki

1. Euskara hobeki ezagutzen saiatu.....	24,7 %
2. Euskaraz gehiago hitzegiten saiatu .....	16,0 %
3. Ahal den guztietan euskaraz hitzegin .....	27,6 %
4. Ez dakitenei lagundu, ikas dezaten.....	19,7 %

## Hurrekiko

1. Euskaraz ikas arazi .....	30,9 %
2. Euskaraz hitzegitea esijitu.....	22,1 %
3. Euskararen aldeko ekintzetan parte hartzera bultzatu.....	10,2 %
4. Euskara hedatzen saia daitezen bultzatu .....	11,2 %

(23,8 %-k ez du erantzun)

## Ingurunearekiko

1. Euskararen aldeko ekintzak bultzatu.....	31,5 %
2. Euskararen aldeko ekintzak ekonomikoki lagundu .....	28,3 %
3. Euskararen hedapenaren aldeko lanetan parte hartu .....	25,0 %

Emaizta, beraz, oso positiboa dugu.

Hurrekiko kapituluan erantzun ez duten portzentaia altuak badu arrazoirik: arrazoia gazteengan datza; hauei ez baitzaie oraindik, haurrik ez dutenez, guzti hori axola!

## 2. FAMILIA ERDALDUNAK

Kapitulu honetan ere behar-beharrezkoa dugu familia erdaldunen laguntza.

### EUSKARAREN BALIOARI BURUZKO IRITZIAK

Lehenengo galderaren bidez erreferentzi hesparru general bat lortu nahi da: *euskararen balioari buruz duten iritzia*.

Hona hemen adiera handieneko zifra *positiboak*.

1) Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, jakintzaren eremu guztiak besarka ditzake (74,2 %), eta 2) euskarak irakaskuntz maila guztietarako balio du (8,8 %).

*Negatiboak:* 1) euskarak famili arteko girorako eta adiskidetasun-harremanetarako bakarrik balio du (5,2 %) eta 2) euskarak ez du ezertarako balio; desagertuko den hizkuntza bat dugu (1,5 %).

Orohar, bada, erdaldunen euskararekiko balorazioa oso positiboa dugu.

### **Eta euskararen balioa non aurkitzen den:**

1. Nortasun indibidualaren elementu osatzailea .....	4,7 %
2. Euskal herriaren nortasunaren elementu osatzailea .....	28,2 %
3. Euskal kulturaren espresio jatorra .....	16,6 %
4. Euskal gizarteko kideen arteko lotura .....	15,6 %
5. Mundu honetako gizartearen ondasun bat .....	9,2 %
6. Era batera edo bestera gorde beharko litzatekeen aberastasu bat .....	14,0 %

Datu horietatik ondoko emaitza hau atera dezakegu: erdaldunentzat, herria-euskara binomioaren bi buruak askaezinak dira. Beraiek oraingoz hizkuntza ikasi ez badute ere, egoera diglosikoaren erruz izan da, ezin izan baitute bizitu izan dituzten inguruneko oztopoak gainditu. Honek berdin balio du hemen bertan jaio direnentzat nahiz atzerrian jaiotakoentzat.

	Beretzat	Seme-alabentzat
1. Garrantzitsuago .....	41,6 %	41,6 %
2. Garrantzi berdinekoa .....	30,0 %	30,0 %
3. Garrantzi gutxiagokoa .....	24,1 %	19,6 %

Inkesta honek dioenez, euskara beste hizkuntzak baino inportanteagozat jotzen duen erdaldunen kopurua ez da erdira heltzen (41,6 %); baina, halaz ere, 30 % ek besteak bezain inportantetzat jotzen du.

71,6 % hau oso adierazgarria iruditzen zaigu.

Kapitulu honetan euskaldunekin dituzten diferentziak ukatu ezinezkoak dira, baina ez dugu ahaztu behar bakoitzaren abiaburuak ere desberdinak direla.

Arrazoiak aipatzerakoan, hona hemen portzentaia nagusiak:

### **Garrantzitsuago**

1. Erabat euskaldunak izatea nahi dudalako (seme-alabak) ..	20,2 %
2. Gure arbasoen hizkuntza delako (jaiotzez euskaldunak) ...	7,8 %
3. Hemen bizi behar dugulako (hona etorri diren erdaldunak)	18,1 %
4. Ez du erantzun .....	52,4 %

## Garrantzi gutxiago

1. Besteek erabilgarritasun handiago baitute .....	22,2 %
2. Euskarak ez baitu ezertarako balio .....	1,5 %
3. Ez du erantzun .....	73,9 %

*Laburtuz, espero zen bezala euskara jakiteak ez du hemen euskaldunen artean bezain balorazio altua. Baina oso positiboa da.*

## EUSKARAREN ETORKIZUNARI BURUZKO IRITZIAK

Erdaldunek puntu honi buruz duten iritzia erabat garrantzitsua dugu, beraiek gabe ez baita posible berreskuratze generalizatu bat. Honegatik, beren erantzunak berreskuratze-prozesu honetan beren parte-hartzea ala alboratzea suposatzen du.

### *Euskararen etorkizun probableari buruz:*

1. Poliki-poliki desagertuz joango da .....	3,9 %
2. Egungo mugetan mantenduko da .....	10,1 %
3. Oraindik duela gutxi erabiltzen zen lekuetara hedatuko da	11,6 %
4. Euskal herri osora hedatuko da .....	62,3 %
5. Beste erantzun bat .....	2,6 %
6. Ez du erantzun .....	9,5 %

Erdaldunen iritzia oso positibotzat jo daiteke.

Erantzun hauen *arrazoiak*: gaur egun erdaldunen artean euskara ikasteko nabari diren joerak alde batetik; eta, bestetik, euskara irakas-kuntzan eta komunikabideetan sartzeko saiakuntzak generalizatzen badira, bere ezaguera biziki azkartuko da hurrengo urteetan.

### *Euskararentzat desio den etorkizunari buruz:*

1. Desagertuz joan dadila .....	2,4 %
2. Egungo mugetan mantent dadila .....	5,8 %
3. Oraindik duela gutxi erabiltzen zen lekuetara hada dadila	13,4 %
4. Euskal herri osora heda dadila .....	71,7 %
5. Beste erantzun bat .....	0,4 %
6. Ez du erantzun .....	6,3 %

Laburtuz, erdaldunek euskararentzat *desio* duten etorkizuna etorkizun probablea baino hobea da; eta, proportzioan hainbatekoa ez izan arren, asko hurbiltzen zaio euskaldunek *desio* dutenari.

## BERRESKURATZEAZ ETA HARTU BEHARKO DIREN NEURRIEI BURUZKO IRITZIAK

Nola ikusten dute euskararen berreskuratzea: beharrezkoa, komenigarria edo interes gabeko kontsideratzen al dute? eta zein bide aukeratzten dute horretarako?

### Euskara berreskuratzeko beharra

1. Beharrezkoa .....	48,6 %
2. Komenigarria .....	40,3 %
3. Interesik gabekoa .....	4,5 %
4. Alferrikakoa .....	0,2 %
5. Kaltegarria .....	0,6 %
6. Beste iritzi bat .....	0,2 %
9. Ez du erantzun .....	5,6 %

Ez dira erdira heltzen euskararen berreskuratzea *beharrezkotzat* jotzen duten erdaldunak. Euskaldunekin konparatuz, diferentzia ia-ia bitik baterakoa da. Halaz ere, ia beste hainbestek komenigarritzat jotzen du. Berreskuratzearen alde daudenak, honela, gehiengo absolutua dira (88,9 %).

Oso positibotzat jo daitekeen emaitza, noski.

*Berreskuratze-bideei* buruzko portzentaia adierazgarriak

### Agintarien aldetiko neurriak

1. Euskara hizkuntza ofizial aitortua izatea .....	34,1 %
2. Euskara gaztelaniaren mailan jarria izatea .....	28,7 %
3. Euskara irakaskuntzan, administrazio publikoan eta komunikabideetan onartua izatea .....	27,6 %

### Erakundeen aldetik

1. Euskara hizkuntza ofizialtzat hautatua izatea .....	29,8 %
2. Euskara gaztelaniaren mailan jarria izatea .....	26,9 %
3. Euskararen hedapena erraztea .....	25,9 %
4. Enplegatu guztiek euskara menperatzea esijitzea .....	8,4 %

## Herriaren aldetik

1. Euskaraz dakitenek ahal duten guztietan erabil dezatela ..	31,3 %
2. Euskararen aldeko eskakizunak lagundu .....	14,2 %
3. Ikasi nahi duten guztiei laguntza eskaini .....	36,8 %
4. Euskararen aldeko ekintzak ekonomikoki lagundu .....	8,2 %

Erdaldunek eskaintzen dituzten neurrien artean, euskara lehenik agintariak eta erakundeek hitzegitea da, eta gero hizkuntza ofizial aitortua izatea.

Hasparru juridiko-legal egoki bat sortzearen alde daude.

Oso jarrera positiboa.

Oro har, erdaldunek proposatzen dituzten neurriak euskaldunek proposatutakoak baino eraginkortasun txikiagokoak izan arren, bien arteko diferentziak ez dira hain nabariak: denak, izan ere, euskara ikasi nahi dutenak lehenetsunez laguntzearen alde baitaude, eta lehendik euskara dakitenek ahalik gehien erabiltzearen alde.

## EUSKARAREN BERRESKURATZEAZ DAUDEN JARRERA PERTSONALAK

Lehen aipatu dugunez, berreskuratzea bera prozesu honetako partaideen jarrera pertsonalaren menpeko da.

Bera dugu, ondorioz, ikerketaren hurrengo urratsa.

### *Euskararen berreskuratzeaz dauden jarrera pertsonalak*

#### Norberetzat

1. Euskara zuzen (korrektuki) ikasi .....	30,6 %
2. Zerbait ikasi .....	17,0 %
3. Ulertzeraz heldu .....	15,3 %
4. Besteak animatu ikas dezaten .....	22,4 %
5. Beste erantzun bat .....	1,5 %
6. Ez nago ezertarako prest; ez zait interesatzen .....	4,1 %
9. Ez du erantzun .....	9,1 %

## Haurrekiko

1. Ikastoletara bidali, euskaraz ikas dezaten . . . . .	38,8 %
2. Gaueskolara bidali, euskaraz ikas dezaten . . . . .	11,4 %
3. Euskararenganako onespena sorrerazi . . . . .	20,5 %
4. Euskararen aldeko ekintzetan parte har dezaten bultzatu .	9,9 %
5. Beste erantzun bat . . . . .	3,7 %
6. Ez nago ezertarako prest; ez zait interesatzen . . . . .	3,4 %
9. Ez du erantzun . . . . .	12,3 %

## Ingurune sozialarekiko

1. Euskararen aldeko ekintzak babestu . . . . .	43,5 %
2. Euskararen hedapena ekonomikoki lagundu . . . . .	9,5 %
3. Euskararen aldeko ekintzetan parte hartu . . . . .	15,3 %
4. Euskararen aldeko ekintzetan laguntza eman . . . . .	12,1 %
5. Beste erantzun bat . . . . .	3,2 %
6. Ez nago ezertarako prest; ez zait interesatzen . . . . .	4,3 %
7. Ez du erantzun . . . . .	12,1 %

Erantzun guzti hauen artetik interesanteena zera da, erdaldunetarik ia heren bat (30,6 %) euskara *zuzenki ikasteko* prest dagoela. Beste heren bat (32,3 %) soilik ulertzeko *adina ikasteko prest* dago. Honela, ia bi heren batzen dute (62,9 %) euskara *ikasteko esfortzu pertsonal bat* egiteko asmoa dutenek.

Haurrekiko: erdiak (50,1 %) dira beren seme-alabak ikastola edota gaueskoletara bidaltzeko prest daudenak; eta hauei beren haurrei euskararenganako onespena sorrerazi nahi diotenak (30,4 %) batzen badizkiegu, portzentaia jadanik inportantea dugu.

*Ingurune sozialarekiko*: saiakuntza babesteko jarrera (43,5 %) eta laguntza aldekoak dira.

*Beraz*: Erdaldunen jarrera euskararen berreskuratzeari buruz ez da hitzezkoa bakarrik; beraiek ere prest daude lan egiteko.

Bide egokiak eskaintzea besterik ez da falta.

**3. Zatia**

**EUSKARAREN BERRESKURATZE-  
-PROZESUA: NORMALIZAZIO  
LINGUISTIKORANTZ**

## SARRERA

*Euskal Herriko eskualde zabaletan euskarak izan duen galera eta atzerapenaren ikerketak "ukipeneko" deitutako eskualdeetan eta herri-ingurune espezialetan jasandako higadura linguistikoa izan dugu lehen zatiaren aztergaia. Bigarrenak, berriz, eskualde euskaldunetan euskara zein egoera zailetan kontserbatzen den agertu nahi du. Bi zati hauek ez dute, halaz ere, euskararen problematika osoa agortzen.*

*Honela balitz, gure hizkuntzaren azken egunetan geundeke.*

*Baina ez da hau gure kasua. Berreskuratze-prozesu batetan aurkitzen gara, gure geografia guztira hedatzen den prozesu batetan, bere presentzia gehienbat irakaskuntza, komunikabide eta zerbitzu publikoen eremuetan agertzen delarik. Orain artean galerazi izan zaizkion eremu linguistikoetan hain zuzen.*

*Gure herriko historiak ez du inoiz honelako berreskuratze-mugimendurik ezagutu.*

*Eta ez fenomenoaren zabaltasun geografikoagatik bakarrik, ezta egin diren lanen kopuru eta kalitateagatik ere, sortzen ari den giza kapitalaren eta kapital ekonomikoaren metatze kalifikatuagatik baizik.*

*Fenomeno honen adierazle onenak 1) irakaskuntza eta 2) komunikabideak ditugu.*

*Bietatik zenbait datu emango dugu hemen.*



## 1. Kapituluia

# EUSKARAREN BERRESKURATZE-PROZESUA IRAKASKUNTZAN

Euskara berreskuratzeko ahalegin handienak, dudarik gabe, irakas-kuntzan egin dira.

Esperientziak erakutsi digunez, eskolan irakasten ez den hizkuntza bat hiltzera behartua dago. Hiltzori honetan kontzientziatu da, hain zuzen, gure herria gertaera honetaz, egoera sozio-politiko ezin zailagoan suertatu izan arren.

Gure bihurritasun bizia gorespen sentikor hutsal batekin konfunditzen dutenek, guztioi (epailari eta epaitu) sakrifizio asko kostatzen dakigukeen akatsa egiten dute.

Jadanik mendeterdi dirauen joku dorpe eta maltzurra da.

Ezker eta eskuin espainolean militatzen duten gure epailari-arbitroek, beren hizkuntzaren monopolioak suposatzen duen bortxa kolonialetik begiratu jarraitu nahi dute gure hizkuntzaren kontura.

Indarrez dorpeki menperatzeagatik zenbat galdu duten ikusiz, gainera. Dirudienez, historiak ez du ezer erakusten.

Jarrera honek gure herrian sorrarazi duen bihurritasunaren fruituak era askotakoak dira. Horrelako zenbait, beraiei komeni zaielako edo, lau haizetara zabaltzen dute; beste batzuk, aldiz, justizia egin nahian behin eta berriz era pazifikoan eskatuarren, nahiago dute ukatu: hauetako bat ikastolen mugimendu herritarra dugu.

Euskararen irakaskuntza gogorki zigortu ohi zen aldian jaio zen Ikastola. Denbora hartan honelako lan batek eskatzen zituen medio eko-

nomikoen eta giza baliabideen falta erabatekoa zen. Baina halaz ere aurrera atera zen. Beti bezala, gizon eta emakume-talde txiki baten amestean oinarritu zen; herriak, berriz, espero zen baino askoz hobeto erantzun zuen, lokalak erosteko dirua bilduz, irakaskuntzarako pertsona proposak bilatuz eta beren seme-alabak irakaskuntz eredu linguistiko berri batetara bidaliz. Ondoren, Administrazioari aurpegia eman behar izan zaio, legaleztapena lortuz, honetarako orduko bide legalen estatusa gaindituz.

Gaur egun gure herrian bere presentzia hain gogor eta firmoa da, non zentru pribatuetan, eta estataletan ere, euskara eta euskarazko irakaskuntza bera planteatzen hasiak bait dira.

Beste hainbat gertatzen da bere hizkuntzan ikasteko aukerarik izan ez duten gazte eta helduen euskalduntze eta alfabetatze-kanpainekin. Kanpaina hauen ibilbidea eta ikastolarena oso antzekoak izan da.

## IKASTOLAK ETA EUSKARAREN BERRESKURATZE-PROZESUA

Ikastolen fenomenoak ez da Euskadiko eboluzio soziopolitikoaren fruitu bat baizik. Lehenik, akademia partikular gisara, 1950. urteetan jaioa zen, eta agiriagoan 1960. tik aurrera, burruka politikoa bete-betean zegoenean.

Bi zutabetan oinarriturik dago: gurasoengan, beren seme-alabentzat heziketa euskaldun baten bila abiatu zirelarik; eta euskal gazteriarengan, egoera sozial eta ekonomiko pobreak honetan zailago izan arren euskara irakasteko prest egoteagatik.

Eliza izan dugu erakunde bakarra, euskarari laguntza eskaini izan diona; baina hau zenbait momentu kritikotan bakarrik gertatzen da.

Ikastolen jaiotze eta gorpuztaldi hau ez da probintzia guztietan neurri berdinean gertatu. Eskualde bakoitzaren bizkortasun linguistikoa izan da eragile nagusia; Gipuzkoan 1960-an sortua da ageriko lehen ikastola; 1963-an beste bi Bizkaian eta 1 Araban; Nafarroan ez da 1965 erarte ikastolarik sortu; eta 1969-an, azkenik, sortu izan da Ipar Euskadin lehenena.

Egun, 1975-76 kurtsoan, guztira 172 ikastola ditugu Euskadi (Ipar eta Hegoaldea) osoan. Banaketa honelakoa da:

Araba	8
Gipuzkoa	78
Nafarroa	23
Bizkaia	45
Ipar Euskadi	18
Denetara	172 batzen dute.

## **Ikastolak zentru gisa**

Frankismoan ikastolek izan zituzten problemak ez dira oraindik desagertu; Administarratza-eskola ofizialetan eskatzen ez diren eskakizun legalak bete beharrean aurkitzen da.

Ekonomi aldetik ahulenik dauden zentruetarako joku maltzur bat besterik ez dugu hau.

Ikastolaren egitura eskualdez eskualde aldatzen da.

*Arabian* zentru handi bat dago, ikasle guztien 60 % biltzen duena, eta zenbait zentru txiki; bertan ez da BUP kurtsorik 1977-78 ikasturterarte irakatsi. *Gipuzkoan*: ikasle-kopuru handiko ikastolak eskualde guztietan funtzionatzen dute, BUP maila dagoeneko zentru askotan irakatsiz. Halaz ere ahalmen gutxiagoko zentru asko dago. *Nafarroan* buruak ez du Arabian bezainbat jende biltzen; baina, orobat, ez da BUP mailarik 1977-78 ikasturterarte irakatsi. Bizkaiaren kasua, zenbait puntutan, Gipuzkoarenaren antzekoa dugu. Bestetan, berriz, badu diferentziarik: honela, ikastola guztietarik ia erdiak 100 ikaslez behetikoak dira; inportanteenak Bilbo Handia izeneko arearen barruan aurkitzen dira; ikastola bat bakarra da BUP euskaraz ematen hasia.

Ipar Euskadiko ikastolei dagokienez, eskualde guztietara zabaldu dira, bertan oinarritzko mailak bakarrik emanaz.

Ikastola handien ekipamendu-politika antzekoa da Hego-aldeko 4 probintzietan; eta, ikastola txikien artean, asko eta asko Elizaren babesean mantentzen dira. Araba eta Nafarroan azken hauek Diputazio Foralaren laguntza jasotzen dute; nahiko eskasa, bestalde, zeren eta laguntza handiena zenbait gela uztea besterik ez baita.

## **Ikaslegoaren eboluzioa**

Hasierako egoeraldi sozio-politiko hura gogoratuz, geroztik izandako hazkuntza benetan harrigarria izan da eskolakuntza maila guztietan: 1960 urtean 60 ikasle besterik ez izanik, 1969-70 kurtsorako zenbaki hau 30.000 tara igo zen, 35.000 1975-76ean eta 45.000 inguru 1977-78an.

Oraingo erritmo honetan, ikastolak urtero 4.000 ÷ 5.000 ikasle berrientzat ari dira lekua sortzen.

Desarrollo hau ez da uniformea eskualde guztietan.

Jaiotako ordena berean ari dira aurreratzen: Gipuzkoa lehenik, gero Bizkaia, Araba eta Nafarroa; eta azkenik Iparraldeko eskualdeak.

Baina aurrerapide hau ez da maila zenbakizko hutsean bakarrik ageri: egitura-aldaketa sakonak egin dira hasieratik hona. Lehen momentuko haurtzaindegi haiek OHO-aren 1. eta 2. zikloan parte hartzen hasi ziren; eta egun, jadanik OHO-eko zentru bezala erabat finkatuta daude-

nean, Gipuzkoan BUP et COU mailetan serioski saiatzan hasiak dira. Beste eskualdeetan bide berdinari ekin diote.

Honek ez du esan nahi dena egina dagoenik.

Ikastolaren desarroiloak beharrezkoa du oraingoz, eta luzaro, bultzada indartsu eta jarraitu bat oinarri-mailako euskarazko zentrua izatera heltzea nahi bada.

Interesantea da, orobat, ikastolek gorpuztu duten ingurune pedagogiko aurrerakoa aipatzea: herri aurreratuenetan erabilitakoaren parekoa da; eta, zer esanik ez, Estatu espainolean eskuarki aplikatutakoa baino askoz aurrerakoiagoa. Ikastola izan zen, adibidez, sexu-banaketa gainditzen lehena, emaitza bikainak lortuz. Beste hainbat esan daiteke pedagogia aktiboaren hastapenei buruz, bera izan baita honen aplikazioan aitzindari.

### **Ikasleen etorki soziala**

Ikastolek jaso dituzten kritiken artean, bata oso hedatua izan da: jatorria euskalduna ez zutenentzat itxita egotea. Bestalde, klase baxuentzat garestiegia izatea ere behin baino gehiagotan aipatu izan da.

Hemen fenomeno natural bat gertatzen da: 1) Herriko semeak izan dira lehenak, euskararen etorkizunaz kezkatuak ikastola antolatu dutenak; 2) Eskerak beti gainditu ditu bere onarpen-ahalmenak eta 3) Egoera hauetan, eta elebitasun-saikuntzaren prozesuak bereziki lehen momentu hauetan planteatzen duen problema pedagogikoagatik, ez da harritzekoa batzutan familian euskara erabiltzen duten haurrak bakarrik onartzea.

Baina ikastolak ez daude etorkinen seme-alabentzat itxita.

Hain zuzen ere, interes handia dago euskaratze-bide hau beraiei eskaintzeko.

Etorkinen seme-alaben portzentaia handiena, ikastoletan, Araban dago; ondoren Nafarroan. Gipuzkoan eta Bizkaian apalagoak dira portzentaia.

Ipar Euskadin, berriz, euskaldunen seme-alabak bakarrik doaz ikastolara.

### **Gurasoen egoera sozialari buruz:**

Guztira, maila errepresentatuena langile kualifikatuena dugu (32,4 %); gero, oso aparte, enpleguak (18,7 %), tarteko agintedunak (12,4 %), merkatari txikiak eta erdi mailakoak (11,6 %), agintari altuak profesio liberalak, industrialak (11,0 %), langile ez-kualifikatuak (10,8 %); eta, azkenik, baserritar eta arrantzaleak (3,9 %).

Ikastolen maila sozialean bitarteko kategoriak (langile kualifikatuak eta enplegatuak) nagusitzen dira, bien artean erdia baino gehiago biltzen baitute (51,1 %), eta klase sozial altuenak ez dute 10,0 % a gainditzen.

Egiaz esan daiteke, beraz, behe-klaseen nagusitasun bat dagoela.

Eskualde guztietan ez da berdin gertatzen.

Hemen zera aipatzea falta zaigu: erakunde ofizialen laguntzarik eza dela eta, ikastolak, irauteko, nahi eta nahi ez kuota batzuk kobratu beharrean aurkitzen dira, honela klase apalenen partaidetza zailduz.

Hau da, hain zuzen, ikastola ofizialki subentzionatzean lortu beharra dagoen justizia.

## Irakaslegoa

Hasieran, euskal kulturaren egiazko militanteen eskutan egon izan da. Gaur egun profesionaltzen ari da, baina oraindik kualifikazio-problemekin dabil. EGBn jadanik gaindituta daude trabok, gazte askok bere herriko kulturaren alde agertu duen bokazioari esker. BUP eta COU mailako beharrak —geroz eta handiagoak— betetzeko, bestalde, badago jadanik lizentziatu-mordoska ohargarri bat, urteetan zehar gaiak euskaraz ematen trebatu dena.

Talde hau dugu, dudarik gabe, ikastolen heziketa-projektuaren firmotasuna adierazteko frogarik hoberena.

Soldatari buruz hauxe esan dezakegu: ikastolen finantzabideak, zati handi eta epe luze batetan, irakasleen sakrifizio ekonomikoari esker lortu izan direla. Beren soldatak baxuak izateaz gainera ez dute aseguru sozialik izan, ikastolaren egitura ekonomikoa horretarako gai ez bait zen.

Gaur egun egoera asko hobetu da.

Baina oraindik badaude eginbeharrak: Nafarroan eta Bizkaian, adibidez, irakaslegoaren 10 % gutxi gorabehera inolako asegururik gabe dago.

## Alderdi ekonomikoak

Aipa ditzagun punturik adierazgarrienak: *Patrimonioa*. Patrimonio propio bat lortzeko egin diren esfortzuek emaitza nabariak lortu dituzte ikastoletan, batez ere Gipuzkoan eta orobat Bizkaia eta Arabako herrietan aurkitzen direnetan. Nafarroan, hartan saiatu izan arren, oraingoz besteren lokaletan jarraitzen dute, nahiko egoera larrian gainera. *Kredituak*: Gipuzkoan eta Bizkaian sarritan erabili ohi dira, bereziki Lankide Aurrezkiari, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialari eta Donostiako Aurrezki Kutxa Muzipalari eskatuz. Bizkaian, kreditu gehienak Heziketa-Ministeritzaren bidez Banco de Crédito de la Construcción dela-

koak eman ditu. *Subentzioak*: estatalak ez direnak partikularrak, enpresak (bereziki kooperatibak) eta erakunde publikoak (Diputazio Foralak Araba eta Nafarroan, zerbait Gipuzkoan eta ezer ez Bizkaian) emanak dira. Zenbait udaletzek ere laguntzen du, baina gutxienak dira. Aurrezki-erakundeen laguntza ez da inoiz dohan izan, Lankide Aurrezkiarena ezik. Subentzio estatalen artean, Bizkaian eraikuntzarako emanak daude; oso kasu gutxitan halere, Dohantasanari emanak nabariki handitu dira, baina halaz ere oso gutxi da hori Estatuak ikastolen funtzionamenduagatik urtean zehar hemen aurreztatzen duenarekin parekatuz. *Beste sarrerak*: jendetzaren kontribuzioen bidez heldu zaizkio, hala nola elkarteek antolatutako jaialdien eta gazteek muntatutako errifa, jaialdi eta tonbolen bidezkoak. Guzti hauek lan asko eskatzen dute; irabazia, aldiz, txikia izan ohi da.

*Labur bilduz*, ikastolak errealitate indartsu bat direla esan dezakegu, ingurune arraro eta sarritan arrotz batetan sortuak eta haziak; baina azkenik, herriaren esfortzu batuari esker, gogorki finkatuak, herriko zenbait lekutan bereziki.

Egia esan, gure historian egin den esfortzu kolektiborik handiena da oraingo hau dudarik gabe.

Eta ez berak adierazten duen esfortzu ekonomikoagatik bakarrik; baizik eta hori lortzeko hainbat pertsonaren laguntza behar izan delako (bertan emandako heziketa beste zentru pribatu nahiz ofiziletan emandakoaren mailakoa izatea lortzeko, dena euskaraz eta pedagogia modernoaren azken metodoak erabiliz...).

Oso urte gutxitan aurrera atera da obra hori.

Erakunde publikoek beren gain hartu behar duten esfortzua, bihar-ko egunean Euskadiko eskola guztietan hain bertatik aztertua izan den eredu linguistikoa aplikatu dadin.

## EUSKARA ZENTRU PRIBATU ETA OFIZIALETAN

Eskola guztietan, pribatuak nahiz ofizialeetan, 1976-77 ikasturtean matrikulatutako ikasleen kopurua Hego Euskadiko lau probintzietan 490.000koa zen.

Ikastoletara doazen 45.000ek, horretara, hamarren bat baino gutxiago suposatzen dute.

Behar-beharrezkoa da, bada, irakaskuntza elebiduna zentru pribatuetara hedatzea, euskara behin betiko normaldu nahi bada. Ikastoletan hain emaitza onak jaso dituen eredu linguistikoa izan daiteke, eta behar du izan, euskara irakasgune guztietan sartzeko erreferentzia bizia. Euskara diogunean, euskara eta euskaraz ikastea diogu.

Eredua, zer esanik ez, lekuan lekuko beharretara egokitu behar da. Orain arte medio honetan sartu ahal ez izateak sortzen dituen proble-

mak dira lehenik aztertu beharrekoak. Jadanik zerbait egina izan arren, hori ez da bide luze baten hasiera baizik. Problema bi motatakoak dira: alde batetik euskaraz zerbait irakasten duten zentruena, eta irakaskuntza honen kalitatea bestetik. Azken honetan parte hartzen duten aldagaiak, besteak beste, irakaslegoaren prestakuntz beharrak, erabilitako metodoen kalitatea eta astean zehar euskarari eta euskaraz irakasteari eskaintzen zaion ordu-kopurua dira.

Gauzak ez dira oraindik asko aldatu, azken aldiko lege eta dekretuen bidez euskararen irakaskuntza ez bait da bazterreko, borondatezko eta orduz kanpokoa aitortzea baizik lortu. Eta, noski, irakaskuntza euskaraz emateaz ez dute ezer entzun ere egin nahi.

Baina ikus dezagun egoera zer-nolakoa den.

## Euskara zentru pribatueta

Euskadin diharduten ia zentru pribatu guztiak (377 guztira 195.949 ikasle bilduz) erakunde erlijiosoen eskuetan daude. Beraz, haurtzaindegi eta OHO ean matrikulatutako 40 % gutxi gorabehera.

Hauetarik, 1975-76 ikasturtean 175 nabariena inkestatu ditugu.

Hona hemen ondorio adierazgarriak:

1. Erlijiosoen zuzentzen dituzten zentru guztien 40,2 % tan bakarrik ematen dira euskarazko klaseak. Hauetatik, erdia baino gehiago Gipuzkoan daude, 1/4 baino zertxobait gehiago Bizkaian eta falta dena Araba eta Nafarroan barreiatuta.

Euskara irakasten duten zentruak, beraz, gehienbat eskualde euskaldunetan daude.

Baina eskola hauek ez dira eskualde hauetan uniformeki hedatzen. Herri nagusien ondoan, esate baterako, portzentaia gogor handitzen da. Honela, gure kasuan, heren bat baino gehiago biltzen da nukleo hauetan. Bestalde, ez dago bakar bat ere eskualde erdaldunetan. Ba omen dira, Bizkaian, plan hau martxan jartzekotan dauden zentru batzuk.

Egun panorama, beraz, ez da oso atsegingarria.

Euskara irakasten duten zentru pribatuak gutxiengoa dira, baina gutxiengo inportante bat. Eta egoera hau, 2. partean ikusi ahal izan dugunez, euskara irakaskuntzan sartzearen aldeko eskakizun zabalduaren kontra doa zuzenki.

2. Lehen ikusia dugu erlijiosoen zentru guztietatik 40 %k bakarrik ematen dituela euskarazko klaseak. Alarmagarriena zera da, zentru hauetatik 85 %, hau da ia gehiengo absolutua, irakaskuntza *gatzelaniaz* egitearen alde dagoela, 15 % bakarrik izanik gai guztiak edo zenbaitzuk euskaraz ematearen alde daudenak.

Erraz ohartzen gara zentru hauek elebitasunaren problematika irakaskuntzan planteatzeko daukaten modua ez dela guztiz zuzena.

Hezkuntza eta Zientzi Ministeritzaren jokabideak oso-osorik jarraitzen dituztela dirudi; berak emandako norma legalak beste herritan edo elebitasun-eskualdeetan elebitasunari buruz emandakoekin kontra-jarriak daudelarik.

Euskaraz ematearen alde dagoen gutxiengoa oso kontutan hartu beharko da biharko irakaskuntz moldea era batetik bestera pasatzeko orduan, jadanik horren eskarmentua jasotzen hasiak baikara; halaz ere, *euskarazko* irakaskuntza pausoz pauso sartu behar denez, badugu zer ikasia hemendik aurrera.

3. Badago diferentziarik zentrutik zentrura euskara irakasteko eran. Arrazoi nagusiak ondoko hauek dira: 1) eskolako ordutegian sartzeta ala ez; 2) klasera joan beharra ala beharrik eza; 3) asteroko ordurkopuru egokiena eta 4) irakasleen prestakuntza.

Inkestaren emaitzak haxe esaten digu: zentruetako gehiengoak euskara ordutegi barruan sartzan badu ere, ez dira erdira heltzen klasera joatera behartzen dutenak. Asteaz zehar ematen diren orduak bi bat inguru dira, batzuk 5 ordutara iritsi arren gehiengoak asteko ordubete besterik ez bait du eskaintzen.

Egoera honetan irakatsiz, efikazia ezin daiteke handia izan.

Betekizun legal bati erantzutea besterik ez da egiten, bide batez kanpotik, gurasoengandik edota ikasleengandik egindako presioa ozta-ozta erantzuten saiatuz.

Guzti hori kaltegarria izanik ere, irakaslegoaren kualifikazioak ez du egoera hobetzen. Beren euskarazko ezaguerak, orobat erabilitako metodologia, normalean ez dira onak. Eta honek arrisku larri bat dakar: euskararen irakasteak, egoera honetan, hizkuntza zail, ikastezin baten irudia hartzea. Eta hau ez da egia. Zailtasunak, inon egotekotan, komentatzen ari ginen prestakuntza tekniko eskasean dautza. Puntu hau guztiz inportantea dugu euskararen etorkizunerako eta, beraz, programa honen aplikazioa beren gain dutenak daukaten erantzukizunaz jabetu beharra daude.

Herriak euskararen irakaskuntzaz daukan iritzia ezagutuz, zentru pribatuen zeregina eskakizun linguistiko eta kulturali erantzun bat ematea da, gurasoek beren seme-alabak haien zentruetara bidaltzen jarraitzea nahi badute.

FEREK bere gain hartu behar duen erantzukizuna da hori.

Berari dagokio plan bat aztertu eta landuko duen departamentu edo talde tekniko bat osatzea. Talde honek Euskaltzaindiaren eta Ikastoletako Federazioaren laguntza jaso dezake, irakaskuntza elebidunaren alorrean esperientzia aberats eta probatu baten jabe baitira, honela aplikazio taxuzko eta egoki bat lortuz.



## Euskara zentru ofizialetan

Gaur egun euskararen presentzia zentru ofizialetan ia hutsa izan arren, etorkizunean bultza dezakeen eta beharko duen ingurunea mugatu nahi izan dugu.

1976-1977 ikasturtean, zentru ofizialetako haurtzaindegia eta OHO-ak 261760 ikasle bildu ditu Hego Euskadiko lau probintzietan.

Maila hauetan matrikulatutako haur guztien 53,4 % a Zentru ofizialak direnez gero, besterik gabe legeek agintzen dutena hitzez hitz betetzen dute: euskararen irakaskuntza norberak nahi izanik bakarrik eman daiteke, eta eskol orduetatik kanpo. Minimoa izateaz gain, aplikazio sistematikoa legal baten gabeko norma da; hau da: ezer ez.

Eta, noski, euskarazko irakaskuntzak galerazia jarraitzen du.

Hau da, inondik ere, gure hizkuntzaren egoera diglosiko eta gainbeherakoa hobekien sendotzeko era.

Planteamendu honetan ez dira jendetzaren (bertako eta etorkinaren) desio eta jarrerak kontutan hartzen; elebitasuna ezartzearen aldeko eskakizunez ari gara.

Zeintzuk dira Euskadiko irakaskuntza estatalean gainditu beharreko oztopoak, elebitasuna zentzuz aplikatu ahal izateko?

Ikus ditzagun garrantzitsuenak:

a) Euskadiko errealitate sozio-politiko eta soziolinguistikoari artez dagokion erregulazio legal baten falta.

b) Irakaslegoaren prestakuntza eta banaketak ez du gaur egun Herriaren errealitate linguistikoa kontutan hartzen. Ondorioz, Hego Euskadiko haurtzaindegi eta OHO eko irakasle guztien 4 %k bakarrik daki euskaraz. Oztopo honek funtsetik ezabatzen ditu euskara irakaskuntzan luze-zabal txertatzeko promesa guztiak.

c) Beste oztopo garrantzitsu bat *Estatu espainoleko mailan ezarritako eskalafoi-sistema* dugu. Honek, ondorio gisa, irakaslegoaren ezegonkortasuna dakar berekin, gure kulturaren eskakizunari integrazio erreal baterako damaion behaztopoz. Bestalde, irakasle euskaldunak beren nahien kontra Euskal herritik kanpora bidaliak gertatzen dira. Guztiz beharrezkoa dugu, orobat, irakasle golebidun baten heziketarako politika zentzuzko bat maisu-eskoletan. Euskal herrian klaseak emateko, beharrezkoa litzateke bi hizkuntzak menperatzea. Baina hau bat-batean ezin lortu denez, oraingo egoera ereduakora egokituz joan behar da plan orokor baten bidez. Momentu honetan, behar bizienei erantzuteko, irakasle-go espezial bat sortu beharko da.

## EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE-MUGIMENDUA

Irakaskuntzarako erakunde estatal edo ez-estataletatik kanpora gelditu arren, helburua euskara irakastea dutenez gero hemen sartu ditugu Euskalduntze eta Alfabetatze-mugimenduak.

1966 ko urtarrilean, Euskaltzaindiko zenbait kide eta laguntzailek (haien artean bultzatzaile nagusi bezala Rikardo Arregi zegoelarik) alfabetatze-kanpaina bat antolatzekeo asmoa aurkeztu zioten biltzar nagusiari.

Euskaltzaindiak idea hura gogoz onartu zuen, horretarako batzorde bat sortuz.

Hamar urte beranduago, 1976-1977 ikasturtean hain zuzen, eta mila gorabehera pasa ondoren, 40.000 ikasle eta 2.000 irakasle inguru biltzen ditu erakunde honek, Ipar eta Hego aldeko geografia osoan zehar jendea euskaldunduz eta alfabetatuz.

Banaketa, gutxi gorabehera, ondoko hau da:

Gipuzkoa eta Bizkaian 15.000 bat ikasle, eta 4.000 eta 5.000 inguru banan bana, Araba eta Nafarroan. Ipar Euskadin mugimendua beranduago jaio da, eta ahulagoa da: 350ren bat ikasle.

Azpirarratzekoa: 1) Mugimenduaren onarpen generala; 2) Euskal herriko lurralde guztietara hedatu da eta, Bizkaian eta Gipuzkoan sendotuago egon arren, besteetan ere bere presentzia ageria da. Ez dago Bizkaia edo Gipuzkoako eskualderik bertan finkatuta ez dagoenik; beste hainbat esan dezakegu, maila apalago batetan bada ere, Araba eta Nafarroari buruz. Azken bi hauetan, hiriburuek beste bietan baino garrantzi handiagoa dute.

Generalean, onarpenik handiena herri handi eta bizigune industrialetan jaso du.

Azken honek, ezer frogatzekotan, euskara ez dela jadanik baserritarren hizkuntza frogatzen du, batzuk nahi luketenaren kontra; aitzitik, duela lau mende Etxeparek eskatzen zuen bezala, egungo gizarteko euskaldunen arteko hizkuntza bizi eta komunikabide prestu bilakatzen ari dela adierazten du.

Euskalduntze eta Alfabetatze-klaseetara joaten den ikaslegoari buruz:

1) Emakumeak gizonak baino gehiago dira (60 %-40 %); 2) gehientzuenak gazteak dira (61 % 25 urtez behetikoak); 3) ia ikasle guztiak bertakoak dira, baina etorkinen presentzia geroz eta nabarmenagoa da (totalaren 10 %); 4) ikasketa-maila nagusia erdikoa da, unibertsitarien proportzio handi batekin. Honek zera adierazten digu, Herriko kapa kultural-ki jantzenetan euskarak duen garrantzia; 5) Erdimailako kategoriek (tar-teko koadroak eta enpleguak) ikaslegoaren 60 % osatzen dute, eta langileak ere ongi hornituak daude (25 %). Goikategoriek (industri jabeak, profesio liberalak, merkatariak), ohizkoa denez, ez diote euskarari jaramonik egiten; 6) Euskararen *ikasketa*- maila buruz, gehiengoa 1.mailan dago (*Euskalduntzen*), alfabetatzen ari den euskaldunen kopurua garrantzitsua izanik, bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian; 7) euskara ikasteko arrazoiak: herri bati dagokion kontzientzia nagusitzen da: herri batek ezin iraun dezake herri bezala bere hizkuntzarik gabe.

*Ikasle* hauei 2.000 irakasle batzen badiezkiegu, Euskalduntze eta Alfabetatze-kanpaina honen itxura ezin optimistagoa izan liteke.

Hemen ere lehen Ikastolaz esandako hura errepika dezakegu; esfortzu amankomun honetan parte hartu duten ikasle eta irakasleengatik, gure Herriko Historia kulturallean inoiz antzekorik izan ez duen ekin-tza dugu oraingo hau.

Bere etorkizunak zinez indartzen du euskararena bera.

Baina oraindik beharrezkoa du:

1. Berreskuratzearen aldeko motibazio hauek ez daitezela moda edo faszismoaren aurkako jarrera simple bat gerta.

2. Euskararen irakaskuntza ahalik gehiena heda dadila. Honetarako, noski, esfortzu serio eta jarraitu bat behar da. Honela, praktikaren bidez, zaila eta konplikatuaren tituluak kenduko dizkiogu.

3. Honek metodologia egoki bat eta irakaslego trebatu bat eskatzen du, bi urtetako epean edozeinek oinarrizko euskararen idea nagusiak hartu ahal izateko.

Guzti honek ondoko oztopo nagusien garaipena eskatzen du:

1) Politika eta kultur saileko buruzagiek arreta benetazkoa ager dezatela euskararenganako; bestela, izan ere, euskararen alde hitz borobilak esan arren hizkuntza bera erabat baztertzen jarraituko dute; 2) Euskal erakunde politiko-administratiboen (Diputazio, Udaletxe) laguntzarik eza, zerbitzatu eta babestu beharko lituzketen gizajendeen eskakizunei erantzunik eman gabe. 3) Gure herriko diruak erabiltzen dituzten erakunde ekonomikoen laguntza ekonomikoaren falta, zenbait kasu harrigarri eta, bide batez, ohoretsutan izan ezik.

## 2. Kapituluia

### **EUSKARA KOMUNIKABIDEETAN (AHOZ ETA IZKRIBUZ) BERRESKURATZEKO PROZESUA**

Irakaskuntzaren arloarekin batera, non egin baiten aipatu dugun esfortzua, euskararen berreskuratze-prozesua komunikabideetara zuzendu da. Gero eta gehiago duen garrantziaren arabera, kontutan izan behar da gerrarekin aro berri bat hasi zela, euskal kulturaren mundua arras suntsitu zuena, batez ere komunikabideena. Heriotzari ihes egin zioten intelektualak herbesteratu beharrean aurkitu ziren. Batzu Ipar Euskadira, baina gehienak Ameriketara, handik berehala Europan zehar ere nazi-fasizismoa hedatu baitzen.

Gartzelatik pasa ondoren geratu zirenak ez zuten kulturgintzan sartzetik izan: euskarazko prentsa, argitalpenak eta irratia debekatuta zeudelako, mintzaira bera ere egitez debekatuta zegoelako eta biltzeko modurik ere ez zegoelako; euskal kulturaren mugimendua deseginda geratu zen.

Errautsetan oinarriturik hasi behar izan zen eraikitzen berriro. Honek esfortzu eta arrisku asko suposatu zituen.

### **EUSKARA ETA KULTURA IDATZIA ARGITALETXEETAN**

Kultura idatzitari dagokionez, gerratik gaurdainoko tartea hiru zatitan bana daiteke:

Lehenengo aroa (1936-1950). Intelektualak Hegoameriketan eta Erdiameriketan barreiatuta zeuden.

Aldizkariak argitaratzen ahalegindu ziren batipat.

Bernardo Estornes Lasa-k 50 ere kontatu ditu gerraondoko lehen urte hauetakoak.

Nolabait, liburugintzaren hutsunea bete nahi izan zuten, argitalpenak egiteko egoera zail hartan.

Garai hartan editorial bakar bat zen Ameriketan: Ekin, 1942 an Isaka Lopez Mendizabalek eta Andres Maria Irujok sortua, eta oraindik ere 36 urtez etengabe lanegin ondoren bizi dena. Ipar Euskadin bazen beste bat, *Aintzina*, 1944ean sortua.

2. aroa. 1950 inguruan *Euzko-Gogoa* jaio zen Guatemalan. Zeharo euskaraz idatzitako aldizkaria, aro bat markatu zuen; oso dinamikoa izan zen.

Han, herbesteratuekin batera, Orixe bat eta Hego Euskadiko idazle gazte batzu hasi ziren idazten.

Mugimendu honen fruituak nabariak izan ziren Euskal herri osoan. 1954-ean Egan indartu zen aldizkari literario bezala, Donostian editatua. Bi urte beranduago, 1956 an, *Jakin* jaio zen Arantzazun eta *Euzko-Gogoa* Miarrirtza etorri zen.

Urte honetan belaunaldi arteko eten bat sortu zen: gerra-denborakoena eta gazteena.

Zenbait editorial ere orduan sortua da.

Hauen artean, "Kuliska Sorta" argitaratzen duenari aipamen berezi bat zor zaio: 1952an sortutako Itxaropena argitaldariari alegia.

3. aroa: 1960 inguruan hasi zen. Kultur mugimendu hasiberria indartzen eta egituratzen ari zen; Ikastolak, Alfabetatze eta Euskalduntze-mugimenduak, editorial berriak, informaziozko aldizkari batzu eta abar sortzen dira.

Hirugarren aro hau beste bien gailurra bezala izan zen, orduandaino neke handiz ereindako haziaren fruitu bezala izan zelako.

Geroztik, editorialen ugaltzea (12 sortzen dira 1958-59tik 1975a bitartean), euskarazko aldizkarien (Goiz Argi, Zeruko Argia, Anaitasuna) eta elebidunen (Punto y Hora de Euskal Herria, Garaia, Berriak) jaiotza edo berriztapena aipa daitezke.

Gure azterketa 3. aro honi bakarrik dagokio.

## **Euskal editorialak**

Euskal argitalpenez hitzegitean ez ditzakegu alde batera utz minzairaren eta euskal kultura osoaren baldintzapen sozio-ekonomikoak.

Baldintzapen nagusia, Euskadi nazio debekatu bat izatean datza.

Textuinguru honetan bakarrik uler daiteke euskararen egoera diglosikoa eta argitalpenen problema; euskal kulturaren bazterketa gogoan izanda bakarrik azter daiteke arazoa.

Europako beste kultura minoritario batzuren egoera dugu. Penintsulari gagozkiolarik, katalanak kultura erromantze baten bidetik joatearen abantailarekin eta burgesiaren laguntzarekin beti gure aurretik egon dira; eta horrela, 1975ean 800 liburu argitaratu zituzten, guk 118 bakarrik eta galegoek 53 argitaratu genituen bitartean.

Egin dezagun historia apur bat.

Euskal editoraletara mugatuz, euskaraz zerbait argitaratzen duten 25ak Euskal Herrian daudenen 38 %a osatzen dute.

Gure kasuan editorialak inprimategietatik, liburudendetatik, aldizkarietatik sortu dira askotan, baina gehienetan kultur taldeetatik sortu dira, hala nola: *Lur, Gero, Iker, Kriselu, Erein* eta *Jakin*.

Zentsurak eragin handia izan du editorialen bilakabidean, eta ez liburuetan agertzen diren gaien aldetik bakarrik. Talde-jokabideen eta lana egiteko eren aldetik ere bai.

Euskal editorial guztiek jasan behar izan dute inoiz debekuren bat.

Zentsurak zuzen-zuzenean jo ditu euskal liburua eta Euskal herriko editorialak; legeak egilea bakarrik ez baitu zigortu. Argitaldaria ere kastingatu du, eta horrek zentsurarik txarrena sorrarazi du: bakoitzak bere buruari, maila guztietan, ezartzen diona.

Euskal editorialen gaztetasuna ere azpimarratu behar da: gerraurreko editorialik ez da geratzen eta gehienak oso berriak dira. Erdiak baino gehiago 1968z gerotzikoak dira. Ez dago, beraz, zalantzarik: euskal kulturaren sendotze eta finkatzearen aurrean aurkitzen gara.

Erditorialen hau dugu ondoriorik argienetako bat.

## **Euskal editorialak eta liburuen produkzioa**

Editorialen kulturgintz lanaren iragarle on bat liburu-produkzioa da. Gerra bukatu zenetik 1940ra bitartean lau eta 1960ra bitartean 25 liburu argitaratu baziren, 1975era bitartean argitaratutakoak 554 izan ziren.

Tiradei dagokienez, hona zifrarik ohizkoenak:

Sakel-liburuetan: 1.200-1.500 (*Jakin* eta *Gero*), 800-1.000 (*Kriselu*), 500 inguru (*Kardaberaz*). Haurrentzako eta gazteentzako liburuetan 3.000 inguru.

Euskara ikasteko metodoek marka guztiak gainditzen dituzte. Cin-sak "Euskal motodoa"-ren 6.000 aleko edizio bat egina du. *Jakin*-ek "Euskara batua zertan den" en 3.000na aleko 3 edizio.

Euskalduntzen-Alfabetatzen-ek edizio asko egin ditu eta guztira 50.000 aletara iritsi da.

## **Euskal editorialak eta produkzio-aparatua**

Duen menpekotasun ekonomikoa ezagutzea interesatzen zaigu hemen.

Editorial batzu bankuren baten kreditu bidez bizi dira, edo eta erakunderen bati lotuta.

Gutxi dira benetako autonomia dutenak.

Gaur-gaurkoz euskal liburuak merkatu bat ez duelako gertatzen da hori.

Editorial batek dituen lau funtzioak betetzeko (hots: liburuen sorkuntza, marketinga, produkzioa eta salmenta) espezializazio egoki bat falta da.

Errealitate honi soluziobide bat bilatu behar zaio.

Euskal editorialak izpiritu handi bat du baina gorputz txikia.

Horren estruktura txikia baitu, ez du espezializazio bat lortzerik. Ezin du lan-mota bakoitza egiteko espezialista liberatu bat izan. Baina, bestetik, nola izango du pertsonal gehiago bere estruktura ekonomikoak ez badu ametziten? Sorgin-gurpil hau haustea lortzen ez duen bitartean beste zerbaiti esker bizi beharko du; elkarte edo erakunderen baten babesari editorialgintzaren inguruko lanetan ihardunez dela, inprimategi edo salmenta-lanetan, orduz kanpo lanegiteari esker, etab.

Euskal editoriala ez da "enpresa editorial" izatera iritsi; "artesau erako editorial" mailan geratu da. "Lan handia, jende gutxi eta irabazi txikia" gurpilean sartuta dabil.

Garbi dago, beraz, kanpotik laguntzarik ez bazaio etortzen, euskal kulturak ez duela, euskararen instituzionaltzeak bakarrik ekar liezaiokeen aurrerabidea lortzen ez duen bitartean behintzat, bere kultur funtzio inportantea betetzen segitzerik izango.

Euskara bete-betean irakaskuntzan sartzen denean eta Euskalduntze-Alfabetatze mugimendua heldutasun batetara iristen denean irakurlegoa asko zabalduko da eta orduan gauzak beste era betetakoak izango dira; baina bitartean subentzioetara jo beharko da.

Horixe da orain arteko irtenbide normala euskal edizioarentzat.

## **Euskal editorialak eta merkatua**

Euskal herrian liburuaren merkatua, bai euskaraz eta bai erdaraz, Gipuzkoan eta Bizkaian dago. Euskaraz argitaratzen denari dagokionez, bi herrialde hauek produkzioaren ia 90 % xurgatzen dute. Bien artean Gipuzkoa doa aurretik diferentzia koxkor batekin.

Eta salmenta-teknikei buruz, zer esan?

Mundu osoan, eta batez ere mundu kapitalista aurreratuan, biderik erabiliena liburudenda da.

Munduan saltzen diren liburuetarik 3/4 liburudendetan saltzen dira. Euskal liburua ere bide horri jarraitu behar zaio eta noizbehinka horrelaxe izaten da; baina gehienetan, liburudendak inoiz erabiltzen badira ere, harpidez saltzen dira liburuak.

Harpide-sistema hau krisian dago orain.

Batetik, editorialak sortu ahala aukera handiagotu egin da. Euskal liburua prestigio soziala izaten hasi denean eta dendetako erakustokietan daudenen ia heren bat izatera iristen ari denean, oso garestia gertatzen da argitaletxe denetako harpidedun izatea. Harpidezko salmenta-sistema inbutu baten antzeko zerbait da: erosle berberei ez dakieke produkzio osoa irents arazi.

Horregatik, liburua liburudendetatik gehiago pasatzen hasi da. Mese-de bat egin dio horrek: orain dela urte batzu baino txukunago azaltzen zaigu.

## **Euskal editorialak eta kultur politika**

1968-69 urteetan sortutako bide berria kultur mugimenduaren finkatze baten textuinguruaren barnean ulertu behar da.

Garai hartan planteamendurik taxuzkoena Rikardo Arregi zenak egin zuen.

Arregik folklorezalekeria, konformismoa, abertzaletasun merkea, kalitate eskasa eta literatura gaztea baztertzea egozten zien euskal editorialei. Haren iritziz ez zegoen kreazio-politika bat argitaletxe haietan: pasibotasuna, konformismoa eta gazteenganko errezeloa ziren nagusi eta, salmenta-politikaren aldetik, merkatua betikoa zen eta aitzakia politiko bezala abertzaletasuna erabiltzen zen. Soluzio bezala hauxe proposatzen zuen:

Zenbait idazle bildu, euskal editorialen linea kulturala hautsi eta, hemendik abiatuta, liburuaren planteamendu orokor bat eginez, hiru bide hauetatik joatea:

- 1) Kultur zabalkunderako oinarrizko liburuak.
- 2) Itzulpenak eta saiakera laburrak.
- 3) Sorkuntza literariozko obrak.

Hauek izan ziren berriztapenaren idea gidariak.

Editorial sortuberriek idazleak beren inguruan bildu nahi dituzte elkarlanean, ekitoriala ez dadin liburuak argitartzeko bide izate hutsean gera, lan tekniko hutsean. Kultur sortzaile eta eragile ere izan nahi lukete. Honela bakarrik osatuko dute liburuaren ziklo osoa: pentsatzea, programatzea, enkargatzea eta banatzea.

Editorial hauek sakelerako liburuekin irteten dira kalera. Gai berriez ari diren liburu batzurekin; gai sozialak, hizkera bizi batetan idatzia, gaiari bide berriak zabaltzen dizkietenak.



Beranduago, 1973 inguruan, editorial hauek urrats berri bat eman-  
go dute: espezializazioarena.

Editorialak idazleei lotuta daude, bada. Eta hauen artean zenbai-  
tzuk euskara erabiltzen dute; eta beste batzuek, berriz, ez. Erdara hu-  
tsean argitaratzen duenak, euskal gai ez interesatzen diren eta euskaraz  
ez dakitenetan oinarritzen dira. Elebitasunaren aldera jotzen dutenek  
"errealismoa" dela ta egiten dute, Euskal herriko irakurleak bi mintzairak  
erabiltzen dituelako, edo "edukazioagatik"; hots, guztiengana iristeko.

Bi arrazoiok beti elkarrekin doaz.

Euskara hutsean argitaratzen dutenean arrazoiak beste horiengan-  
dik oso desberdinak dira eta kulturari berari lotuta daude. Hitz gutxitan  
laburtzeko, honela esango genuke: Euskal kulturarik ez daitekeela egin  
euskararik gabe. Baieztapen bat eta aukera bat da, beraz.

Euskara hautatu dutenek, kultur arrazoiak izan dituzte gogoan:  
Nahiago dute kultur tresna bezala erabiltzea aztergai bezala baino. Kul-  
tura modernoari dagozkion gaiak Euskal herrian euskaraz eman behar  
direla pentsatzen dute.

Bi bideok dira beharrezko, eta bi lan-mota hauek.

Euskal editorialek biderik gaitzena hautatu dute merkatalgo aldetik,  
baina euskal kulturaren etorkizunarentzat baharrezkoagoa seguru asko.

## **Euskara batua ala ez, eta itzulpenak**

Euskaraz argitaratzen duten ia guztiek euskara *batuan* argitaratzen  
dute.

Gutxi batzuek egiten dute beren euskalkian, batez ere gipuzkeraz.  
Zein euskara-mota erabiltzeari buruzko eztabaida asko baretu da azken  
aldi honetan.

Mintzairaren arazoen artean itzulpenena azaltzen da.

Argitaletxe guztiak itzulpenen aldekoak badira ere, ez dago garbi  
definitutako politika bat.

Haurrentzako liburuak dira gehienik euskaratzen direnak. Gerraon-  
doan liburu klasikoak itzultzeko joera handiagoa zegoen.

70. urteen inguruan gaiak berritzen dira Camus, Russell, Kafka,  
Huxley eta Marx bezalako autoreak itzuliz.

Ondorio bezala hauxe atara daiteke:

Editorialen eritzitari jarraituz, kultur politika bati oinarri sendoak  
ipintzeko, eragozpen ekonomikoak gainditzeko soluziobideak bilatu behar  
dira.

Eragozpen ekonomiko horien iturburua, gehien ustez, irakurle-  
goaren urritasunean datza. Beste batzuren ustez, aldiz, oztopoak prentsa-  
legeak sortzen ditu; baina ez lege honek duen eraginagatik bakarrik,  
legislazio orokor inposatu baten adierazpen den aldetik batez ere baizik.

## ALDIZKARIAK

Has gaitezen historia apur bat eginez.

Joan zen mendearen bukaeran, eta Euskal herriaren susperraldi politikoarekin batera, aldizkariak sortzen hasten dira eta XX. mendean joera hau bizkortu egiten da, 1920-30 tartean bere gailurra iritsiz.

Euskal aldizkarien Urre-aroa da hau.

Gerraondoan, aldizkariak beren problemak izan dituzte: 36ko gerrak, hain fruitu ugariak emanak zituen arbola erauzi ziren errotik. Baina, halaz ere, ez zen ihartu eta aldizkariok lanean jarraitu zuten herbesteetan. Ia aldizkari hauek guztiak elebidunak ziren, erdara gehiago erabiltzen bazuten ere.

Esana dugu Euzko-Gogoia sortu zen urtea, 1950a, euskal argitalpenen aro berri baten hasiera izan zela.

### Aldizkari zientifikoak

Sail honetan ipini dute bere burua *Elhuyar*-ek, *Euskerak*, *Bulletin du Musée Basque*-k eta *Fontes Linguas Vasconumek*. Sail horretantxe sar daitezke *Gure Herria* eta *Boletin de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* ere.

Hitz gutxitan, hona zer esan daitekeen aldizkari hauei buruz:

1. Zaharrenak dira eta problemarik gutxiena izan dutenak, politikoek ez baitiete bildurrik izan. Horrela irauin ahal izan dute frankismoaren garaian: irakurle espezializatu gutxi batzurekin.
2. Ia beti erakunde edo elkarte baten babesean lan egiten dute edo ta haren organoak dira.
3. Zenbaitzu salbu, garrantzi handirik ez diote ematen mintzairari; gehienetan gaztelania edo frantsesa dute nagusi.

### Aldizkari literarioak

Aldizkari literariotzat *Egan* eta *Olerti* har daitezke zaharren artean eta *Kurpil* eta *Ustela* berriagoen artean.

Aldizkari literarioak indargetu egin dira. Gehienetan, gai bereziki literarioak kultur burrukaren bide berriei lekua uzten die. *Olerti* hila da, *Egan* ez da ia argitaratu ere egiten; *Kurpil* eta *Ustela* geratzen dira, biak hasiberriak.

Literaturaren krisia benetakoa da Euskal kulturaren baitan; euskararen funtzionaltasunaren bila joanaz, literaturari kalte egin zaio.

Aldizkari literario interesgarri bat falta da. Inor ez da animatzen lehengoak berpiztera, eta idazle batzuek bildu beharko dute aurrera aterako bada.

Inguruko kulturetan ere ez daude oso hedatuak era honetako aldizkariak.

### **Erlijiozko aldizkariak**

Erlijiozko aldizkarien artean batzu informatiboak dira, beste batzu Apezpikategietatik sortzen dira eta, azkenik, badira kultura erlijiosozkoak eta teologiazkoak.

Euskadi osoan zabaltzen denik ez dago. Horrelako aldizkari bat egiteko asmoa izan da, Euskal Herriko *Vida Nueva*-ren antzeko zerbait, baina asmo hori ez da hezurramitu.

Orain dauden artean, *Othoizlari* eta *Jaunaren Deia* dira euskaraz lanik sendoena egiten ari direnak, batez ere bigarrena. Biak beneditarrek argitaratzen dituzte.

*Jaunaren Deia*-k oso bilakabide interesgarria izan du, euskal teologia baten premia ikusirik eta Euskal herriko teologo guztientzat irekia izateko asmoz, Idazlaritza-kontseilua apaizez eta erlijiosoz osatua du.

### **Kultur aldizkariak**

Sail honetan aldizkari hauek sartuko ditugu: *Gaiak*, nahiz eta zientzi gaiak ere izaten dituen; *Zabal* eta *Zehatz*, batez ere politikaz eta gai sozialez; *Jakin*, bere burua kultur aldizkari bezala difinitzen duela; eta *Karmel*, erlijio eta kultur gaiez.

Aldizkari-mota honetan mintzairak garrantzi handia du. *Zabal*-ek, *Jakin*-ek eta *Zehatz*-ek euskara batua bakarrik onartzen dute; *Karmel*-ek eta *Gaiak*-ek idazleei hautapena egiten uzten diete.

Aldizkariok guztiok sortuberriak dira. Oraindik ez dira gorpuztu eta finkatu.

Etorkizunak erakutsiko du zertarako diren gai.

### **Kazetaritza**

Euskalduna, 1887an Baionan sortua, izan da Euskal herrian ezagutu den lehena. Jean Hiriart-Urruty, "euskal kazetarien aitona" deitua izan dena, izan zen bere lehen zuzendaria.

Argitalpen-mota hau asko indartu zen geroztik, Azkue, Arana-Goiri eta beste batzuren eraginez, euskal susperraldiaren lehen partean. Bere

garairik oparoena 1936go gerra aurretik izan zuen, egunkari eta astekari askorekin. Gerraondoak isiltasun osoa ekarri zion euskal prentsari.

Dena lotua eta ongi lotua zegoen, kontrolatua eta fiskaldua.

Euskal kazetaritzaren historia egiteke dagoen arren, garbi dago, beste lekutan ere gertatuko den bezalaxe noski, egoera politikoaren gorabeheren menpean dagoela.

1976 urtea euskal kazetaritzarena izan zen.

Urte horren hasieran, hain zuzen, aldakuntza kualitatibo bat nabari da *Zeruko Argia*-n eta *Anaitasuna*-n (*Goiz Argi*-k lehentxeago egin zuen bere aldakuntza newsmagazine tankerara). Urte horretantxe, baina beranduxeago, aldizkari elebidun hauek sortzen dira: *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Garaia* eta *Berriak*.

2 Egunkariei dagokienez:

Lan hau irakurlearengana iristen denerako informazioaren mundua dezente aldatua izango da Euskal herrian. Beste arrazoi batzuren artean, Deia eta Egin egunkariak kalean izango direlako.

Fenomeno berri interesgarri baten aurrean gaude. Ezinbestekoa dirudi luzaro baino lehen gure Herriko informazioaren monopolioa izan dutenen aparatua likidatu egingo dela.

Bi egunkari abertzale hauek azaltzearekin, posizioak asko aldatuko dira.

Izan ere, prentsaren egoera tamalgarria izan baita gure artean: gerra aurretik baino aldizkari gutxiago izan dira eta izan diren guztiak errejimenaren zerbitzuan egon dira kritikari lekurik txikiena ere eskaini gabe.

Hona hemen koadroa:

Bizkaian hiru: bi goizeko, *La Gaceta del Norte* eta *El Correo Español*; eta arratsaldeko bat, *Hierro*. Gipuzkoan beste hiru: goizeko bi, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España*; eta arratsaldeko bat, *Unidad*. Nafarroan, *Arriba España* desagertu ondoren, bi geratzen dira: *El Pensamiento Navarro* eta *Diario de Navarra*. Araban egunkari bakarra dago, *Norte-Express* eta oso gutxi saltzen da. Gehiago saltzen dira Gipuzkoatik eta Bizkaitik iristen direnak.

Deia eta Egin egunkari berriak azaltzeak guztientzat izango ditu ondorioak, monopolioa puskatzen hasten baita horrekin.

## EUSKARA IRRATIAN ETA DISKOGINTZAN

Hemen ere baldintzei eta historialdiei buruz zerbait esan beharra dago, batipat gerraondoari dagokionez.

1947an hasi ziren euskal irratsaioak Radio San Sebastian-en bidez, "Charlas con nuestros baserritarras" zeritzan programarekin. Diputazioak babesten zuen programa hau eta, Jose de Artetxe idazlea tartean

zelarik, taldetxo batek eratzen zuen. Orduandantik 1976ko Martxoaren 27an "24 orduak euskaraz" antolatatu zen arte, egoera asko aldatu da.

Ez gaude jadanik 1947ko egoeran, Diputazioak baserriarrentzat astero irratsaio labur bat eskaintzen zueneko garaian. Gaur entzulego euskaldunak eskatzen die irratiei euskara erabili dezaten. Batzuek gehiago eta besteak gutxiago, badituzte euskarazko programak eta bihar entzulegoak exijitu egingo ditu. Euskara erabiltzen den eskualdeetan, behintzat, gutxi edo gehiago erabili beharko dute euskara. Bestela esateko, irrati bakoitzaren inguruan euskal kulturak duen aurrerapenak baldintzatuko du komunikabide horretan euskarak izango duen erabilera.

Beste hainbeste esan daiteke diskogintzaren arloaz ere.

Azken urteotan izan den bilakabide bizkorra jendeak egiten duen eskearen adierazpen bat da, eta ez euskaldun jendeak bakarrik. Hau noski seinale ona da erdaldunen euskalduntzeari begira.

## EUSKARA IRRATIAN

Euskarak irrastian izan duen bilakabide historikoa ikusirik, azter dezagun zein mailatan aurkitzen den bere erabilera gaur:

### 1. fasea: Folklore eta baserriar-maila.

Mezek, bertsolari-saioek, baserriarrentzako programek, animaliak galdu edo aurkitu zirela adierazten zuten oharrek, musika folklorikoak, errosarioek, eskelak eta disko eskainiek osatzen zuten 60 urtetako irrati lokal haien programa. Hasiera bat zen.

Arrate, Segura eta piska bat beranduxeago Tolosoka parroki irratiak ziren Gipuzkoan. Arrasateko Eskola Profesionalean ere sortu zen herrira bakarrik mugatzen zen irrati txiki bat.

60tik aurrera Loiolakoa, Donostiakoa eta Bilbokoa etorri ziren (euskarari leku bat ematen diotenak aipatzeko). Hirurak Elizarenak dira. Iruñeak bazuen Elizaren irrati bat, 1959az geroztik.

1964ean, irrati-hizkuntzaren kezka eta gai berriak sartzearen heldutasun bat lortzen ari zirenean, Fraga Iribarnek itxi egin zituen irratiok Informazio eta Turismo Ministerioetatik, maiztasunen saturazioa atxakia bezala hartuta. Probintzia bakoitzari hiru irrati bakarrik utzi zizkion.

Bereizkeria honek euskaraz gehien programatzen zuten irratiak ukitu zituen.

Ordurako beste irrati batzuek ere euskarazko programak ematen hasiak ziren, hala nola Donostiakoak; Angelusa, Errosarioa, Meza eta La Voz de Guipuzcoa-ren baserriarrentzako programak besterik ez baziren ere.

Gainera, Maiztasun Modulatuaren lege berria sortu zen bazkide-entzulezko kopuru bat izan zezaketenentzat.

Loiolak eman zuen lehenengo pausoa (1966) lege honetaz probetxatzeko, eta gero Tuterak. Segurak ere lortu zuen bere baimena mesede pertsonalen bati esker.

Gaur egun ere, La Voz de Guipuzcoa-k lehen fase honetako programak ematen ditu.

Lehenengo eskakizun minimo haren mailan geratu da.

## **2. Fasea: Maila diglosikoa gai eta medio mugatuekin.**

Bigarren fase honi dagokionez, Loiolako Herri Irratiaren hamar urtetako historiak adierazten dizkigu ongien euskarak irratiaren dituen posibilitateak.

Euskarak komunikabide honetan gaztelaniaren mailan ipintzeko gainditu behar dituen eragozpenen historia da.

Bigarren fase honetan, euskara baserri-girotik atera eta Euskal herriak bizi zuen industri girora moldatzen saiatu izan dira.

Horretarako medio tekniko gehiago behar ziren, bai profesionalen aldetik, eta bai ekipamendu aldetik ere.

Profesionalen aldetik: hizketako egokitasuna, abotsa eta kultur pres-takuntza. Hitz batetan, euskarazko Kazetaritza-eskola batek eman behar duen gutzia.

Bigarren fase honetan euskarari tratamendu duin bat ematen zaio; hartzuloetatik irteten da, baina oraindik ere lokutoreek ongi ezagutzen duten gaztelaniaren azpitik dago. Publizitatea oraindik gaztelaniaz egiten da; orobat jendetza handiak erakartzen dituzten programa musikalak, kirol-programak eta informazio-programak.

## **3. Fasea: Elebitasunaren maila, gaitan eta forman euskarari gaztelaniaren maila berbera emanaz**

Urte askotan zehar Euskal herriko irratiak gaztelaniaz ari izan badira, euskaraz ezin egin zelako izan da. Debeku nagusiak gainditu ondoren, hirugarren fase honetan badira beren programak euskaraz behar bezala egiteko medio modernoak dituzten irratiak; profesionalak ongi prestatuak daude teknika nahiz hizkuntz aldetik, eta entzulego bat ere bada.

Haatik, hau ez da aski.

Ez da nahikoa euskaraz mintzatzea (1. fasea), ez eta euskaraz ongi egitea ere (2. fasea). Irrati-hizkuntza menperatu behar da, gainera, eta edozein gai edo programa lantzeko gai izan behar da.

Horrela, euskarak programazioaren 20, 40 edo 60 % osatzeko, beste edozein mintzairak izaten dituen oztopo normalak izango lituzke: entzulegoa, enpresaren gogoia eta posibilitate ekonomikoak, baina inolako oztoporik ez programaren eta profesionalen aldetik.

Euskararen gaitasun honen adierazpen bat 1976-ko Martxoaren 27an egindako "24 orduak euskaraz" programa izan zen.

“24 orduak euskaraz”, lehen egindako lan guztiaren ondorioa eta helburua izan ziren.

Parte hartu zuten irratiak (Donostia, Loiola eta Bilboko Herri Irratiak) dira fase honetara iritsi direnak eta hirurak has daitezke komunikabidea hobetzen eta entzulegoa handitzen.

## **Euskararen erabilpenaren balorazioa**

Hiru faseen eskemarekin jarraituz, euskarak izan duen lekua, utzi dioten eta izan zezakeen entzulegoak mugatu duela esan daiteke.

1. Faseko irratiak: Parroki irratien kasua zen. Euskara zenbait gaitarako izaten zen: baserria, bertsolariak, herri-kirolak.

Entzulego hiritar-industrialak baztertuta geratzen zen, giro horretan eragin politiko zeharo debekatu bat izan zezakeelako.

Jakina, horrek euskara baserriarekin indenifikatzeko arriskua zerman berekin; hori oso kaltegarria zen euskararentzat eta Administrazio zentralistaren alde zegoen.

Alfabetatzeari ere ez zitzaion garrantzirik ematen eta horrela komunikazioa mugatuta geratzen zen, aurrerapena galerazten zuelarik.

Status jakin bat mantentzea besterik ez zuen egiten.

2. Faseko irratiak: Loiolako Irratiak era honetan lanegin zuen hamar urtetan. Garai honetan irratiek giro hiritar-industrialak haintzaketzat hartzen hasten dira eta beren bilakabidean idazlaritzaren eta lokutoreen problema azaltzen zaie eta bide batez euskararen batasunarena eta entzulegoaren alfabetatzearena.

3. Faseko irratiak: Entzule euskaldunak 1. fasetik 2.era pasatzen dira eta 3. fasean aurrera doaz. Oso-osorik ez bada ere, Loiola iristen deneko entzulego euskaldunak irrati hau entzuten du.

Loiolako Irratiak duen entzulegoaren ezterketa batek adierazten duenez, entzumen handieneko momentuetan 300.000 entzule baino gehiago izaten ditu.

Gutxiago bada ere, 2.zatian ikusi dugun bezala, beste irrati batzu ere entzuten dira.

Baina entzumen hau bide onetik joaten has dadin ezinbestekoa da oraingo statusa gainditzea, lau irratietatik batek bakarrik (Euskal herrian dauden 17etatik 4k) sartzen baitu euskara dezente bere programetan.

## Euskararen erabilpena

Euskal herrian diren 17 irratietatik *ez dute deus ere egiten euskaraz:*

Radio Nacional de Bilbao .....	R.T.V.E.
Radio Nacional de San Sebastián .....	R.T.V.E.
Radio Tudela .....	CES
La Voz de Navarra .....	REM-CAR
La Voz de Alava .....	REM-CAR
Radio Juventud de Bilbao.....	REM-CAR

## Euskara piska bat sartzen dute:

Radio Juventud de Eibar .....	REM-CAR
Radio Popular de Pamplona.....	COPE
Radio Bilbao .....	SER

## Zerbait sartzen dute baina gutxi (15-30 minutu eguneko)

La Voz de Guipúzcoa .....	REM-CAR
Radio San Sebastián .....	SER
Radio Vitoria .....	SER
Radio Requeté de Pamplona .....	SER

## Gehiago sartzen dute (egun osoan):

Radio Segura .....	Independentea
Bilboko Herri Irratia .....	COPE
Loiolako Herri Irratia.....	COPE
Donostiako Herri Irratia .....	COPE

## Etorkizunari begira

Duela zenbait urte, 17 irrati hauetatik gehienetan ez zen planteatu ere egiten euskararen beharra. Gaur hamar dira jadanik zerbait egin dutenak.

Nola hala gaia mahai gainean dago. Loiola eta Donostiako irratietatik Tuterakoraino diferentzia galanta dago baina txiki daitekeela dirudi.

Oraingoz, Radio Juventud de Bilbao ez beste guztiek euskaraz zerbait egiteko asmoa dute. Zenbat egin erabakitzea falta da eta asmo hori zenbateraino egia bihur daitekeen jakitea.



Irrati bakoitzak bere posizio berezia du euskarari buruz. Bakoitzak askatasuna izan beharko du nola egin erabakitzeko. Entzulegoak euskaraz zenbateraino dakien izan beharko da kontutan irizpide nagusi bezala, euskara promozionatzeko benetako gogoia eta, jakina, programazioa osatzeko benetako aukerabideak. Izan ere, bakoitzak izan duen esperientziak entzulegoaren tratamendua biziki baldintzatzen baitu.

Bada hor oraindik, gaindi daitekeen oztopoa izan orren, beste problema inportante bat.

Galdetu zaien zuzendari guztiek berdin erantzun dute: euskara sartzek suposatzen duen problema ekonomikoa konpon daitekeela, baina lokutore espezialduen falta dagoela.

Batzutan hau atxakia bat da

Benetan zera gertatzen da, irrati askotan ez zaiola behar hainbateko inportantzia ematen euskarari; adibidez, pertsonal berria hartzean ez da euskararen ezagumendu egoki bat eskatzen. Euskal herrian lanean ari diren 17 irratieta euskaraz programaren bat sar dadin lortzea, besterik gabe ere, *helburu interesgarri bat izango litzateke epe laburrera* begira.

Euskal herriko lau eskualdeetan euskarak leku duin bat izatea erraza dirudi, eta inportantea izango litzateke.

Euskarazko kurtso bat, bi edo hiru mailatan banatua, eta programa kultural bat, biak Irratirako ondo egokituak, irrati guztiek onartuko litzukete eta horiei babes ematea ez litzateke oso garesti aterako.

Araba eta Nafarroako irratiak onartuko lukete soluzio hau eta beste hainbeste egingo lukete Bizkaikoek eta Gipuzkoakoek, aurrerago jo nahi baitute.

Copekoak, lehen esan dugun legez, bi eskualdeotan bideak irekitzen ari zaizkio mintzairari. Zorionez.

Euskarak irratiaren *benetako aurrerapen bat* izan dezan, eta beraz euskara Euskadin heda dadin, irrati guztietan gero eta programa luzeagoak eta hobeak lortzean datza. Eskakizun hau entzulegoarengandik edo ta Administrazioaren aldetik etor daiteke. Lehenengoa ez da erraza izango oraingoz; bigarrena elebitasunari buruzko legislaziotik etor liteke.

Bide honetatik bakarrik eraman daiteke behar bezala euskara irratiara, orduan bakarrik formatu ahal izango baitira profesionalak eta finantziatu programak.

## DISKOGINTZA ETA EUSKARA

Gizarte modernoak ekarri dizkigun komunikabide berrien artean *diskoa* dugu.

Hemen ez dugu izango gogoan "euskal" diskoen produkzio osoa. Gerraondokoa eta, batez ere, azken hogeitakoa aztertuko dugu.

Gure informazio-iturriak Donostia, Iruñea eta Loiolako Herri Irratiek urteetan zehar gai honetaz egin duten lanetan eta Ipar Euskadiko Zabal Liburutegiak argitaratutako euskal diskoen zerrenda batetan oinarritu ditugu.

Nola defini genezake "euskal diskoa"?

Beste komunikabideetan bezala, euskararen erabilpena izango dugu horretarako gogoan.

Bestetik, diskogintza bi arlotan banatu dugu: *L.P.* diskoa eta *Singlea*. Honelako bakoitzean beste bi sail bereziko ditugu: hitza dutenak eta musika hutsezkoak.

### **Singleen diskogintzari dagokionez:**

Azterketa honetan euskarazko hitza duten diskoak bakarrik hartu ditugu.

Gerraondoko diskogintza 50.urteetako bigarren erdialdean hasi zen. Guk zentsatu dugun lehen diskoa 1957koa da. Egiten hasi ziren ia disko guztiak single erakoak ziren.

60.urteetako lehen erdialdean hasi zen hazten eta, euskal diskogintzaren muga izugarrien barnean, generorik ugarienak hauek izan dira ordenaturik: kantari bakar modernoak, koruak, folkloristak eta talde modernoak.

Kanta berria nagusi izan dela esan nahi du honek. Kanta berriaren fenomenoak 1965-69 urtebitartea arte ez da jendearengana gehiegi iristen, baina indar handia izan du eta beste generoak baztertu egin ditu. Ez bertsolaritzak ez haurrentzako ipuinak ez dute produkzio-mota honetan leku handirik izan. Eta euskalduntzearen fenomenoaren aldetik: 60 urteak baino lehen 50 %era ez bazen iristen eta 1960-64 bitartean erdia baino gehixeago bazen, ia osoa izatera heldu da.

Halaz ere, 1970az geroztik asko gutxitu da.

Badirudi *L.P.*ak nagusituko direla eta ez euskal diskogintzan bakarrik, hau fenomeno orokor bat baita.

### **L.P.en diskogintza**

Produkzio-mota hau 60.urteen bigarren erdialdean hasi zen indar-tzen. Garai honetan arlo berriak lantzen hasten dira, batez ere kanta berriarena.

Hiru berrikuntza aipatu behar dira *L.P.*-en diskogintza-munduan: disko nahasiak eta Herri-Gogoak Edigsa etxearen "Akelarre" eta "Folklore" sortak. Herri-Gogoak urte gutxitako historia laburra du.

1968an sortu zen elkarte herrikoi baten asmo bezala: Talde eragilea desagertu zenean asmoa ere galdu egin zen. Beranduago, 1970ean Barcelonako Edigsa etxearekin antolamendu-harremanak sortu ziren, etxe hau disketxe bati dagozkion eginkizun ofizialez arduratzen zelarik, eta Herri-Gogoa euskal diskogintzaren barneko arlo desberdinek behar zuten egitura egokia sortzeaz.

Funtsean dagoen problema hauxe da: zer posibilitate ote dituen euskal arlora mugatzen den etxe batek.

Musika-genero desberdinak dituen *disco nahasia*, hots, korukantaren bat, akordeoi-piezaren bat, trikitixa piska bat eta/edo kanta folkloriko bat dituen diskoa publiko-mota desberdinetara batera iristeko modu bat da. Horrek lana errazten die disketxeei: ez dute L.P. oso bat sortuko duenaren zai egon beharrik eta artistari ere ez zaio L.P. oso bat grabatzea eskatzen, pieza bat edo beste baizik.

Musika-sortak, berriz, euskal musikaren munduan forma berriak promozionatzeko planteatzen dira eta herri-tradiziozko aberastasun musikala biltzeko eta birlantzeko.

Genero desberdinetako diskogintzaren bilakabidea oso desberdina izan da. Bilakabide hitza erabiltzea gehiegikeria bat izan daiteke, *Koruen* fenomeno eta Kanta berriarena salbu. Koruak dira gerraondoko L.P.-en bidez euskal diskogintzari ekin ziotenak eta 1966arte genero bakar bezala, gainera. Orduantxe hasi ziren beste batzu, batez ere folkloristak. Geroztik mantendu egin zen, 70.urteen erdialdera arte. Garai honetan aurrerapen handi bat izan zuen, eta zortzikoteekin batera produkzio osoaren 42 % a osatzen zuen.

Ez dirudi azken urteotan ahultzen ari direnik.

Kanta berria 1968an azaltzen da L.P.-en diskogintzan kantari bakarrekin eta gora doa orduandanik Koruen fenomenoaren antzerako indarrez.

Generoaren euskalduntze aldetik asko aurreratu da: 1965-69 urtebitartean heren bat baino gehixeago baitziren, eta 1975-76an ia 92 %.

## ONDORIO GISA

Euskarari egindako ikus-azterketa zabalaren emaitzak agertu ditugu honaino.

Beharrezkoa zen sakoneko azterketa hau.

Ezin jarraitu genuen denbora gehiagoz gure hizkuntzaren egiazko egoera ezagutu gabe, norbanakoen hurbilketa zehazkabe horien menpe, aukerabide ideologikoak estaltzeko baizik balio ez duen joku itxuan.

Errealitatea era objektiboan aztertu beharra zegoen, beraz.

Labur-bilduma honetan, dibulgazio asmoari eutsiz, ahalik gehienez alde batera utzi nahi izan ditugu teknizismoak, baina beti ere, plateamentatik beretik erabilitako metodoetaraino, zientzi bideari eutsi zaio.

## GAUR EGUNEKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Azterketa honek, mediku-hizkeran esateko, diagnostikoraino iristeko aukera eman digu.

Hemen, batez ere, aldi berean eragiten ari den atzerapen, kontserbazio eta berreskuratzeko prozesu hirukoitza ageri da.

### Atzerapen-prozesua

Euskararen atzerapena edo galera bere ordezkapenez burutu da: lehen aldi batean erromantzeen bidez Euskal herriaren Hegoan eta Mendebalean, eta gero gaztelania-frantsesen eskutik.

Espainia eta Frantziako hizkuntza ofizialek euskararen ondoan duten indarra hain nabaria izanik, gauzak ezin gertatu gertatu diren bezala baizik.

Izan ere, hizkuntza bi horiek Espainia eta Frantziako botere politiko, ekonomiko eta kulturalaren babes ofiziala beren alde izan duten eta duten artean, euskara inolako laguntzarik gabe aurkitu da (baita Euskal herriak nolabaiteko gobernabide politiko eta ekonomiko propioak izan dituenean ere).

Horrek, noski, errudun bakarrak besteak ez direla aitortzea eskatzeko du.

Erromantze-hizkuntzen artean gordetako hizkuntzaren egoera korapilotsu honek ez du aukerarik eman zenbait teoriak onuragarritzat daukaten elebitasun orekatu hori burutu ahal izateko. Gertatu dena, aitzitik, hizkuntza baten besteazko ordezkapen hutsa izan da.

Atzerapen-prozesu honetan kontutan hartzekoa da, orobat, menpekotasun sozio-ekonomiko eta kulturalako egoera honen ondorioz hiriguneetan eta, neurri apalagoan bada ere, gainontzeko eskualdeetan gertatu den higadura naturala, bakoitzaren abiaguneko baldintza desberdinei beste pribilegio aldebakarrekoak erantsi behar bait zaizkio; maila guztietako irakaskuntza, komunikabide ikus-entzun-idatzizkoak (prentsa, irratia eta telebista), eta azkenik Administrazioa eta Zerbitzu publikoak.

Horrela, gerroz eta famili giro eta lagunartera murriztuago, euskara ahultze-prozesu etengabe batean barrena joan da, bizi dugun diglosi giro honetara iritsi arte.

### **Kontserbazio-prozesua**

Nahiz eta hizkuntz higadurazko giro honetan bizi, dagoen egoera larrian dagoela ere, euskarak orain artean eutsi dio buruari eta etsaiek iragarritako suntsidura osotik aldegin du.

Horretarako izan duen oinarrizko sostengua famili bidezko transmisioa izan da.

Ondorio hau izan da, hain zuzen, azterketak erakutsi duenatariko bat: euskararen kontserbazioa gurasoetarik seme-alabetarako transmisioari zor zaio, hori izan da belaunaldi gazteek euskara ikasteko eduki duten bide bakarra, berrikitan ikastolak eta gainerako euskaratze-bideak hedatu diren arte.

Gainontzeko ikasbide guztiak tinko itxiak egon dira, izan ere.

Honela, alfabetatze-bideak galeraziak izan direlarik, harritzekoa ere bada euskaldunen gehienengoak hizketarako gaitasun "nahikoa" izatea: ia erdiak dira irakurtzen dakitenak, eta 20 % inguru traba berezirik gabe idetzen dakitenak.

Duintasun baten seinale, bere pobrezan ere.

Meritagarria, bizirik iraun bait du berena ez zuten hizkuntzetan eskolatuak izan diren haur euskaldunengan: beren hizkuntzan analfabetu utzi dituzte, horretara, hizkuntza arrotza irents-arazten zitzaizen artean.

Koldo Mitxelena "Diglosiazko purgatorioa" izenaz bataiatu duen egoera hori xeheago adierazteko, esan dezagun euskaldunek famili girotik kanpora euskaraz hitzegiteko aurkitzen duten egoera zinez bereiztailea dela; izan ere, ofizialki onartua ez dagoenez, bere erabilera ezin eska daiteke inolako gune publiko edo pribatutan; eta aski da, adibidez, euskaldunen artera erdaldun bakar bat etortzea guztiak erdarara isurtzeko.

Egoera horietan zertu da euskararen kontserbazio-prozesua.

Benetan kontrakoa, etengabeko setialdia.

## **Berreskuratze-prozesua**

Euskararen hedadura handieneko garaitik, orain hogeita hamar mende, higidura eta galerazko prozesu luze baten buruan ezinbestean heriotza baizik ezin etor zekiokoela zirudienean, azken hamabost-hogei urte honetan berreskuratze-aldi berri bati ekin zaio, bakarra ez bada ere orain artekoetan sustraizkoena; bizi-nahiak bultzatu du hori.

Hainbateraninokoa izan da hori, non, Historian lehenengoz, berreskuratzea nolakoaz eta zenbatekoaz atzerapena eta galera baino garrantzitsuago bait da.

Euskaldunek sortu duten iraulketaren seinale garbia da guzti hau.

Berreskuratze honen marka nagusiak bi alor hauetan nabari dira bereziki: irakaskuntza eta komunikabideetan.

Garrantzi bizikoak biak, ikusi berria dugunez.

Irakaskuntzaren sailean, herri-sentikortasunak garbi ikusi du oraingo egoera diglosiko honetatik ateratzeko bide bakarra gure seme-alabak euskaraz eskolatzea dela. Burruka politiko honetan botatako izerdia eta ikastolak sortzeak eskatu duen karga ekonomikoa izugarria izan da. Horien bidez lortu da, lehenengo aldiz, hizketarako gaitasunari irakurri eta idazteko gaitasunak erastea. Hori batetik, euskararen irakaskuntzaz. Baina, bestetik, lehenengo pausoak ere ari dira ematen zientzia eta kulturaren ezaguera oinarritzkoa euskaraz eskuratzeko; hortik jarraituz, noski, posible izango dugu maila guztietarako irakaskuntza, unibertsitatekoa barne, euskaraz burutu ahal izatea.

Ikastoletan hainbat nekez erretutako mugimendu hau hasi da jadanik ikastetxe pribatuetara hedatzen; baita estataletara ere, neurri apalagoan izan arren.

Berreskuratzearen beste seinale bat zera dugu: gazteek eta helduek euskara ikasteko hasia duten ikasketa-langintza, Alfabetatze eta Euskalduntze kanpainen eskutik. Historian zehar euskaraz susperraldi bat baino gehiago izan bada ere, oraingo honen neurrikorik ez da itxuraz inoiz ezagutu.

Irakaskuntzaren alorrean, beraz, hainbat eta hainbat urtetan itxirik

izan dugun atea irekitzea lortu da euskal hizkuntza eta kulturarentzat. Antzeko zerbait gertatu da, neurri apalagoan bada ere, aho eta idatzizko komunikabideetan: liburugintzan, aldizkari euskaldunetan eta disko-gintzan hazkunde nabarmenak lortu dira azken urteotan. Beste aldetik, eta irrati gehienetan alboko gauza izan arren, ohargarria da irrati-sailean ere, kalitate eta kantitatez, euskarak hartu duen maila.

Ezin gauza berdinik esan telebistaz euskara gutziz baztertua bait dago handik.

Hau genuke, beraz, euskarak daukan gaitzaren diagnostikoa; erradiografiak garbi azaltzen ditu, bere argi-itzaletan, azterketaren emaitzak.

## **NORMALIZAZIO LINGUISTIKORANTZ**

Baina jakina, eta mediku-hizkeran jarraituz, diagnostikoa egin ondoan tratamenduari ekin behar zaio; hau da, euskara berreskuratzeko neurri egokiak hartu behar dira orain.

Helburuak, ezin bestean, bere normalizazioa izan behar du.

Normalizazio linguistikoak bi parte ditu: Lehenengoa, hizkuntzari berari dagokiona. Bigarrena, bere erabilerari dagokiona.

Batetik, normalizatzeak badakigu zer esan nahi duen: "normak ematea" ezin bestekoa den batasuna lortzeko arau batzuk taxutzea. Atal hau batez ere linguistikoa da; hizkuntzaren azterketaz arduratzen diren pertsona eta erakundeen egitekoa da bereziki: hizkuntzalariena eta, gure kasuan, Euskaltzaindiarena; horretarakoxe sortua izan bait zen, hain zuzen ere, beste ezertarako baino lehen, orain dela hirurogei urte.

Beste aldetik, *normalizazioa* esatean zera adierazi nahi da: hizkuntza kondizio normaletan jarri nai dela aho-idatzizko bere adierazpen-maila guztietan, eta heziketa-atal guztietan eskolaratua; beste era batera esanik, eta funtsezkoa labur bilduz: elkarrekin bizi diren hizkuntza guztiak berdintasuneko egoeran jarri behar dira.

Azken eskakizun honek esannahi sozio-politiko argia du noski.

Eta zeintzu dira sozio-politikazko bideok?

Aski izango da hizkuntzen lantze eta transmititze-bide normalak zeintzu diren azaltzea, haietatik Administrazio publikoari dagozkionak hautatzeko:

- 1) Gurasoetatik seme-alabetarako famili bidezko transmisioa.
- 2) Ikastetxeetako irakaskuntza: ikastolak, zentru ofizial eta pribatuak.
- 3) Alfabetatze eta Euskalduntze Mugimendua gazteen eta helduen artean.
- 4) Ahozko eta ikus-entzun-idatzizko komunikabideak.
- 5) Administrazio Publikoa eta Zerbitzu Publikoak.

## **1. Famili bidezko transmisioa**

Azterketa sozio-linguistikokoak agertu duenez, gurasoetatik seme-alabetarako transmisioa honela burutzen da: 87,8 %-an area euskalduneko familia euskaldunetan; 65 %-ean ukipen-areetan bizi direnetan, eta 50 %-ean hiriguneetan.

Famili bidezko indizeok hobetzea lortzen bada hurrengo urteotan, eta horrela banan bana 90 %, 70 % eta 65 %-ko mailak eskuratzen, benetan gertagarria dirudienaren arabera, euskaldunen kopurua nabarmenki gehi daiteke.

Hau da, euskararen normalizazio-bidean, ezin utzizko baldintzetako bat.

## **2. Ikastetxeetan euskararen eta euskarazko irakaskuntza**

Gaur egun ikastola guztietan burutzen da hori: 35.000 haur orain, eta ia 50.000 liburua 1979ko Urtarrilean prentsaratzean.

Ikastetxe pribatuetan, 200.000 haur hezitzen zen 1975ean. Euskararen irakaskuntza, eskasa izan arren, 40 % batera iristen zen; hau da, 80.000 inguru haurretara.

Ikastetxe estataletan, salbuespenak alde batera utziaz, euskararen irakaskuntzarik ez zen oraindik eratzten hasi 1975ean. Badirudi geroztik gauzak hobetzen ari direla, berdin estataletan nola pribatuetan; oraindik neurri ahulean izan arren, hasten ari bait dira euskara irakasten.

Baina noski, euskararen normalizazioa lortzeko ikastetxe guztietara eraman beharra dago, eta nahikoa izango den neurrian: euskararen irakaskuntzaz gainera, asignatura batzuk ere normalizatu nahi den hizkuntzan eman beharko dira. Guzti hau posible izan dadin ezinbestekoa da lehenbait lehen elebitasun-dekretu bat ematea, euskara irakaskuntz maila guztietan sartu ahal izateko.

## **3. Gazteen eta helduen arteko Euskaldunze eta Alfabetatze mugimendua**

Herriko hizkuntza berreskuratu nahi duten gazte eta helduen kopurua goratuz doa eta, horrela, 1975-76 ikasturtean 40.000 ingurutara iritsi da.

Mugimendu honek hurrengo urteetan izan dezan bilakaerak eta sail desberdin guztietarako hedatzeak (Zerbitzu-zentruak, Enpresak, Instituzio publikoak) esannahi handia izango du normalizazioak izan dezakeen abiaduran.



Aurrerapen hau burutu ahal izateko, beharrezkoak dira ondoko hauek:

1) euskara ikastera doazen gazteak eta helduak ugaritzea; 2) irakasbideak hobetu eta standardizatzea; 3) irakaslegoaren prestakuntzan saio gogor bat egitea eta; 4) Herriko erakunde publiko eta pribatuek mugimendu hau ekonomikoki sostenga dezatela.

Funtsezkoa da mugimendu hau euskararen normalizaziorako.

#### **4. Aho-idatzizko eta entzun-ikusizko komunikabideak**

Euskara komunikabideetan sartzeko egin diren saioen gogorragatik halere oraindik oso urrun gaude sail honetan normalizaziotik.

Bide luzea dago oraindik giteko.

Komunikabideek duten garrantzia kontutan hartuz, guztiz beharrezkoa da hor ere esfortzu sakon bat egitea, hizkuntza ofizialaren inertzia gotorra gainditzeko: asmamena eta baliabide materialak ongi bildu beharrrak daude, gure hizkuntzaren etorkizunerako hor bait dago giltzarri bat. Unibertsitate-gune sendo bat sortu beharra dago ahalbait azkarren kazetari euskaldunak sortzeko: haiek gabe ezingo dugu gure hizkuntzazko prentsa, irratia eta telebista eratu. Oinarrizkoa da, batez ere, telebista martxan jartzea: gogoratu, izan ere, zenbateko eragina duen entzun-ikusizko medio horrek.

Erakunde publikoek berehala eratu eta bultzatu beharko lukete Euskal Telebista-Eskola bat.

Euskara normalizatzeko telebistak izan dezakeen garrantziaz gainera, hor daude inkestek ageri duten euskaldun gehiengo zabalaren nahia ere, euskara telebistan sartzekoa alegia.

#### **5. Administrazio Publikoa eta Zerbitzu Publikoak**

Euskararen egoera komunikabideetan ahula bada, ezin esan Administrazio Publikoan eta Zerbitzu Publiko desberdinetan hobea denik.

Eta, halaz ere, bere sarrera beharrezkoa eta larria da maila horietan.

Bistan dago, izan ere, euskaldunari Udaletxe eta Hauzitegian, Merkataldegi, Banku eta Aurrezki-Kutxetan, Garraio eta komunikabideetan, Osasun eta Erljio-zerbitzuetan eta Gizarte-laguntzan euskaraz erantzuteko modurik egiten ez den artean hauek berriz ere bereizkeria grabe eta onartezinaren menpe gertatuko dira.

Sarritan aipatu ohi da funtzionari eta enplegatuei euskararen eza-guera esijitzeak lekarkeen bereizkeria.

Horrela mintzo direnak, ordea, ez bide dira ohartzen epeak jartzea, eta areago epe luze arrazoizkoak direnean, ezer gutxi dela euskaldunari hainbat eta hainbat urtetan egiten zaion oker handiagoaren ondoan.

Eta grabea da berizkeria hori, bere hizkuntza betiko galtzera behar-tzen bait du.

## **HIZKUNTZ PLANGINTZA BATEN BEHARRA**

Idaroki ditugun neurriok ezin izan dira atalkakoak.

Aitzitik, ekintza-programa argi eta zentzuzko baten baitan hezurma-mitu beharrak daude.

Eta hemen, efikaziaren alorrean, plangintzaren kontuarekin egiten dugu topo. Euskararen etorkizuna ezin liteke utz borondate onaren men-de, bihozkada eta gutxi batzuren sakrifizioen esku; ez eta herri-garkizunen edo irakinaldien menpe.

Guzti hori beharrezkoa da, noski, baina ez da aski.

Euskararen etorkizuna era razional eta zientifikoz antolatu beharra dago.

Hizkuntzaren plangintzak, plangintza ororen gisa, eskakizunok dakartza:

1. Helburuen definizio argia.
2. Beharrezko medioen estudioa.
3. Lehentasunen eraketa.
4. Baliabide ekonomikoak eta giza nahiz erakunde mailakoak anto-latzea.

Normalean, plangintza boterearen goi-guneetatik egin ohi da.

Euskal herriari dagokionez, ikuskizun dago Eusko Kontseilu Nagusia erantzukizun hori beregain hartzeko beharrezko aginpide eta medioz hor-niturik gertatuko den.

Trantsizio politikozko egoera batean gaude, eta esperantza batzuk izan behar ditugu Estatu Espainoleko herri desberdinek nork bere burua gobernatzeko ahalbideren bat izango dutenaz. Ahalbidea ez zaigu, ordea, oraindik iritsi; eta Autonomiaren luze-zabalak asmatzen ere ez da orain-dik erraza.

Nolanahi ere, ordea, plangintza errealista horri ekin beharra dago gerora gabe.

Hasteko esan dezagun, baliozkoa izateko oinarriarekin kontatuz era-tu behar dela plana. Behin eta berriz azpimarratzekoa da puntu hau, eus-kara guztion kultur ondarea delako, geure hizkuntza propioa hain zuzen; guztion ahalegin gaitza eskatuko du honek: erakunde pribatu eta publi-koak, elkarte eta taldeak, politika gizarte eta kultur sailak, pertsona publiko eta partikularrak.

Gogoeta zabal bat behar litzateke Euskadi osoan, burutik burura. Ehundaka pertsona bildu beharko dira, handik edo hemendik, euskalgintzan ari direnen artean, beren sailetarako programa bereziak era ditzaten eta, eztabaida baten ondoren, *ekintza-plan* eraginkor batera biltzeko.

Beste aldetik, ezin ahaztu euskalduntzearen problema oso korapilotsua dela, hizkuntza baten berreratzeak problema asko sortzen dituelako, asko eta asko teknikoak.

Parte-hartze hori kontutan hartzekoa da, beraz: ez oinarriarena bakarrik, ordea; aitzitik, baita espezialistarena, norbanako, profesional edo talde-mailan.

Projektu hau asmo zabaleko eginkizun gisa hartu beharra dago, zientzi sail desberdinetako espezialistak eta euskalgintzan ari direnak elkarrenganatu.

Eta hori orain bertan, aldi hobeen zain egon gabe.

Honela bakarrik burutu ahal izango dugu garaiz, hain eskasean gauden denboran.

Hauxe da, hain zuzen, Euskaltzaindiak babesturiko lan-segidako bigarren ale hau irakurleak eskuratzean prestatzen ari garen hirugarren estudioari gure aldetik egin nahi diogun eskaintza.

# UDAL LURRALDEEN BANAKUNTZA ESKUALDEKA

(Zerrenda hontako zenbakuntza ondoko mapakoarekin bat dator)

## A R A B A

### AIALA

- 1 Okendo (Oquendo)
- 2 Laudio (Llodio)
- 3 Atzeniaga (Arceniega)
- 4 Aiala (Ayala)
- 5 Amurrio (Amurrio)
- 6 Lezama (Lezama)
- 7 Orduña (Orduña)
- 8 Arrastaria (Arrastaria)

### GORBEIALDEA

- 1 Aramaio (Aramayona)
- 2 Legutio (Villarreal de Alava)
- 3 Zigoitia (Cigoitia)
- 4 Zuia (Zuya)
- 5 Urkabustaiz (Urcabustaiz)

### GOBIA

- 1 Balderejo (Valdegovia)
- 2 Baldegobia (Valdegovia)
- 3 Iberguenda (Bergüenda) (1)
- 4 Iberguenda (Bergüenda) (1)

### OSINGAIN

- 1 Kuartango (Cuartango)
- 2 Herribera garaia (Ribera Alta)
- 3 Gesalaga (Salinas de Añana) (1)
- 4 Herribera garaia (Ribera Alta)
- 5 Salzedo (Salcedo)
- 6 Herribera beheko (Ribera Baja)

### UDA

- 1 Armigona (Armiñón)
- 2 Berandi (Berantevilla)
- 3 Zenbrana (Zambrana)
- 4 Zenbrana (Zambrana)
- 5 Buradongo-Gatzaga (Salinas de Burandón)
- 6 Bastida (Labastida)
- 7 Hurizaharra (Peñacerrada)
- 8 Pipaona (Pipaon)
- 9 Arluzea (Arlucea)
- 10 Markiniz (Marquinez)
- 11 Arluzea (Arlucea)
- 12 Trebiñoko konterria (Condado de Trebiño)
- 13 Argantzun (Arganzón)

### ARABAKO-ERRIOXA

- 1 Leza (Leza)
- 2 Samaniego (Samaniego)
- 3 Billabuena (Villabuena de Alava)
- 4 Nabarida (Navaridas)
- 5 Baños de Ebro (Baños de Ebro)
- 6 Zieko (Elciego)
- 7 La Puebla de la Barca (La Puebla de la Barca)
- 8 Biasteri (Laguardia)
- 9 Moreta (Moreda de Alava)
- 10 Oion (Oyón)
- 11 Labraza (Labraza)
- 12 Orrubusu (Barriobusto)
- 13 Iekora (Yécora)
- 14 Lantziego (Lanciego)
- 15 Elbillar (Elvillar)
- 16 Kiripan (Cripán)
- 17 Biasteri (Laguardia)

### MENDEBALEKO-LAUTADA

- 1 Arrantzua-Ubarrundia (Arrazua-Ubarrundia)
- 2 Gasteiz (Vitoria)
- 3 Foronda (Foronda)
- 4 Otoeta (Los Huestos)
- 5 Mendotza (Mendoza)
- 6 Iruña (Iruña)
- 7 Langrares (Nanclares de la Oca)

### EKIALDEKO-LAUTADA

- 1 Barrundia (Barrundia)
- 2 San Millan (San Millán) (1)
- 3 San Millan (San Millán) (1)
- 4 Zaldondo (Zaldondo) (1)
- 5 Zaldondo (Zaldondo) (1)
- 6 Asparrena (Asparrena) (1)
- 7 Burlegu (El Burgo) (1)
- 8 Burlegu (El Burgo) (1)
- 9 Dulantzi (Alegria de Alava) (1)
- 10 Dulantzi (Alegria de Alava) (1)
- 11 Dulantzi (Alegria de Alava) (1)
- 12 Gaona (Gauna)
- 13 Agurain (Salvatierra) (1)
- 14 Agurain (Salvatierra) (1)
- 15 Agurain (Salvatierra) (1)
- 16 Agurain (Salvatierra) (1)

(1) Herri berdina

**Iturria:** *Lur eta gizon, Euskal Herria*, J. L. Lizundia. "Jakin", Arantzazu, 1974.

## BIZKAIA

### ENKARTAZIOETA

- 1 Lanestosa (Lanestosa)
- 2 Karrantza (Carranza)
- 3 Iturriotz (Trucíos) (1)
- 4 Iturriotz (Trucíos) (1)
- 5 Artzentaliz (Arcentales)
- 6 Sopuerta (Sopuerta)
- 7 Galdoniz (Galdames)
- 8 Balmaseda (Valmaseda)
- 9 Zaila (Zalla)
- 10 Gueñiz (Güeñes)
- 11 Gordexola (Gordejuela)

### BILBO HANDIA

- 1 Muskiz (Musques)
- 2 Abanto Zierbana (Abanto y Ciérvana)
- 3 Santurtzi (Santurce)
- 4 Getxo (Guecho) (1)
- 5 Getxo (Guecho) (1)
- 6 Berango (Berango)
- 7 Lejona (Lejona)
- 8 Portuaidea (Portugaleta)
- 9 Sestao (Sestao)
- 10 Losua (Lujua -Bilbao-)
- 11 Derio (Derio -Bilbao-)
- 12 Zamudio (Zamudio -Bilbao-)
- 13 Lezama (Sta. M.ª de Lezama)
- 14 Larrabetzua (Larrabezúa)
- 15 Ortuella (Ortuella)
- 16 Trapaga (San Salvador del Valle)
- 17 Barakaldo (Baracaldo)
- 18 Bilbo (Bilbao)
- 19 Sondika (Sondica -Bilbao-)
- 20 Etxebarri (Echévarri)
- 21 Basauri (Basauri)
- 22 Galdakao (Gaidácano)
- 23 Arrigorriaga (Arrigorriaga)
- 24 Zaratamo (Zarátamo)

### URIBE BUTROE

- 1 Sopelana (Sopelana)
- 2 Barrika (Barrica)
- 3 Górliz (Górliz)
- 4 Lemoniz (Lemóniz)
- 5 Maruri (Maruri) (1)
- 6 Bakio (Baquio) (1)
- 7 Urdulitz (Urdúliz) (1)
- 8 Plentzia (Plencia) (1)

- 9 Laukinitz (Lauquíniz) (1)
- 10 Gatika (Gatica) (1)
- 11 Maruri (Maruri) (1)
- 12 Mungia (Mungúa)
- 13 Meñaka (Meñaca)
- 14 Arrieta (Arrieta)
- 15 Fruniz (Frúniz)
- 16 Gamiz-Fika (Gámiz-Fica)
- 17 Morga (Morga)

### BUSTURIA

- 1 Bermeo (Bermeo)
- 2 Mundaka (Mundaca)
- 3 Sukarrieta (Pedernales)
- 4 Elantxobe (Elanchove)
- 5 Ibarrangelua (Ibarrangelua)
- 6 Ea (Ea)
- 7 Murueta (Murueta -Guernica-)
- 8 Arteaga (Gautegiz de Arteaga)
- 9 Ereño (Ereño)
- 10 Forua (Forua -Guernica-)
- 11 Errigoitia (Rigoitia)
- 12 Kortezubi (Kortezubi -Guernica-)
- 13 Nabarniz (Navárniz -Guernica-)
- 14 Gernika (Guernica y Luno)
- 15 Arratzua (Arrazua -Guernica-)
- 16 Muxika (Múgica)
- 17 Mendata (Mendata)
- 18 Gorozika (Gorocica -Múgica-)
- 19 Ibarruri (Ibarruri -Múgica-)

### LEA ARTIBAI

- 1 Ispaster (Ispáster)
- 2 Lekeitio (Lequeitio)
- 3 Mendetxa (Mendeja)
- 4 Ondarroa (Ondárroa)
- 5 Gizaburuaga (Guizaburuaga)
- 6 Amoroto (Amoroto)
- 7 Berriatua (Berriátua)
- 8 Murelaga (Murélaga)
- 9 Markina (Marquina) (1)
- 10 Markina (Marquina) (1)
- 11 Etxebarria (Echevarría) (1)
- 12 Etxebarria (Echevarría) (1)
- 13 Mallabia (Mallavia)
- 14 Zenarrotza (Cenarruza -Marquina-)
- 15 Arbazegi Gerrikaitz (Arbacegui y Guerricaiz)

(1) Herri berdina

## DURANGALDEA

- 1 Zornotza (Amorebieta)
- 2 Durango (Durango)
- 3 Garai (Garay)
- 4 Mallabia (Mallavia)
- 5 Ermua (Ermua)
- 6 Zaldibar (Zaldibar)
- 7 Izurza (Izurza)
- 8 Mañaria (Mañaria)
- 9 Abadiño (Abadiano)
- 10 Atxondoko Arana (Valle de Achondo)
- 11 Elorrio (Elorrio)
- 12 Berriz (Bérriz)

## ARRATIA-NERBIOI

- 1 Zollo (Zollo -Arrancudiaga-)
- 2 Ugao (Miravalles)
- 3 Arrankudiaga (Arrancudiaga)
- 4 Zeberio (Ceberio)
- 5 Bedia (Vedia)
- 6 Lemona (Lemona)
- 7 Igorre (Yurre)
- 8 Arantzazu (Aránzazu)
- 9 Gaztelu Etxabeitia (Castillo y Elejabeitia)
- 10 Dima (Dima)
- 11 Orozko (Orozco)
- 12 Areatza (Villaro)
- 13 Zeanuri (Ceánuri)
- 14 Ubidea (Ubidea)
- 15 Otxandio (Ochandiano)

## GIPUZKOA

### DEBA-EGO

- 1 Motriko (Motrico)
- 2 Deba (Deva)
- 3 Elgoibar (Elgóibar)
- 4 Eibar (Eibar)
- 5 Soraluze (Placencia)

- 10 Zestona (Cestona)
- 11 Aizarnazabal (Aizarnazabal)
- 12 Aia (Aya)
- 13 Zarauz (Zarauz)
- 14 Zumaia (Zumaya)
- 15 Getaria (Gueteria)

### DEBA-LENITZ

- 1 Elgeta (Elgueta)
- 2 Bergara (Vergara)
- 3 Antzuola (Anzuola)
- 4 Arrasate (Mondragón)
- 5 Oinati (Oñate)
- 6 Arretxabaleta (Arechabaleta)
- 7 Eskoriatza (Escoriaza)
- 8 Lenitz-Gatzaga (Salinas de Léniz)

### DONOSTIBALDEA

- 1 Donostia (San Sebastián)
- 2 Orío (Orío)
- 3 Usurbil (Usúrbil)
- 4 Urnieta (Urnieta)
- 5 Hernani (Hernani) (1)
- 6 Hernani (Hernani) (1)
- 7 Hernani (Hernani) (1)

### UROLALDEA

- 1 Legazpia (Legazpia)
- 2 Urretxu (Villarreal de Urrechua)
- 3 Zumárraga (Zumárraga)
- 4 Azpeitia (Azpeitia)
- 5 Beizama (Beizama)
- 6 Bidegoian (Bidegoyan) (1)
- 7 Bidegoian (Bidegoyan) (1)
- 8 Errezil (Regil)
- 9 Azkoitia (Azcoitia)

### OIARTZUALDEA

- 1 Hondarrabia (Fuenterrabía)
- 2 Irun (Irún)
- 3 Pasai (Pasajes)
- 4 Lezo (Lezo)
- 5 Oiartzun (Oyartzun)
- 6 Errenteri (Rentería)

### GOIHERRI

- 1 Ezkioga-Itxaso (Ezquioga-Ichaso)
- 2 Beasain (Beasain)

(1) Herri berdina

- 3 Itsasondo (Isasondo)
- 4 Ordizia (Villafranca de Ordizia)
- 5 Alzaga (Alzaga -Isasondo-)
- 6 Gaintza (Gainza)
- 7 Gabiria (Gaviria)
- 8 Ormaiztegi (Ormaiztegui)
- 9 Olaberria (Olaberria)
- 10 Lazkao (Lazcano)
- 11 Zaldibia (Zaldivia)
- 12
- 13 Mutiloa (Mutiloa)
- 14 Zerain (Cerain)
- 15 Zegama (Cegama)
- 16 Idiazabal (Idiazábal)
- 17 Ataun (Atáun)
- 18 Segura (Segura)

### TOLOSALDEA

- 1 Zizurkil (Cizurquil)
- 2 Aduna (Aduna)
- 3 Andoain (Andoain)
- 4 Asteasu (Asteasu)
- 5 Larraul (Larraul)
- 6 Alkitza (Alquiza)

- 7 Anoeta (Anoeta)
- 8 Billabona (Villabona)
- 9 Berrobi (Berrobi)
- 10 Elduaien (Elduayen)
- 11 Albistur (Albistur)
- 12 Hernialde (Hernialde)
- 13 Tolosa (Tolosa)
- 14 Ibarra (Ibarra)
- 15 Belauntza (Belaunza)
- 16 Berastegi (Berastegui)
- 17 Leaburu (Leaburu-Gaztelu)
- 18 Gaztelu (Leaburu-Gaztelu)
- 19 Legorreta (Legorreta)
- 20 Ikaztegieta (Icaztegieta -Iruerrieta-)
- 21 Alegi (Alegria de Oria)
- 22 Altzo (Alzo)
- 23 Lizartza (Lizarza)
- 24 Orexa (Oreja)
- 25
- 26 Baliarrain (Baliarrain -Iruerrieta-)
- 27 Orendain (Orendain -Iruerrieta-)
- 28 Abaltzisketa (Abalcisqueta)
- 29 Amezqueta (Amezqueta)
- 30
- 31 Bedaio -Tolosa- (Bedayo -Tolosa-)

## NAFARROA GARAIA

### ORGA

- 1 Untzue (Unzue)
- 2 Oloritz (Oloriz)
- 3 Leotz (Leoz)
- 4 Berasoain (Berasoain)
- 5 Garinoain (Garinoain)
- 6 Orisoain (Orisoain)
- 7 Puello (Puello)
- 8 Sansoain (Sansoain)
- 9 Tafalla (Tafalla)

### ELORTZ-ESTERIBAR

- 1 Esteribar (Esteribar)
- 2 Uharte (Huarte)
- 3 Egues (Egüés)
- 4 Aranguren (Aranguren)
- 5 Elortz (Elorz)
- 6 Unziti (Unciti)
- 7 Elo (Monreal)

- 8 Tiebas (Tiebas)
- 9 Ibargoiti (Ibargoiti)

### LONGIDA

- 1 Artzibar (Arce)
- 2 Lizoain (Lizoain)
- 3 Izagaondoia (Izagaondoia)
- 4 Urroz (Urruz)
- 5 Longida (Longuida) (1)
- 6 Agoitz (Aoiz)
- 7 Izagaondoia (Izagaondoia)

### BIANALDEA

- 1 Lapoblacion (Lapoblación)
- 2 Marañon (Marañón)
- 3 Cabredo (Cabredo)
- 4 Uxanabilla (Genevilla)
- 5 Arnotegi (Arnotegui)
- 6 Azuelo (Azuelo)

(1) Herri berdina

- 7 Torralba (Torralba)
- 8 Esprontzeta (Espronceda)
- 9 Desojo (Desojo)
- 10 Urantzia (Los Arcos)
- 11 Elbusto (Elbusto)
- 12 Sansol (Sansol)
- 13 Armañantza (Armañanzas)
- 14 Bargota (Bargota)
- 15 Aras (Aras)
- 16 Biana (Viana)
- 17 Torres (Torres del Río)
- 18 Lazagurria (Lazagurria)

#### EGA BEHERA

- 1 Mendabia (Mendavia)
- 2 Sesma (Sesma)
- 3 Lerin (Lerin)
- 4 Lodosa (Lodosa)
- 5 Karakarre (Carcar)
- 6 Sartaguda (Sartaguda)
- 7 Andosilla (Andosilla)
- 8 San Adrián (San Adrián)
- 9 Azagra (Azagra)

#### ARGA BEHERA

- 1 Mendigorria (Mendigorría)
- 2 Artaxona (Artajona)
- 3 Larraga (Larraga)
- 4 Berbintzana (Berbinzana)
- 5 Arga Miranda (Miranda de Arga)
- 6 Falzes (Falces)
- 7 Azkoien (Peralta)
- 8 Funes (Funes)

#### ARAGOIBAR

- 1 Karkastelu (Carcastillo)
- 2 Murillo-Fruto (Murillo el Fruto)
- 3 Santakara (Santacara)
- 4 Melida (Melida)
- 5 Murillo-Kuende (Murillo el Cuende)
- 6 Kaparrotsu (Caparroso)
- 7 Martzilla (Marcilla)
- 8 Alesnes (Villafranca)
- 9 Milagro (Milagro)

#### ALHAMA ARROA

- 1 Korella (Corella)
- 2 Zintroneko (Cintruenigo)
- 3 Fitero (Fitero)

#### KEILES

- 1 Murtxante (Murchante)
- 2 Kaskante (Cascante)
- 3 Tulebras (Tulebras)
- 4 Mendizorrotza (Monteagudo)
- 5 Barillas (Barillas)
- 6 Ablitas (Ablitas)

#### ERRONKARI-ZARAITZU

- 1 Burgi (Burgui)
- 2 Galloze (Gallués)
- 3 Garde (Garde)
- 4 Erronkari (Roncal)
- 5 Urzainki (Unzainqui)
- 6 Bidangoze (Vidangoz)
- 7 Guetza (Güesa)
- 8 Sartze (Sarriés)
- 9 Espartza (Esparza)
- 10 Orontz (Oronz)
- 11 Eskarotze (Escaroz)
- 12 Jaurrieta (Jaurrieta)
- 13 Izaltzu (Izalzu)
- 14 Otsagabia (Ochagavia)
- 15 Uztarrotze (Uztarroz)
- 16 Isaba (Isaba)

#### ERRO-AIEZKOA

- 1 Abaurregaina (Abaurrea Alta)
- 2 Abaurrepea (Abaurrea Baja)
- 3 Garaioa (Garayoa)
- 4 Oroz-Betelu (Oroz-Betelu)
- 5 Iriberry (Villanueva de Aezcoa)
- 6 Aribe (Arive)
- 7 Garralde (Garralda)
- 8 Aria (Aria)
- 9 Orbara (Orbara)
- 10 Orbaizeta (Orbaiceta)
- 11 Orreaga (Roncesvalles)
- 12 Auritze (Burguete)
- 13 Erro (Erro)
- 14 Luzaide (Valcarlos)

#### ULTZAMALDEA

- 1 Ultzama (Ulzama)
- 2 Lantz (Lanz)
- 3 Anue (Anué)
- 4 Atez (Atez)
- 5 Odieta (Odieta)
- 6 Olaibar (Olaibar)
- 7 Ezkabarte (Ezcabarte)
- 8 Txulapain (Juslapeña)



## IRUIÑERRIA

- 1 Iza (Iza)
- 2 Ansoain (Ansoain)
- 3 Artarrabia (Villaba)
- 4 Oltza (Olza)
- 5 Iruinea (Pamplona)
- 6 Zizur (Cizur)
- 7 Galar (Galar)

## ILTZARBE-ETXAURI

- 1 Biurrun-Olkoz (Biurrun-Olkoz) (1)
- 2 Biurrun-Olkoz (Biurrun-Olkoz) (1)
- 3 Tirapu (Tirapu)
- 4 Añorbe (Añorbe)
- 5 Ukar (Ucar)
- 6 Eneritz (Eneritz)
- 7 Obanos (Obanos)
- 8 Muruzabal (Muruzábal)
- 9 Adios (Adiós)
- 10 Uterga (Uterga)
- 11 Legarda (Legarda)
- 12 Gares (Puente la Reina)
- 13 Zabaltza (Zabalza)
- 14 Bidaurreta (Vidaurreta)
- 15 Belaskoain (Belascoain)
- 16 Etxarri (Echarri)
- 17 Ziritza (Ciriza)
- 18 Etxauri (Echauri)
- 19 Ollo (Ollo)

## LIZARRA-IGUZKITZA

- 1 Iguzkitza (Iguisquiza)
- 2 Aiegi (Ayegui)
- 3 Lizarra (Estella)
- 4 Billatuerta (Villatuerta)
- 5 Oteitza (Oteiza)
- 6 Aberin (Aberin)
- 7 Morentiain (Morentiain)
- 8 Areiano (Arellano)
- 9 Lukin (Luquin)
- 10 Deio (Villamayor de Monjadin)
- 11 Barbarin (Barbarin) (1)
- 12 Barbarin (Barbarin) (1)
- 13 Arronitz (Arroniz)
- 14 Deigaztelu (Dicastillo)
- 15 Allo (Allo)

## HERRI-BERRI

- 1 San Martin Unx (San Martín de Unx)
- 2 Uxue (Ujue)

(1) Herri berdina

- 3 Beire (Beire)
- 4 Herriberri (Olite)
- 5 Pitillas (Pitillas)

## TUTERA-HERRIBERA

- 1
- 2 Tutera (Tudela)
- 3 Kadereita (Cadreira)
- 4 Baltierra (Valtierra)
- 5 Arketa (Arguedas)
- 6 Kastejon (Castejón)
- 7 Kabanillas (Cabanillas)
- 8 Fustiñana (Fustiñana)
- 9 Fontellas (Fontellas)
- 10 Ribaforada (Ribaforada)
- 11 Buñuel (Buñuel)
- 12 Kortés (Cortés)

## AIBAR

- 1 Aiesa (Yesa)
- 2 Liedena (Liedena)
- 3 Xabier (Javier)
- 4 Sankoz (Sangüesa)
- 5 Aibar (Aibar)
- 6 Leatxe (Leache)
- 7 Ezporobi (Ezprogui)
- 8 Lerga (Lerga)
- 9 Eslaba (Eslava)
- 10 Sada (Sada de Sangüesa)
- 11 Gaipentzu (Galipienzo)
- 12 Kaseda (Caseda)
- 13

## URRAULALDEA

- 1 Urraul Garaia (Urraul-Alto)
- 2 Nabaskoize (Navascües)
- 3 Gazteluberri (Castillo Nuevo)
- 4 Romanzado (Romanzado)
- 5 Urraul behe (Urraul Bajo)
- 6 Irunberri (Lumbier)

## BAZTAN BIDASOA

- 1 Ezkurra (Ezcurrea)
- 2 Erasun (Erasun)
- 3 Saldias (Saldias)
- 4 Labaien (Labayen)
- 5 Urroz (Urroz de Santesteban)
- 6 Oitz (Oiz)
- 7 Donamaria (Donamaria)

- 8 Doneztebe (Santesteban)
- 9 Elgorriaga (Elgorriaga)
- 10 Ituren (Ituren)
- 11 Zubieta (Zubieta)
- 12 Aranatz (Aranaz)
- 13 Sunbila (Sumbilla)
- 14 Bertiz-Arana (Bertiz-Arana)
- 15 Baztan (Baztán)
- 16 Maia (Maya del Baztán)
- 17 Igantzi (Yanci)
- 18 Lesaka (Lesaca)
- 19 Bera (Vera del Bidasoa)
- 20 Etxalarre (Echalar)
- 21 Zugarramurdi (Zugarramurdi)
- 22 Urdazubi (Urdax)

### SEI HARANAK

- 1 Arano (Arano)
- 2 Goizueta (Goizueta)
- 3 Leitzza (Leiza)
- 4 Areso (Areso)
- 5 Araitz (Araiz)
- 6 Betelu (Betelu)
- 7 Larraun (Larraun)
- 8 Basaburua Nagusia (Basaburua Mayor)
- 9 Imotz (Imoz)

### SAKANA

- 1 Ziordia (Ciordia)
- 2 Olazagutia (Olazagutia)
- 3 Altsasu (Alsasua)
- 4 Urdiain (Urdiain)
- 5 Iturmendi (Iturmendi)
- 6 Bakaikoa (Bacaicoa)
- 7 Etxarri-Aranatz (Echarri-Aranaz)

- 8 Arbitzu (Arbizu)
- 9 Etxarri-Aranatz (Echarri Aranaz)
- 10 Lakuntza (Lacunza)
- 11 Arruatzu (Arruazu)
- 12 Uharte-Arakil (Huarte-Araquil)
- 13 Irañeta (Irañeta)
- 14 Arakil (Araquil)
- 15 Ergoiena (Ergoyena)

### AMEZKOA-ALLIN

- 1 Larraona (Larraona)
- 2 Aranetxe (Araneche)
- 3 Eulate (Eulate)
- 4 Amezkoa Beheko (Amezcoa Baja)
- 5 Allin (Allin)
- 6
- 7 Metauten (Metauten)

### BERROTZA

- 1 Olesua (Olesua)
- 2 Abaigar (Abaigar)
- 3 Etaio (Etaio)
- 4 Oko (Oco)
- 5 Legaria (Legaria)
- 6 Murieta (Murieta)
- 7 Antzin (Ancin)
- 8 Piedramillera (Piedramillera)
- 9 Suruslada (Sorlada)
- 10 Mues (Mues)
- 11 Mirafuentes (Mirafuentes)
- 12 Lazar (Lazar)
- 13 Mendatza (Mendaza)
- 14 Estuñiga (Zúñiga)
- 15 Lana (Lana)

## L A P U R D I

### LAPURDI ITSAS HEGIA

- 1 Hendaia (Hendaye)
- 2 Urruina (Urrugne)
- 3 Biriatsu (Biriatsu)
- 4 Askain (Ascain)
- 5 Ziburu (Ciboure)
- 6 Donibane-Lohizun (St. Jean de Luz)
- 7 Getharia (Guethary)
- 8 Bidarte (Bidart)

### LAPURDI BEHERA

- 1 Miarritze (Biarritz)
- 2 Arrangoitze (Argangues)
- 3 Basusarri (Bassussarry)
- 4 Angelu (Anglet)
- 5 Bokale (Boucau)
- 6 Baiona (Bayonne)
- 7 Hiriburu (St. Pierre d'Irube)
- 8 Urketa (Urcuit)

- 9 Lehuntze (Lahonce)
- 10 Mugerre (Mouguerre)

### ERLAPURDI

- 1 Milefrange (Villefranche)
- 2 Jatsu (Jatxou)
- 3 Halsu (Halsou)
- 4 Larresoro (Larresore)
- 5 Ustaritze (Ustaritz)
- 6 Arbona (Arbonne)
- 7 Attetze (Ahetze)
- 8 Senpere (St. Pée)

### LAPURDI GARAIA

- 1 Kanbo (Cambo)
- 2 Itsasu (Itxassou)

- 3 Luhoso (Louhossoa)
- 4 Ezpeleta (Espelette)
- 5 Zاراide (Souraide)
- 6 Ainhoa (Ainhoa)
- 7 Sara (Sara)

### LAPURDI EKALDEA

- 1 Ahurti (Urt)
- 2 Gixune eta Samatze (Guiche et Sames)
- 3 Bardoze (Bardos)
- 4 Berezkoitze (Briscous)
- 5 Hazparne (Hasparren)
- 6 Lekhuine (Bonloc)
- 7 Mendiondo (Mendionde)
- 8 Makea (Macaye)

## NAFARROA BEHERA

### BAIGORRI

- 1 Bidarra (Bidarray)
- 2 Orzaize (Osses)
- 3 Arrosa (St. Martin d'Arrosa)
- 4 Baigorri (St. Etienne de Baigorri)
- 5 Irulegi (Iruleguy)
- 6 Azkarate (Ascarat)
- 7 Anhauze (Anhauz)
- 8 Lasa (Lasse)
- 9 Banka (Banca)
- 10 Aldude (Aldudes)
- 11 Urepel (Urepel)

### GARAZI

- 1 Suhuskune (Suheskun)
- 2 Ainhize-Monjolose (Ainhice-Mongelos)
- 3 Jatsu (Jaxu)
- 4 Izpura (Ispoure)
- 5 Buztintze-Iriberry (Bustince-Iriberry)
- 6 Gamarte (Gamarte)
- 7 Lakharra (Lacarre)
- 8 Uharte-Garazi (Uhart-Cize)
- 9 Donibane-Garazi (St. Jean Pied de Port)
- 10 Donazarre (St. Jean le Vieux)
- 11 Duzunaritze-Sarrasketa (Bussunarits-Sarrasquette)
- 12 Zaro (Çaro)
- 13 Aintsila (Aincille)
- 14 Ahatsa-Alzietia-Bazkazane (Ahaxe-Alciette-Bascassan)

- 15 Behorlegi (Behorleguy)
- 16 Mendibe (Mendive)
- 17 Lekunberri (Lecumberry)
- 18 Etereziubi (Esterencuby)
- 19 Eihalarre (St. Michel)
- 20 Arnegi (Arneguy)

### ARBELA

- 1 Bastida (La Bastide-Clairence)
- 2 Aiherra (Ayherre)
- 3 Isturitze (Isturits)
- 4 Heleta (Helette)
- 5 Donestiri (St. Esteben)
- 6 Donamartiri (St. Martin)
- 7 Mehaine (Meharin)
- 8 Armendaritze (Armendarits)
- 9 Iholdi (Iholdy)
- 10 Irisarri (Irisarry)

### OSTIBARRE

- 1 Landibarre (Lantabat)
- 2 Izura-Azme (Ostabat-Asme)
- 3 Arhantsusi (Arhansus)
- 4 Larzabale-Arroze-Zibitze (Larceua-Arros-Cibits)
- 5 Jutsi (Juxue)
- 6 Ibarrola (Ibarrole)
- 7 Buruze (Bunus)
- 8 Donaixti-Ibarre (St. Just Ibarre)
- 9 Hozta (Hosta)

## AMIKUZE

- 1 Akamarre (Came)
- 2 Akamarre (Came)
- 3 Bidaxune (Bidache)
- 4 Oragarre (Oregue)
- 5 Arruta-Sarrikota (Arraute-Charrite)
- 6 Erango, Burge, Erreiti (Aracou-Bergouey-Villenave)
- 7 Erango, Burge, Erreiti (Aracou-Bergouey-Villenave)
- 8 Ilharre (Ilharre)
- 9 Martxuta (Masparraute)
- 10 Labetze-Bizkai (Labets-Biskay)
- 11 Amоротze-Sokhozu (Amorots-Succos)
- 12 Behauze (Beguios)

- 13 Alzumarta-Lukuze (Luxe-Sumberraute)
- 14 Donapaleu (Saint Palais)
- 15 Amenduzue-Unaso (Amendeux-Oneix)
- 16 Gabaldi (Gabat)
- 17 Kamou-Zuhasti (Camou-Sohats)
- 18 Arboti-Zohota (Arbouet-Sussaute)
- 19 Aiziritze (Aicirits)
- 20 Arberatze-Zilhekoa (Arberats-Silleque)
- 21 Mitxirina (Beyrie)
- 22 Donapaleu (St. Palais)
- 23 Ostankoa (Orsanco)
- 24 Behazkame-Laphizketa (Behasque-Lapiste)
- 25 Larribarre-Sorhapuru (Larribar-Sorhapuru)
- 26 Uharte-Hiri (Huart-Mixe)

## ZUBEROA

### BASABURIA

- 1 Barkoxe (Barcus)
- 1 Iruri (Trois Villes)
- 3 Atharratze-Sorholuze (Tardets-Sorholus)
- 4 Aloze-Zihoze-Omize Gainia (Alos-Sibas-Abense le Haut)
- 5 Gamere-Zihia (Comou-Cihigue)
- 6 Lexantzu-Zunharre (Lichans-Sunharre)
- 7 Hauze (Haux)
- 8 Montori (Montory)
- 9 Laginaga-Asue (Laguingue-Restoue)
- 10 Ligi-Atherei (Licq-Atherey)
- 11 Etxebarre (Etchebar)
- 12 Lakarri-Sarrikota Gainia Arhane (Lacarry-Charrite de Haux-Arhan)
- 13 Altzai-Alzabeheti-Zunharreta (Alçay-Alçabehety-Sunharrette)
- 14 Larraine (Larrau)
- 15 Santagrazi (Ste. Engrace)

### ARBAILLA

- 1 Pagola (Pagolle)
- 2 Muskildi (Musculdy)
- 3 Urdinarbe (Ordiarp)
- 4 Garindaine (Garindein)
- 5 Gotaine-Iribarne (Gotain-Libarreux)
- 6 Idauze-Mendi (Idaux-Mendy)
- 7 Mendikota (Menditte)

- 8 Zalgize-Donaztebe
- 9 Ozaze-Zuhara (Ossas-Suhare)
- 10 Arrokiaga (Roquiague)
- 11 Alzuruku (Aussurucq)


### PETARRA

- 1 Oseraine-Erribareita (Osserain-Rivareyte)
- 2 Etxarri (Etcharry) (1)
- 3 Etxarri (Etcharry) (1)
- 4 Domintxaine-Berhueta (Domezain-Ber-raute)
- 5 Arube-Ithorrotze-Olhaibi (Arove-Ithorrots-Olhaiby) (1)
- 6 Arube-Ithorrotze-Olhaibi (Arove-Ithorrots-Olhaiby) (1)
- 7 Lohitzune-Oihargi (Lohitzun-Ohiercq)
- 8 Sarrikotapia (Charrite de Bas)
- 9 Urrextoi-Larrabile (Arrats-Larrabieu) (1)
- 10 Urrextoi-Larrabile (Arrats-Larrabieu) (1)
- 11 Ainharbe (Ainharp)
- 12 Ezpeize-Undureine (Espes-Undurein)
- 13 Mithikili-Larriori-Mendibile (Moncayole-Larriori-Mendibieu)
- 14 Ospitale Pia (L'Hopital Saint Blaise)
- 15 Bildoze-Omize Pia (Viodos-Abense de Bas)
- 16 Berrogaine-Lahuntze (Berrogain-Lar-runs)
- 17 Maule-Lextarre (Mauleon-Licharre)
- 18 Sohuta (Cheraute)

(1) Herri berdina


EUSKAL HERRIKO MAPA

UDAL-LURRALDEEN BANAKETA ESKUALDEKA




# EUSKAREN LEHEN LURRALDEAK


(URBILEKO MAPA)



# EUSKARA HARO MODERNOAN



# EUSKARA NAJARROAN





ITURRIA: A. IRIGARAY, SANCHEZ CARRION  
EGILEA: J. INTXAUSTI



**EUSKARA ARABAN**  
 (BERE ATZERAPENA XIII. GIZALDITIK 1950. URTERA ARTE)  
 ODOAN APRAIZ- EK EGINA

GASTEIZ 1953


EFAD - 1972 - CALCADO  
 J. M. Bernardo Ruiz de Azúa



**SIGNOS CONVENCIONALES**


- ▬ LIMITE DE ROMA
- ▬ ZONA BILINGUE
- ▬ LIMITE DE PROVINCIAS ACTUALES
- ▬ RIOS
- URBES
- PUEBLO
- AYUNTAMIENTO
- ▬ ZUYA

# HIZKUNTZ AREA




- Area Euskalduna
- Ukipen-area
- Area gaztelaniaztatua

# EUSKALDUNEN % ESKUALDEKA




- 80 - 100 %
- 60 - 80 %
- 40 - 60 %
- 20 - 40 %
- 0 - 20 %

**EUSKALDUNEN BANAKUNTZA**  
**(UDAL-LURRALDEKA)**




- 80 - 100 %
- ▨ 60 - 80 %
- ▩ 40 - 60 %
- ▧ 20 - 40 %
- ▦ 0 - 20 %
- ▧ Hiriguneak


I. ESTRATOA: % 80-100 EUSKALDUN



II. ESTRATOA: % 60-80 EUSKALDUN



III. ESTRATOA: % 40-60 EUSKALDUN



IV. ESTRATOA: % 20-40 EUSKALDUN

